# DEBA 1936-1945

II. Liburukia
Volumen II

## Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

## *Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*





**Iraitz Arizabaleta Gantxegi**
(Bergara, 1990)

Historian Lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (2013) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra duena. Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria.

Licenciado en Historia por la Universidad del País Vasco (2013) y con un máster universitario en habilitación docente para el ejercicio de las profesiones de profesor de Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanza de Idiomas. Investigador de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

*Mendi eze, ikurrin eder,*
*aske nahi zaitut axian.*
*Amar gazteren lerdena*
*makila luzez bidian.*

*Mendi-bitxidor berdiok,*
*arin or duaz kantari:*
*"Dana emon biyar yako*
*maite den askatasunari".*

*Gaztedi honen didarra*
*bai dala didar zolija!*
*Aberri baten samiñez*
*urduri dabil erija.*

*Askatasun-goxalderuntz*
*sugarra dira basuak.*
*Sugarra basuak eta*
*zidar argija itxasuak.*

*Or duan ozte-aldrea*
*aberri-miñez kantari!:*
*"Dana emon biar yako*
*maite den azkatasunari".*

*Gazte horreik goruntz duaz*
*abesti ta ikurriñez.*
*Lañuan baña tiro hotsak:*
*bedartza dager odolez.*

*Ikaraz duaz usuak,*
*mendija dago ixillean.*
*Hamar gazteren lerdena*
*bixitza barik lurrean!*

*Eta illuntzeko bakian*
*norbaitek darrai kantari:*
*"Dana emon biar yako*
*maite dan azkatasunari"!*

**Estepan Urkiaga Basaraz "Lauaxeta".**



# DEBA

Matxinada eta diktadura frankistaren errepresioa pairatu zuten debarrei eta Euskal Herriaren askatasunaren eta Errepublikaren alde borrokatu zutenei eskaintzen zaie liburu hau.

A todas las personas de Deba que sufrieron la sublevación militar y la posterior represión franquista durante décadas de dictadura. A aquellas personas que lucharon por las libertades del pueblo vasco y por la República.

Sustatzailea
Promotor

DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
*Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia*
*Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
*Dirección de Víctimas y Derechos Humanos*

# DEBA
## 1936-1945

Giza eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan
Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

Iraitz Arizabaleta

Deba 2019

aranzadi
zientzia elkartea

**PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO**
Javi Buces, Juantxo Agirre-Mauleon.

**IKERLARI KOLABORATZAILEAK / PERSONAL INVESTIGADOR COLABORADOR**
Karlos Almorza, Javi Buces, Iñaki Egaña, Francisco Etxeberria, Miren García, Marijose Hernández, Lourdes Herrasti, Rebeca Martínez, Olatz Retegi, Amaia Rodriguez, Maider Urretabizkaia.

**ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS**
Ikerketa honetarako testigantza eta dokumentazioarekin lagundu duten guztioi: Debako udal langileei, Debako udal talde politikoei, Sabino Arana Fundazioari eta Euskal Memoriari. / A todas las personas que han prestado sus testimonios, documentación y han colaborado en esta investigación; al personal del Ayuntamiento de Deba, a los grupos políticos municipales de Deba, Fundación Sabino Arana y Euskal Memoria.

**DIGITALIZAZIOA / DIGITALIZACIÓN**
Ana Isabel Rodríguez, Aranzadiko Artxibo Orokorra.

**EDUKIAREN ZUZENTZAILEA / REVISIÓN DE CONTENIDOS**
Karlos Almorza.

**AZALEKO ARGAZKIA / IMAGEN DE PORTADA**
Florencio Marquieguiren agur eskutitza (Xabier Berasaluce Marquieguik utzia) / Carta de despedida de Florencio Marquiegui (cedida por Xabier Berasaluce Marquiegui); Leocadio Iriondoren frontean zauritua izan eta geroko ospitaleko dokumentua (Karmele Irastorza Lizarzaburu eta Asuncion Iriondo Lizarzaburuk utzia) / Documento del hospital de Leocadio Iriondo, después de ser herido en el frente (cedida por Karmele Irastorza Lizarzaburu y Asuncion Iriondo Lizarzaburu); Maria Gonzalez Alonsoren espetxeko fitxa (AGA) / Fitxa penitenciaria de Maria Gonzalez Alonso (AGA); Jose Maria Irusta Mugarza (Alex Turrillas Arantzetaren bloga, Irusta Urain familiak utzitako argazkiak) / (Blog de Alex Turrillas Arantzeta, fotografías cedidas por la familia Irusta Urain); Miguel del Rio Germani espetxean ateratako argazkia (AIRMN, 2068 sumario arrunta) / Fotografía de prisión de Miguel del Rio German (AIRMN, sumario ordinario 2068).

**ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA**. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www.aranzadi.eus

Egilea / Autor
Iraitz Arizabaleta Gantxegi, Aranzadi Zientzia Elkarteko Ikerlaria.

Itzulpena / Traducción
Asier Olazabal

Maketazioa / Maquetación
TamTam S.L.

Inprimategia / Imprime
Gráficas Iratxe, S.A.

ISBN 978-84-17713-12-6 (O.C.)
ISBN 978-84-17713-13-3 (I. liburukia)
ISBN 978-84-17713-14-0 (II. liburukia)

L.G. / D.L. SS 648-2019

# Aurkibide orokorra
## Índice general

**4. ERREPRESIOA DEBAN ETA DEBARREN AURKA LEHEN FRANKISMOAN / LA REPRESIÓN EN DEBA Y CONTRA LOS DEBARRAS DURANTE EL PRIMER FRANQUISMO** .......... **09**

**4.6. Emakumeen aurkako errepresioa / La represión contra las mujeres** .......... **10**

Saturraraneko emakumeen kartzela eta Deba / La cárcel de mujeres de Saturraran y Deba .......... 22

Emakumeen beste espetxeren batean preso egon zirenak / Las que estuvieron en otras cárceles para mujeres .......... 35

**4.7. Gerrako preso debarrak / Presos de guerra debarras** .......... **37**

Langileen Batailoiak eta Kontzentrazio Esparruak / Batallones de trabajadores y campos de concentración .......... 40

Auzitegi militar frankistek epaitutako debarrak / Debarras juzgados por juzgados militares .......... 57

**4.8. Baldintzapeko askatasunaren batzordea / Junta de libertad condicional** .......... **148**

**5. LEKUKOTZAK / TESTIMONIOS** .......... **167**

**ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA / FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA** .......... **211**

**Falangearen Sección Femeninaren ekitaldi bat, Urquiri hotelean. /**
**Acto político de la Sección Femenina de la Falange en el hotel Urquiri.**
(Kutxa Fototeka).



# 4.

# Errepresioa Deban eta Debarren aurka Lehen Frankismoan

## La represión en Deba y contra los debarras durante el Primer Franquismo

## 4.6. EMAKUMEEN AURKAKO ERREPRESIOA

Emakumeen aurkako errepresioa askotan ahaztua izan ohi da edota bigarren maila batean geratzen da, baina gainontzeko herritar guztiak bezala pairatu zuten errepresioa, askotan modu krudelago batean, herrian geratzen zirenak izan ohi baitziren.

Debako emakume ugari izan ziren beraien familia eta seme-alabekin batera, Bizkaia aldera ihes egin zutenak eta asko ere Frantziako Estatura edota Kataluniara iritsi zirenak errepresioaren beldur. Beste asko, ume txikiak edota gainontzeko familia zaintzeko herrian geratu ziren eta honen ondorioz errepresioa eta zapalkuntza pairatu behar izan zituzten. Horietako askok, X pertsonaren alaba edota ama izateagatik errepresio bortitza jasan zuten, jakingo balute espero zutena altxatuek herria hartu eta gero segur aski beraien senideen bidea hartuko lukete Bizkaia aldera.

## 4.6. LA REPRESIÓN CONTRA LAS MUJERES

La represión contra las mujeres muchas veces suele quedar olvidada o en un segundo plano. Pero las mujeres sufrieron la represión como los demás ciudadanos, muchas veces con más crueldad, porque solían ser las que se quedaban en el pueblo.

Fueron muchas las mujeres de Deba las que escaparon hacia Bizkaia con su familia e hijos, y muchas también las que llegaron al Estado francés o Cataluña por miedo a la represión. Otras muchas se quedaron en el pueblo a cuidar críos pequeños u otros familiares, y por eso tuvieron que sufrir la represión y la opresión. Muchas de ellas sufrieron la cruda represión por ser hija o madre de la persona X. Si hubieran sabido lo que les esperaba después de que los sublevados tomaran el pueblo, seguramente habrían tomado el mismo camino hacia Bizkaia como sus familiares.



**Emakumeak familia sostengatzeko oinarri bilakatu ziren gerra garaian.** (Euskal Memoria). / **Las mujeres fueron el sostén de la familia durante la guerra.** (Euskal Memoria).

Emakumeen aurkako errepresio modu ohikoena erbestea aplikatzea izan zen. Asko eta asko herriko autoritate frankistek erbesteratu zituzten, beraien sendikoren batek herritik ihes egin zuelako. Deban, bi familia izan ziren herritik kanporatuak Elosua Aguirretarrak eta Elosua Corostolatarrak. Aguirregabiria Aizpurua familiaren kasuan, mehatxatuak izan ziren baina amak erabaki zuen azken muturrera arte iraungo zutela herrian[500]. Ondoren, erantzukizun politikoen

El modo de represión más habitual contra las mujeres era aplicar el exilio. Muchas de ellas fueron desterradas por las autoridades franquistas porque algún familiar se había escapado del pueblo. En Deba hubo dos familias que fueron expulsadas: los Elosua Aguirre y los Elosua Corostola. En el caso de la familia Aguirregabiria Aizpurua también hubo amenazas, pero la madre decidió que aguantaría en el pueblo hasta el límite[500]. Más tarde, aplicando la ley de res-

[500] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

legea aplikatuz, errepresio ekonomiko eta erbestealdi berri bat aplikatu zitzaien Debako herritarrei eta berau ere emakumeek pairatu behar izan zuten, beraien sendiko kideren batek jasotako isuna, ondorengo edota familiakoek ordaintzera behartuta baitzeuden.

Beste errepresio modu bat, emakumeen aurkako umiliazio ekintzak izaten ziren, herriaren aurrean desfilaraziz edota lan konkretu batzuk egitera behartuz. Askotan, ilea mozten zitzaion emakumeari, kaskamotz utziz eta errizino-olioa edanarazi, tripetatik behera egin zezaten. Ondoren jendaurrean jartzen zieten, herritarren aurrean umiliatzeko. Honek, Deban eman zen ekintza ilunenetakoa izan zenaren gertakariari oin ematen digu. Bi emakume debar, inolako epaiketarik gabe fusilatu zituzten. Hauek, beraien seme edota gizonak zirenagatik exekutatuak izan ziren, mendeku bezala. Catalina Gascon eta Eugenia Galdonaz hitz egiten ari gara. Biak 53 eta 65 urte zituzten hurrenez hurren. Lekuko batzuen arabera, kaskamotz utzi zituzten, errizino olioa edanarazi eta herritik desfilarazi zituzten, ondoren atxilotu eta eraman aurretik, fusilatuak izan ziren hurrengo egunetan[501].

Gerra ostean, estraperloaren baitan, hainbat emakume ibili ziren "mandatari" gisa ezagutzen zirenak besteak beste Martzelina Egaña. Hauek, beraien jardunagatik isun ekonomikoak eta kartzela ere pairatu behar izan zuten.

Jarraian, emakume debarren aurka eginiko errepresio eta giza eskubideen urraketak kontatzen dira, baina tamalez, gizartean emakumea zapaldua zegoen eta dagoen moduan, honek bere isla izan zuen ere pairatu behar izan zituzten errepresioan. Ondorioz, eraso hauek askotan pertsonalak eta herri mailakoak izan ziren, ondorioz emakume askok pairatu zuten urraketek ez zuten askotan arrasto dokumentalik utzi. Hori dela eta, asko ez dira gaurdaino iritsi eta horregatik iturri bakarra sarri familia eta lagunek kontatutakoa izan da.

ponsabilidades políticas, se aplicó a los habitantes de Deba una nueva represión económica y el exilio; y, otra vez, la tuvieron que sufrir las mujeres, porque la multa que recibía algún miembro de la familia lo tenían que pagar los descendientes o los familiares.

Otro tipo de represión eran los actos de humillación contra las mujeres, haciéndoles desfilar delante del pueblo u obligándolas a hacer unos trabajos concretos. Muchas veces, se le cortaba el pelo a la mujer, dejándola con la cabeza rapada, y se le hacía beber aceite de ricino, para que hiciera de vientre, para después ponerlas delante de la gente y humillarlas. Esto nos da pie para contar uno de los sucesos más oscuros de Deba. Dos mujeres de Deba fueron fusiladas sin ningún tipo de juicio. Fueron ejecutadas por lo que eran sus hijos o maridos, por venganza. Se llamaban Catalina Gascon y Eugenia Galdona, y tenían 53 y 65 años respectivamente. Según ciertos testigos les raparon la cabeza, les hicieron beber aceite de ricino y les hicieron desfilar por el pueblo, y luego las detuvieron y se las llevaron. Fueron fusiladas los próximos días[501].

Tras la guerra, dentro del estraperlo, hubo varias mujeres que andaban y eran conocidas como "recadistas", entre ellas, Martzelina Egaña. Estas tuvieron que sufrir multas económicas y la cárcel por sus actividades.

A continuación, se cuentan la represión y las vulneraciones de derechos humanos realizadas contra mujeres de Deba, pero por desgracia, la mujer estaba, y está, oprimida en la sociedad, y por ello, aunque fueron muchas las que sufrieron estas situaciones, muchas veces no queda rastro documental alguno y por lo tanto no tenemos constancia de ello; la única fuente suele ser la que nos cuentan los familiares y amigos.

## AGUIRRE AIZPURUA, EMILIA

Deban jaio zen 1923ko ekainaren 28an eta Urberuaga baserrian bizi zen. Baserrian lan egiten zuen eta ezkongabea zen. 17 urte zituela atxilotua izan zen, 1941eko apirilaren 16an Guardia Zibilagatik eta Donostiako Espetxe Probintzialera eraman zuten preso. Atxiloketa hau, Probintziako Tasen Fiskaltzaren aginduz izan zen eta hilabete bereko 5an emaniko idatzi batean 100 eguneko espetxealdira kondenatu zuen Emilia. Tasen Fiskala izanda, badakigu estraperloan aritzeagatik zigortua izan zela, arlo horretako delituez arduratzen baitzen fiskaltza hau. Suposa genezake kontrolen batean edota etxeko erregistro bat medio, merkatu beltzeko produktuekin harrapatuko zutela eta hori zela eta denuntziatua izango zen.

Goian aipatu badugu ere 100 eguneko zigorra ezarri ziotela, apirilak 26an bertan, gobernadore zibilaren aginduz askatasuna berreskuratuko du Emiliak[502]. Hala ere, tribunalak isun ekonomiko bat ezarri zion, 1000 pezetakoa[503].

Nació en Deba el 28 de junio de 1923 y vivía en el caserío Urberuaga. Trabajaba en el caserío y estaba soltera. La Guardia Civil la detuvo el 16 de abril de 1941, a la edad de 17 años, y la encarcelaron en la prisión provincial de Donostia. Esa detención fue realizada por orden de la Fiscalía Provincial de Tasas, mediante un escrito del día 5 del mismo mes, y condena a Emilia a una pena de 100 días de cárcel. Como era esa fiscalía, sabemos que fue condenada por estraperlo porque se encargaba de delitos de ese ámbito. Suponemos que en algún control, o en un registro en casa, lo cogieron con productos del mercado negro, y que a raíz de eso fue denunciada.

Aunque arriba hayamos mencionado que fue condenada a 100 días, Emilia fue liberada el mismo 26 de abril, por orden del gobernador civil[502]. Sin embargo, el tribunal le impuso una multa económica de 1000 pesetas[503].

[501] Id.
[502] AHPG-GPAH, 02860 kutxa, 0015 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02860, exp. 0015.
[503] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.


Prisión Provincial de San Sebastián BAJA
Expediente procesal de Aguirre Aizpurua Emilia
Natural de Deva (Guipuzcoa) Partido judicial de San Sebastián (Guipuzcoa) y vecino de Deva
Hijo de José María y de Francisca de 17 años, estado soltera
Profesión sus labores Núm. de hijos Religión C.A.R. Instrucción tiene antecedentes ingresa por 1ª vez, domicilio Lasaio Urkamaga nombre del cónyuge y domicilio del mismo Fecha de nacimiento del recluso 28 Junio 1923
Fórmula dactiloscópica
SEÑAS PARTICULARES
HUELLAS DACTILARES Simple Enlazado
Registro del individuo al ingresar
CAUSA
100 días de arresto que dejara cumplido el día 24 de Julio de 1941.
VICISITUDES
16 Abril 1941 Ingresa en esta prisión, procedente de Deva entregado por Guardia Civil en concepto de detenida a disposición de Gobernador Civil con orden del mismo que a se une. Queda cuenta.
Vº Bº El Director. El Subdirector.

Emilia Aguirre Aizpuruaren fitxa prozesala. (GAPH). / Ficha procesal de Emilia Aguirre Aizpurua. (GAPH).

**ANTIA ECHEVERRIA SENDIA (Lucia Echevarria Galdos eta Juan Jose Antia Echevarria) / FAMILIA ANTIA ECHEVERRIA (Lucía Echevarria Galdos y Juan José Antia Echevarria)**

Lucia, bere gizona zen Esteban Antia Ulaciarekin bizi zen, Debako Cruz kalean[504], Juan Jose semearekin. 33 urte zituen Luciak eta 5 berriz Juan Josek (1937). Esteban, Izquieda Republicanako militantea zen eta udalbatzako zinegotzia, hori dela eta herritik ihes egin behar izan zuten 1936ko irailak 23a baino lehen, altxatuen tropen hurbiltasuna zela eta. Hasiera batean Bizkaira joan baziren ere, Mola jeneral faxistaren tropen aurrerakada zela eta, itsasontzi bidez erbestera joateko erabakia hartu zuen Luciak, bere seme Juan Joserekin. Esteban, Eusko Gudarostean engaiatua zegoen eta Santanderreko defentsako batailetan altxatuen esku erori zen, hori dela eta Gerra kontseiluan epaitua izan zen. Lucia berriz, Frantziako Estatura iritsi ostean, berau gurutzatu eta Kataluniara pasa zen eta La Cellera de Ter herrian (Girona) ezarri ziren. Bertan, Gobernu Errepublikanoaren laguntza jaso zuten, Esteban milizianoa zelako, horrela egunean 10 pezetako soldata jasotzen zuten[505].

Lucía vivía con su marido Esteban Antia Ulacia y su hijo Juan José en la calle Cruz de Deba[504]. Lucía tenía 33 años y Juan José 5 (1937). Esteban era militante de Izquierda Republicana y concejal de Deba. Por ello, y por la cercanía de las tropas sublevadas, tuvieron que huir del pueblo antes del 23 de septiembre de 1936. En un principio se fueron a Bizkaia pero, debido al avance de las tropas del general fascista Mola, Lucía decidió ir al exilio con su hijo en barco. Esteban estaba alistado en el Ejército Vasco y en los combates de defensa de Santander fue apresado por los sublevados, y, más tarde, juzgado en consejo de guerra. Cuando Lucía llegó al Estado francés, lo cruzó, entró en Cataluña y se instaló en Cellera de Ter (Girona). Recibieron una ayuda del Gobierno Republicano porque Esteban era miliciano: un jornal de 10 pesetas diarias[505].

**ARAMBERRI ARAQUISTAIN, JESUSA**

Itziarko emakume talde bat, familiako baserriaren bueltan isekan eta "Lapurrak" oihukatuz ibili ziren, danborra jotzen zioten bitartean. Hori guztia, bere anaiak gudari eta miliziano zirelako. Kalean ere, herritarren aldetik iseka eta burla ugari jasan zituen arrazoi berdinagatik[506].

Un grupo de mujeres de Itziar anduvo alrededor de su caserío familiar insultando y gritando "Ladrones" mientras tocaban el tambor. Todo eso porque sus hermanos eran gudaris y milicianos. En la calle también recibieron muchos insultos y burlas por eso[506].

---

504 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha de prisión.
505 CDMH, sig. PSET 166.
506 Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

**BEREZIBAR ARANBURU SENDIA**

Elgoibartarrak ziren eta gerratik ihesi, lehenik Gernikara eta ostean Bilbora joan ziren. Carmen Aranburu Garate, Carmele eta beste hiru seme-alabekin, itsasontzi batean Kataluniara joan ziren. Lehenik Oloten egon ziren eta Carmele Bartzelonan. Gerra amaitu arte egon ziren Katalunian, amaitu eta giroa lasaitzean Elgoibarrera itzuli ahal izan ziren. Aita espetxetik irten zenean, Debara bizitzera etorri ziren, aroztegi bat ireki zutelarik herrian[507].

Eran de Elgoibar y, escapando de la guerra, primero fueron a Gernika y luego a Bilbo. Carmen Aranburu Garate con Carmele y otros tres hijos se fue a Cataluña en barco. Al principio estuvieron en Olot, y Carmele en Barcelona. Estuvieron en Cataluña hasta el fin de la guerra, y cuando terminó y la situación era más calmada, volvieron a Elgoibar. Cuando el padre salió de prisión, vinieron a vivir a Deba y abrieron una carpintería en el pueblo[507].

**DIAZ BERISTAIN SENDIA (Josefa Beristain Echeverria eta Juan Diaz Egaña gurasoak, Antonio eta Jose Maria semeekin) / FAMILIA DIAZ BERISTAIN (Josefa Beristain Echeverria y Juan Díaz Egaña, con sus hijos Antonio y José María)**

Josefa Beristain eta Juan Diaz, Jose Manuel Ostolaza kalean bizi ziren eta 47 eta 53 urte zituzten hurrenez hurren. Bi seme zituzten, Antonio eta Jose Maria. 17 eta 13 urtekoak. Juan Debako udaltzaina zen eta loturak zituen herriko mugimendu ezkertiarrekin, gainera PSOEko afiliatua zen altxamendua eman zenean. Hau dela eta, altxatuen errepresioaren beldur, herritik ihes egin zuen hauen tropak Debara hurbildu zirenean. Bere familiarekin batera, Laredora joan ziren, bertan asistentzia soziala eskatu zuten, ez baitzuten inolako diru sarrerarik[508]. 1937an, gerraren bilakaera zela eta Juanek itsasontziz ihes egin zuen Frantziako Estatura, Gurseko kontzentrazio esparruan amaituz.

Josefa Beristain y Juan Díaz tenían 47 y 53 años, respectivamente, y vivían en la calle José Manuel Ostolaza. Tenían dos hijos: Antonio y José María de 17 y 13 años, respectivamente. Juan era guardia municipal de Deba y tenía relaciones con los movimientos izquierdistas del pueblo; además, estaba afiliado al PSOE cuando se dio el alzamiento. Cuando las tropas sublevadas estaban cerca del pueblo huyó con su familia por miedo a la represión. Se fueron a Laredo y pidieron asistencia social porque no tenían ningún ingreso[508]. En 1937, debido al desarrollo de la guerra, Juan escapó en un barco al Estado francés, terminando en el campo de concentración de Gurs.

**DIAZ EGAÑA, ASUNCION**

Deban jaio eta bizi zen, 43 urte zituen eta ezkongabea zen altxamendua eman zenean[509]. Arlo politikoan inplikatua zegoen jada Errepublika garaitik, Debako Agrupacion Socialistako batzordekidea baitzen, bertako emakume bakarra izan zen gainera[510]. Altxatuen tropen gertutasunagatik, herritik ihes egin behar izan zuen, emakumea eta ezkertiarra izanik hauek egin ahal ziotenaren beldur. Santanderren aurkitzen den dokumentu batean asistentzia soziala jasotzen zuela agertzen da, 1936ko irailaren 30ean[511]. 1937ko otsailaren 12an, jada, bertako industria batean lan egiten zuen eta Euskaditik ebakuatutakoen zerrendan agertzen zen[512].

Nació en Deba, tenía 43 años y estaba soltera cuando empezó el alzamiento[509]. Estaba implicada en el ámbito político desde la República, pues era vocal de la Agrupación Socialista de Deba, siendo además la única mujer[510]. Tuvo que huir del pueblo por la cercanía de las tropas sublevadas, y por miedo a lo que le pudieran hacer siendo mujer e izquierdista. Fue evacuada, su nombre aparece en un documento de Santander que dice que recibe asistencia social, el 30 de septiembre de 1936[511]. Para el 12 de febrero de 1937 se encontraba ya trabajando en una industria de allí, apareciendo en la lista de los evacuados de Euskadi[512].

**ECHEVARRIA EGAÑA, JULIA ETA LIZARZABURU ECHEVARRIA, JOSE MARIA / ECHEVARRIA EGAÑA, JULIA Y LIZARZABURU ECHEVARRIA, JOSE MARIA**

Deban jaio zen eta 23 urte zituen (1937). Francisco Lizarzaburu Lasarekin ezkondua zegoen eta seme bat zuten Jose Maria izenekoa, 2 urte zituena (1937). Altxatuen gertutasuna zela eta, familiak Bizkaira ihes egitea erabaki zuen, Gernikan ezarriz hasiera batean. Hala ere, iparraldeko frontearen gain altxatuek eginiko erasoaldiak zirela eta, itsasontziz Frantziako Estatura ihes egitea erabaki zuen Juliak, bere seme Jose Mariarekin batera. Bertatik Kataluniara pasa ziren, Lleidako Torres de Segre herrian ezarriz, hango Kale Nagusiko etxebizitza batean. Francisco desagertu bezala izendatua zegoenez, diru-laguntzak jaso zituzten Gobernu Errepublikarretik[513].

Julia nació en Deba y tenía 23 años (1937). Estaba casada con Francisco Lizarzaburu Lasa y ambos tenían un hijo llamado José María de 2 años (1937). Debido a la cercanía de los sublevados la familia decidió escapar hacia Bizkaia, instalándose al

[507] Id.
[508] CDMH, sig. PS-Santander-0, 124, 2 espedientea. / CDMH, sig. PS-Santander-0, 124, exp. 2.
[509] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,15,D0020875.
[510] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,15,D0020876.
[511] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,15,D0020877.
[512] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,15,D0020874.
[513] CDMH, sig. PSET 103.

principio en Gernika. De todos modos, debido a las ofensivas realizadas por los sublevados contra el Frente Norte, Julia decidió huir al Estado francés con su hijo en barco. De allí pasaron a Cataluña y se establecieron en una vivienda de la Calle Mayor de Torres de Segre (Lleida). Como Francisco estaba dado por desaparecido, recibieron ayudas del Gobierno Republicano[513].

### ELOSUA AGUIRRE SENDIA (Sabina Agirre eta Conchita, Marivi, Paco eta beste seme bat)

Sabinaren senarra,Raimundo Elosua, Debako PSOEra afiliatua zegoen eta Fronte Popularrarak antolatutako milizietan jarduten zuen. Altxatuak herrian sartzean, etxea goitik behera miatu zieten, herritar baten denuntzia medio. Raimundo herrira ez zenez itzuli, honen ondorioz, Sabina eta semeak herritik kanporatuak izan ziren. Hasiera batean Nafarroara kanporatu nahi zituzten, baina udan etxean hartzen zituen falangista batzuekin negoziatzea lortu eta ama bi seme-alabarekin, Paco eta Marivi, Araiara (Araba) joan zen eta beste biak tartean Conchita,izeba Nievesekin Zegamara. Zortzi hilabetez egon ziren erbestean. Bitartean, herritik ihes egin behar izan zuten herritarren ondasunak konfiskatzeari ekin zioten, baina Elosua-Aguirre sendia bizi zen etxearen jabeak eta herriko karlista lagun batzuek beraien ondasunak gorde zizkieten itzuli arte[514].

El marido de Sabina (Raimundo Elosua) estaba afiliado al PSOE de Deba y actuaba en las milicias organizadas por el Frente Popular. Cuando entraron los sublevados en el pueblo, les registraron la casa de arriba abajo, debido a una denuncia de alguien del pueblo. Como Raimundo no volvió, Sabina y sus hijos fueron expulsados del pueblo. Al principio querían expulsarlos a Nafarroa, pero logró negociar con unos falangistas que solía acoger en verano en casa, y la madre se fue con dos hijos, Paco y Marivi, a Araia y las otras dos, entre ellas Conchita, con la tía Nieves a Zegama. Estuvieron ocho meses en el exilio. Entre medias, empezaron a confiscar los bienes de la gente que había escapado del pueblo, pero los dueños de la casa donde vivía la familia Elosua-Aguirre y unos carlistas amigos del pueblo les guardaron sus bienes hasta que volvieron[514].

### GALDOS ARRIZABALAGA, EUGENIA

Debarra zen eta “Xapo” goitizenez ezagutzen zuten. Alarguna zen eta 4 seme alaba zituen. Bere ogibidea trenbide pasaguneen zaindaria izatea zen. Frankistak herria konkistatzean 1936ko irailaren 23an, garaiko pertsonen kontakizunen arabera momentuan fusilatu zituzten bi emakumeetako bat izan zen[515]. Fermin Echeverria Galdosen ama zen eta iturri batzuen arabera, bere



**Eugenia Galdos eta bere sendiaren argazkia, erdiko umea Fermin Echeverria semea da.** (Deba aldizkaria). **/ Fotografía de Eugenia Galdos y su familia, el niño del centro es el hijo Fermín Echeverría.** (Revista Deba).

[514] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.
[515] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

semea zenagatik eta udatiarrekin izandako tirabirengatik fusilatu zuten. Jose Alberto Palanca faxistak, Debako preso eskuindarrei tratua gogortzearen sustatzaileetako bat zela aipatzen du[516]. Deban bertan fusilatua izan zen inolako epaiketarik izan gabe[517].

Vivía en Deba y era conocida con el sobrenombre de "Xapo". Era viuda y tenía 4 hijos. Su oficio era vigilante de los pasos de vía. Cuando los franquistas tomaron el pueblo, el 23 de septiembre de 1936, fue una de las dos mujeres fusiladas en el momento, según los testimonios de algunas personas de la época[515]. Era la madre de Fermín Echeverria Galdos, y según ciertas fuentes, la fusilaron por su hijo y por las disputas que tuvo con los veraneantes. El fascista José Alberto Palanca, menciona que era uno de los impulsores de que se les endureciera el trato a los presos derechistas de Deba[516]. Fue fusilada en el mismo Deba sin ningún tipo de juicio[517].

## GARATE ARRIOLA, MIREN

Miren, Debako alkate zen Florentzio Marquieguiren emaztea zen. Bere gizonak zuen kargu politikoa zela eta, altxamendua gauzatzean eta hauen indarrak herrira hurbiltzen zirela eta, ihes egin behar izan zuen, bere hiru alabekin. Lehenik eta behin Bilbo aldera joan zen baina Iparraldeko Frontearen gainbehera zela eta, Frantziako Estatura errefuxiatu zen lehenik, ondoren Iparraldean ezarriko zelarik, Donibane Lohitzunen. Berarekin batera, Florenciorekin izaniko 3 alabak eraman zituelarik, Itziar, Lore eta Nekane. 1938an, gerraren bilakaera mikatza ikusita, beste hainbat euskaldunek egin zuten bezala, Argentinarako bidea egin zuen, bere koinatu Felix Marquieguik jarraituko zuen bide berbera. Argentinan ezarri ziren, bertan Euskal Diaspora eta honen kultur ekintzetan parte hartze aktiboa izan zuen gainera Mirenek[518].

Miren era la esposa de Florentzio Marquiegui, alcalde de Deba. Al comenzar el alzamiento, por el cargo político que tenía su marido y porque las tropas franquistas se estaban acercando al pueblo, tuvo que huir con sus tres hijas. Al principio fue hacia Bilbo, pero viendo el declive del Frente Norte, se refugió en el Estado francés y, después, se afincó en Donibane, junto a sus 3 hijas Itziar, Lore y Nekane. En 1938, viendo el amargo desarrollo de la guerra, se fue a Argentina, como otros muchos vascos, siguiendo el mismo camino que su cuñado Felix Marquiegui. Se afincaron en Argentina, y tuvieron una participación activa en la diáspora vasca y sus actividades culturales[518].



**Miren Garate, Itziar Arostegui eta Herran (Eskuinetik eskerrera), Tandilen 1940an, euskal dantzetarako jantziak josten.** (Deba aldizkaria). **/ Miren Garate, Itziar Arostegui y Herrán (de derecha a izquierda), en Tandil (Argentina) en 1940, cosiendo ropa para danzas vascas.** (Revista Deba).

## GARATE IRIONDO, VISITACION

24 emakumerekin batera epaitua izan zen Visitacion, beste pertsona batzuekin batera, altxatuen errepresioaren beldur ziren pertsonak Iparraldera eramateko sare bateko kide izateagatik. Horren truke, diru kopuru bat kobratzen zieten. Sare hau emakume ugariz osatua zegoen eta pertsonak herri ezberdinetatik mugitu eta igarobaimenak lortzeaz arduratzen ziren.

Visitacionen kasuan, beste emakume bati abisua pasa zion 1937an Maria Arrizabalaga, jaiotzez debarra zen Juan Jose Mugica Aramberriaren etxetik pasa behar zuela esateko, Iparraldera pasa nahi zuelako. Ondoren, bere lehengusu bati, Antonio deitua ere pasatzen lagundu zion, beste hiru emakumerekin batera.

---

[516] GARCIA ELOSUA E., Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II), Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCIA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

[517] EAH, Bidasoa Institutua bilduma, Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko" funtsa. / AHE, colección Instituto Bidasoa, fondo Luis Ruiz de Aguirre "Sancho de Beurko".

[518] GARCIA ELOSUA E., Florencio Markiegi hijo predilecto de Deba desde el 15 de mayo de 1988, Deba aldizkaria 2017ko negua, 98 zenbakia, 2017. / GARCIA ELOSUA, E.: "Florencio Markiegi hijo predilecto de Deba desde el 15 de mayo de 1988", Revista Deba, invierno de 2017, nº 98.

Ekintza hauengatik gerra kontseiluan epaitua izan zen eta nahiz eta prozesua 1937an abiatu zen, 1940ko uztailaren 3an burutu zen epaiketa, Donostian bertan. Epaitegiak absolbitu egin zuen[519]. Hala ere, Deban, baldintzapeko askatasunean aurkitzen zen, Juzgado Militar nº7 deituriko epaitegiak zaintzapeko askatasuna eman ostean, 1943ko irailak 27ko dokumentu baten arabera[520].

Visitación fue juzgada junto a otras 24 mujeres y otros personas, por ser miembro de una red que llevaba a Iparralde personas que tenían miedo a la represión de los sublevados. A cambio les cobraban una cantidad de dinero. Esa red estaba formada por muchas mujeres y se encargaban de conseguir permisos para que las personas pudieran ir de un pueblo a otro.

Visitación pasó un aviso a María Arrizabalaga, en 1937, para decirle que tenía que pasar de casa del debarra de nacimiento Juan José Mugica Aramberri, porque quería pasar a Iparralde. Más tarde, ayudó a pasar a un primo suyo, Antonio, junto a otras tres mujeres.

Por esos actos fue juzgada en consejo de guerra, y aunque el proceso se inició en 1937, el juicio se realizó el 3 de julio de 1940 en Donostia. Fue absuelta por el tribunal[519]. Pero en Deba estaba en libertad condicional, después de que el Juzgado Militar Nº 7 le diera la libertad vigilada, tal como consta en un documento del 27 de septiembre de 1943[520].

### GASCON PEREZ, CATALINA

Salamancakoa zen jaiotzez eta 53 urte zituen. Mutrikura joan zen bizitzera, bertan ezkondu eta Deba ibairen beste aldean bizi zen marmoleriaren ondoan. Famatua egin zen Mutrikun, bere jaioterriko traje tradizional batekin eta espainiako banderarekin manifestazio batean parte hartzeagatik 1919an, Alfonso Churruca mauristaren garaipena ospatzeko. 1932ko erroldak etxekoandre zela adierazten du, baina testigantza batzuen arabera Ferrocarriles Vascongados enpresarentzat lan egiten zuen, barrerazain postuan[521]. Datu hauek bat datoz ikerketa honetan batu diren testigantzetatik lortu diren datuekin, non Catalina “la jodida” bezala deitzen duten trenbideetako langile baten fusilatzea aipatzen den[522]. Tropa frankistak herrian sartu zirenean, “todo esto yá pasará” esateagatik atxilotua izan zen. Hernanin fusilatu zuten 1936ko urriak 20an[523].

Era de Salamanca de nacimiento y tenía 53 años. Se fue a vivir a Mutriku, y allí se casó; vivía al otro lado del río Deba, al lado de la marmolería. En 1919, se hizo conocida en ese pueblo por participar en una manifestación para celebrar la victoria del maurista Alfonso Churruca con un traje tradicional de su pueblo natal y una bandera española. En el censo de 1932 se dice que era ama de casa, pero según ciertos testimonios trabajaba de guardabarrera para la empresa Ferrocarriles Vascongados[521]. Estos datos concuerdan con los datos conseguidos de los testimonios realizados durante esta investigación, en los que se menciona el fusilamiento de una trabajadora de las vías llamada Catalina “la jodida”[522]. Cuando entraron las tropas franquistas en el pueblo, fue detenida por decir “todo esto ya pasará”. La fusilaron en Hernani el 20 de octubre de 1936[523].

### GOITIA LANDA, MARIA DEL CARMEN

Maria del Carmenen kasua, emakumeen aurkako errepresioaren isla argi bat da. Nahiz eta aztergai dugun garaia baino zertxobait berantiarragoa izan, adibide argia izanik txertatzea erabaki da. Deuston jaio zen eta Deban bizi zen brodatzailea zen Maria, bere gizon Tomas Valdesekin batera Irailak 23 kaleko 9. zenbakian bizi ziren. Azken hau, baldintzapeko askatasunarekin aurkitzen zen eta horregatik bizi ziren Deban. Kontua da, 47 urte zituenean (1949) atxilotua izan zela, ekainaren 18an, abortatzeagatik. Donostiko espetxean preso sartu zuten eta 6 urte eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zioten 1952 martxoak 20an. Maiatzaren 28an aske geratu zen, ia hiru urte kartzelan pasa ostean[524].

El de María del Carmen es un caso claro de represión contra las mujeres. Aunque es de una época un poco posterior a la que estamos analizando, al ser un caso claro, hemos decidido añadirla. Nació en Deustu y vivía en Deba como bordadora. Tenía la casa, con su marido Tomás Valdes, en la calle 23 de septiembre nº 9. Su marido estaba en libertad condicional y por eso vivían en Deba. La cuestión es que fue detenida con 47 años (1949), por abortar el 18 de junio. La encarcelaron en la prisión de Donostia y le impusieron una condena de 6 años y un día el 20 de marzo de 1952. El 28 de mayo quedó en libertad, tras haber pasado casi tres años en la cárcel[524].

### GOROSTOLA SALEGUI, PETRA ETA BERE ALABA ITZIAR ELOSUA GOROSTOLA

Petrak, herrian okindegi bat zuen eta isuna jarri zioten abertzalea izateagatik. Ondoren, herritik bota zuten eta “gorrien” bandora kanporatua izan zen, bere alaba Itziar Elosua Gorostolarekin batera, Ondarroara joan zirelarik. Bertatik, autobusez, Bilbora joan ziren eta bonbardaketak zirela eta “La Habana” itsasontzian Frantziako Estatura ihes egin zuten. Hainbat lekutatik pasa

---

[519] AIRMN, 1141 sumarisimoa. / AIRMN, sumarísimo 1141.

[520] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

[521] AIZPURU M. (koord), El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani, Alberdania, Irun, 2007. / AIZPURU, M. (coord.): El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani, Alberdania, Irun, 2007.

[522] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

[523] AIZPURU M. (koord), El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani, Alberdania, Irun, 2007. / AIZPURU, M. (coord.): El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani, Alberdania, Irun, 2007.

[524] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha de prisión.

eta gero Donibanen ezarri ziren. Bertan, eskabetxe fabrika batean lanean jardun zuten, ahalik eta Debara itzuli ahal izan zuten. Etxeko guztia lapurtu eta hondatu zioten eta beste etxebizitza batera joan behar izan ziren bizitzera[525].

Tenía una panadería en el pueblo y le pusieron una multa por ser abertzale. Después, la echaron del pueblo al bando de los "rojos" junto a su hija Itziar Elosua Gorostola y se fueron a Ondarroa. De allí, fueron a Bilbo en autobús y, por los bombardeos, escaparon al Estado francés en el barco "La Habana". Tras pasar por varios sitios se afincaron en Donibane. Allí trabajaron en una fábrica de escabeche hasta que pudieron volver a Deba. Les robaron y destrozaron todo lo que tenían en casa y tuvieron que ir a vivir a otra[525].

### IRIONDO LIZARZABURU, JOSEFA "PEPITA"

1915ko urtarrilaren 3an jaio zen, Deban. Falangearen auxilio sozialeko txartelak saltzera behartu zuten herrian[526]. / Nació en Deba el 3 de enero de 1915. La obligaron a vender tarjetas de auxilio social de la Falange en el pueblo[526].

### IRIONDO LIZARZABURU SENDIA (Tomasa Lizarzaburu Iriondo eta Asuncion Iriondo Lizarzaburu)

Tomasak, Union Republicanaren egoitzako taberna eraman zuen senarrarekin batera. Altxamendua eman zenean, Julian Iriondo Iriondo eta bi seme frontera joan ziren. Tomasak, herritik ihes egin zuen altxatuak hurbiltzen zirela ikusita. Bertatik, Deustura eta ondoren Solaresera (Kantabria) ihes egin zuen lau seme alabekin. Altxatuek Kantabria hartzearekin batera, herrira itzuli zen, familiarekin, baina beraien etxebizitza goitik behera konfiskatua zegoen, tabernako guztia barne. Ondorioz beste etxe batera joan behar izan ziren bizitzera. Herriko autoritateek zigor moduan herriko komun publikoak garbitzera behartu zuten. 3 urtez ezin izan ziren etxera itzuli[527].

Tomasa regentaba el bar de Unión Republicana junto a su marido. Cuando comenzó el alzamiento, Julián Iriondo Iriondo se fue al frente junto a dos hijos. Tomasa huyó del pueblo cuando vio que los sublevados se acercaban. Huyó a Deustu y luego



**Iriondo Lizarzaburu sendia.** **(Garbiñe eta Miren Garbiñe Iriondok utzitako argazkia).** / **Familia Iriondo Lizarzaburu.** **(fotografía cedida por Garbiñe y Miren Garbiñe Iriondo).**

[525] Id.

[526] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

[527] Id.

a Solares (Cantabria) con cuatro hijos. Cuando los sublevados tomaron Cantabria volvió al pueblo con la familia, pero su casa estaba totalmente confiscada, incluído todo lo del bar, y, por lo tanto, tuvieron que ir a vivir a otra casa. Las autoridades del pueblo la obligaron a limpiar los baños públicos como castigo. No volvieron a casa durante 3 años[527].

**MUGICA EGAÑA, ROBUSTIANA "TENE"**

1888ko maiatzaren 24an jaio zen Deban, baliabide ekonomiko onak zituen familia abertzale batean. 9 anaia zituen eta bera zen gazteena. Gurasoek elikagaiak saltzeko komertzio handi bat zuten herrian. Eskolara joan zen adineko gazte guztiak bezala eta 14 urterekin gurasoekin hasi zen lanean. Honela definitzen zuen berak garai hau, "Ez naiz ikaste nagusiak egindako emakumea. Senide asko ginen eta gurasoak gu aurrera ateratzen lan asko egin zuten. Gozoki, edari eta janari denda zuten eta herrian ahal bestean ikasiak ginen. Mutilak mutil bezala, neskak, neska bezala".



**Robustiana Mugica Egaña "Tene".** (Gure Gipuzkoa).

Dendako lanaren ondorioz, gaixotu egin zen eta etxean pasatzen zituen denboraldi luzeak, bertan irakurzaletasuna eta idazteko joera garatu zituelarik. Horrela, 1916an *Euzkadi* aldizkariarekin kolaboratzen hasi zen eta gero beste hainbatekin (*Euzko Deia, Jaungoiko-zale*). Bere idazki eta obrekin, hainbat liburutan parte hartzea eta lehiaketa literarioak irabaztea lortu zuen. Bere lanetan, izaera euskaldun eta erlijiosoa nabaritzen ziren batez ere.

Gerra hasi zen arte jardun zuen idazten, baina bere obra asko galdu egin dira, bere ahizpak, errepresioaren beldur Teneren obra eta idatzi asko erre baitzituen. Tenek berak honela azaltzen du, *"Ni, 1936ko jorrailean, Oñatin egin zan Asamblea Mariana Diocesana'ra aurkeztu nintzan, Certamen Literario sailera. ... Nik bidali nuan iru ataldun antzerki bat, Juan Jose, saritua izan zan. ... Diruaz gainera Diploma eman zidaten On Mateo Mujika Gotzai jaunak izenpetua; berak eman ere. Andik laister, illabetera, gure guda. Guk bezela gure Gotzai jaunak emendik alde egin bearra izan zuan Prantziara. Gazteizen beste Gotzai berri bat eta beste kontu batzuk... An galdu zan nire antzerkia eta beste askoren lanak."*

Arlo politikoari dagokionez, bere idatzietan agertzen den bezala, ideia abertzaleak eta erlijiosoak bazituen ere, izaera aurrerakoia zuen, horren isla delarik 1921 EAJ alderdia banandu zenean Comunion Nacionalista Vasca alderdira pasa zela. Bertan, emakumeen parte hartzea sustatze aldera, Abertzale Atzarri Batza eratzen jardun zuen. Antolakunde honek, Deban eta Ondarroan taldeak sortzea lortu zuen. 1931n EAJ eta CNV berriro batu zirenean, emakumeen parte hartze politikoa sustatzeko Emakumeen Abertzale Batza indartzen eta antolatzen jardun zuen eta 1935an, antolakunde honen Gipuzkoako arduradun bilakatu zen.

Gerra Zibila hasi zenean, erbestera ihes egiteko hautua egin zuen, Euzko Jaurlaritzak antolatutako haurrez beteriko itsasontzi batean. Horrela Arroxelara iritsi zen eta bertatik Ipar Euskal Herrira joan zen, bere anaiarekin batera Ziburun jarri zelarik bizitzen. Bertan egon zen bizitzen gerra amaitu zen arte eta bera bezala erbesteratuta zeuden euskal errefuxiatuen alde lan egiten jardun zuen.

Hala ere, ezin izan zuen Debara bizitzera itzuli, deserriratze agingu bat jaso baitzuen. Posibleena, Deba bertako autoritate frankisten denuntzia baten ondorio izango zen hau. Beste herri askotan bezala, herriko autoritateek pertsona bat erbestera bidaltzeko eskumena zuten eta horretarako erabiltzen zituzten argudioak anitzak izaten ziren (pertsonaren jardun politikoa, familiakoren bat ihes eginda egotea…). Arazoa izaten da, era honetako prozedurek ez dutela dokumentazio asko sortzen eta oso zaila izaten dela berau gaur egunera iristea. Orokorrean, familiakoren bat zuten probintziaz kanpoko herri batera joan ohi ziren. Kasu hau bera izan daiteke Tenerena, non aipatzen den hainbat urtez Nafarroako herri batean bizi izan behar izan zuela, Debara iritsi aurretik. Herrira itzuli zenean, dendari lanetan jardun zuen, nahiz eta ez zuen bere ekintzailetza kulturala albo batera utzi, euskalduntzearen aldeko ekintzetan, ikastolak eta hainbat kultur ekintzetan laguntzen jardun zuen. 1975. urtean, Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain izendatu zuen[528].

Nació el 24 de mayo de 1888 en Deba, en una familia abertzale de buenos recursos económicos. Tenía 9 hermanos y ella era la menor. Sus padres tenían un gran comercio para la venta de alimentos en el pueblo. Fue a la escuela como todas las jóvenes de su edad y con 14 años empezó a trabajar con los padres. Así definía ella aquella época: "No soy una mujer que haya hecho estudios superiores. Éramos muchos hermanos y los padres tuvieron que trabajar mucho para que saliéramos adelante. Tenían una tienda de dulces, bebidas y comida y aprendimos como pudimos en el pueblo. Los chicos como los chicos, las chicas como las chicas".

Debido al trabajo en la tienda enfermó y pasaba largas temporadas en casa. Allí desarrolló su afición a la lectura y la escritura. Así, en 1916 empezó a colaborar con la revista *Euzkadi* y después con varias más (*Euzko Deia, Jaungoiko-zale*). Con sus obras consiguió ganar premios literarios y participar en varios libros. En sus obras destacan su carácter euskaldun y religioso.

528 Robustiana Egaña Mugica, Auñamendi Eusko Entziklopedia, http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mugica-egana-robustiana/ar-82601/-tik lortua. / Robustiana Egaña Mugica, Auñamendi Eusko Entziklopedia, conseguido de la página: http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/mugica-egana-robustiana/ar-82601/.

Escribió hasta el comienzo de la guerra, pero muchas de sus obras se han perdido porque sus hermanas quemaron sus obras y escritos por miedo a la represión. Así lo explica la misma Tene: "Yo, en abril de 1936, me presenté a la Asamblea Maríana Diocesana que se celebró en Oñati, a la sección del Certamen Literario… *Yo envié una obra de teatro en tres actos, Juan José, y fue premiada… Además del dinero, me dieron un diploma firmado por el señor Obispo Don Mateo Mujika; él mismo me lo dio. Al de poco, al mes, nuestra guerra. Como nosotros, el señor obispo tuvo que huir de aquí a Francia. En Gasteiz había un obispo nuevo y nuevas cosas… Allí se perdió mi obra de teatro y las obras de otros muchos."*

En lo que se refiere a la política, aunque tuviera ideales abertzales y religiosos, como se ve en sus escritos, era de carácter progresista. Ejemplo de eso es, que cuando en 1921 el PNV se escindió pasó al partido Comunión Nacionalista Vasca. Allí, para fomentar la participación de las mujeres colaboró en formar la Abertzale Atzarri Batza. Esta organización logró crear grupos en Deba y Ondarroa. En 1931, cuando se volvieron a unir PNV y CNV, anduvo reforzando y organizando la Emakumeen Abertzale Batza para fomentar la participación política de las mujeres, hasta que en 1935 se convirtió en la responsable de esa organización.

Cuando comenzó la Guerra Civil, decidió escaparse al exilio en un barco lleno de niños organizado por el Gobierno Vasco. Así, llegó a La Rochelle y de ahí se fue a Iparralde y se puso a vivir con su hermano en Ziburu. Estuvo viviendo allí hasta el final de la guerra, trabajando en ayudar a los vascos que, como ella, estaban refugiados.

Pero no pudo volver a vivir en Deba. Había recibido una orden de destierro, seguramente a causa de una denuncia de alguna autoridad franquista del mismo Deba. Como en otros muchos pueblos, las autoridades locales tenían competencias para enviar a una persona al exilio, utilizando para ello los argumentos más dispares (actividad política de la persona, tener algún familiar escapado...). El problema es que este tipo de procedimientos no crean mucha documentación y suele ser difícil que llegue hasta nuestros días. Normalmente, solían ir a un pueblo fuera de la provincia donde tuvieran algún familiar. Pudo ser este también el caso de Tene, porque antes de llegar a Deba, se menciona que tuvo que estar varios años viviendo en un pueblo de Nafarroa. Cuando volvió al pueblo trabajó como tendera, aunque tampoco dejó de lado su activismo cultural, en los actos a favor de la euskaldunización, las ikastolas y en muchos otros actos culturales. En 1975, la Euskaltzaindia la nombró Euskaltzain de honor[528].

## OSA ALCIBAR, GREGORIA

21 urte zituen eta ezkongabea zen, hori dela eta familiarekin Ulerdeta baserrian bizi zen[529].Bere aurkako ekinbide judiziala 1941eko abenduak 29an abiatu zen, bere zapatetan ikurrinaren koloreko kordoiak eramatearren. Prozesu judiziala urte luze bat luzatu zen, 1942 maiatzaren 11n, Manuel Echaniz eta Roman Arostegui debarren deklarazioak jaso ziren eta abenduak 28an, Bilbon, erantzukizun penalik gabeko ekintza zela ebatxi zuen Auditoreak. Hala ere, prozesua Gipuzkoako gobernadore zibilari pasa zioten, honek, beharrezkoa ikusten zuen isun ekonomikoa ezarri ziezaion Gregoriari[530].

Tenía 21 años, era soltera, y vivía con la familia en el caserío Ulerdeta[529]. La iniciativa judicial contra ella empezó el 29 de diciembre de 1941, por llevar en sus zapatos cordeles de los colores de la ikurriña. El proceso judicial duró un año: el 11 de mayo de 1942 se recogieron las declaraciones de los debarras Manuel Echaniz y Román Arostegui y el 28 de diciembre, en Bilbo, el auditor decidió que fue un acto sin ninguna responsabilidad penal. De todos modos, el proceso pasó a manos del gobernador civil de Gipuzkoa, y este creía que era imprescindible poner una multa económica a Gregoria[530].

## RIESGO OÑEDERRA SENDIA

Altxatuen tropak Debara hurbiltzen zirela ikusita, Bonifacia eta bere alabak (Carmen Riesgo eta Mari Coro) Mungiara joan ziren ihesi, gizona eta semeak Eusko Gudarostean baitzebiltzan. Bertatik, altxatuen aurrerabideen ondorioz, lehenik Laredo, Llanes eta azkenik Santanderrera joan ziren. Beraiekin bezala ihesean zebiltzan ehunka pertsonekin batera bizi izan ziren horretarako prestatutako eraikinetan. Hiri honetan, zibilak ebakuatzen zituen ontzi bat hartzea lortu zuten eta gizona eta anaiak Asturiasen borrokan geratu ziren. Bonifacia eta alabak, bere ahizpa eta alabekin, Frantziako Estatura ebakuatu zituzten eta bertatik Kataluniako mugaraino iristea lortu zuten. Hortik Valentziarako bideari ekin bazioten ere, Gironako herri batean bizitzen geratu ziren azkenean, Bañolasen inguruko herri txiki bat. Bertan, herritarren etxe ezberdinetan artatu zituzten. Gerra amaitu eta egoera egonkortu zenean, Debara itzultzeko erabakia hartu zuten.

Herrira iristean, ohartu ziren beraien etxea konfiskatu zietela, kuartel bilakatu zutelarik, Itziarren. Ondorioz lagun batzuen etxean bizi behar izan zuten denboraldi bat etxe berri bat lortu arte, horretaz gain etxea ez zuten inoiz berreskuratu. Ondasun eta guzti konfiskatu zieten etxebizitza eta Debako autoritateak ondasun hauek itzultzea ukatzen zien, baina zinegotzi batek gomendatu zien Zarautzeko Guardia Zibilaren komandantzian eskatzeko eta hauek igorritako agiri bati esker altzariak berreskuratzea lortu zuten[531].

Viendo que las tropas de los sublevados estaban acercándose a Deba, Bonifacia y sus hijas (entre ellas Carmen Riesgo) escaparon a Mungia, porque el marido y los hijos servían al Ejército Vasco. Debido al avance de los sublevados, de allí fueron primero a Laredo, luego a Llanes y, finalmente, a Santander. Vivieron en edificios preparados para cientos de personas que

[529] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[530] AIRMN, 4223 aurretiko eginbideak. / AIRMN, diligencias previas 4223..
[531] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

huían como ellas. Allí lograron tomar un barco que evacuaba civiles, y el marido y los hermanos se quedaron combatiendo en Asturias. Bonifacia y sus hijas, junto con su hermana y las hijas de esta, fueron evacuadas al Estado francés y de allí lograron llegar hasta la frontera de Cataluña. Aunque emprendieron el camino hacia Valencia, finalmente se quedaron a vivir en un pueblo de Girona, un pueblo pequeño cerca de Bañolas. Allí las atendieron en diferentes casas del pueblo. Al terminar la guerra y estabilizarse la situación, decidieron volver a Deba.

Al llegar al pueblo, a Itziar, se dieron cuenta de que les habían confiscado la casa y la habían convertido en cuartel. Por lo tanto, durante un tiempo tuvieron que vivir en casa de unos amigos hasta conseguir una casa nueva. No recuperaron nunca la casa. Se la confiscaron con bienes y todo, y las autoridades de Deba prohibieron devolverles esos bienes. Pero un concejal les aconsejó que presentaran una solicitud en la comandancia de la Guardia Civil de Zarautz y, gracias a un documento emitido por la comandancia, lograron recuperar los muebles[531].





**Riesgo Oñederra sendia.** (Carmen Riesgo Oñederrak utzitako argazkia). / **La familia Riesgo Oñederra.** (Fotografía cedida por Carmen Riesgo Oñederra).



**Riesgo Oñederrako lau anai arrebak, Carmen, Mari Coro, Antonio eta Jose Maria.** (Carmen Riesgo Oñederrak utzitako argazkia). / **Cuatro hijos/as de la familia Riesgo Oñederra: Carmen, Mari Coro, Antonio y José María.** (fotografía cedida por Carmen Riesgo Oñederra).

## RODRIGUEZ, MARITXU

Bera eta bi urteko alaba udaletxean preso izan zituzten 15 egunez, bere eginkariak balde batean egitera behartuz. Ahozko testigantzen arabera, anai bat ere hil zioten[532]. Posible da Tomas Rodriguez Egañaren arreba izatea.

Maritxu y su hija de dos años estuvieron encarceladas en el ayuntamiento durante 15 días, obligándoles a hacer sus necesidades en un cubo. Según los testimonios orales, mataron a un hermano suyo[532]. Es posible que fuera hermana de Tomás Rodríguez Egaña.

---

[532] Id.

## ULACIA ESNAOLA MARIA, ULACIA ESNAOLA TOMASA ETA ESNAOLA OSA ANICETA

Aniceta, Maria eta Tomasaren ama zen. Cruz Ulacia, Anicetaren gizonari ondasunak konfiskatu zizkioten eta izen bereko semea zen Cruz erbestera joan behar izan zen. Deban bizi ziren, elizaren ondoan zapatagile komertzio bat zutelarik. Altxamendua burutu zutenek, edota hauetatik gertukoak zirenek behintzat ez zuten iritzi onik beraiekiko, honela definitzen baitzituzten "elizaren ondoan zapata denda zuten hauek, udatiarrekin ez dira ongi portatzen eta Fronte Popularraren aurrean denuntziak ipintzen zituzten"[533].

Hiru pertsona hauen aurkako prozesua 1940ko urriak 23an hasi zen, gerra kontseilua bera 1942ko ekainaren 1ean eman zen Bilbon. Epaiketan, justizia militarreko 396. artikuluan oinarrituta kausa bertan behera ustea erabaki zen. Data hauetarako, Aniceta Esnaola Osa hilda zegoen[534]. Oinarri hauetatik abiatuta, logikoena da hiru pertsona hauek erbestera joan izana altxatuak herrira iritsi zirenean nahiz eta ez dugun dokumentaziorik hau sostengatzen duenik. Errefuxiatu bezala pasako zituzten gerra urteak eta egoera egonkortu zenean Debara itzuli ziren. Hipotesi honekin bat dator ere beraien anaia, Cruz Ulacia Frantziako Estatuan errefuxiatua egon zela[535].

Aniceta era la madre de María y Tomasa. A Cruz Ulacia, marido de Aniceta, le confiscaron los bienes, y su hijo, del mismo nombre, tuvo que huir al exilio. Vivían en Deba y tenían un comercio de zapatos al lado de la iglesia. Los que hicieron el alzamiento, o por lo menos los afines a ellos, no tenían muy buen parecer sobre esta familia y así los definían: "estos que tienen una tienda de zapatos al lado de la iglesia, no se portan bien con los veraneantes y ponían denuncias delante del Frente Popular"[533].

El proceso contra estas tres personas comenzó el 23 de octubre de 1940, y el consejo de guerra en sí fue el 1 de junio de 1942, en Bilbo. En base al artículo 396 de la justicia militar, decidieron dar fin a la causa. Para esas fechas Aniceta Esnaola Osa ya estaba muerta[534]. Aunque no tengamos documentos gráficos que lo sustenten, lo más lógico es que esas tres personas fueran al exilio cuando los sublevados llegaron al pueblo. Los años de la guerra los pasarían como refugiados y, cuando la situación se estabilizó, volverían a Deba. Refuerza esa hipótesis que su hermano, Cruz Ulacia, estaba refugiado en el Estado francés[535].

## YURRITA ZUBICARAY SENDIA (Dominica Zubicaray Aguirrechea eta Libertad Yurrita Zubicaray) / FAMILIA YURRITA ZUBICARAY (Dominica Zubicaray Aguirrechea y Libertad Yurrita Zubicaray)

Dominica Zubicaray ondarruara zen jaiotzez, baina Deban bizi zen Tomas Yurrita Berraondorekin batera, 1935eko urriak 30ean ezkondu ostean. Lersundi kalean bizi ziren eta Dominica haurdun zegoen militar faxisten altxamendua eman zenean. Altxamenduaren ostean, Tomas hau borrokatzeko antolatu ziren milizietan engaiatu zen eta ondorioz, altxatuen errepresioaren beldur, herritik ihes egin zuten Latorreren erreketeen zutabeak hurbiltzen zeudela ikusita. Bizkaiara mugitu ziren eta bertatik itsasontzi bat hartu eta Katalunian errefuxiatzea lortu zuen Dominicak. Tomasen kasuan, altxatuek preso hartu zuten Santanderreko hirian.

Dominicak, altxatuengandik ihesi zebilela alaba izan zuen eta Libertad izena ipini zion, haurrak 1938ko urrian 10 hilabete zituen. Kataluniako Lleida probintzian ezarri zen haurrarekin, Sanaüja herrian, bertan errefuxiatuentzat antolatuta zegoen jantokian. Bere gizona frentean desagertu zenez, diru sarrerak bermatze aldera, 300 pezetako soldata ezarri zion Gobernu Errepublikanoak[536].

Dominica Zubicaray nació en Ondarroa, pero vivía en Deba con su marido Tomás Yurrita Berraondo, tras haberse casado el 30 de octubre de 1935. Vivían en la calle Lersundi y Dominica estaba embarazada cuando se dio el alzamiento de los fascistas. Tras el alzamiento Tomás se alistó en las milicias que se organizaron para combatirlo y, por lo tanto, por miedo a la represión de los sublevados, huyeron del pueblo viendo que se acercaban las columnas de requetés de Latorre. Se fueron hacia Bizkaia y de allí cogieron un barco y Dominica consiguió refugiarse en Cataluña. Al contrario, Tomás fue apresado por los sublevados en Santander.

Dominica tuvo a su hija mientras huía de los sublevados y le puso el nombre de Libertad. La hija tenía 10 meses en octubre de 1938. Se instaló con ella en Sanauja (Lleida), en un comedor organizado para refugiados. Como su marido había desaparecido en el frente, el Gobierno Republicano le concedió un sueldo de 300 pesetas para que tuviera unos ingresos[536].

## ZULAICA IDIAQUEZ SENDIA

Gerra hasi zela eta, Ignacia Idiaquez Egañak, bere hiru semeak hartu eta Zestoako baserri batean babestu ziren, frontearen hurbiltasuna zela eta. Etxeko traste guztiak astoetan kargatu, animaliak hartu eta hamabost egunez egon ziren bertan, frontea herritik aldendu zen arte. Ezkutuan egon ziren, soilik gauez irteten zirelarik, animaliak bazkatu eta lanak egitera[537].

Al comenzar la guerra, Ignacia Idiaquez Egaña cogió a sus tres hijos y se refugiaron en un caserío de Zestoa, por la cercanía del frente. Cargaron todos los trastos de casa en los burros, cogieron los animales y estuvieron quince días allí, hasta que el frente se alejó del pueblo. Estuvieron escondidos, solo salían por la noche a dar de comer a los animales y a hacer los trabajos[537].

---

[533] GARCIA ELOSUA E., Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II), Deba aldizkaria, 2018ko negua, 100 zenbakia, Deba, 2018. / GARCIA ELOSUA, E.: "Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II)", Revista Deba, invierno de 2018, nº 100, Deba, 2018.

[534] AIRMN, 3800 aurretiko eginbideak. / AIRMN, diligencias previas 3800.

[535] Sabino Arana Fundazioko datu-basea. / Base de datos de la Fundación Sabino Arana.

[536] CDMH, sig. PSET 350/22792.

[537] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

### Saturraraneko emakumeen kartzela eta Deba

Saturraranen, 1938 eta 1944artean, autoritate frankistek emakumeentzako espetxe bat eduki zuten eta bertan milaka emakume eta haur egon ziren preso.

Bizkaia eta beranduago Iparraldeko Frontea erori zenean, frankistek, milaka pertsona preso hartu zituzten eta hauen zaintza antolatze aldera, hainbat eraikin espetxe inprobisatu bilakatu zituzten. Horren adibide da Saturrarangoa, non hondartza ondoan aurretik aurkitzen ziren bi hotelen eraikinak baliatu zituzten berau antolatzeko. 1938an hasi ziren bertan lehen presoak jasotzen eta 1940an 1500 presotik gora zeuden, 1454 preso 1939 eta 1583 1940an[538]. Kopuru hauek kontuan izanda, Frankismoko emakumeen kartzela handiena bilakatu zen.

### La cárcel de mujeres de Saturraran y Deba

En Saturraran, entre 1938 y 1944, las autoridades franquistas tuvieron una cárcel para mujeres en la que estuvieron miles de mujeres y niños encarcelados.

Cuando cayó Bizkaia y, más tarde, el Frente del Norte, los franquistas apresaron a miles de personas y, para organizar la vigilancia de estas, tuvieron que convertir varios edificios en prisiones improvisadas. Un buen ejemplo de ello es la de Saturraran, donde aprovecharon dos edificios hoteleros que estaban al lado de la playa, uno frente al otro, para organizarlo todo. Acogieron a los primeros presos en 1938, y en 1940 eran más de 1500, 1454 en 1939 y 1583 en 1940[538]. Teniendo en cuenta esas cifras, se convirtió en la mayor cárcel de mujeres del franquismo.



**Saturraran espetxe bilakatu aurretik.** (GFA, Indalecio Ojanguren). / **Saturraran, antes de convertirse en prisión.** (DFG, Indalecio Ojanguren).

Saturrarango espetxera, Espainiar Estatu guztiko emakumeak bidaltzen ziren kondena betetzera. Testigantzen arabera, emakumez beteriko trenak habiatzen ziren espetxe ezberdinetatik eta Debako tren estazioan izaten zuten azken geltokia. Bertatik, autobusez eramaten zituzten Saturraraneraino. Euskal Herritik emakume ugari bidali ziren, baina Asturiasetik etorri ziren emakumeak izan ziren ugarienak. 103 emakume asturiar egon ziren preso espetxe honetan, espetxean zeudenen %17 pasa[539]. Horrez gain, lurralde ho-

A la cárcel de Saturraran enviaban mujeres de todo el Estado español a cumplir condena. Según los testimonios, trenes llenos de mujeres salían de varias cárceles y tenían como última parada la estación de tren de Deba. De ahí los llevaban en autobús hasta Saturraran. De Euskal Herria enviaron a muchas mujeres, pero la mayoría eran mujeres traídas de Asturias. En esta cárcel hubo 103 mujeres asturianas encarceladas, más del 17% de las que estaban en la cárcel[539]. Además, debido al fuerte movimiento izquierdista

[538] DE LA CUESTA ARZAMENDI J.L. eta ETXEBERRIA GABILONDO F. (zuz), Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra, Emakunde, Astigarraga, 2009. / DE LA CUESTA ARZAMENDI, J.L. y ETXEBERRIA GABILONDO, F. (dir.): Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra, Emakunde, Astigarraga, 2009.

[539] Id.

rrek zuen mugimendu ezkertiar indartsua zela eta, bertako emakumeen aurkako kondenak bereziki gogorrak izan ziren. Honen isla da, Debako zaintzapeko askatasun batzordean aurkitzen ziren Saturraraneko presoen portzentai altu bat lurralde honetakoak izatea, erbestera kondenatuak baitzeuden gainera. Kontuan izateko, dakigunez espetxe honetako 15 emakume egon baziren Deban batzorde honen zaintzapean, eta horietatik 7 Asturiaskoak ziren.

Kartzela hau, sei pabiloitan antolatua zegoen eta Hotel Astigarragakoan, emakumeak eta beraien haurrak aurkitzen ziren, gehienak jaio berriak izaten zilerarik, Laudina Gonzalez, Manuela Merino eta Josefa Rodriguezen kasuan bezala. Ezaugarri bereizgarri bezala, nahiz eta zaintzaileak egon, eguneroko bizitza eta bertako egoera eta baldintzen arduraduna emakumeen ordena erlijioso bat zen. Bizi baldintzak oso gogorrak izan ziren, goizean goiz altxatzen ziren, ehunka emakume eta haur lurrean lo egin ostean, etzanda egoteko justua zen hutsunetik, beraien petatea jaso eta Angelusa errezatzera behartzen zituzten. Pertsona guztientzako mahairik ez zegoenenez lurrean eserita jaten zuten[540]. Janari eskasia nabarmena izan zen eta inguruko herritarrek askotan ematen zieten jatekoa eta laguntza eskaini. Presoen zaintzaz arduratzen ziren lekaimeak, bereziki krudelak ziren, tratu txarrak ohikoak zirelarik eta askotan presoendako janaria lapurtu eta presondegiko ekonomatoan saltzen zuten. Esaterako, Debako baserrietatik eramaten zen esnea, Ondarroako azokan saltzen zuten[541].

Espetxean joste lanak burutzen zituzten, inguruetako herrietan saltzen zituztelarik produktuak[542].

Guzti honek ondorio larriak izan zituen presoen osasunean, 1938 eta 1944artean, 171 pertsona hil ziren, 116 emakumeak izan zirelarik[543] eta askoz gehiago izan ziren gaixotu zirenak. Josefa Rodriguezen kasuan, gaixo irten zen espetxetik eta horren ondorioz, erbestea amaitzean gurasoekin itzultzea eskatu zuen[544]. Umeen kasuan, 55 hil ziren, bizi baldintza eskasak zirela eta, horretaz gain tamalgarria da eta azpimarratu behar da, 1944an, espetxean aurkitzen ziren ume guztiak beraien amen besoetatik kendu eta umezurztegietara eraman zituztela frankistek. Asko berriro inoiz ez ziren elkartuko[545].

Prudencio Arrizabalaga Alberdik, Silvino Moral izeneko lankide bat izan zuen, zein Saturrarango espetxean jaio zen. Oso gaizki pasa zutela eta gose asko pasarazi ziela kontatzen zion[546]. Asuncion Rodriguez Pulgarren gizonaren izen berdina zuen, honen semea izango zelarik.

Emakumeek, nahiz eta bizi baldintzak ikaragarriak izan, elkartasun sare handi bat eratu zuten hezkuntza, alfabe-

que había en esa región, las condenas contra las mujeres de allí fueron especialmente duras. Fiel reflejo de ello es, que un alto porcentaje de presos de Saturraran que estaban bajo la supervisión de la comisión de libertad vigilada de Deba eran de esa región, porque además estaban condenadas al exilio. Que sepamos estuvieron 15 mujeres de esta prisión bajo la vigilancia de esta comisión y, de ellas, 7 eran de Asturias.

Esta cárcel estaba organizada en seis pabellones, y en el Hotel Astigarraga estaban las mujeres y sus niños, la mayoría recién nacidos. Es el caso de Laudina González, Manuela Merino y Josefa Rodríguez. Como rasgo distintivo, aunque hubiera guardias, el día a día y la responsable de las condiciones y la situación en la cárcel era una orden religiosa de mujeres. Las condiciones de vida fueron muy duras: les hacían madrugar, tras haber dormido en el suelo cientos de mujeres y niños, tenían el espacio justo para tumbarse, recogían su petate y les obligaban a rezar el Angelus. Y como no había mesas para todas, comían sentadas en el suelo[540]. La escasez de comida era patente y los habitantes de los alrededores muchas veces les daban de comer y les ofrecían ayuda. Las monjas que se ocupaban de la vigilancia de los presos eran especialmente crueles; los malos tratos eran habituales y muchas veces robaban la comida que era para los presos y lo vendían en el economato de la cárcel. Por ejemplo, la leche que se llevaba de los caseríos de Deba, lo vendían después en el mercado de Ondarroa[541].

En la cárcel hacían trabajos de costura y luego vendían los productos en los pueblos de alrededor[542].

Todo ello tuvo graves repercusiones en la salud de las presas. Entre 1938 y 1944 murieron 171 personas, de ellas 116 mujeres[543] y fueron muchas más las que enfermaron. Por ejemplo, Josefa Rodríguez salió enferma de la cárcel y a raíz de ello, al terminar el exilio pidió volver con sus padres[544]. En cuanto a los niños, murieron 55, por las malas condiciones de vida. Por otro lado, hay que subrayar un hecho deplorable que ocurrió en 1944: todos los niños que se encontraban en la cárcel les fueron quitados a sus madres de los brazos por los franquistas, y fueron llevados a orfanatos. Muchos no volvieron a juntarse nunca[545].

Prudencio Arrizabalaba Alberdi tuvo un compañero de trabajo llamado Silvino Moral, que había nacido en la cárcel de Saturraran. Le contaba que lo pasaron muy mal y les hicieron pasar mucha hambre[546]. Tenía el mismo nombre que el marido de Asunción Rodríguez Pulgar, por lo que sería su hijo.

Las mujeres, aunque las condiciones de vida fueran terribles, crearon una gran red de solidaridad, organizando

---

540 Id.

541 Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

542 Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

543 DE LA CUESTA ARZAMENDI J.L. eta ETXEBERRIA GABILONDO F. (zuz), Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra, Emakunde, Astigarraga, 2009. / DE LA CUESTA ARZAMENDI, J.L. y ETXEBERRIA GABILONDO, F. (dir.): Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra, Emakunde, Astigarraga, 2009.

544 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

545 DE LA CUESTA ARZAMENDI J.L. eta ETXEBERRIA GABILONDO F. (zuz), Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra, Emakunde, Astigarraga, 2009. / DE LA CUESTA ARZAMENDI, J.L. y ETXEBERRIA GABILONDO, F. (dir.): Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra, Emakunde, Astigarraga, 2009.

546 Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

tatze eta tailer ugari antolatuz. Saturrarangoa, eredugarria izan zen arlo honetan, gainontzeko espetxeekin alderatuz gero. Horrez gain, inguruko tailerretan ere lan egiten zuten, Mutrikuko Egaña tailerrean esaterako. Ikasketak edota lana egiteagatik zigor murrizketak jasotzen zituzten, tailerrean kasuan egiten zen denbora kondenatik ezabatzen zen eta ikasketen kasuan berriz, azterketak burutzen zituzten agintariek eta hauek gainditu gero kondena zati konkretu bategatik kommutatzen zitzaien[547].

muchos talleres, educación, alfabetización... El de Saturraran fue ejemplar en ese sentido y, sobre todo, comparando con las demás cárceles. Además, trabajaban en los talleres de alrededor; en los documentos se menciona "Talleres Egaña". Reducciones de condena por estudios o por trabajo, el tiempo que pasaban en el taller se quitaba de la condena y en el caso de los estudios, las autoridades realizaban exámenes y si los superaban se les conmutaba por una parte concreta de la condena[547].




**Egaña tailerra Mutrikun.** (GGFA, Kutxa Fototeka). / **Taller Egaña en Mutriku.** (GFA, Kutxa Fototeka).



**Saturraranen preso izan zituzten emakumeen argazkia, beraien aurrekin.** (Euskal Memoria). / **Fotografía de las mujeres que estuvieron prisioneras con sus hijos en Saturraran.** (Euskal Memoria).

[547] AHPG-GPAH, 02803 kutxa, 0034 espedientea eta AHPG-GPAH, 02812 kutxa, 0013 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02803, exp. 0034 y AHPG-GPAH, caja 02812, exp. 0013.

1944an, behin umeen "lapurreta" burututa, espetxea ixtea erabaki zuten autoritate frankistek, preso jarraitzen zuten emakume batzuk Zornotzakora eraman eta gainontzekoak Estatu Espainiarreko beste espetxeetara eramanez[548]. Hala ere, aske geratu ziren pertsonak, ez ziren oraindik libre geratzen, asko espetxetik irten baziren ere, baldintzapeko askatasunean aurkitzen baitziren eta deserriratze kondenak zituzten beraien gain. Baldintzapeko askatasuna zutenek gainera, irizpide oso zurrun batzuk jarraitu behar zituzten, espetxean berriro amaitu nahi ez bazuten. Sinatzera pasa behar ziren autoritateen aurretik periodikoki eta lanpostuko arduradunak bere jarrerarekiko txostenak burutzen zituzten.

Ondorioz, hamarnaka pertsona, Mutriku eta inguruko herrietan geratu ziren bizitzen, batzuk kondena amaitzean beraien herrietara itzuli ziren eta beste batzuk Euskal Herrian bizitzen jarraitu zuten. Debaren kasuan, 15 emakume egon ziren bizitzen herrian, deserriratzea pairatzen zuten bitartean. Testigantzen arabera, hiru familiak Deban bizitzen jarraitu zuten, inguruko industrietan lanean edota komertzioak irekiz. Rodriguez Pulgar ahizpak esaterako, herrian geratu ziren bizitzen, deserriratze kondena amaitu ostean ere. Horrez gain, dokumentuetan agertzen ez diren beste emakume batzuk ere geratu ziren herrian, Extremadura eta Avilako pertsona bana esaterako, herrian lan egin eta bizi izan zirenak[549].

En 1944, una vez realizado el "robo" de niños, las autoridades franquistas decidieron cerrar la cárcel. Unas mujeres que continuaban presas las llevaron a la de Zornotza y, las demás, a otras cárceles del Estado español[548]. De todos modos, aunque muchas hubieran salido de la cárcel, las personas que quedaron en libertad todavía no quedaban totalmente libres porque estaban en libertad condicional y tenían condenas de exilio. Además, las que tenían libertad condicional tenían que seguir unas directrices muy rígidas, si no querían volver a la cárcel. Tenían que pasar periódicamente ante las autoridades, y el responsable del puesto de trabajo realizaba informes sobre su actitud.

En consecuencia, decenas de personas se quedaron a vivir en Mutriku y en los pueblos de alrededor, algunos volvieron a sus pueblos al cumplir la condena y otros siguieron viviendo en Euskal Herria. En Deba hubo 7 mujeres que estuvieron viviendo mientras sufrían el destierro. Según los testimonios, tres familias siguieron viviendo en Deba, trabajando en las industrias de alrededor o abriendo comercios, unos como costureros y uno abrió una tienda de bicicletas. Las hermanas Rodríguez Pulgar se quedaron a vivir en el pueblo, incluso al terminar la condena de destierro. También se quedaron otras mujeres que no aparecen en los documentos, por ejemplo una de Extremadura y otra de Ávila que trabajaron y vivieron en el pueblo[549].



**Emakume milizianoak, armak eskuan altxamenduari aurre egiteko prest.** (Euskal Memoria). / **Mujeres milicianas, con las armas en mano, listas para hacer frente al alzamiento.** (Euskal Memoria).

548 CHUECA J., Saturrarango kartzela, Hotel krudela emakumeentzat, Argia astekaria https://www.argia.eus/argia-astekaria/2164/saturrarango-kartzela-tiklortua. / CHUECA J.: "Saturrarango kartzela, Hotel krudela emakumeentzat", semanario Argia, conseguido de la página: https://www.argia.eus/argia-astekaria/2164/saturrarango-kartzela.

549 Id.

Emakume hauek, parte hartze aktiboa izan zuten altxatuen aurkako erresistentzian, hala nola, Rodriguez Pulgar ahizpak, Asuncion eta Elvira,Moreda (Asturias) herrikoak edota Florentina de Cabo Arenas (Vozmediano, Leon). Emakume hauek, hainbat miliziano errepublikarrekin batera, nahiz eta frontea urriak 21ean erori Asturiaseko azken hiriak altxatuen esku geratzean, mendietan erresistentzia antolatzen jarraitzen zuten. Gune garrantzitsuenetako bat Aller-eko zonaldea izan zen. Talde horietako lider nagusietako bat Silvino Moran Fueyo izan zen (Asuncionen gizona), 241 Batailoiaren komandantea. Azaroaren 25an, El Rasoneko borda batean zeuden lotan Asuncion, Elvira bere ahizpa, Silvino gizona, Angel “el de Misiegos” eta Dionisio Fernandez (Angelen semea) eta bere kide batek traizionatua, falangistek finkari gauean eraso egin zioten, tiroketa bortitza emanez eta granada asko jaurtiz. Elvira izan zen lekukoen arabera granada hauek bordatik kanpo botatzeaz arduratzen zena. Dionisio, Angel eta Silvino tiroketan hil ziren, lehen biak lekuan bertan lurperatu zituzten eta Silvinoren kasuan, gorpua umiliatu eta Moredako kasinoko erakusleihoan eduki zuten falangistek. Asuncion eta Elvira, larriki zauritu zituzten, baina beste emakume asko ez bezala, momentuan erailak izan ohi zirenak, ospitalera eraman eta gero gerra kontseiluan epaituak izan ziren[550].

Esas mujeres fueron parte activa en la resistencia contra los sublevados; por ejemplo, las hermanas Asunción y Elvira Rodríguez Pulgar (Moreda, Asturias) o Florentina de Cabo Arenas (Vozmediano, León). Junto a varios milicianos republicanos, aunque el frente hubiera caído el 21 de octubre con la caída de las últimas ciudades de Asturias, seguían organizando la resistencia en los montes, siendo una de las zonas más importantes la zona de Aller. Uno de los líderes de esos grupos fue Silvino Moran Fueyo (marido de Asunción), comandante del Batallón 241. El 25 de noviembre, Asunción, su hermana Elvira, el marido Silvino, Angel “el de Misiegos” y Dionisio Fernández (hijo de Ángel) estaban durmiendo en una choza de El Rasón, cuando fueron traicionados por un miembro suyo y los falangistas atacaron su finca, dándose un fuerte tiroteo y lanzando muchas granadas. Según los testigos, era Elvira la que se encargaba de echar esas granadas fuera de la choza. Dionisio, Angel y Silvino murieron en el tiroteo. Los dos primeros fueron enterrados allí mismo, pero el cuerpo de Silvino fue humillado y los falangistas lo tuvieron en el escaparate del casino de Moreda. Asunción y Elvira fueron heridas de gravedad pero, al contrario de lo que ocurría con muchas otras mujeres, que eran asesinadas en el momento, las llevaron al hospital y fueron juzgadas en un consejo de guerra[550].



**Asturiasko El Rasoneko borda, azken erresistentzia gunea izan zena.** (Arqueologia de la Guerra Civil Española bloga). / **Cabaña de El Rasón (Asturias), el que fuera el último punto de resistencia.** (Blog de Arqueologia de la Guerra Civil Española).



**Silvino Moran Fueyo, Asuncion Rodriguez Pulgarren gizona.** (Arqueologia de la Guerra Civil Española bloga). / **Silvino Morán Fueyo, marido de Asunción Rodríguez Pulgar.** (Blog de Arqueologia de la Guerra Civil Española).

Azpimarratu behar da ere, emakume hauen kondenak oso gogorrak izan zirela orokorrean, politikoki pertsona aktiboak zirela erakusten duena. Ondorioz, autoritate frankisten errepresioa ere krudela izan zen, kondena altuak inposatuz. Gainera, tribunaletan, ez zuten beraien jarduna serio hartzen “adicta al comunismo” bezalako mespretxuzko kalifikazioak

Hay que destacar que, en general, las condenas de estas mujeres fueron muy duras lo que demuestra que eran personas políticamente activas. En consecuencia, la represión de las autoridades franquistas también fue cruel, imponiendo altas condenas. Además, en los tribunales no se tomaban en serio su charla y utilizaban calificaciones des-

[550] AHPG-GPAH, 02815 kutxa, 0045 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02815, exp. 0045.

erabiltzen baitzituzten emakumeen aurka[551]. Horrez gain, kondenen kommutazio batzordeak ere zigorrak mantentzearen aldeko jarrera izan zuen. 1941etik aurrera, gizonezko gehienei kondenak kommutatu zizkieten erakunde honek, baina aztergai ditugun emakume hauen kasuan, ez zen kommutaziorik egon edota orokorrean baino gogorragoak izan ziren. Asunción Rodriguezen kasuan, 20 urteko kondena berretxi zioten, bere kondena ez ziotelarik 1958a arte likidatu[552].

pectivas como "adicta al comunismo" contra las mujeres[551]. Además, la comisión de conmutación de las condenas tuvo la actitud de mantener las penas. A partir de 1941, esta comisión conmutó las condenas a la mayoría de los hombres, pero en el caso de estas mujeres no hubo ninguna conmutación o fueron más duros que en general. Por ejemplo, en el caso de Asunción Rodríguez, le confirmaron su condena de 20 años, y no se la liquidaron hasta 1958[552].

| IZENAK / NOMBRES | BIZITOKIA / LUGAR DE RESIDENCIA |
|---|---|
| CASTILLO SOLANO, CARMEN | Cordeleria kalea 14 eta Olloqui baserrian bizi izan zen. / Vivió en el número 14 de la calle Cordeleria y en el caserío Olloqui. |
| CASTILLO SOLANO, EMILIA | Cordeleria kalea 14 eta Olloqui baserrian bizi izan zen. / Vivió en el número 14 de la calle Cordeleria y en el caserío Olloqui. |
| DE CABO ARENAS, FLORENTINA | Lersundi kalea, etxeko lanak egiten zituen. / Calle Lersundi. Labores de casa. |
| DOMENECH ELIZONDO, FOSEFA | Lersundi kalea 11 zenbakian bizi zen. Etxeko lanak eta gizonaren komertzioan lan egiten zuen. / Calle Lersundi nº 11. Trabajaba en las labores de casa y en el comercio del marido. |
| GARATE IRIONDO, VISITACION | |
| GARCIA ALVAREZ, ANGELINA | Lersundi 11. |
| GONZALEZ GONZALEZ, LAUDINA | |
| LA FUENTE RUBIO, CARMEN | Cordeleria kalean bizi zen. Etxeko lanak eta Celuloide enpresan (1943) lan egin zuen. Josefa Aguirrezabalarenean zerbitzari lanetan ere (1944). / Calle Cordelería. Labores de casa y en la empresa Celuloide (1943). Como sirvienta en casa de Josefa Aguirrezabala (1944). |
| MERINO ALONSO, MANUELA | Trecuren alargunarenean lan eta bizi zen Lersundi kalean. / Vivía y trabajaba en la casa de la viuda de Trecu, en la calle Lersundi. |
| PEREZ NARANJO, JOSEFA | Larraguibel baserrian bizi zen, etxeko lanak egiten zituen. / Caserío Larraguibel. Labores de casa. |
| RODRIGUEZ PEREZ, MARIA | Astillero kalea 17an bizi zen. / Calle Astillero nº 17. |
| RODRIGUEZ PULGAR, ASUNCION | Irailak 23 kalean bizi zen. Etxeko lanak eta Industrias Celuloiden (1943) lan egin zuen. Etxeko lanak eta Industrias Devan (1953) ere. / Calle 23 de septiembre. Trabajaba en labores de casa y en Industrias Celuloide (1943). En labores de casa y en Industrias Deva (1953). |
| RODRIGUEZ PULGAR, ELOISA | Iturkale 24 zenbakian bizi zen. Etxeko lanak egiten zituen. / Iturkale nº 24. Labores de casa. |
| RODRIGUEZ PULGAR, ELVIRA | Irailak 23 kalean bizi zen. Etxeko lanak eta Industrias Celuloiden lan egin zuen. / Calle 23 de septiembre. Trabajaba en labores de casa y en Industrias Celuloide. |
| RODRIGUEZ RODRIGUEZ, JOSEFA | Trecuren alargunarenean lan eta bizi zen, Lersundi kalean. / Vivía y trabajaba en la casa de la viuda de Trecu, en la calle Lersundi. |
| TELEÑA* MENDEZ BALBINA | |
| TAPIA AGUILAR, JUANA | |

## CASTILLO SOLANA, EMILIA

Santoñan jaio zen, 1914ko abuztuak 20an, baina bere ahizpa bezala Villaverde de Pontonesen bizi zen. Jostun gisa ateratzen zuen aurrera bere bizitza.

1937ko abenduaren 15an, Santoñako 2. Gerra Kontseiluak epaitu egin zuen eta matxinada militarra burutzea egotzi zion. Bertan, 20 urte eta egun bateko kondena jaso zuen (121-37 sumarioa). 1938ko abuztuak 14an, Santoñako espetxetik Saturraranekora lekualdatu zuten, non Bilboko Auditoriaren jakinarazpen bat jaso zuen denbora gutxira, espetxealdi arindua lortzeko data 1945ko urriak 25 ezartzen ziona. Espetxean egon zen garaian, Egaña Tailerrean lan egiten jardun zuen, kondena murrizte aldera.

1941eko maiatzak 12an, baldintzapeko askatasuna lortzeko prozesua martxan jarri zen eta berau ekainaren 13an lortu zuen, hori bai, deserriratzearen baldintzarekin. Bere ahizpa Carmenekin batera irten zen espetxetik 17an eta biak Debako Cordeleria kaleko 14 zenbakian bizitzen jarri ziren[553]. Urte bereko abuztuak 24an, kondenaren erdia beteta zutela eta, deserriratzea bertan behera geratu zen Emiliarentzat, baina Deban bizitzen jarraitu zuten, 1943ko baldintzapeko askatasunean erroldan agertzen baitira biak, bertan, Olloqui baserrian bizi zirela agertzen da. Behin betiko askatasuna ez du 1946ko apirilak 24a arte lortuko[554].

[551] AHPG-GPAH, 02811 kutxa, 0033 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02811, exp. 0033.
[552] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[553] AHPG-GPAH, 02842 kutxa, 0020 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02842, exp. 0020.
[554] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.



**Egaña tailerrean emakumeak lanean.** (GFA, Kutxa Fototeka). / **Mujeres trabajando en el taller Egaña.** (GFA, Kutxa Fototeka).

Nació en Santoña el 20 de agosto de 1914, pero vivía en Villaverde de Pontones como su hermana. Se sacaba la vida adelante como costurera.

Fue juzgada el 15 de diciembre de 1937 por el 2º Consejo de Guerra de Santoña, imputándole rebelión militar. Recibió una condena de 20 años y un día de cárcel (sumario 121-37). El 14 de agosto de 1938 fue llevada de la cárcel de Santoña a la de Saturraran. Al poco tiempo, recibió una notificación de la Auditoría de Bilbo, que le avisaba de que la fecha en la que conseguiría para conseguir la prisión atenuada era el 25 de octubre de 1945. Durante la época que estuvo encarcelada, trabajó en los Talleres Egaña, para rebajar la condena.

El 12 de mayo de 1941 se puso en marcha el proceso para conseguir la prisión condicional. Lo consiguió el 13 de junio, pero bien es verdad que con la condición del destierro. Salió de la cárcel el día 17, junto a su hermana, y ambas se pusieron a vivir en la calle Cordeleria 14 de Deba[553]. El 24 de agosto del mismo año quedó suspendido el destierro de Emilia porque había cumplido la mitad de la condena, aunque parece que siguieron viviendo en Deba, porque aparecen las dos en el censo de 1943 de personas en libertad condicional. Allí se dice que vivían en el caserío Olloqui. No conseguiría la libertad definitiva hasta el 24 de abril de 1946[554].

## CASTILLO SOLANA, CARMEN

Villaverde de Pontones herrian (Santander) jaio zen 1916ko martxoak 18an, bertan bizitzen jarraitzen zuelarik altxamenduaren aurretik. Etxeaz arduratzen zen eta ez zegoen ezkondua. Matxinada militarra burutzearen akusaziopean, 1937ko urriak 28an atxilotua izan zen, Santoñako Epaitegi Militarraren aginduz eta bertako espetxean preso sartu zuten. Hiri bereko 2. Gerra Kontseilu Orokorrak, delitu berdinagatik, 20 urte eta egun bateko kondena ezarri zion, abenduaren 15an. 1938ko urtarrilaren 20an, espetxeak kondena jasotzearekin batera, Saturraraneko Emakumeen Espetxera lekualdatu zuten.

Ez dugu bere espetxealdian zehar bere bizitzarekiko daturik tamalez. 1941eko ekainak 17an, baldintzapeko askatasuna deserriratzearekin ezarri zion Espetxe Zaintzak eta espetxetik irten zen, bere etxebizitza Debako Cordeleria kaleko 14. zenbakian ezarri zuelarik, Emilia ahizparekin batera[555]. 1943ko apirilak 17an kondena 8 urtekoagatik kommutatzea erabaki zuen Espetxe Zuzendaritza Orokorrak. Bere ahizparekin batera, behin betiko askatasuna berreskuratu zuen, 1946ko apirilak 24an.

Nació en Villaverde de Pontones (Santander) el 18 de marzo de 1916 y seguía viviendo allí. Se responsabilizaba de la casa y no estaba casada. Fue detenida el 28 de octubre de 1937 por orden del Juzgado Militar de Santoña, bajo la acusación de rebe-

[555] AHPG-GPAH, 02842 kutxa, 0019 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02842, exp. 0019.

lión militar, y fue encarcelada allí mismo. El 2º Consejo de Guerra General de la misma ciudad, por el mismo delito, le condenó a 20 años y un día de cárcel, el 15 de diciembre. El 20 de enero de 1938, cuando la prisión recibió la condena, fue trasladada a la cárcel de mujeres de Saturraran.

Por desgracia, no tenemos datos sobre su vida mientras duró el encarcelamiento. El 17 de junio de 1941, Instituciones Penitenciarias le impuso la libertad condicional con destierro y salió de la cárcel. Estableció su vivienda en la calle Candelaria 14 de Deba[555]. El 17 de abril de 1943, la Dirección General de Prisiones decidió conmutar la condena por una de 8 años. Consiguió la libertad total, junto a su hermana, el 24 de abril de 1946.

### DE CABO ARENAS, FLORENTINA

Vozmedianokoa (Leon), 241 batailoi errepublikarrean jardun zuen, Rodriguez Pulgar ahizpak bezala[556]. Gerra kontseilu Frankistek 20 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, Errepublika garaian edota honen defentsan izan zuen paperagatik. Horrez gain, Valladolideko Erantzukizun Politikoen Tribunalak erruztatu egin zuen 1939an[557]. 1943ko zaintzapeko askatasunaren erroldan aurkitzen dugu, non zehazten den, 35 urte zituela eta Trecu alkate frankistaren alargunaren etxean lan egiten zuela, neskame gisa[558].

Era de Vozmediano (León). Sirvió en el batallón republicano 241, como las hermanas Rodríguez Pulgar[556]. Los Consejos de Guerra Franquistas le impusieron una condena de 20 años, por el papel que tuvo durante la República o defendiéndola. Además, el Tribunal de Responsabilidades Políticas de Valladolid la inculpó en 1939[557]. En 1943, la encontramos en el censo de las que estaban bajo libertad vigilada. Se especifica que tenía 35 años y que trabajaba como sirvienta en casa de la viuda del alcalde franquista Trecu[558].

### GARCIA ALVAREZ, ANGELINA

Llanesen (Asturias) jaio zen 1910 urtean eta etxeko lanak egiten zituen. Alarguna zen eta CNT sindikatura afiliatua zegoen. Iparraldeko Frontea erortzean, Avilesetik ebakuatu eta Kataluniara joan zen[559]. Altxatuek, atxilotu egin zuten momenturen batean eta Saturraranen egon zen preso. 1943 urterako Deban bizitzen aurkitzen zen baldintzapeko askatasunean eta deserriratzearekin, Lersundi kaleko 11 zenbakian. 1943ko urriak 23an, Oviedoko epaitegi militarrak kondenaren jakinarazpen irmoa igorri zion Debara, 20 urteko espetxealdia zehaztuz[560]. 1944ko maiatzaren 1ean, deserriratzea bertan behera geratu zitzaion eta Luanco (Asturias) herrira bizitzera joan zen, bere gurasoak bertan aurkitzen ziren eta[561].

Nació en Llanes (Asturias) en 1910, y se dedicaba a las labores de casa. Era viuda y estaba afiliada al sindicato CNT. Al caer el Frente Norte, la evacuaron de Avilés y se fue a Cataluña[559]. En algún momento los sublevados la detuvieron y estuvo preso en Saturraran. No sabemos cuanto tiempo estuvo, pero para 1943 estaba viviendo en Deba en la calle Lersundi nº 11, en libertad condicional con destierro. El 23 de octubre de 1943, el juzgado militar de Oviedo le envió a Deba la notificación firme de la condena: 20 años de cárcel[560]. El 1 de mayo de 1944, quedó suspendido el destierro y fue a vivir a Luanco (Asturias) porque sus padres se encontraban allá[561].

### GONZALEZ GONZALEZ, LAUDINA

LLanecas de Pedriego herrikoa zen (Oviedo, Asturias), 36 urte zituen (1940an) eta alargun geratuta zegoen, 2 seme alabekin.

1940ko maiatzaren 22an preso eraman zuten Oviedoko espetxe probintzialera eta behin behineko espetxealdia aplikatu zioten epaiketa egin bitartean. 1941eko maiatzaren 14an, Oviedoko Gerra Kontseiluak matxinadari laguntza emateagatik 12 urte eta egun bateko espetxealdia ezarri zion Laudinari (630-41 sumarioa). Epaiketa hau, bost emakumeren aurka burutu zen. Bertan, Laudina ideia marxistadun pertsona bezala definitzen dute, 1934ko Urriko Iraultzan, milizia ezkertiarren aldeko jarrera erakutsi zuena eta honek porrot egitean partaideei ezkutatzen lagundu ziela egotzi zioten. Horrez gain, altxamendua burutu zutenean faxistek 1936an, errepublikarrek probintziaren kontrola mantentzea lortu zuten garaian, San Martineko elizaren arpilatzean parte hartzea egozten zioten. Altxatuak probintziaren kontrola hartu zutenean, ihesean eta ezkutuan zebiltzan errepublikarrei laguntza eskaini zien gainera.

1941ko azaroak 12an, Saturraraneko kartzelara lekualdatu zuten. 1942ko azaroak 23an, baldintzapeko askatasuna lortzeko prozesua abiatu zuen, abenduaren 22an Saturraranetik irten zelarik, bere bizitokia Deban finkatuz, deserriratze agindua baitzuen[562]. Behin betiko askatasuna 1952ko uztailak 30ean lortu zuen eta jada ez zen Deban bizi, herrira itzulia baitzen[563].

[556] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,9,C0007907.
[557] Archivo de la Real Chancilleria de Valladolid, JC caja 3621.0033.
[558] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[559] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,3,A0083135.
[560] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[561] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[562] AHPG-GPAH, 02812 kutxa, 0013 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02812, exp. 0013.
[563] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

Era de Llanecas de Pedriego (Asturias), tenía 36 años (1940), viuda y con 2 hijos.

El 22 de mayo de 1940 la llevaron presa a la prisión provincial de Oviedo, donde se le aplicó la prisión preventiva, hasta que se le hiciera el juicio. El 14 de mayo de 1941, el Consejo de Guerra de Oviedo impuso una pena de 12 años y un día de cárcel a Laudina, por ayudar a la rebelión (sumario 630-41). Ese juicio fue contra cinco mujeres. A Laudina lo definen como una persona de ideales marxistas, y se le acusó de que en la revolución de octubre de 1934 se mostró afín a las milicias izquierdistas y que, al fracasar esta, ayudó a los participantes a esconderse. Además, cuando los fascistas comenzaron el alzamiento en 1936, cuando los republicanos consiguieron mantener bajo control la provincia, se le acusó de haber participado en el saqueo de la iglesia de San Martín. Cuando los sublevados tomaron el control de la provincia, ayudó a los republicanos que andaban huyendo o a escondidas.

El 12 de noviembre del mismo año la trasladaron a la cárcel de Saturraran. El 23 de noviembre de 1942 pusieron en marcha el proceso para conseguir la libertad condicional, saliendo el 22 de diciembre de Saturraran, afincándose en Deba, porque todavía tenía la orden de destierro[562]. Consiguió la libertad definitiva el 30 de julio de 1952 pero ya no vivía en Deba, porque había vuelto a su pueblo[563].



**Saturraraneko emakumeak espetxean.** (Euskal Memoria). / **Mujeres en la prisión de Saturraran.** (Euskal Memoria).

**LA FUENTE RUBIO, CARMEN**

Madrilekoa zen jatorriz. Saturraranera eraman zuten preso, 20 urteko espetxealdira kondenatua izan baitzen, gerra kontseilu batean. 1943 urterako behintzat baldintzapeko askatasunean aurkitzen zen eta erroldan zehazten da 21 urte zituela eta Cordeleria kalean bizi zela. Herrian, Celuloide enpresan lan egiten zuen eta 1944. urtean, Josefa Aguirrezabalaren zerbitzari moduan lan egin zuen. 1947an, 24 urte zituela, Madrilera itzultzeko baimena eskatu zuen[564].

Madrileña de nacimiento. La llevaron presa a Saturraran porque había sido condenada a 20 años de cárcel en un consejo de guerra. Para 1943 estaba en libertad condicional, y en el censo se especifica que tenía 21 años y vivía en la calle Cordelería. En el pueblo trabajaba en la empresa Celuloide. En 1944 trabajó como sirvienta de Josefa Aguirrezabala. En 1947, a la edad de 24 años, pidió permiso para volver a Madrid[564].

**MERINO ALONSO, MANUELA**

La Bañegan jaioa (Leon), 1913ko urtarrilak 3an, probintzia bereko Pola de Gordon herrian bizi zen eta etxeko lanetan jarduten zuen. Ezkondua zegoen eta seme bat zuen, 7 hilabete zituena Saturraranera lekualdatu zutenean (1938ko urriak 5an). Leoneko 4. Gerra Kontseilu Iraunkorrak, matxinadari laguntza emateagatik 14 urte, 8 hilabete eta egun batera kondenatu zuen uztailaren 29an (758-38 sumarioa), baina aurrez preso zegoen jada uztailaren 1etik, San Marcos espetxetik epaitegira eraman baitzuten eta bertatik Leongo Probintzialera. Sumario hau, Pola de Gordon herriko hiru emakumeren aurka burutu zuten, non hirurei hitz berdinekin akusatzen zitzaien, "… adicta al comunismo y propagandista de estas doctrinas. Iniciado el Movimiento

[564] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

Nacional, la sorprende a la procesada en Pola de Gordon, en union de las otras procesadas, fue de las primeras que entraron a saquear y robar la casa de los vecinos de dicha villa, apellidados Abastas".

Esan bezala, urriak 5an, Saturraranera lekualdatu zuten. 1939ko abenduak 3an, La Vecilla herriko Ondasunen Konfiskazio Batzordeak, bere ondasunak zerrendatzera behartu zuen, bere aurkako konfiskazio bat burutzeko helburuarekin, baina berak deklaratu zuen bezala, ez zuen inolako ondasunik bere izenean. 1942ko maiatzean, tailer batean lan egiten hasi zen, kondena murrizte aldera. 1942ko urriak 24an, kondena 12 urte eta egun batekoagatik kommutatu zioten. Urte bereko azaroak 28an, baldintzapeko askatasuna lortzeko prozesua abian jarri zen Manuelarentzat eta 1943ko otsailaren 7an baldintzapeko askatasuna lortu zuen, baina deserriratzeko agindua zuenez Deban ezarri zuen etxebizitza[565], Lersundi kaleko 11. zenbakian. Bertan, Trecu alkate frankistaren alargunarentzat lan egiten jardun zuen, neskame gisa, bere deserriratze kondena bertan behera geratu zen arte. Honi esker, La Banezara itzuli ahal izan zuen 1944ko martxoak 12an[566].

Nació en La Bañega (León) el 3 de enero de 1913. Vivía en Pola de Gordón, en la misma provincia, y se dedicaba a las labores de casa. Estaba casada y tenía un hijo de 7 meses cuando la trasladaron a Saturraran, el 5 de octubre de 1938. El 4º Consejo de Guerra Permanente de León la condenó, el 29 de julio, a 14 años, 8 meses y un día de cárcel por ayudar a la rebelión (sumario 758-38), pero estaba presa desde el 1 de julio porque al juzgado la llevaron desde la prisión de San Marcos y, de allí, al provincial de León. Ese sumario fue llevado a cabo contra tres mujeres de Pola de Gordón, donde a las tres se les acusó con las mismas palabras: "… adicta al comunismo y propagandista de estas doctrinas. Iniciado el Movimiento Nacional, la sorprende a la procesada en Pola de Gordon, en unión de las otras procesadas, fue de las primeras que entraron a saquear y robar la casa de los vecinos de dicha villa, apellidados Abastas".

Tal como hemos dicho, el 5 de octubre fue trasladada a Saturraran. El 3 de diciembre de 1939, la Junta de Confiscación de Bienes de La Vecilla la obligó a hacer un listado de sus bienes, para así poder realizarle una confiscación pero, tal como declaró ella, no tenía ningún bien a su nombre. En mayo de 1942 empezó a trabajar en un taller, para rebajar la condena. El 24 de octubre de 1942 le conmutaron la condena por 12 años y un día. El 28 de noviembre, se puso en marcha el proceso para conseguir la libertad condicional para Manuela. Lo consiguió el 7 de febrero de 1943 pero, como tenía orden de destierro, instaló su vivienda en la calle Lersundi nº 11 de Deba[565]. Allí estuvo trabajando para la viuda del alcalde franquista Trecu, como sirvienta, hasta que su condena de destierro quedó en suspenso y pudo volver a La Baneza el 12 de marzo de 1944[566].

### RODRIGUEZ PEREZ, MARIA[567]

1905an jaio zen Onis herrian (Asturias) eta etxeko lanetan jarduten zuen. Iparraldeko Frontea erortzean, preso hartu zuten eta 1937an gerra kontseilu bidez epaitua izan zen, altxatuen aldetik eta 12 urteko espetxealdira kondenatu zuten, matxinadari laguntza emateagatik[568] 1943an, Debako baldintzapeko askatasunean zeuden pertsonen errolda burutu zenean, Astillero kaleko 17. zenbakian bizi zela zehaztu zen[569].

Nació en Onis (Asturias) en 1905 y se dedicaba a las labores de casa. Al caer el Frente Norte, los sublevados la apresaron y la juzgaron en 1937 mediante consejo de guerra. La condenaron a 12 años de cárcel, acusada de ayudar a la rebelión[568]. En 1943, cuando se realizó el censo de las personas que estaban en libertad condicional en Deba, se especifica que vivían en la calle Astillero nº 17[569].

### RODRIGUEZ PULGAR, ASUNCION

Asuncion, Moreda de Aller herrian jaio zen (Oviedo) 1915ko abenduak 4an. Etxeko lanetan jarduten zuen 23 urteko alarguna zen, bi seme alaba zituena, bat 3 urtekoa eta bestea 2koa (1938). 1938ko abuztuak 10ean, Ovidedoko Gerra Kontseilu Iraunkorrak, matxinada delitua egotzita 20 urteko kartzela zigorra ezarri zion (3544-38 sumarioa).

1934ko Urriko Iraultzan, Moreda Gune Katolikoaren su ematean parte hartzea eta milizianoei animoak ematea egotzi zioten. 1936an berriz, Fronte Popularraren ordezkari izan zen hauteskundeetako mahai batean. Epaiketan, horrez gain, atxilotu beharreko eskuindarren zerrendak burutzea eta konfiskazioetan parte hartzea egotzi zioten.Frontea erortzean, bere gizona zen Silvino Moran komunistarekin, bere ahizpa eta beste hainbatekin erresistentzia gerrilla bat antolatzen jardun zuen Aller inguruko mendietan.

1938ko irailaren 18an Saturraraneko espetxera lekualdatu zuten. 1941rako, Egaña Tailerrean lan egiten aurkitzen zen, kondena murrizte aldera. 1942ko urriak 24an, "Limpieza de Legumbres" deituriko lan batean hasi zen. 1943ko apirilak 4an, ins-

[565] AHPG-GPAH, 02811 kutxa, 0033 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02811, exp. 0033.

[566] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

[567] Izen berarekin 1903an Gancin (Malagan) jaiotako emakume bat ere agertzen da, baina kontuan izanda Deban baldintzapeko askatasunean aurkitzen ziren emakume ia denak Iberiar Penintsulako iparraldekoak direla, Onis (Asturias) herriko pertsonaren aldeko hautua egin da. / También aparece otra mujer con el mismo nombre, nacida en 1903 en Gaucín (Malaga), pero teniendo en cuenta que casi todas las mujeres que estaban en libertad condicional en Deba eran del norte de la Peninsula Ibérica, hemos elegido la persona de Onis (Asturias).

[568] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea. / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

[569] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

trukzio kultural eta erlijioso minimo bat duela esaten du espetxeak, eta deklarazio bat sinarazi zion, masoneria edota sekta bateko kide ez zela esanez. Egun berean, kondenaren likidazio bat iritsi zen, non 20 urteko kondena mantentzen zitzaion.

Maiatzaren 17an, baldintzapeko askatasuna lortzeko proposamena tramitatu zen eta hainbat tirabira administratiboren ostean, uztailaren 17an, baldintzapeko askatasuna lortu zuen, deserriratzeko aginduarekin, bizitokia Mutrikun ezarri zuen hortaz[570]. Hala ere, 1943ko Debako baldintzapeko askatasunaren erroldan agertzen da, irailak 27an egin zena eta bertan Irailak 23 kalean bizi zela zehazten zen eta etxeko lanak eta Celuloide Empresan lan egiten zuela. 1953an oraindik baldintzapeko askatasunean aurkitzen zen, Deban bizitzen, Industrias Deva enpresan lan egiten zuelarik. Kondena, 1958an likidatu zitzaion[571].

Asunción nació en Moreda de Aller (Oviedo) el 4 de diciembre de 1915. Era una viuda de 23 años que se dedicaba a las labores de casa, tenía dos hijos, uno de 3 años y otro de 2 (1938). El 10 de agosto de 1938, el Consejo de Guerra Permanente de Oviedo la condenó a 20 años de cárcel por delito de rebelión (sumario 3544-38).

Se le acusó de participar en la quema del Centro Católico de Moreda y de animar a los milicianos durante la Revolución de Octubre de 1934. En 1936 fue representante del Frente Popular en una mesa electoral. Además de eso, en el juicio también le acusaron de hacer las listas de gente de derechas que había que detener, y de participar en confiscaciones. Al caer el frente, anduvo organizando una guerrilla de resistencia en los montes de alrededor de Aller, junto a su marido el comunista Silvino Moran, su hermana y otros cuantos.

El 18 de septiembre de 1938 la trasladaron a la cárcel de Saturraran. Para 1941 se encontraba trabajando en Talleres Egaña, para rebajar la condena. El 24 de octubre de 1942, empezó a trabajar en “Limpieza de legumbres”. El 4 de abril de 1943 la prisión dijo que tenía una instrucción cultural y religiosa mínima, y le hizo firmar una declaración, diciendo que no es de una masonería o una secta. El mismo día, llegó una liquidación de la condena, donde se mantuvieron los 20 años de condena.

El 17 de mayo se tramitó la propuesta para conseguir la libertad condicional y, tras varias discusiones administrativas, el 17 de julio consiguió la libertad condicional con orden de destierro, y se afincó en Mutriku[570]. Sin embargo, aparece en el censo de Deba de personas en libertad condicional del 27 de septiembre de 1943, donde se especifica que vivía en la calle 23 de septiembre, que se dedicaba a las labores de casa y que trabajaba en la empresa Celuloide. En 1953 todavía estaba en libertad condicional, viviendo en Deba y trabajando en la empresa Industrias Deva. Se le liquidó la condena en 1958[571].

**RODRIGUEZ PULGAR, ELVIRA**

Moreda de Aller herrian jaio zen, bere ahizpa Asuncion bezala (Oviedo), 1907ko abuztuaren 5an. Ezkongabea zen eta ofizioz jostuna. Sozialista zen eta Juventudes Socialistas antolakundera afiliatua egon zen.

Elvira, bere herriko Socorro Rojo Internacional antolakundeko lehendakaria zen eta herriko Fronte Popularraren parte hartzaile aktiboa, horregatik bere aldeko kanpaina egiten zuen. Iparraldeko Frontea erori zenean, erresistentzia gerrillak antolatzen jardun zuen, bere ahizpa Asuncion eta koinatu Silvino Moranekin batera.

1938ko martxoak 19an espetxeratu zuten eta abuztuak 10ean, Oviedoko Gerra Kontseilu Orokorrak, matxinada delitua egotzita 20 urteko espetxealdira kondenatu zuen (3544-38 sumarioa). Epaiketan, 1934ko Urriko Iraultzan milizianoak hitzez adoretzeaz akusatu zuten eta Zentro Katolikoa defendatu zuten pertsonak erailtzera animatu zituela egotzi zioten. Altxamenduaren ostean, eskuindarren aurkako errepresioa sustatzearen ardura ere bere gain bota zioten tribunal frankistek.

1938ko irailak 18an, Saturraraneko espetxean preso sartu zuten eta kondena murrizteko bertako joste tailerrean lan egin zuen. 1943ko martxoak 17an baldintzapeko askatasuna lortzeko prozesua abiatzea lortu zuen. Bere ahizparekin bezala, kondenaren likidazioa ez zen aldatu eta 20 urteko kartzela zigorra mantendu zioten (aldatzen den bakarra “reclusion mayor” izatetik “reclusion menor” izatera pasa zela). Behin behineko askatasuna, 1943ko uztailak 17an lortu zuen eta bere bizitokia Mutrikun ezarri zuen[572]. Hala ere, bere ahizpa Asuncionekin bezala, Deban ezarri zen bizitzen beranduago, 1943ko baldintzapeko askatasunaren batzordearen erroldan, biak Irailak 23 kaleko 15. zenbakian bizi zirela aipatzen baita, Celuloide enpresan lan egiten zutelarik. Bere ahizpa bezala, Deban bizi izan zen, bere kondena 1958an likidatu ziotelarik[573].

Como su hermana Asunción, nació en Moreda de Aller (Oviedo) el 5 de agosto de 1907. Estaba soltera y de oficio era costurera. Era socialista y estaba afiliada a la organización Juventudes Socialistas.

Elvira era presidenta de la organización Socorro Rojo Internacional de su pueblo. Hizo campaña a favor del Frente Popular, del que era una activa participante del pueblo. Cuando cayó el Frente Norte, estuvo organizando guerrillas de resistencia con su hermana Asunción y con su cuñado Silvino Moran.

Fue encarcelada el 19 de marzo de 1938 y, el 10 de agosto, el Consejo de Guerra General de Oviedo la condenó a 20 años de cárcel por delito de rebelión (sumario 3544-38). En el juicio, la acusaron de infundir ánimos a los milicianos en la Revolución de Octubre de 1934, imputándole que los animó a que mataran a las personas que defendían el Centro Católico de Moreda. Tras el alzamiento, los tribunales franquistas hicieron recaer sobre ella la responsabilidad de fomentar la represión contra los derechistas.

[570] AHPG-GPAH, 02815 kutxa, 0044 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02815, exp. 0044.
[571] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[572] AHPG-GPAH, 02815 kutxa, 0045 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02815, exp. 0045.
[573] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

El 18 de septiembre de 1938, lo encarcelaron en la prisión de Saturraran donde trabajaba en el taller de costura, para rebajar la condena. El 17 de marzo de 1943 consiguió iniciar el proceso para conseguir la libertad condicional. Como a su hermana, la conmutación no cambió la condena y se mantuvieron los 20 años de pena de cárcel (lo único que cambió fue que de "reclusión mayor" pasó a ser "reclusión menor"). La libertad provisional la consiguió el 17 de julio de 1943, y se afincó en Mutriku[572]. De todos modos, su hermana Asunción se fue a vivir a Deba más tarde, porque en el censo de 1943 de la libertad condicional, se menciona que las dos viven en la calle 23 de septiembre nº 15 y que trabajaban en la empresa Celuloide. Como su hermana, vivió en Deba, y se le liquidó la condena en 1958[573].

**RODRIGUEZ RODRIGUEZ, FOSEFA**

Villanueva de Cordoba (Kordoba) herrian jaio zen 1917ko apirilak 29an, baina Puerto Blanco herrian bizi zen (Ciudad Real). CNT sindikatuko kidea eta Juventudes Libertariaseko afiliatua zen bere herrian. 23 urte zituen Donostiako Espetxera eraman zutenean (1940ko azaroak 25an) Durangoko Emakumeen Espetxetik. Pedro Mozales jaunarekin ezkondua zegoen eta etxeko lanetan lan egiten zuen.

Ciudad Realeko probintziak Gerra Zibilaren azken unera arte irautea lortu zuen, baina berau amaitzearekin batera, faxisten errepresioa ere gune hauetara hedatu zen. Fosefa, 1939ko apirilak 21ean atxilotu zuten, Almodovar del Campo espetxera eraman zutelarik.

1939ko ekainaren 1ean, Puertollanon bertan eman zen Guerra Kontseiluan, matxinadarekin bat egitea egozten zieten 6 herritar epaituak izan ziren, tartean Josefa. Bertan, etxebizitza bat eta bertako ondasunen konfiskazioan parte hartzea inputatu zioten. Hau dela eta, bizi arteko espetxealdia ezarri zioten.

1941eko abuztuak 23an, Saturraraneko Emakumeen Espetxera lekualdatu zuten. 1943ko abenduak 12an, espetxeko jantokian lan egiten hasi zen, kondena murrizte aldera. Urte bereko abenduaren 7an notizia txar bat jaso zuen, izan ere bere gizona SLB batean bortxazko lanak burutzen ari zela hil zen istripu batean.

1944ko otsailaren 11n, baldintzapeko askatasuna lortzeko prozesua abiarazi zuen eta hau martxoak 18an lortu zuen, baina deserriratze aginduarekin. Ondorioz, Deban finkatu zuen bere etxebizitza[574]. Beste preso ohi batzuk bezala, Trecu alkate frankistaren alargunaren neskame moduan lan egin zuen, Lersundi kalean. Osasun arrazoiengatik, bere familiarekin bateratzea eskatu zuen eta 1944ko apirilak 3an Puerto Llanora joan zen bizitzera[575].

Nació en Villanueva de Córdoba (Córdoba) el 29 de abril de 1917, pero vivía en Puerto Blanco (Ciudad Real). Miembro del sindicato CNT y afiliado en Juventudes Libertarias de su pueblo. Tenía 23 años cuando la llevaron de la cárcel para mujeres de Durango a la cárcel de Donostia (25 de noviembre de 1940). Estaba casado con el señor Pedro Mozales y se dedicaba a las labores de casa.

La provincia de Ciudad Real logró aguantar hasta el último instante de la Guerra Civil pero, al terminar, la represión de los fascistas también se expandió a estos sitios. Fosefa fue detenida el 21 de abril de 1939 y llevada a la cárcel de Almodovar del Campo.

En Puertollano, el 1 de junio de 1939, fueron juzgadas en consejo de guerra 6 personas, entre ellas Fosefa, acusadas de haberse adherido a la rebelión. Le imputaron haber participado en la confiscación de una vivienda y de los bienes que había en ella. Por ello, la condenaron a cadena perpetua.

El 23 de agosto de 1941 la trasladaron a la cárcel de mujeres de Saturraran. El 12 de diciembre de 1943 empezó a trabajar en el comedor de la cárcel, para reducir la condena. Unos días antes, el 7 de diciembre, su marido murió en un accidente en una SLB, mientras realizaba trabajos forzados.

El 11 de febrero de 1944 inició el proceso para conseguir la libertad condicional. Lo consiguió el 18 de marzo, pero con la orden de destierro. Por lo tanto, estableció su vivienda en Deba[574]. Como otros expresos, trabajó como sirvienta de la viuda del alcalde fascista Trecu, en la calle Lersundi. Por razones de salud, pidió reunirse con su familia, y el 3 de abril de 1944 se fue a vivir a Puerto Llano[575].

**TELEÑA MENDEZ, BALBINA**

Villaviciosan jaio zen (Oviedo, Asturias) 1894ko azaroak 2an eta Gijonen bizi zen. Ezkondua zegoen eta lisatzailea zen. 1937ko azaroak 15an atxilotu egin zuten frankistek eta epaitua izan zen beste 13 pertsonarekin batera. 3. Gerra Kontseiluak, 15 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuen. Beste asturiar asko bezala, Saturraraneko kartzelara lekualdatua izan zen 1938ko urriak 14an. 1941eko maiatzaren 14an, espetxealdia 12 urte eta egun batekoagatik kommutatu zioten.

1942ko abenduaren 14an, baldintzapeko askatasunaren prozesua abiatu zuen eta 1943ko urtarrilaren 30ean, baldintzapean aske geratu zen, deserriratze agindu batekin. Ondorioz, Deban ezarri zuen bere bizitokia. Baldintza hau, urte bereko azaroak 22a arte indarrean egon zen, data honetan kondena erdia bete zuenez bertan behera geratu baitzen. Hala ere, Balbinak

[574] AHPG-GPAH, 02823 kutxa, 0038 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02823, exp. 0038.
[575] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.




**CNT-FAI sindikatuaren propaganda kartela.** (Euskal Memoria). / **Cartel de propaganda del sindicato CNT-FAI.** (Euskal Memoria).

ez zuen behin betiko askatasuna 1951eko urtarrilak 5a arte lortu. Data honetarako ez zen Deban bizi, eta autoritateek ez zuten non bizi zenaren gaineko daturik[576].

Nació en Villaviciosa (Asturias) el 2 de noviembre de 1894 y vivía en Gijón. Estaba casada y era planchadora. Fue detenida el 15 de noviembre de 1937, y juzgada junto a otras 13 personas. Fue condenada a 15 años de cárcel por el 3º Consejo de Guerra de Gijón. Fue trasladada a la cárcel de Saturraran el 14 de octubre de 1938. El 14 de mayo de 1941, le conmutaron por la pena de 12 años y un día.

El 14 de diciembre de 1942 se puso en marcha el proceso para conseguir la libertad condicional. Lo consiguió el 30 de enero de 1943, pero con una orden de destierro. Por lo tanto, estableció su vivienda en Deba. Esa condición estaría vigente hasta el 22 de noviembre del mismo año, cuando se suspendió porque Balbina había cumplido la mitad de la condena. Aún así, no logró la libertad definitiva hasta el 5 de enero de 1951. Pero en ese momento, Balbina no vivía en Deba, ni tampoco en Oviedo, las autoridades no tenían datos sobre donde vivía[576].

[576] AHPG-GPAH 02803 kutxa, 0034 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02803, exp. 0034.


Prisión Central de Mujeres de Saturrarán (Motrico).

El Oficial de puertas, previo conocimiento del de servicio en el interior, permitirá la salida, después de identificado,
a Josefa Rodriguez Rodriguez.-Eleuteria Fuentes Guerrero.-Josefa Fuentes Guerrero.- Hilaria Perez Martinez
devolviendo la presente cumplimentada.

Saturrarán (Motrico), 20 de marzo de 1944

El Director,

CUMPLIMENTADA:

El Oficial del interior,

El Oficial de puertas,

**Josefa Rodriguez Rodriguez espetxetik irten zen zihurtagiria.** (GPAH). / Certificado de salida de prisión de Josefa Rodríguez Rodríguez. (AHPG).

## Emakumeen beste espetxeren batean preso egon zirenak

## Las que estuvieron en otras cárceles para mujeres

### DOMENECH ELIZONDO, JOSEFA

Aribe herrian (Nafarroa) jaioa, bere senarrarekin batera Ribadesellan (Oviedo) bizi zen eta emagina zen bertan. Bere lan esperientziaz baliatuz, altxamendua eman zenean, beronen aurka borrokatzeko antolatutako milizietan bere zerbitzuak eskaini zituen. Horrela, erizain gisa jardun zuen Asturiasko 21 zenbakidun Ospitale Militarrean[577]. Hau dela eta, 1941eko irailaren 18an epaitua izan zen, Oviedon bertan eta frankistek matxinadari laguntza ematea egotzi zioten. Horregatik, 12 urte eta egun bateko espetxealdia ezarri zioten eta hiri honetako espetxetik Saturraranekora lekualdatu zuten irailaren 18an. Bertatik, Zornotzakora lekualdatu zuten 1944ko maiatzak 29an eta urte bereko abuztuak 21ean baldintzapeko askatasuna lortu zuen[578]. Deban erbesteratua aurkitzen zen Manuel Portillo bere gizonarekin batera.

Behin behineko askatasuna lortuta, bertan behera geratu zen bere aurka tribunal frankistek ezarritako 250 kilometrotako deserriratzea, baina bere gizonarekin batera, Deban ezartzea erabaki zuen, Lersundi kaleko 17. zenbakian ezarri zutelarik beraien etxebizitza. 45 urte zituen une honetan eta etxeko lanak egiten eta gizonak irekitako komertzioan lan egiten zuen. Behin betiko askatasuna, 1949ko abenduaren 31n lortu zuen[579].

Nació en Aribe, vivía con su marido en Ribadesella (Asturias) y trabajaba como matrona. Cuando se dio el alzamiento, ofreció sus servicios en las milicias organizadas para luchar contra él, y anduvo como enfermera en el Hospital Militar nº 21 de Asturias[577]. Fue juzgada el 18 de abril de 1941, en Oviedo, acusada de ayudar a la rebelión, y la condenaron a 12 años y un día de cárcel. De la prisión de esa ciudad fue trasladada a la de Saturraran el 18 de septiembre. De allí la trasladaron a la de Zornotza el 29 de mayo de 1944, y el 21 de agosto del mismo año salió en libertad condicional[578]. Estaba exiliada en Deba junto a su marido Manuel Portillo.

Una vez conseguida la libertad, quedó en suspenso el destierro de 250 km que le impusieron los tribunales franquistas, pero decidió afincarse en Deba con su marido, en la calle Lersundi nº 17. Tenía 45 años en ese momento, y se dedicaba a las labores de casa y a trabajar en el comercio que había abierto su marido. Logró la libertad definitiva el 31 de diciembre de 1949[579].

[577] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,16 fitxategia, 0051161 dokumentua. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, fichero 16, doc. 0051161.
[578] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha de prisión.
[579] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

**PEREZ NARANJO, JOSEFA**

Peraleda de Zaucejo (Badajoz) herrikoa zen[580]. 1943ko baldintzapeko askatasuna zuten pertsonen erroldan agertzen da, non zehazten den Zornotzako Emakumeen Espetxean egon zela preso. Gerra kontseilu batean epaitua izan zen eta 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten. 27 urte zituen (1943) eta Larraguibel baserrian bizi zen, bertan lan egiten zuelarik. 1946ko abenduaren 4an, ume bat izan zuen[581].

Nació en Peraleda de Zaucejo (Badajoz)[580]. Aparece en el censo de personas con libertad condicional de 1943, donde se especifica que salió de la cárcel de mujeres de Zornotza. También se menciona que tenía una condena de 30 años de prisión, y viendo el tamaño de la condena, habría sido juzgada por algún consejo de guerra acusada de delito de rebelión. Se especifica que tenía 27 años y vivía y trabajaba en el caserío Larraguibel. El 4 de diciembre de 1946 tuvo un niño[581].

**TAPIA AGUILAR, JUANA**

Baldintzapeko Askatasunaren Batzordeak, pertsonen kontrolerako erabiltzen duen sinadura fitxetan agertzen da, baina ez daukagu berarekiko inolako datu gehigarririk[582].

Aparece en las fichas de firma que utilizaba la Comisión de la Libertad Condicional para el control de las personas, pero no tenemos ningún dato adicional[582].



**Zornotzako espetxeko emakumeen argazkia.** (Euskal Memoria). / **Fotografía de las mujeres de la cárcel de Zornotza.** (Euskal Memoria).

580 AHN, 1052 paper-sorta, 3 kutxa, 37 espedientea, 27a folioa. / AHN, leg. 1052, caja 3, exp. 37, f. 27a.
581 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
582 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

## 4.7. GERRAKO PRESO DEBARRAK

1936ko irailaren 23tik aurrera, Deba altxatuen esku erori zen unetik aurrera, hauek errepresio eta eskubide zibilen urraketa orokortu bat burutu zuten Errepublika eta Eusko Jaurlaritzaren alde lerratu ziren pertsonen aurka.

Atxiloketak eta jazarpena lehen unetik abiatu zuten, horren adibide herrian burutu ziren atxiloketa eta fusilatze estrajudizialak izan ziren. Hala ere, justu arrazoi honengatik, herritik ehunka pertsonak ihes egin zuten, beraien familia guztiarekin batera askotan, altxatuen biolentziaren beldur zirelako. Horrela, erbestealdi honi iturri batzuek diote 547 pertsonak ekin ziotela[583]. Horietako askok ihesean jardun zuten ahalik eta Bilbo erori eta hurrengo asteetan Santoñako hitzarmena deiturikoa frankistek traizionatu eta Eusko Gudarostea eta Gobernuaren atxiloketa masiboak gauzatu arte.

Itun hau, Kantabrian aurkitzen den izen bereko herrian sinatu zuten 1937ko ekainaren 24an, Eusko Jaurlaritzak eta Deban bertan kuartel jenerala zuten tropa italiar faxisten artean. Hitzarmenean, herriko alkate zen Florencio Marquieguik parte hartu zuen, EBBko (Euskadi Buru Batzarra) aholkulari gisa jardun baitzuen[584]. Itun honen arabera, errendizioaren truke, eusko gudarosteko kideak errespetatu eta Eusko Jaurlaritzaren ebakuazioa baimenduko zen. Hala ere,

## 4.7. PRESOS DE GUERRA DEBARRAS

Desde el 23 de septiembre de 1936, desde el momento en que Deba cayó en manos de los sublevados, estos pusieron en marcha la represión y la vulneración de derechos civiles generalizada contra las personas que se alinearon a favor de la República y el Gobierno Vasco.

Empezaron desde el primer momento con detenciones y persecuciones, y son ejemplo de ello las detenciones y fusilamientos extrajudiciales que se dieron en el pueblo. De todos modos, justo por esa razón, cientos de personas escaparon del pueblo, muchas veces con toda su familia, por miedo a la violencia de los sublevados. Así, unas fuentes dicen que fueron 547 las personas que iniciaron ese exilio[583]. Muchos de ellos huyeron hasta que cayó Bilbo y hasta que en las semanas siguientes los franquistas traicionaron el pacto de Santoña y hubo detenciones masivas del Ejército Vasco y el Gobierno.

Ese pacto, se firmó en el pueblo de Cantabria de mismo nombre el 24 de junio de 1937, entre el Gobierno Vasco y las tropas fascistas italianas que tenían el cuartel general en Deba. En el pacto participó el alcalde de Deba, Florencio Marquiegui, porque era asesor del EBB (Euskadi Buru Batzarra)[584].Según ese pacto, a cambio de la rendición, respetarían a los miembros del ejército vasco y permitirían la evacuación



**Santanderreko zezen plazan presoak, sailkatuak izateko zain.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/). / **Presos en la plaza de toros de Santander esperando a ser clasificados.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/).

[583] Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Berriketan aldizkaria, 2006ko iraila. / Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., "Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik". Revista Berriketan , septiembre de 2006..

[584] Anonimoa., Polentzi Markiegi. Markiegiren fusilamenduaren 75. urtemuga. Berriketan aldizkaria 2012ko urria. / Anonimo., 2012. "Polentzi Markiegi. Markiegiren fusilamenduaren 75. urtemuga". Revista Berriketan, octubre de 2012.

italiarren jarduna militar espainiarren belarrietara iritsi zenean, hauek akordioa bertan behera utzi zuten, milaka euskal gudari eta miliziano eta Eusko Jaurlaritzako politiko askoren atxiloketa burututz. Hauek denak, El Duesoko espetxera eramanak izan ziren eta bertan epaituak izango ziren asko.

Aurrez, altxatutako militarrek, Gerrako Presoak Sailkatzeko Agindu Orokorra deitu zuten dokumentua garatu zuten, 1937ko martxoan. Bertan, beraien esku erortzen ziren gudari eta milizianoak sailkatzeko irizpideak finkatzen ziren, lau maila ezberdin finkatuz:

- A) “Presoak edo aurkeztutakoak, Mugimendu Nazionalaren aldekoak izatea justifikatzen dutenak edo, gutxienez, Mugimenduaren aurkakoak ez direnak, edo etsaiaren aldean soldadu ibilitakoen kasuan behartuta egin izana, edo lerro horietan haien borondatez soldadu ibili arren, etsaiaren fronteari aurkeztea sustatzeko igorritako aldarrien ondorioz borondatez etorritakoak”.
- B) “Borondatez etsaiaren aldean soldadu ibili eta beste erantzukizun sozial, politiko edo arruntik ez duten presoak”.
- C) “Etsaiaren armadako buruak eta ofizialak; gure tropen aurkako ekintzetan nabarmendu edo gailendu diren pertsonak, harrapatutakoak zein aurkeztutakoak; Aberriaren eta Mugimendu nazionalaren etsai diren alderdi eta jarduera politiko zein sozialen buruzagiak eta gailendutako kideak, Mugimendu Nazional Askatzailea baino lehen edo ondoren egindako matxinada edo bestelako ekintza sozial edo politikoko kideak”.
- D) “Delitu arrunten edo jendeen zuzenbidearen aurkako delituen egiletzat jo daitezkeen pertsona harrapatuak edo aurkeztutakoak, izan delitu horiek Mugimendu Nazionala baino lehenagokoak edo ondorengoak[585]”.

del Gobierno Vasco. Pero, cuando la cháchara de los italianos llegó a oídos de los militares españoles, estos suspendieron el acuerdo, deteniendo a miles de gudaris, milicianos y políticos del Gobierno Vasco. Todos ellos fueron llevados a la prisión de El Dueso, y muchos fueron juzgados allí.

Antes, los militares sublevados desarrollaron un documento el marzo de 1937: Orden General para Clasificar Presos de Guerra. En ese documento se especificaban las directrices para clasificar los gudaris y milicianos que caían en sus manos. Diferenciaban cuatro niveles:

- A) “Los prisioneros o presentados, que justifican su afección al Movimiento Nacional o no sean hostiles al mismo, y que hayan formado en las filas republicanas obligados a ello, y aunque hubieran formado filas voluntariamente, se hubieran pasado esperando acogerse a los beneficios de los panfletos de propaganda.
- B) “Prisioneros incorporados de manera voluntaria a las filas enemigas y que no estén afectados de responsabilidades de índole social, política o común”.
- C) “Jefes y Oficiales del Ejército republicano, individuos capturados o «presentados» que se hubiesen destacado por actos de hostilidad ante las tropas sublevadas, dirigentes en partidos y organizaciones o actividades políticas o sociales, enemigos de la Patria y del Movimiento Nacional y posibles responsables del delito de rebelión militar, cometidos antes o después de producirse el Movimiento Nacional libertador”.
- D) “Individuos capturados o presentados que aparezcan, presuntos responsables de delitos comunes o contra el derecho de gentes, realizados antes o después de producirse el Movimiento Nacional[585]”.



**Santander hiriko Sardinero futbol zelaietan, gudari eta milizianoak preso izateko eratu zuten behin behineko atxikitze zentroa.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/). **/ En los campos de futbol del Sardinero de Santander crearon un centro de retención provisional para retener a gudaris y milicianos.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es)

[585] Sailkatzeko Agindu Orokorra (AGMA) / Orden General de Clasificación (AGMA).

Sailkatze irizpide hauen baitan, A ataleko zalantzazkoak eta B ataletan aurkitzen zirenak, espetxe frankistetara eta langileen batailoietara bidaliak izan ziren. Hauek, urte luzez bortxazko lanak burutzen eta preso egon ziren, espetxe bakoitzaren Sailkapen Batzordearen irizpide arbitrarioen menpe. Batzorde hauek, presoaren jatorriko bizilekuko erakunde frankista eta autoritateek burututako deklarazio eta txostenetan oinarritu ziren.

C eta D ataletan sailkatuak zirenak, gerra kontseiluen bidez epaituak izan ziren, epaitegi militarren bitartez. Kasu honetan, 1937 amaieran zehar, epaituak izan ziren asko El Dueson bertan epaitu zituzten baina jada 1938tik aurrera debar gehienak Donostian epaituak izan ziren eta beste zati bat Bilbon.

Altxatuek, herri bat armaz hartu ostean, bertako administrazioa eta egituretan beraiekiko afinak ziren pertsonak ezartzen zituzten. Ondoren hauek arduratuko direlarik errepresioa gauzatzeko beharrezkoak ziren dokumentuak garatzeaz.

Euskal Herriko herri gehienetan bezala, Deban ere, lau oinarri zituen errepresio sistema honek, Udaletxea, Guardia Zibila, Falangea eta Eliza. Debaren kasuan, aipagarria da deklarazio hauek, antzekotasun handia izaten zutela elkarren artean, gerra kontseiluetan bidalitako txosten batzuetan esaterako, soilik bidaltzen zen erakundearen izena aldatzen zen eta gainontzeko dokumentu guztia ia berbera izaten zen. Ez da ahaztu behar gainera, agintari hauek askotan mendeku gosez jarduten zutela, hala nola, baldintzapeko askatasunaren komisioei deserriratzea aplikatzeko eskatuz. Horretaz gain, herritarren batek, beraien laguntza eskatzen zuenean sendiko pertsonaren baten alde esku-hartzeko, ezetza erantzunez eta "espetxean ondo zeudela" esanez[586]. Antonio Aramberri Araquistainen kasuan, oso pertsona erlijiosoa zena, Itziarko bikarioak bere aldeko eskutitz bat idazteari uko egin zion, abertzalea zelako[587].

Presoak, etengabe lekualdatuak izaten ziren, ez zutelarik orokorrean urte asko leku berean pasatzen. Lekualdaketa hauek, oinarri arbitrarioen baitan burutzen zituzten eta honek ondorio bezala presoen gaineko dokumentazioa oso sakabanatua egotea ekarri du. Horrez gain, altxatuen administrazio sistemak ez zuen funtzionamendu oso egokia, askotan beraiek ere ez baitzekiten preso bat non aurkitzen zen edota zein zen bere egoera prozesala. Azkenik, kontuan izan behar da, Franko diktadorearen heriotzaren aurreko eta ondorengo urteetan dokumentazio ugari "desagertu" egin zela artxiboetatik.

Ondorioz, ez da erraza jakitea Debako zenbat herritar egin zituzten preso, gerra kontseiluetan epaitu edota langileen batailoietan jardun zuten.

Siguiendo esos criterios, los del grupo B y los dudosos del grupo A fueron enviados a cárceles franquistas y batallones de trabajo. Estos, estuvieron durante largos años realizando trabajos forzosos, y estuvieron encarcelados bajo el criterio arbitrario de la Comisión de Clasificación de cada cárcel. Esas comisiones se basaban en declaraciones e informes realizados por organizaciones franquistas y autoridades del lugar de nacimiento de los presos.

Los clasificados en los grupos C y D fueron juzgados en consejos de guerra, en tribunales militares. En este caso, hacia el final de 1937, muchos de ellos fueron juzgados en el mismo El Dueso pero, a partir de 1938, la mayoría de los debarras fueron juzgados en Donostia y algunos otros en Bilbo.

Los sublevados, tras tomar un pueblo por las armas, imponían personas afines en la administración y en las estructuras. Después, serían esas personas quienes se responsabilizarían de crear los documentos necesarios para desarrollar la represión.

Como en la mayoría de pueblos de Euskal Herria, el sistema de represión también tuvo cuatro actores principales en Deba: el Ayuntamiento, la Guardia Civil, la Falange y la Iglesia. En el caso de Deba, hay que mencionar que esas declaraciones tenían mucha similitud entre ellas. Por ejemplo, en unos informes enviados a consejos de guerra, solo cambia el nombre de la organización que lo envía, el resto del documento era casi igual. Además, no hay que olvidar que, esas autoridades muchas veces actuaban con sed de venganza; por ejemplo, pidiendo a las comisiones de libertad condicional que aplicaran el destierro, o cuando los ciudadanos pedían ayuda para intervenir a favor de algún familiar, respondiéndoles que no y "que estaban bien en la cárcel"[586]. En el caso de Antonio Aramberri Araquistain, una persona muy religiosa, el vicario de Itziar se negó a escribir una carta en su favor, porque era abertzale[587].

Trasladaban a los presos continuamente y, en general, no solían pasar muchos años en el mismo sitio. Esos traslados los realizaban en base a criterios arbitrarios y, en consecuencia, toda la documentación sobre los presos está muy dispersa. Además, el sistema de administración de los sublevados no tenía un funcionamiento muy adecuado, y muchas veces ellos tampoco sabían donde tenían a un preso o cual era su situación procesal. Finalmente, hay que tener en cuenta, que en los años anteriores y posteriores a la muerte del dictador Franco, mucha información "desapareció" de los archivos.

Por lo tanto, no es fácil saber cuantos habitantes de Deba fueron detenidos, juzgados en consejos de guerra o estuvieron en batallones de trabajadores.

[586] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

[587] Ahozko testigantza. / Testimonio oral

## Langileen Batailoiak eta Kontzentrazio Esparruak

Altxamendua eman eta berehala, kontrolpean zituzten lurraldeetatik abiatuta, autoritate frankistek beraien etsai politikoak izan zitezkeen pertsona oro espetxeratzeko kontzentrazio esparruak antolatu zituzten. Hauek, behin behineko espetxealdirako guneak ziren, anomikoak (pertsona sustengatu eta garatzeko baliabide gabeak) eta ilegalak. Gerra Zibilean eratuak (1936-1939) altxatutako militarren aldetik, ez zituzten legedi errepublikanoaren irizpideak betetzen. Hauen helburua, gerra presoak giltzaperatu eta beraien sailkapen bat egitea zen, horrela erantzukizun kriminal zein politiko-sozialak ikertu nahi zituen altxatuen gobernuak. Horretaz gain, pertsona hauek Mugimendu Nazional berria eta Estatu izaera berriaren baitan berrezi eta berrerabiltzeko nahia erakutsi zuten, horretarako bortxazko lanen sare bat sortuz. Hauei, Soldadu Langileen Batailoiak eta gerraostean Diziplinazko Batailoiak edota Preso dauden Soldadu Langileen Batailoiak deituko zizkieten. Horrez gain, gune hauek, Bigarren Mundu Gerraren urteetan (1939-1945) eta 1947 arte, adin militarrean aurkitzen ziren atzerriko gerra errefuxiatuak barneratuak izateko erabili ziren[588].

Santoñako hitzarmenaren traizioaren ostean, 50000 gudari, miliziano eta norbanakotik gora erori ziren preso eta 1937ko irailean beste 33217 pertsona. Hauek, ICCP-en (Inspeccion Campos de Concentracion de Prisioneros) eskutik pasa ziren, sailkatze esparruetan[590].

## Batallones de trabajadores y campos de concentración

Al poco de darse el alzamiento, y empezando de los territorios que tenían bajo control, las autoridades franquistas crearon campos de concentración para encarcelar a toda persona que pudiera ser enemiga política. Estos eran sitios para encarcelamientos provisionales, anómicos (sin recursos para sostener y desarrollar la persona) e ilegales, creados por los militares sublevados durante la Guerra Civil (1936-1939) contra las leyes republicanas. Los usaban para encarcelar a presos de guerra, hacer una clasificación de ellos y, después, los que tuvieran responsabilidades criminales y político-sociales, para reeducarlos y reutilizarlos en una red de trabajos forzados llamados Batallones de Trabajadores o, en la posguerra, Batallones Disciplinarios. Además, esos lugares fueron utilizados durante la Segunda Guerra Mundial (1939-1945) y hasta 1947, para acoger a refugiados de guerra en edad militar[588].

Tras la traición del pacto de Santoña, más de 50 000 gudaris, milicianos y civiles fueron apresados, y en septiembre de 1937 33 217 personas. Estos pasaron por la ICCP (Inspección Campos de Concentración de Prisioneros) por los campos de clasificación[590].



**San Pedro de Cardeñara preso berriak iristen. Bertan miatuak izango ziren eta beraien ondasunak konfiskatuko zizkieten.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/-tik lortua, BNE-tik). / **Presos nuevos llegando a San Pedro de Cardeña. Allí serían registrados y les confiscarían sus bienes.** (BNE: http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/).

[588] RODRIGO J., Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947, Crítica, Bartzelona, 2005.
[590] Id.

1937 guztian zehar, Komisio guztietaik 106822 pertsona pasa ziren, Deustutik 10513, Santanderretik 10175 eta Gasteiztik 12800 pasa zirelarik. Bertan, altxatuen errepresio, klasifikazio eta garbiketa makinaria guztia martxan jarri zen, hurrengo hilabete eta urteetan aplikatuko zena. Horrela, bi hilabeteetan denak engranaje hauetatik pasarazi zituzten, honela sailkatuz: %40a, kausa errepublikanoarekin bat egiten zuten, %20a zalantzatiak, %15 berrerabilgarriak, %10 kriminalak eta %10 aske uzteko modukoa[590].

Horren baitan, %35a inguru (betiere autoritate frankisten ikuspegitik, zeintzuk datuak faltsutu zituzten susmoa dagoen, Errepublikak babes txikia zuela erakutsi nahian) eraldatu eta berreziak izateko, bortxazko lanetara bidaliak izan ziren. Hauek, kontzentrazio esparru ezberdinetan egon ziren, batzuk, hilabete edo egun batzuk eta beste asko berriz urteak. Sebastian Aizpurua Egañaren kasuan, sei urte luze pasa zituen bortxazko lanen batiloi eta kontzentrazio esparruetan. Beste asko, adin militarrean aurkitzen zirenez baina "erregimenaren aurkakoak" zirenez, Miranda de Ebro bezalako esparruetara bidaliak izaten ziren, bertan bortxazko lanak egitera zerbitzu militarraren urteetan.

Durante el año 1937, pasaron 106822 personas de todas las comisiones, de Deustu 10513, de Santander 10175 y de Gasteiz 12800. En ellos, durante los meses y años siguientes, se puso en marcha toda la maquinaria de represión, clasificación y depuración de los sublevados. Durante dos meses hicieron pasar a todos por esos engranajes, y los clasificaron así: el 40% apoyaba la causa republicana, 20% dudosos, 15% reutilizables, 10% criminales y 10% liberables[590].

De esos, alrededor del 35% (siempre desde el punto de vista de las autoridades franquistas, quienes se sospecha que falsearon los datos para demostrar que la República tenía poco apoyo) fueron transformados, reeducados y enviados a trabajos forzosos. Estos estuvieron en diferentes campos de concentración, algunos varios meses o días y algunos otros años. Sebastián Aizpurua Egaña estuvo seis años largos en los batallones de trabajos forzados y campos de concentración. Otros muchos, como estaban en edad militar pero eran contrarios al régimen, eran llevados a campos de concentración como el de Miranda de Ebro, para realizar trabajos forzados durante los años del servicio militar.

| IZENAK / NOMBRES | KONTZENTRAZIO ESPARRUA / CAMPO DE CONCENTRACIÓN |
|---|---|
| AIZPURUA EGAÑA, SEBASTIAN | Miranda de Ebro |
| ARAMBERRI EPELDE, JOSE | Miranda de Ebro |
| ASTIGARRGA MENDIZABAL, FERMIN | Miranda de Ebro |
| ECHEVARRIA GALDOS, FERMIN | Seminario Corban |
| EGAÑA ALBERDI, DOMINGO | Miranda de Ebro |
| EGAÑA EGUIA*, SABINO | Miranda de Ebro |
| EGAÑA GARCIA, JUAN | Miranda de Ebro |
| ELOSUA SALEGUI, ESTEBAN | Miranda de Ebro |
| EMPARANZA ZABALA, MANUEL | Afrikako kontzentrazio esparruak / Campos de concentración de África |
| ESNAOLA IRAOLA, IGNACIO | Unamuno (Madril) |
| IRIONDO IRIONDO, RAMON | Medina de Rioseco (Valladolid) |
| LARRAÑAGA BASURTO, JUAN | Miranda de Ebro |
| LIZARZABURU LASA, FRANCISCO | Murgiako kontzentrazio esparrua / Campo de concentración de Murgia |
| LOPEZ MARTINEZ, ADRIAN | Miranda de Ebro |
| MAIZTEGUI CIRIANO, RAFAEL | Miranda de Ebro |
| MARAÑON RABENA, JOSE | Miranda de Ebro |
| OLAVEAGA BASURCO, IGNACIO | Miranda de Ebro |
| RICO MORALES, PABLO | Miranda de Ebro |
| SALEGUI EGAÑA, SATURNINO | Miranda de Ebro |
| SANCHEZ MACIA, FRANCISCO | Miranda de Ebro |
| URBIETA EGAÑA, JOSE MARIA BLAS | Miranda de Ebro (Burgos) eta Monreal del Campo (Teruel) |
| ZULAICA BELOQUI, MARTIN | Bilboko kontzentrazio esparrua / Campo de concentración de Bilbo |
| ELOSUA, RAIMUNDO | Miranda de Ebro |

590 AGMA-ZN, A40, L5, C4. Documentación del Sexto CE, honako liburuan aipatzen da, RODRIGO J., Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947, Crítica, Bartzelona, 2005. / AGMA-ZN, A40, L5, C4. Documentación del Sexto CE, in RODRIGO, J.: Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947, Crítica, Bartzelona, 2005.

Debako herritar ugari, altxatuen esku erori ostean, Presoen Sailkatze batzordeetatik pasatzen ziren eta bertan A edota B sailean sailkatuak izaten baziren, Langileen Batailoi batera edota Kontzentrazio Esparru batera bidaliak izaten ziren.

Tras haber caído en manos de los sublevados, muchos habitantes de Deba pasaron por la Comisión de Clasificación de Presos y, si eran clasificados en el grupo A o B, eran enviados a un Batallón de Trabajadores o a un campo de concentración.










**Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrua.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/-tik lortuak). / **Campo de concentración de Miranda de Ebro.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/).

Bertan, bortxazko lanak burutzen jarduten zuten, hauek hainbat esparrutan banandu daitezkeelarik. Alde batetik, gobernu frankistarentzat estrategikoak ziren ekonomiaren edota industria arloetan lan egiten zuten, izan armagintza, ontzigintza etab. Beste batzuek berriz, gerraren ondorioz kaltetutako zonaldeetan lan egiten zuten, hauek berreraikitzen, horren adibide Javier Galdona Esnaola da, Arevalo (Avila) herria berreraikitzera bidali zuten. Hirugarrenez, frankistentzat estrategikoak ziren obrak burutzera bidaliak izan ziren debar asko. Batzuek errepideak egiten jardun zutelarik eta beste asko gotorleku eta defentsa militar berriak, Francoren diktadura Bigarren Mundu Gerraren tenorera, Aliatuen tropen inbasio baten beldur baitzen. Jose Luis Irusta Mugarza, Algeciras aldean jardun zen fortifikazioak eraikitzen. Tamalez, Soldadu Langileen Batailoien harira dagoen dokumentazioa guztiz sakabanatua dago eta ez da erraza honen gaineko informazioa jasotzea.

Irusta Mugarza familiaren kasuan, bi anai bidali zituzten SLBetara, Jose Luis eta Ramon. Beraien anai Jose Mariarekin batera, Frantziako Estatuan errefuxiatu ostean espetxeratu zituzten. Jose Maria, naziek atxilotu zuten, Mauthaussenera bidaliz. Jose Luis, 1915an Deban jaio zen, lau anai-arrebetatik gazteena zelarik. Aita eta amarekin Deba

Allí, hacían trabajos forzados de diferente índole. Por un lado, trabajaban en ámbitos económicos o industriales estratégicos para el gobierno franquista, por ejemplo, la fabricación de armas, fabricación de barcos… Otros, en cambio, trabajaban en zonas dañadas por la guerra, reconstruyéndolas. Por ejemplo, a Javier Galdona Esnaola lo enviaron a Arévalo (Ávila) a reconstruir el pueblo. En tercer lugar, muchos debarras fueron enviados a hacer trabajos estratégicos para los franquistas. Algunos estuvieron haciendo carreteras y otros muchos haciendo nuevos fuertes y defensas militares, porque la dictadura de Franco, a raíz de la Segunda Guerra Mundial, tenía miedo de una invasión de las tropas aliadas. José Luis Irusta Mugarza estuvo en Algeciras construyendo fortificaciones. Por desgracia, toda la documentación sobre los Batallones de Soldados Trabajadores está muy dispersa y no es fácil recabar información sobre este asunto.

En la familia Irusta Mugarza enviaron a dos hermanos a los Batallones de Soldados Trabajadores, José Luis y Ramón. Los detuvieron después de haber estado refugiados en el Estado francés junto con su hermano José María. A este último lo detuvieron los nazis, y lo enviaron a Mautthausen. José Luis nació en Deba en 1915, siendo el menor de cuatro

herrian bertan bizi izan zen. 9 urterekin ama hil zitzaien eta arreba zaharrenak hezi zuen ordutik aurrera. 12-13 urte izan zituen arte eskolara joan zen, non oso ikasle fina izan zen, 1926-27 kurtxoan herriko ikasle onenei ematen zitzaion "Calbeton" saria jaso zuelarik. Baina adin horretatik aurrera aitarekin lan egitera pasa behar izan zen igeltsero gisa, familiaren ekonomiaren egoera ez baitzen oso ona. Udan, familiak etxea turistei alokatzen zien eta beraiek ganbarara joaten ziren bizitzera.

Hala ere, 1932an Bilbora joatea lortu zuen, bere anaiaren pausuak jarraituz bertan Banco Guipuzcoanon lan egiten hasiz. Bertan lau urte igaro zituen bekadun, ofizioa ikasten, lan ordu asko sartuz baina diru sarrera urriekin. Arlo politikoan, ideia abertzaleak zituen eta EAJ alderdiko afiliatua zen, horrela, kontuan izanik bere formazio profesionala, herriko batzokiaren diruzain funtzioak bete zituen errepublika garaian.

hermanos. Vivió en Deba con sus padres. Con 9 años murió la madre y a partir de entonces la educó la hermana mayor. Hasta los 12-13 años fue a la escuela, siendo un alumno fino, por lo que en el curso 1926-1927 recibió el premio "Calbetón" a los mejores alumnos del pueblo. Pero a partir de esa edad tuvo que trabajar como albañil con su padre, porque la situación económica de la familia no era muy buena. En verano, la familia alquilaba la casa a unos turistas y ellos iban a vivir al desván.

De todos modos, en 1932 logró ir a Bilbo, siguiendo los pasos de su hermano, y empezó a trabajar en el Banco Guipuzcoano. Allí pasó cuatro años como becario, aprendiendo el oficio, metiendo muchas horas de trabajo pero con pocos ingresos. En cuanto a política, tenía ideales abertzales y era afiliado del PNV. Así, teniendo en cuenta su formación profesional, trabajó como tesorero en el Batzoki de Deba durante la República.



**Irunen, itzultzen ziren errefuxiatuak bizikleta fabrika batean eta gisa honetako eraikinetan atxikiak izaten ziren.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/-tik lortua) / **Los refugiados que volvían eran retenidos en Irun, en una fábrica de bicicletas y en edificios similares.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/).

1936an, Gerra Zibila hastean, Frantziako Estatura ihes egin zuen, bertan errefuxiatu gisa bizi izan zelarik, ahalik eta gerra amaitu arte. Horrela, 3 urte baino gehiago pasata, berriro Euskal Herrira itzuliko zen, baina orduan atxilotu egin zuten, "pertsona gorri eta separatista" bezala identifikatuta baitzuten frankistek. Atxiloketaren ostean, hainbat kontzentrazio esparrutatik pasa zen, lehenik Burgosko San Pedro de Cardeñatik eta ondoren Miranda de Ebrokotik. Azkenik Rotakora (Kadiz), eraman zuten, non Bortxazko Langileen

En 1936, al comenzar la Guerra Civil, escapó al Estado francés, donde vivió como refugiado hasta finalizar la guerra. Así, volvió a Euskal Herria tras más de 3 años, pero entonces lo detuvieron porque los franquistas lo identificaron como "persona roja y separatista". Tras la detención, pasó por varios campos de concentración: primero en el de San Pedro de Cardeña en Burgos y luego en Miranda de Ebro. Por último, lo llevaron al de Rota (Cádiz), donde lo ingresaron en un Batallón de Trabajadores Forzados. Allí,

Batailoi batean sartu zuten. Bertan, Gibraltarko itsasartearen inguruan haritu ziren mendiko pista eta defentsa militarrak egiten, tartean La Linea, San Roque edota Punta Lucero bezalako kokalekuetan. Kontuan izan behar da, garai honetan, Bigarren Mundu Gerra bere punturik gorenenean aurkitzen zela eta Francoren erregimenak puntu estrategikoetan defentsak eraikitzeko errepublikar presoak baliatu zituela. Lan hauek oso gogorrak ziren eta gainera Langile Batailoietan, 6 urte pasa zituen preso eta beraz 1946 aldera itzuli zela Debara pentsa genezake.

Herrira itzulita, bere ofizioa berreskuratzen saiatu zen, baina Banco Guipuzcoanok ez zuen onartzen bere aurrekari politikoak zirela eta. Ondorioz, bere arreba batekin oihalen denda bat ireki zuen Deban. Hala ere, denborara, bankuak pertsona kualifikatuen beharra zuen eta deitu egin zioten Jose Luisi, baina oso lan baldintza eskasak eskainiz. Beronek, ezezkoa erantzun zien, ahalik eta baldintza duinak eskaini arte. Hainbat dei eta beste hainbat ezetzen ostean, baldintza egokiak eskaini zizkiotela ikusi zuenean, bankuan lan egitera pasa zen, non denbora gutxira Debako sukurtsalaren zuzendari kargua lortu zuen[591].

Bere sendian gerrak beste hainbat zauri utzi zituen, bere lehengusu bat aitaren partetik Gijonen hil zen eta osaba bat berriz, Deban "Gora Euzkadi" ohiukatzeagatik atxilotua izan zen eta espetxean pasa zuen denbora bat.

estuvieron haciendo las pistas de monte y defensas militares de alrededor del estrecho de Gibraltar, entre otros en La Línea, San Roque o Punta Lucero. Hay que tener en cuenta que en esa época la Segunda Guerra Mundial estaba en su punto álgido y el régimen de Franco se sirvió de los presos republicanos para construir defensas en puntos estratégicos. Esos trabajos eran muy duros, y además estuvo 6 años encarcelado en los Batallones de Trabajadores, por lo tanto, podemos pensar que volvió a Deba hacia 1946.

Cuando volvió al pueblo intentó recuperar su oficio, pero el Banco Guipuzcoano no lo aceptaba por sus antecedentes políticos. Por eso, junto con una de sus hermanas abrió una tienda en Deba. Aun así, más tarde, el banco estaba necesitado de personas cualificadas y le llamaron a José Luis, pero ofreciéndole condiciones laborales muy escasas. Este les respondió que no, hasta que le ofrecieran condiciones dignas. Tras varias llamadas y negarse varias veces, pasó a trabajar al banco cuando vio que le ofrecían condiciones adecuadas. Además, en poco tiempo consiguió el cargo de director de la sucursal de Deba[591].

En su familia la guerra dejó más heridas, un primo paterno murió en Gijón y un tío, pasó una temporada en la cárcel, al ser detenido por gritar "Gora Euzkadi".



**Jose Luis Irusta Mugarza.** (http://alexturrillasaranzeta.blogspot.com/2017/12).



**Ramon Irusta Mugarza,** (Eresoinka http://alexturrillasaranzeta.blogspot.com/2017/12)

Ramonen kasuan, bere bi anai Jose Luis eta Jose bezala, Frantziako estatura ihes egin zuen. Gerra amaitu ostean, Eresoinka abesbatzako kide ere izan zen, tenore izan zen bertan. Denborara, Espainiar Estatura itzuli zen eta preso hartu zuten, Marokora bidaliz, bertan Langileen Batailoi batean sartu zutelarik, bere anaia Jose Luis bezala. Bertako bizi baldintza gogorrak zirela eta, burua joan zitzaion eta zoratu egin zen, ondorioz, Debara itzulitakoan Santa Agedan ingresatu behar izan zuten, non denbora gutxira hil egin zen[592].

Ramón, como sus dos hermanos José Luis y José, escapó al Estado francés. Tras la guerra fue miembro del coro Eresoinka, donde fue tenor. Más tarde, volvió al Estado español y lo apresaron, enviándolo a Marruecos e ingresándolo en un Batallón de Trabajadores como su hermano José Luis. A consecuencia de las duras condiciones de vida, se le fue la cabeza y enloqueció, y al volver a Deba lo tuvieron que ingresar en Santa Ageda, donde murió al poco tiempo[592].

[591] Ahotsak.eus proiektua, DEB-001 kodea. / Proyecto: Ahotsak.eus, código: DEB-001.
[592] Ahotsak.eus proiektua, DEB-001 kodea. / Proyecto: Ahotsak.eus, código: DEB-001.



## Batallón de Trabajadores número 14

MEDIA FILIACIÓN DE 1 Prisionero PEDRO ARAMBERRI ARAQUISTAIN.

Se incorporó en 17 Agosto 1937 — Compañía 4 — Sección — Número 434

*Natural de* Deva *partido judicial de* Azpeitia
*provincia de* Guipuzcoa *: Nació el día* 14 *de* Agosto
*de 19*16*; hijo de* Martin *y de* Francisca
*oficio* Labrador *estatura* alta *corpulencia* fuerte *pelo* castaño
*señas particulares* ninguna *En 18 de Julio de 1936 estaba ave-*
Trabajaba en la Cantera Lizaranzu, de Mendaro.
*cindado en* Deva *provincia de* Guipuzcoa
*calle* B. Iciar *núm.* *estado* soltero *con*
*domiciliada en la provincia de*
*pueblo de* *calle* *núm.*
*Hijos menores de 15 años* { *varones* / *hembras* } *llamados*
*Documentos que acreditan la pobreza de la mujer . . . . .*
*Jornal que gana* { *para el batallón Ptas.* *Cts.* / *para su familia Ptas.* *Cts.* }
Sabe leer y escribir. si.
Religion C. A. R.
Clasificado enLogroño
*Bilbao,* *de* *de 193*
EL JEFE DE



| Día | Mes | Año | VICISITUDES |
|---|---|---|---|
| 7 | Octubre | 1937 | En ésta fecha pasó destacado a León con su compañía y allí fué destinado a Quintana Raneros. |
| 5 | Mayo | 1938 | Con la fecha del margen pasó desde Fa yon a la Caja de Recluta de Burgos. |



1.ª SUBDIVISION

8

## FILIACIÓN

de Pedro Aramberri Araquistain hijo de José y de Francisca
natural de Deva parroquia de id Ayuntamiento de id
provincia de Guipúzcoa avecindado en Deva Ayuntamiento de id
Juzgado de Primera Instancia de Azpeitia provincia de Guipuzcoa
Caja de Recluta de San Sebastián núm. 54 nació en diez y nueve de agosto de mil novecientos diez y seis de oficio Barrenador su estado soltero
su estatura, un metro milímetros. Sus señas: pelo cejas ojos
nariz barba boca color frente
aire producción señas particulares

Tuvo entrada en Caja el día de de 19
Ingresó en este Regimiento el día de de 19

2.ª SUBDIVISION

| ANTIGÜEDADES Día | Mes | Año | Distinciones, empleos y grados que ha obtenido | TIEMPO QUE LO SIRVIÓ Años | Meses | Días |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1º | Mayo | 1940 | Recluta en Caja | | | |
| 7 | Julio | 1940 | Artillero 2.º | | 2 | 7 |
| 12 | Julio | 1940 | Artillero 2º en disponibilidad | | 2 | 5 |
| 30 | Octubre | 1943 | Artillero 2º en disponibilidad (11 años 4 meses 27 días) | | | |
| | | | Sargento | | | |
| | | | Total de servicios hasta fin de mes | | | |

3.ª SUBDIVISION

Aumentos de servicio por abonos de campaña

Total de servicios válidos para premios de constancia.

**Pedro Aramberri Araquistain, SL-Betan preso izan zuten garaiko dokumentuak.** (AGMG). / Pedro Aramberri Araquistain estuvo preso en los BDST según documentos de la época. (AGMG).

Nahiz eta ez ziren epaituak izaten, urte luzez egoten ziren preso eta bortxazko lanak burutzen, esaterako Pedro Aramberri Araquistainen kasuan, Itziarko Isasi baserrian jaio zen 1916ko abuztuak 19an. Gudari izan zen Montaña 3 batailoian, preso hartu eta Leonen aurkitzen zen 14. SLBra eramana izan zen, 1937ko abuztuak 13an eta urrian bertan Quintana Raneros herrira destinatu zuten frankistek. 1938ko maiatzak 5an, soldadutzarako Burgosko Kutxan izendatzen dute, Debako udalak 1942an eginiko txosten batean, Gerra Zibilean frankisten bandoan borrokatu behar izan zuela aipatzen da. Soldadutza adinean zeuden miliziano eta gudari asko bezala, defendatu zuten bandoaren aurka armak hartzera behartua izan zen. Horrez gain, behin gerra amaitua, Donostian, zegokion soldadutza egitera behartu zuten, artilleria erregimentuan. Ostean, 1954 urtera arte, urtean behin Burgosera joatera behartua egon zen, bertako soldadutza kutxan sinatzera[593].

Kontzentrazio esparruetan eta SLBetan lan eta bizi baldintzak benetan gogorrak ziren, gaixotasunak eta istripuak ugariak zirelarik bertan. Horrez gain, lan gogorrak izaten ziren eta presoei ematen zitzaien elikadura eskasa. Ondorioz, batailoi guztietan ospitaleratutako eta gaixo ugari egoten ziren, baita ere desertzio ugari ere, Deban baldintzapeko askatasunean zegoen Antonio Gomez Prietoren kasuan, muga zeharkatu eta Iparraldean bizi izan zen 1940 arte[594]. Gaixo ere asko erori ziren, esaterako Ramon Irusta Mugarzak arazo psikologiko larriekin itzuli zen, Santa Agedan ingresatu

Aunque no eran juzgados, pasaban muchos años encarcelados y realizando trabajos forzados. Por ejemplo, Pedro Aramberri Araquistain, nacido en el caserío Isasi de Itziar el 19 de agosto de 1916. Fue gudari en el batallón Montaña 3. El 13 de agosto de 1937 lo apresaron los franquistas y lo llevaron al Batallón de Soldados Trabajadores nº14 de León; el mismo octubre fue destinado por a Quintana Raneros (León). El 5 de mayo de 1938 lo nombraron a la caja de reclutamiento de Burgos. En un informe realizado por el Ayuntamiento de Deba en 1942, durante la Guerra Civil tuvo que combatir en el bando franquista. Como muchos milicianos y gudaris que estaban en edad de hacer el servicio militar, fueron obligados a tomar las armas en el bando contra el que lucharon. Además, una vez terminada la guerra, le obligaron a hacer el servicio militar en Donostia, en el regimiento de artillería. Después, hasta 1954, estuvo obligado a ir a Burgos una vez al año a firmar en la caja de reclutamiento[593].

En los campos de concentración y en los batallones de soldados trabajadores las condiciones de vida realmente eran muy duras, siendo muy habituales las enfermedades y los accidentes. Además, eran trabajos duros y la alimentación que se daba a los presos era escasa. Por eso, en todos los batallones había muchos hospitalizados y enfermos, y muchas deserciones. En Deba, Antonio Gómez Prieto que estaba en libertad condicional, cruzó la frontera y estuvo viviendo en Iparralde hasta 1940[594]. También enfermaron muchos, por ejemplo, Ramón Irusta Mugarza



**Teruelen preso errepublikanoak bortxazko lanak burutzen.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/-tik lortua). / **Presos republicanos realizando trabajos forzados en Teruel.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es).

[593] AGMG, 556 kutxa 16771 espedientea. / AGMG, caja 556, exp. 16771.
[594] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

behar izan zutelarik, denbora gutxira hil egin zelarik[595]. Jose Maria Urbieta Egaña ere ez zen zigor honetatik berriz herrira itzuliko, Monreal del Campon (Aragoi) bortxazko lanetan zebilela hil baitzen, 1938ko urtarrilaren 12an, metraila zaurien ondorioz, frontean lan egitera behartua izan baitzen[596].

Debarrak, Espainiako Estatuan luze eta zabal izan zituzten preso bortxazko lanak burutzen, baina beste hainbat Gipuzkoara ekarriak izan ziren, altxatuek beraien kontrolpeko zonaldeetan atxilotuak izan zirenak. Hauek, gehienbat Gipuzkoa eta Lapurdi arteko mugan jardun zuten, Aiako harrien inguruan, gotorlekuak eta hauentzako azpiegitura eta errepideak eraikitzen eta baita Irunen kanalak burutzen ere. Hala ere, Deban bertan ere bortxazko SLB bat kokatua egon zen, Itziarrerako errepidea eraikitzen. Asko, Donostiako espetxetik bidaliak izan ziren, bertan lan egin edota bertako bajak okupatzeko.

Hauen gaineko kontrola, Oiartzunen kokatzen zen 84 SLBaren baitan ematen zen. Batailoi honek, 1940rako, 905 preso barnebiltzen zituen, horietatik 287 epaiketa zain espetxean, gaixo edota ihes eginda aurkitzen zirelarik.

Itziarren, estatuak militarizatutako ABC Ferrocarriles y Construcciones enpresak burutu zuen obra, horretarako 125 presoren destakamendua erabili zuen. Bertan lan egin zuten pertsonen inguruan honako datuak ditugu:

- Leon San Jose Fernandez: Santanderreko jornalaria, 12 urteko espetxealdira kondenatu zuten eta Gipuzkoako hainbat destakamendutan lan egin zuen, tartean Itziar.
- Manuel Sanchez Maeztu: andaluziarra zen.
- Miguel Ruiz Sepulveda: Malagakoa, txoferra zen eta 12 urteko espetxe kondena zuen. Itziarren lanean amaitu aurretik, Ciudad Rodrigo, Castuerako kontzentrazio esparrua, Orduñako espetxea, Bilboko Carmelo espetxe-ospitalea, Porta Coeliko tuberkulosoen erietxea, Larrinaga eta Ondarretan egon zen preso.

Beste preso askok, baldintzapeko askatasuna lortzen zuten, baina langileen batailoietara bidaltzen zituzten lan egitera, Itziarko errepideko obran esaterako, beraien herriko autoritate frankisten txostenak negatiboak baziren batez ere[597].

Ildo honetatik, Debako baldintzapeko askatasunaren batzordean hainbat pertsona aurkitzen ditugu egoera honetan, hots, baldintzapeko askatasunean eta ABC enpresarentzat lanean, honakoak dira:

- Antonio Gomez Prieto: 26 urte zituen eta igeltsero gisa lan egiten zuen ABCrentzat. 1944an Errenteriara joan zen bizitzera.
- Cristobal Vega Alvarez: Itziarren bizi zen, Tolosako baldintzapeko askatasunaren batzordetik bidalia izan zen ABC enpresan lan egitera[698].
- Emilio Marzala Perez: Castelló-ko epaitegiak bere askatasun eskaria atzera botatzen du.

volvió con graves problemas psicológicos y tuvo que ser ingresado en Santa Ageda, donde murió al poco tiempo[595]. José María Urbieta Egaña tampoco volvería de esta condena. Murió por heridas de metralla el 12 de enero de 1938 cuando estaba trabajando en el frente para un batallón de trabajos forzados en Monreal del Campo (Aragón)[596].

Muchos debarras estuvieron realizando trabajos forzados a lo largo y ancho de todo el Estado español, pero otros tantos fueron traídos a Gipuzkoa, detenidos en zonas bajo control de los sublevados. La mayoría anduvieron en la muga entre Gipuzkoa y Lapurdi, en los alrededores de Peñas de Aia, construyendo fortificaciones e infraestructuras y carreteras para ellos, y también construyendo canales en Irun. En Deba también hubo un batallón de trabajos forzados construyendo la carretera a Itziar. Muchos fueron enviados de la prisión de Donostia, para trabajar u ocupar las bajas de allí.

El control sobre ellos se localizaba en el BDST 84 de Oiartzun. Este batallón tenía 905 presos para 1940, de ellos 287 estaban presos esperando juicio, enfermos o huidos.

La obra la realizó la empresa militarizada por el estado ABC Ferrocarriles y Construcciones, utilizando para ello un destacamento de 125 presos. Tenemos estos datos sobre las personas que trabajaron allí:

- León San José Fernández: Jornalero de Santander, fue condenado a 12 años de prisión y trabajó en varios destacamentos de Gipuzkoa, entre otros en Itziar.
- Manuel Sánchez Maeztu: era andaluz.
- Miguel Ruiz Sepúlveda: Malagueño, chofer y con una condena de 12 años de prisión. Antes de terminar trabajando en Itziar, estuvo preso en Ciudad Rodrigo (campo de concentración de Castuera), en la cárcel de Orduña, en la cárcel-hospital Carmelo en Bilbo, en el hospital de tuberculosos de Porta Coeli, en Larrinaga y en Ondarreta.

Otros muchos presos consiguieron la libertad condicional, pero los enviaban a los batallones de trabajadores; por ejemplo, a los trabajos de la carretera de Itziar, sobre todo si los informes de las autoridades de su pueblo eran negativos[597].

En esa dirección, en la comisión de libertad condicional de Deba encontramos a varias personas en esa situación, esto es, en libertad condicional y trabajando para la empresa ABC:

- Antonio Gómez Prieto: tenía 26 años y trabajaba como albañil para ABC. En 1944 se fue a vivir a Errenteria.
- Cristóbal Vega Álvarez: Vivía en Itziar, fue enviado por la comisión de libertad condicional de Tolosa a trabajar en ABC[698].
- Emilio Márzala Pérez: El juzgado de Castellón rehusó su petición de libertad.

[595] Ahotsak.eus proiektua, DEB-001 kodea. / Proyecto: Ahotsak.eus, código: DEB-001.

[596] Monreal del Campoko erregistro zibila, 9. sarrera, 55 folioa. / Registro civil de Monreal del Campo, entrada 9, f. 55.

[597] BADIOLA ARIZTIMUÑO A., La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra, UNED, 2015./ BADIOLA ARIZTIMUÑO, A.: La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra, UNED, Madrid, 2015.

[698] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.






**Altxatuek preso hartutako pertsonak bortxazko lanak burutzen.** (RODRIGO J., Cautivos: campos de concentracion en la España franquista, 1936-1947-tik lortua). / **Personas hechas prisioneras por los movilizados haciendo trabajos forzados.** (RODRIGO, J.: Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947).

- Francisco Redondo Blanco: Bere kasuan, Zestoako SLBan lan egiten zebilen, baina Deban bizi zen.
- Fructuoso Gonzalez Robles: Larrinagako espetxetik irten zen, Txartudi baserrian ezarri zelarik, 1943an, ezkondua zegoen. Debar batek Fructuoso Gonzalez Moreno bezala identifikatzen du[699].
- Hilarion Marti Crilella: Castelló-ko Epaitegi Militarrak, 1841/6 prozesuaren baitan, 20 urteko kondena, 12 urtekoagatik kommutatzen dio 1943ko martxoak 13an.
- Ildefonso Garrido Garcia: 28 urte zituela, 1943an Donostiako espetxetik irten zen, non 20 urteko kondena betetzen zuen. Larraguibel baserrian ezarri zen bizitzen. 1944ko iraila-urrian Debatik ihes egin, muga zeharkatu eta Makien gerrillara batu zen, Pirinioetako erasoan parte hartuz, bertan preso hartu zuten frankistek.
- Jesus Gomez Elorriaga: Basaurikoa zen eta Itziarren zegoen preso. 1942ko azaroan baldintzapeko askatasuna lortu zuen.
- Jose Mir Roig: Gerra Zibilean, ezkerreko hankan zauritu zuten, belaunaren mugikortasun zati bat galduz. 29 urte zituela Donostiako espetxetik irten zen, 12 urte eta egun bateko espetxealdia betetzen ari zen bertan. 1943an Urberuaga baserrian bizi zen, ABC enpresarentzat lan egiten zuelarik. 1944an Afrikako SLB batera bidaltzen dute.
- Juan Vasquez Arce: Pozoblancokoa, Itziarren zegoen bortxazko lanetan.
- Vicente Martin Caselle: Itziarreko SLBan lanean hari zela, Deniako Erantzukizun Politikoen Tribunalak ikerketa bat abiarazten du bere aurka[600].

Ahozko testigantza bidez badakigu bertan preso zeuden gehienak ez zirela inguruko herrietakoak, baizik eta Debako herritarrekin pasatzen zen bezala, dispertsatutako presoak ziren, beraien etxeetatik ehunka kilometrotara aurkitzen zirenak. Hala ere, baziren euskaldunak ere batailoi honetan lanean. Itziarko errepidea Arruako elizatik hasita burutu zuten eta janari eskasia pairatu zuten, askotan beraiekin lan egiten zuten herritarrek, beraientzat eraman zuten janaria ematen zieten presoei. Behin obra hauek amaituta, presoek Itziarko harrobietan lan egin zuten denbora batez[601].

Presoen destakamenduak, Itziarren bertan egiten zuen lo, Urtia baserrian. Bertako bizi baldintzak oso gogorrak ziren, pertsonen pilaketa eta aurrez hutsik zegoen baserri bat zela kontuan izanda. Kontuan izan behar da 100 pertsona inguruk egiten zutela bizitza bertan. Beraien zaindariak, Gainza-Etxeberri ondoko baserrian kokatu zuten bulegoa[602].

Horrez gain, 1938an, 148 SLBko seigarren konpainia, 131 presorekin, Deba eta Ondarroa artean lanetan aurkitzen zen Briaseko zubian, bertan 96 preso aurkitzen zirelarik. 19 preso gehiago, beste kokapen batzutan zeuden lanean eta gainontzekoak gaixorik edota ospitalean aurkitzen ziren[603].

- Francisco Redondo Blanco: Trabajaba en un BSDT de Zestoa, pero vivía en Deba.
- Fructuoso González Robles: En 1943, salió de la cárcel de Larrinaga y se estableció en el caserío Txertudi; estaba casado. Un debarra lo identifica como Fructuoso González Moreno[699].
- Hilarión Martí Crilella: El juzgado militar de Castellón conmuto la condena de 20 años del proceso 1841/6, por una de 12 años, el 13 de marzo de 1943.
- Ildefonso Garrido García: salió de la cárcel de Donostia en 1943, teniendo 28 años, donde cumplía una condena de 20 años de prisión. Se estableció en el caserío Larraguibel. En septiembre-octubre de 1944 escapó de Deba, cruzó la frontera y se unió a la guerrilla de los Maquis, participando en la ofensiva de los Pirineos. Allí fue detenido por los franquistas.
- Jesús Gómez Elorriaga: Era de Basauri y estaba preso en Itziar. En noviembre de 1942 consiguió la libertad condicional.
- José Mir Roig: En la Guerra Civil fue herido en la pierna izquierda y perdió parte de la movilidad de la rodilla. Salió de la cárcel de Donostia con 29 años, cuando estaba cumpliendo la condena de 12 años y un día de prisión. En 1943 vivía en el caserío Urberuaga y trabajaba para la empresa ABC. En 1944 lo enviaron a un Batallón de Soldados Trabajadores en África.
- Juan Vásquez Arce: Era de Pozoblanco (Córdoba) y estaba en Itziar realizando trabajos forzados.
- Vicente Martin Caselle: Estando trabajando en el BDST de Itziar, el Tribunal de Responsabilidades Políticas de Denia (Alicante) inició una investigación en su contra[600].

Por medio de testimonios orales sabemos que la mayoría que estaban presos no eran de los pueblos de los alrededores si no que, como pasa con los habitantes de Deba, eran presos dispersados que se encontraban a cientos de kilómetros de sus casas. Sin embargo, también había vascos en ese batallón. La carretera de Itziar la hicieron desde la iglesia de Arroa. Sufrieron escasez de comida, y muchas veces les daban la comida que habían llevado para ellos mismos los del pueblo. Una vez terminadas estas obras, el destacamento de presos trabajó durante un tiempo en las canteras de Itziar[601].

El destacamento de presos dormía en el mismo Itziar, en el caserío Urteaga. Las condiciones de vida eran muy duras, la hacinación de personas era terrible (hay que tener en cuenta que vivían unas 100 personas) y, además, era un caserío que anteriormente estaba vacío. Los vigilantes tenían su oficina en el caserío Gainza-Etxeberri de al lado[602].

Además, en 1938, la sexta compañía del batallón nº 148, con 131 presos, se encontraba entre Deba y Ondarroa en el puente de Brias. De esos, 96 estaban trabajando en el puente, otros 19 en otras localizaciones y los restantes estaban enfermos o en el hospital[603].

[699] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.
[600] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[601] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.
[602] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.
[603] BADIOLA ARIZTIMUÑO A., La represión franquista en el País Vasco. Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra, UNED, 2015.

| IZENAK / NOMBRES | FILIAZIOA / FILIACIÓN | BATAILOIA / BATALLÓN | DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES |
|---|---|---|---|
| **AIZPURUA MENDIZABAL, JOSE** | | | |
| **AMUCHASTEGUI ECHAVE, LUIS** | | Madrilgo "Casa Rolaco" eta 95 Batailoian (Extremaduran). / Casa Rolaco (Madrid) y 95º batallón (Extremadura). | |
| **ARAMBERRI ARAQUISTAIN, JUAN JOSE** | | Bizkaian, errepideak eta trenbideak egiten. / Construyendo vías de tren y carreteras en Bizkaia. | |
| **ARAMBERRI ARAQUISTAIN, PEDRO** | | 14 Batailoia (Leon). / 14º batallón (León). | |
| **ASTIGARRAGA EGAÑA, PATRICIO** | | 30 Batailoia (Sondika). / 30º batallón (Sondika). | Mutrikurako errepideko 9. zenbakian bizi zen, 23 urte zituen eta marmolaria zen. / Tenía 23 años, era marmolista y vivía en carretera a Mutriku nº 9. |
| **ASTIGARRAGA MENDIZABAL, FERMIN** | | Teruelen / En Teruel | Gerra ostean Deban bizi izan zen, Mutrikuarra jaiotzez baña Oionen bizi zen Altxamenduaren aurretik. Frentean bortxazko lanak egiten ari zela errepublikarren aldera ihes egitea lortu zuen / Nació en Mutriku pero antes del alzamiento vivía en Oion. Tras la guerra vivió en Deba. Haciendo trabajos forzados en el frente logró huir al bando de los republicanos. |
| **AZCOITIA MENDIZABAL, AGUSTIN** | | | Gerra kontseiluan aipatua / Juzgado en consejo de guerra. |
| **AZPEITIA EZPELETA, RAMON** | | 38 Batailoia (Errenteria) / 38º batallón (Errenteria) | 24 urte zituen (1941), ebanista zen eta ezkongabea / Tenía 24 años (1941), era soltero y trabajaba como ebanista. |
| **AZPIAZU IRIONDO, JOSE** | UGT | Constructora Naval la Reinosa / Constructora Naval la Reinosa | |
| **AZPIRI FERNANDEZ, LUIS MARIA** | | | |
| **BARRENA DIEZ, LEANDRO** | | Afrikako BDST / BDST de África | |
| **BASURTO ARRIZABALAGA, CARLOS** | | 30 Batailoia (Sondika) / 30º batallón (Sondika). | J.J. Aztiria kalean bizi zen, 23 urte zituen eta ezkongabea zen. Leuntzaile bezala lan egin zuen. Bere gaineko informazio eskaerari Alkateak erantzun (baina sinatu Guardia Zibilaren postuko komandanteak, Antonio Termiño Indigo): EAJ alderdiarekin bat egiten zuen, altxamenduaren ostean ez diote ekintzarik egozten. Herritik ihes egin zuen. Bere portaera morala ona dela diote. / Tenía 23 años, era soltero y vivía en la calle J.J. Aztiria. Trabajó como pulidor. A la petición de información sobre él respondió el alcalde, pero lo firmó el comandante del puesto de la Guardia Civil, Antonio Termiño Indigo. Simpatizaba con el PNV, tras el alzamiento no le culparon de ningún acto. Escapó del pueblo. Dicen que su conducta moral es buena. |
| **BASURTO ARRIZABALAGA, JOSE** | | 35 Batailoia (Labacolla, Santiago de Compostela) , 30 Batailoia (Sondika) / 35º batallón (Labacolla, La Coruña) y 30º batallón (Sondika). | J.J. Aztiria kalean bizi zen eta 25 urteko igeltseroa zen , ezkongabea. Galizian hospitalizatua izan zen, bronconeumoniagatik / Tenía 25 años, era soltero, albañil y vivía en la calle J.J. Aztiria. Fue hospitalizado en Galicia por bronconeumonía. |
| **BRAVO MAZQUIARAN, SANTIAGO** | Sozialista, Jean Jaures Batailoia / Batallón socialista Jean Jaures | | |
| **ELOSUA, RAIMUNDO** | PSOE | Miliziano bezala borrokatu zuen, Castro Urdialesen egin zuten preso. Burgos, Lleida, Altsasu eta Bartzelonan eduki zuten preso / Combatió como miliciano; fue arrestado en Castro Urdiales (Cantabria). Estuvo prisionero en Burgos, Lérida, Altsasu y Barcelona. | |
| **EMPARANZA ZABALA, FIDEL** | | Afrikako BDST / BDST de África | |
| **ESNAOLA OYARZUN, FELIX** | | Iruñeko Espetxe Militarrean preso / Encarcelado en la prisión militar de Iruñea. | |
| **ESNAOLA AIZPURUA, CAMILO** | | 77 Batailoia / 77º batallón | DUA / AMD |
| **ESNAOLA IRAOLA, IGNACIO** | UGT | Iruneko penalean / En el penal de Irun. | |

| IZENAK / NOMBRES | FILIAZIOA / FILIACIÓN | BATAILOIA / BATALLÓN | DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES |
|---|---|---|---|
| **FERNANDEZ, JOSE** | | Bartzelonan / En Barcelona | |
| **FERNANDEZ IRIONDO, UBALDO** | | | |
| **GALDONA ANDUAGA, PEDRO** | | Zaragoza | |
| **GALDONA ESNAOLA, JAVIER** | | 78 Batailoia (Arevalo (Avila) / 78º batallón (Arévalo, Ávila). | Gerra kontseiluan epatua / Juzgado en consejo de guerra. |
| **ICIAR CAPEROCHIPI, JOSE** | | 14. Batailoia (Lesaka, 1941/10/15) , 76 Batailoia (1940/05/12 arte) / 30 Batailoia (Sondika) / 14º batallón (Lesaka, 15/10/1941), 76º batallón (hasta 12/05/1940) y 30º batallón (Sondika). | |
| **IDIAQUEZ SORASU, LUCIANO** | | | 1917ko azaroak 17an jaio zen / Nació el 17 de noviembre de 1917. |
| **IRIONDO IRIONDO, JULIAN** | | | |
| **IRIONDO LIZARZABURU, JULIAN** | | Lora del Rio (Sevilla) | Marchudi kalean bizi zen / Vivía en la calle Marchudi |
| **IRUSTA MUGARZA, JOSE LUIS** | | Andaluzian / Andalucía (La Línea, Algeciras…). | Deban jaio zen, 1915ko martxoak 24an, Lersundi kalean / Nació el 24 de marzo de 1915 en Deba, en la calle Lersundi. |
| **IRUSTA MUGARZA, RAMON** | | Afrikako SLB / BDST de África | Deban jaio, 1910ko urriak 31n, Lersundi kalean. / Nació el 31 de octubre de 1910 en Deba, en la calle Lersundi. |
| **LARRAÑAGA ELORZA, ANTONIO** | | | Mutrikun bizi zen / Vivía en Mutriku |
| **LIZARZABURU EGAÑA, JOSE** | | | Eibarren bizi zen / Vivía en Eibar. |
| **MANCISIDOR ODRIOZOLA, TOMAS** | | | |
| **MANCISIDOR UDABE, JOSE MARIA** | | | Kondenatutako Soldadu Langileen Batailoi batera bidali zuten (KSLB) / Lo enviaron a un Batallón de Soldados Trabajadores Condenados (BDSTC). |
| **ODRIOZOLA BASURTO, JOSE MARIA** | | | |
| **OSA ALCIBAR, JOSE MARIA** | | | |
| **OSA ALCIBAR** | | | |
| **OSA SUBIÑAS, JOSE (RAMON)** | | | Sententzian bidali bertara / Lo enviaron en la sentencia. |
| **OSTOLAZA ZALLA, JULIAN** | | 40 Batailoian / 40º batallón | Guadalajara |
| **RIESGO OÑAEDERRA, ANTONIO** | | Asturiasen / En Asturias | Sententzia, ahozko testigantza / Sententzia, ahozko testigantza. |
| **RODRIGUEZ EGAÑA, JOSE** | | | |
| **URBIETA EGAÑA, GREGORIO** | | | Guadalajara |
| **URBIETA EGAÑA, JOSE MARIA BLAS** | EAJ | 19 Batailoia / 19º batallón | Monreal del Campo (Aragoi) bortxazko lanetan zebilela hil zen 1938ko urtarrilak 12an / Monreal del Campo (Aragoi) bortxazko lanetan zebilela hil zen 1938ko urtarrilak 12an. |
| **USABIAGA ALBIZU, CLAUDIO** | | | Gerra kontseiluak bidalia / Enviado por el consejo de guerra. |

Azkenik, bortxazko lanen arloa ez zen soilik Gerra Zibila eta hurrengo urteetako errepresioak sorturiko espetxeratuen gain eroriko. Horrela, Bigarren Mundu Gerrak eztanda egin ostean, Espainiako Estatutik ihes egin zuten errefuxiatuen antzerako olatu bat eman zen, baina kontrako noranzkoan. Hots, Alemania naziak Frantziako Estatua armaz hartu zuenean, bertako biztanle ugari (adin militarrean zeuden gazteak, militante ezkertiarrak, judutarrak…) Pirinioak gurutzatu eta Espainiako Estatuan babestu ziren. Kalkulatzen da, 30 000-40 000 pertsona inguruk ihes egin zutela Frantziako Estatutik[604]

Por último, el ámbito de los trabajos forzados no recaería solo sobre los encarcelados creados durante la Guerra Civil y en los siguientes años de represión. Tras estallar la Segunda Guerra Mundial se dio una oleada parecida a la de los refugiados que escaparon del Estado español, pero en dirección contraria. Es decir, cuando la Alemania nazi tomó el Estado francés por las armas, muchos de sus habitantes (jóvenes que estaban edad militar, militantes izquierdistas, judíos…) cruzaron los Pirineos y se refugiaron en el Estado español. Se calcula que entre 30 000 y 40 000 personas huyeron del Estado francés[604].

[604] HERNANDEZ DE MIGUEL C., Los Campos de Concentración de Franco, Penguin Random House Group Editorial, Bartzelona, 2019.



BATALLÓN DISCIPLINARIO
DE
SOLDADOS TRABAJADORES N.º 28

Sección PM
Núm. 8600

Consecuente a su escrito nº 160 de fecha 23 del corriente, tengo el gusto de participar a V. que el soldado trabajador de esta Unidad JOSE BASURTO ARRIZABALAGA, fué trasladado al Hospital Militar de Santiago de Compostela por padecer bronconeumonía el día 5 del corriente, significándole que en la actualidad el referido soldado trabajador se halla bastante restablecido.
Dios guarde a V. muchos años.
LABACOLLA (Santiago de Compostela)
27 de Octubre de 1941
EL COMANDANTE JEFE

Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de
DEVA (Guipuzcoa)



BATALLÓN DISCIPLINARIO NÚM. 14

Núm.

Ruego a V. S. remita con la posible urgencia a esta oficina, informes con toda clase de detalles, de la conducta político social correspondiente al soldado disciplinario de esta Unidad, vecino de esa Plaza, Juan Iciar Caperochipi
Hijo de Francisco y Josefa A.
domiciliado en la calle Astillero
Dios guarde a V. S. muchos años.
Lesaca (Navarra) 15 de Octubre de 1941
El Comandante Jefe,

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Deva



Contestando a su escrito nº 1566 de fecha 20 del actual, me complazco en comunicar a Vd. que, de los informes adquiridos del vecino de esta villa Juan Iciar Caperochipi, con anterioridad al G.M.N. simpatizaba con los partidos políticos de izquierda, sin ser significado.
Durante la dominación rojo-separatista en esta localidad, hizo guardias armado.
Evacuó la localidad.
Su conducta moral, es buena.
Dios guarde a V. muchos años.
Deva 24 Octubre 1941
El Comandante Puesto
Antonio Jimeno Indego

Sr. Alcalde-Presidente Ayuntamiento Deva.



BATALLÓN DISCIPLINARIO DE SOLDADOS TRABAJADORES
NÚMERO 30
SONDICA - BILBAO

Sección 2.ª
N.º

Ruego a Ud. se digne remitir, a la brevedad posible, a esta Jefatura, informes sobre la conducta político-social del soldado-trabajador de esta Unidad y vecino de esa Plaza Carlos Basurto Arrizabalaga cuyo domicilio al dorso se expresa.
Dios guarde a España y a Ud. muchos años.
Sondica-Bilbao a 10 de Octubre de 1941.
El Jefe del Batallón,

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Deva

**Debar ezberdinen inguruan, udalari bidalitako dokumentuak.** (DUA). / Documentos sobre varios debarras enviados al Ayuntamiento. (AMD).



BATALLON DISCIPLINARIO DE SOLDADOS TRABAJADORES N.º 40

MANDO

Núm. 12274

Ruego a V. S. si lo tiene a bien, se digne el comunicar al que fué soldado trabajador de este Batallón de mi mando, MARTIN AGUIRRE ORTOLOZA y que tiene fijada su residencia en el pueblo de Deva calle núm. de ese Ayuntamiento de su digna Dirección; que ha sido destinado a la situación de disponibilidad del servicio activo a la Zona de Reclutamiento y Movilización num 34 por orden del Excmo. Sr. General Subinspector de la 6ª Region M. significándole le sea anotado en el certificado que se le extendió por esta Unidad, tal situación; esperando a la vez merecer de la fina atención de V. S. el darme cuenta de haberlo efectuado, para constancia de esta Jefatura.

Dios guarde a V. S. muchos años.

Lugo de Llanera a 29 de Julio de 1942.

El Comandante Jefe,

Baltasar Gil Marco

Sr. Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de DEVA (GUIPUZCOA)



BATALLÓN DISCIPLINARIO DE SOLDADOS TRABAJADORES NÚMERO 30 SONDICA - BILBAO

Sección 2.ª

N.º

Ruego a V. se digne remitir, a la brevedad posible, a esta Jefatura, informes sobre la conducta politico-social del soldado-trabajador de esta Unidad y vecino de esa Plaza Ramón Cabré Furundarena

cuyo domicilio al dorso se expresa.

Dios guarde a España y a V. muchos años.

Sondica-Bilbao a 25 de Septiembre de 1941.

El Jefe del Batallón,

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Deva Guipuzcoa



Consecuente a su escrito nº 1566 de fecha 20 del actual, tengo la distinción de comunicar a V. que el vecino de esta villa Carlos Basurto Arrizabalaga, según los informes adquiridos, dicho individuo con anterioridad al G. M. N. simpatizaba con el partido Nacionalista Vasco.

Durante la dominación rojo-separatista no tuvo actuación alguna.

Era en la localidad.

Su conducta moral es buena.

Dios guarde a Vd. muchos años.

Deva a 23 de Octubre de 1941.

El Comandante del Puesto.

Antonio Jiménez [illegible]

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Deva.



Don Eustaquio de Iruste y Zabala, secretario del Ayuntamiento de la Villa de - DEVA (Guip.) -

CERTIFICO: que el portador de la presente Don Martín Aguirre Ortoloza, soldado-trabajador perteneciente al Batallón Disciplinario de Soldados Trabajadores num 40, en adelante queda destinado en situación de disponibilidad a la Zona de Reclutas num. 34, por orden del Excmo. Sr. Sub-Inspector de la 6ª Region Militar, en oficio num, 12274 de fecha 29 de julio de 1942.

Y para que así conste al interesado y sirva de justificante a su actual situación [illegible] visado por el Sr. Alcalde, expido en Deva a cuatro de Agosto de mil novecientos cuarenta y dos.

V.º B.º

El Alcalde

**Debar ezberdinen inguruan, udalari bidalitako dokumentuak.** (DUA). / Documentos sobre varios debarras enviados al Ayuntamiento. (AMD).

Autoritate frankistak ez zuten begi onez ikusten errefuxiatu hauen uholdea, militante ezkertiar eta antifaxisten sarreraren beldur zirelako. Hauetako asko, adin militarrean aurkitzen ziren eta autoritate frankistek, kontzentrazio esparruetan biltzea erabaki zuten, oraindik bizirik zegoen erresistentzia antifaxistarekin bat egin ez zezaten. Horregatik, pertsona hauek guztiak atxilotu eta espetxeratzea erabaki zuen. Ondorioz, gerra osteko urteetan husten joan ziren kontzentrazio esparruak berriro betez joan ziren, bertan Bigarren Mundu Gerratik ihesi zihoazen Europa osoko pertsonak eta gerran parte hartzera etorritako militante internazionalistak egon zirelarik preso. 1942 eta 1943 urteetan, Francoren diktadura Alemania Naziarekin elkarlan eta gertutasun handia zuen, ondorioz, ehunka errefuxiatu atxilotu ostean Gestapo polizia alemaniari entregatuak izan ziren.

Atzerritarrak espetxeratzeko gune nagusia Miranda de Ebro izan zen, baina Hego Euskal Herrian ere egon ziren kontzentrazio esparruak ere, hauek 1947a arte egon ziren martxan:

Las autoridades franquistas no veían con buenos ojos esta oleada de refugiados, porque temían que entrarían militantes izquierdistas y antifascistas. Muchos de ellos estaban en edad militar y las autoridades franquistas decidieron reunirlos en campos de concentración, para que no se unieran con la resistencia antifascista que todavía estaba viva. Por ello, decidieron detener y encarcelar a todas esas personas. Por lo tanto, los campos de concentración que habían ido vaciándose en los años de posguerra, se volvieron a llenar de personas que huían de la Segunda Guerra Mundial y de militantes internacionalistas que vinieron a participar en la guerra. Entre los años 1942 y 1943 hubo una estrecha colaboración y cercanía entre la dictadura de Franco y la Alemania Nazi y, por ello, cientos de refugiados fueron entregados a la Gestapo alemana tras ser detenidos.

El mayor centro de reclusión de los extranjeros fue Miranda de Ebro, pero en Euskal Herria también hubo campos de concentración, y estuvieron en marcha hasta 1947:

**Hego Euskal Herrian, atzerritarrentzako eratu ziren kontzentrazio esparruak / Campos de concentración para extranjeros creados en Hego Euskal Herria[605]**

| GIPUZKOA | ARABA | BIZKAIA | NAFARROA |
|---|---|---|---|
| - Zestoa<br>- Deba<br>- Zarautz<br>- Zumaia | - Sobroneko bainuetxea | - Markina-Xemeingo Ubila-Urberuaga auzoa (bainuetxea)<br>- Markina-Xemeingo Ubila-Urberuaga auzoa (bainuetxea) | - Iruñeko espetxea[606] |

Gerra Zibileko presoekin gertatu zen bezala, atzerritarren bizi baldintzak benetan gogorrak izan ziren. Miranda de Ebrora joandako diplomatiko belgiarrak burututako txosten batek argi erakusten du esparru hauetan aurkitzen ziren pertsonen bizi baldintzak. Presoak, egoera tamalgarrietan bizi ziren, esparruak masifikatuak zeuden, eskaria erantzuteko adina ez zirelarik. Leihoetan ez zegoen kristalik ez eta berogailurik. Lurrean lo egin behar izaten zuten eta zorriz beteta zeuden presoak, 800 presoko 20 txorrota eta 12 dutxa baitzituzten, askotan izorratuak zeudelarik. Elikadura eskasa eta kalitate txarrekoa zen, kanpotik jakiak edota dirua jasotzea debekatuta zuten gainera. Horrez gain, ofizialak izan ezik, gainontzekoak lan fisikoak egitera behartuak zeuden. Txostenak gainera dio, zigor fisikoak ohikoak zirela eta gehiegizko diziplinaren isla ziren[607].

Como ocurrió con los presos de la Guerra Civil, las condiciones de vida de los extranjeros fueron realmente duras. Un informe realizado por diplomáticos belgas que estuvieron en Miranda de Ebro, muestra claramente cuales fueron las condiciones de vida de las personas que estaban en esos campos. Los presos vivían en condiciones penosas, los campos estaban masificados y no eran suficientes para responder a la demanda. En las ventanas no había cristales, ni había calefacción. Tenían que dormir en el suelo y los presos estaban llenos de piojos. Por cada 800 presos tenían 20 grifos y 12 duchas, que muchas veces estaban estropeados. La alimentación era escasa y de mala calidad y, además, tenían prohibido recibir comida o dinero de fuera. Además, excepto los oficiales, los demás estaban obligados a hacer trabajos físicos. En el informe se dice que los castigos físicos eran habituales, y que eran reflejo de la excesiva disciplina[607].

605 RODRIGO J., Cautivos: campos de concentracion en la España franquista, 1936-1947, Crítica, Bartzelona, 2005.

606 Funtsean ez zen kontzentrazio esparru bat, espetxea baizik, baina atzerritarrak preso izateko erabili zen. / Básicamente no era un campo de concentración, si no una prisión, pero se utilizo para encarcelar a extranjeros.

607 RODRIGO J., Cautivos: campos de concentracion en la España franquista, 1936-1947, Crítica, Bartzelona, 2005.





**Brigada Internazionalak preso.** (RODRIGO J., Cautivos: campos de concentracion en la España franquista, 1936-1947-tik lortua). / **Presos de las Brigadas Internacionales.** (RODRIGO, J.: Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947).

Izan ere, urte horietan, Francoren erregimen filonaziak, nahiz eta ofizialki zuen jarrera “ez beligerantea” izan, ideologikoki alemaniarren gertukoa zen eta hauen gerra esfortzurako hornigai eta materialez gain, frentean borrokarako soldadu boluntarioen Dibisio Urdina bidali zieten. Hori dela eta, preso zeuden atzerritarren ongizatea ez zen Francoren gobernuaren lehentasunetako bat.

Egoera, 1942tik 1943ko neguan aldatuko da, aliatuen garaipen militar batzuen eta batez ere SESB Stalingradoko batailan gailendu ostean, alemaniarren gainbeheraren hasiera eman zen. Ondorioz, Francok bandoz aldatzeari ekin zion, horretarako presoen bizi baldintzak hobetu eta hauei askatasunaren ateak irekitzen hasi ziren frankistak, aliatuen begietara ongi geratzeko helburuarekin. Horrela, 1943ko martxoa eta apirila bitartean, presoak askatzen hasi ziren, Frantziako Estatutik zetozenen kasuan, “Metropolira” itzuli nahi ez zuten guztiak, Afrika Iparraldean estatu honek zituen kolonietara kanporatu edo Nazioarteko Gurutze Gorriaren esku utziko ziren eta Portugaleko muga zeharkaraziko zitzaien[608].

Zarautz, Zestoa, Zumaia eta baita Deban ere besteak beste politika hauek aplikatu ziren. Autoritate frankistek, preso hauek bildu eta ondoren kanporatuak izaten ziren, Estatu Frantsesekoen kasuan gehiengoa Afrika Iparraldean zituzten kolonietara. 1943ko martxoaren bueltan, 139 pertsona aske geratu ziren Deban, 237 Zestoan, 241 Zarautzen, 34 Zumaian eta 41 Iruñean[609]. Errefuxiatu hauez guztiz saturatua zegoen frankisten espetxe sistema, hori dela eta bi urtetik gora preso zeramatzan edota nazionalitate frantsesa zuen pertsona oro aske utzi zituzten data hauetan[610].

De hecho, durante esos años, aunque oficialmente la postura del régimen filonazi de Franco era de “no beligerante”, ideológicamente era cercana a la de los alemanes. Además de enviarles provisiones y materiales de guerra, también les enviaron una división de soldados voluntarios para luchar en el frente: la División Azul. Por ello, el bienestar de los presos extranjeros no era una de las prioridades del gobierno de Franco.

La situación cambió en el invierno entre 1942 y 1943. Los aliados habían obtenido unas victorias militares y, sobre todo, la URSS salió victoriosa en la batalla de Stalingrado, lo que propició el inicio de la debacle alemana. Con lo cual, Franco empezó a cambiar de bando, mejorando para ello las condiciones de los presos y empezando a liberarlos, para quedar bien antes los ojos de los aliados. Así, entre marzo y abril de 1943, empezaron a soltar a los presos. En el caso de los que venían del Estado francés, todos los que no querían volver a la metrópoli, eran expulsados a las colonias que este estado tenía en el Norte de África o se dejaban en manos de la Cruz Roja Internacional y se les obligaba cruzar la frontera de Portugal[608].

Estas políticas se aplicaron, entre otros sitios, en Zarautz, Zestoa, Zumaia y también en Deba. Las autoridades franquistas los reunían y luego los expulsaban, en el caso de los del Estado francés la mayoría a las colonias que tenían en el Norte de África. Hacia marzo de 1943, 139 personas quedaron en libertad en Deba, 237 en Zestoa, 241 en Zarautz, 34 en Zumaia y 41 en Iruñea[609]. El sistema penitenciario franquista estaba saturado de todos esos refugiados y, por lo tanto, toda persona que llevara más de dos años de cárcel o fuera de nacionalidad francesa quedó libre esos días[610].




**Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrua.** (RODRIGO J., Cautivos: campos de concentracion en la España franquista, 1936-1947-tik lortua). / **Campo de concentración de Miranda de Ebro.** (RODRIGO, J.: Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947).

608 Id.
609 RODRIGO J. liburuan, AMAE-AB, L2182, E5. / RODRIGO J. en el libro, AMAE-AB, L2182, E5.
610 RODRIGO J., Cautivos: campos de concentracion en la España franquista, 1936-1947, Crítica, Bartzelona, 2005.

## Auzitegi militar frankistek epaitutako debarrak

Auzitegi militar frankistetan 102 debar epaituak izan ziren, Presoen Sailkatzeko Agindu Orokorraren baitan, C eta D ataletan sailkatuak izan zirenak.

Goian aipatu den bezala, Errepublika eta Eusko Jaurlaritzarekin erlazioa zuten pertsona gehienek herritik ihes egiteko hautua egin zuten, errepresioaren beldur. Horregatik, epaituak izango ziren debar gehienak, Bilbo erori ostean eta Santoñako hitzarmenaren artean atxilotu zituztenak izan ziren, 1937ko udan. Hala ere, baziren borrokan jardun zutenak ere, Itziarko medikua Jose Maria Lombideren kasuan bezala, Iparraldeko Frontea deiturikoa erori arte borrokatu zutenak edota Kataluniara eta erbestera ihes egin behar izan zutenak eta ondoren epaituak izango zirenak[611].

## Debarras juzgados por juzgados militares

En los juzgados militares franquistas fueron juzgados 102 debarras, los que según la Orden General de Clasificación de Presos, fueron clasificados en los grupos C y D.

Como se ha mencionado anteriormente, la mayoría de las personas que tenían relación con la República o el Gobierno Vasco decidieron escapar del pueblo, por miedo a la represión. Por eso, la mayoría de los debarras juzgados fueron los que detuvieron tras caer Bilbo y el pacto de Santoña, en verano de 1937. De todos modos, también hubo quienes siguieron luchando (por ejemplo, el médico de Itziar José María Lombide, que combatió hasta que cayó el Frente Norte) o los que tuvieron que huir a Cataluña o al exilio y luego fueron juzgados[611].



**Deustuko Unibertsitatea espetxe bilakatuta.** (http://www.loscamposdeconcentraciondefranco.es/-tik lortua, BNEtik). / **La universidad de Deustu convertida en prisión.** (http://alexturrillasaranzeta.blogspot.com/2017/12/, BNE).

Esan bezala, altxatuen aurka lerratu ziren pertsona ugari gerra kontseilu bidez epaituak izan ziren. Hots, ez zitzaien jurisdikzio arrunta aplikatzen 1931eko Konstituzioa oinarri zuena. Altxatuek, berau baliogabetu baitzuten beraien kontrolpeko lurraldeetan 1936ko altxamenduaren ostetik. Ondorioz, jurisdikzio militarra aplikatzen zieten, honek epaituen eskubideak urratzen zituelarik.

Jurisdikzio Militarraren erabilerak, hots, salbuespeneko legedi baten baitan epaituak izateak, prozesu judizial batek izan beharko lituzkeen objektibotasun eta defentsa justu baterako eskubidea urratzen zuen. Horrez gain, gerra garaian zeuden atxilotu kopuru altua zela eta herritarrentzat "eredu" bezala erabiltzeko altxatuek zuten nahiaren ondorioz, prozesuak azkartasunez eta arbitrariotasunez eraman zituzten aurrera.

Tal como hemos dicho, muchas personas que se alinearon en contra de los sublevados fueron juzgados mediante consejo de guerra. Es decir, no se les aplicaba la jurisdicción ordinaria que tenía como base la Constitución de 1931, porque los sublevados lo habían revocado en los territorios bajo su control tras el alzamiento de 1936. Por lo tanto, les aplicaban la jurisdicción militar, lo cual vulneraba los derechos de los enjuiciados.

La utilización de la jurisdicción militar, esto es, ser juzgados bajo una ley de excepción, vulneraba el derecho a la objetividad y defensa justa que debería tener un proceso judicial. Además, debido al gran número de detenidos que había durante la guerra y debido a que los sublevados querían que fueran como "modelo" para los ciudadanos, realizaban los procesos con rapidez y arbitrariedad.

[611] Gerra Kontseilu ezberdinetatik ateratako datuak. / Datos obtenidos de varios Consejos de Guerra.

Presoen Sailkatzeko irizpideen baitan gertatzen zen bezala, epaitegi militarrek Debako Alkatea, Bake Epaitegia, Guardia Zibilaren komandantea, herriko Falangea eta apaizaren txostenak erabiltzen zituzten auzipetuen aurka. Tribunal berezi hauek, pertsona hauekiko txostenak eskatzen zituzten eta orokorrean lau aldeek mezu ia bera aurkezten zieten eta orokorrean oso deklarazio gogorrak izaten ziren. Gainera, herriko eskuindar arruntek ere beraien aurka deklaratzen zuten eta hauek izaten ziren askotan deklaraziorik gogorrenak.

Tal como ocurría con los criterios de clasificación de los presos, los juzgados militares usaban los informes del alcalde de Deba, del Juzgado de Paz, del comandante de la Guardia Civil, de la Falange del pueblo y del sacerdote en contra de los encausados. Estos tribunales especiales pedían informes de estas personas y, en general, las cuatro partes presentaban casi el mismo mensaje y, en general, solían ser declaraciones muy duras. Además, los derechistas locales habituales también declaraban contra ellos y muchas veces solían ser esas las declaraciones más duras.



**Eusko Gudarosteko kideak, Burgosko espetxean preso.** (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, GFA/Atabal funtsa). / **Miembros del Ejército Vasco en la cárcel de Burgos.** (Archivo General de Gipuzkoa, DFG / Fondo Atabal).

Epaiketen kasuan, asko eragiten zuen epaitua noiz atxilotua izan zen, horren arabera, epaiketan jasan zezakeen zigorra ezberdina izan baitzen. Horrela, hiru fase ezberdindu beharko genituzke. Lehena, 1937ko bigarren lauhilekoan atxilotutakoen baitan koka genezake, Bilbo erortzetik Iparraldeko Frontea erortzeraino. Gerra kontseiluetan epaitutako lehen debarrak, Bilbo erori ostean atxilotu eta abuztuan bertan epaituak izaten ziren. 1937 eta 1938 hasieretan epaituak izan zirenak, gudari eta milizianoak izan ziren eta Defentsa Batzordeetako kideak ere. Hauek, kuantitatibo eta kualitatiboki jasan zituzten epaiak gogorrenak izan ziren. Horrela, kondena altuenak eta heriotza zigor denak fase honetan eman ziren. Garai hauetan atxilotutakoei ezarri zitzaizkien zigorrak eredugarriak izatea nahi zuten frankistek, askotan beranduago delitu beragatik epaituak izan ziren pertsonak baino zigor gogorragoa jasoz. Horren adibide da Tomas Rodriguez Egaña, non Defentsa Komitearen ordena publikoko ardura izateagatik heriotza zigorrera kondenatuko duten eta 1938ko martxoak 15an fusilatu egin zuten. 1940ko apirilak 20an, Kondenen Azterketarako Komisioak bere heriotza zigorra kommutatzea proposatuko du.

En cuanto a los juicios, afectaba mucho cuando era detenido el enjuiciado porque, en función de eso, la condena que podía recibir en el juicio sería diferente. Así, deberíamos diferenciar tres fases. La primera, la de los detenidos en el segundo cuatrimestre de 1937, desde la caída de Bilbo hasta que cayó el Frente Norte. Los primeros debarras juzgados en consejo de guerra fueron detenidos tras la caída de Bilbo y juzgados el mismo agosto. Los juzgados a comienzos de 1937 y 1938 eran gudaris y milicianos, y también miembros de los Comités de Defensa. Estos fueron los que sufrieron los juicios más duros cuantitativamente y cualitativamente. Así, las condenas más altas y todas las penas de muerte se dieron en esta fase. Durante esa época, los franquistas querían que los castigos que impusieron a los detenidos fueran ejemplares y, muchas veces, recibían condenas mayores que los que serían juzgados más tarde por el mismo delito. Un ejemplo de ello fue Tomás Rodríguez Egaña, que por tener la responsabilidad del orden público del Comité de Defensa fue condenado a muerte, y lo fusilaron el 15 de marzo de 1938. El 20 de abril de 1940, la Comisión para la Revisión de las Condenas propuso conmutar su pena de muerte.

Bigarren fasea 1938 urtearen bigarren zatian aurkitzen dugu. Non jada epaituko dituztenak beraien jardun politikoagatik izango diren. Hauei ezarriko zaizkien kondenak baxuagoak izango dira aurrekoekin alderatuz eta bertan absoluzio kopuru nabarmen bat dago, askotan inputatzen zitzaizkien delituak erantzukizun penalik gabekoak zirelako edota hauek frogatzeko gai ez direlako tribunalak. Hala ere, ez da ahaztu behar, nahiz eta absolbituak izan, behin behineko espetxealdian denboraldi luzeak pasa behar izan zituztela pertsona hauek.

Azkenik, beste epaiketa fase bat ireki zen erbestera ihes egin zuten eta Euskal Herrira itzuli ziren debarrekin. Hauek orokorrean gerra amaituta iritsi ziren eta egoera baretuta zegoelarik, asko absolbituak izan ziren eta gainontzekoek gerra urteetan epaituek baino zigor arinagoak jasotzen zituzten.

Beste puntu bereizgarri bat, orokorrean pertsonaren ideologiak eragina izaten zuela epaiketan. Horrela, nahiz eta Deba garai horretan izaera eskuindarreko abertzaletasuna zen ideologia nagusia herrian, epaitu eta errepresialiatuen datuak ikusiz gero, izaera ezkertiarreko pertsonen kopurua beraien herriko ordezkaritza baino altuagoa da. Hau da, altxatuek, miliziano eta ezkertiarren aurkako errepresioa era bortitzago batean garatu zuten, abertzaleekin "bigunagoak" izan zirelarik orokorrean. Aipagarria da gainera sektore konkretu batzuen aurka burutu zen errepresioa, trenbideetako langileak eta langile publikoen kasuan esaterako, non portzentaje altu batean errepresaliatuak izan ziren.

Adibide moduan, ohikoa izan zen abertzale eskuindarren aurkako deklarazioetan, "kristau ona", "moral zuzeneko pertsona" bezalako aipamenak burutzea. Ildo honetatik, azpimarratu behar da, Florencio Marquieguiren kasuan, udalak zein apaizak bere aldeko deklarazioa burutu zutela, baita Elgetako alkate frankistak ere[612].

[657] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[658] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0116272.
[659] AIRMN, 1313/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1313/37.
[660] AIRMN, 507/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 507/37.
[661] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,4,A0116272.

Ondorioz, bere aurkako ikerketa-deklarazio bat burutu zen 12an, non oraindik ez zaizkion delituri inputatzen. Herriko Guardia Zibilari txostena eskatu eta honek, Enrique Aragon Especialek, Antiaren deklarazioen antzekoa burutu zuen, soilik CNTkoei atxiloketak burutzen laguntzeaz akusatu zion. Hala ere, deklarazio hau baliatu zuten gerra kontseilu bat abiatzeko, bertan hainbat prozedura sumarisimo batu eta 21 pertsona epaitu ziren, Esteban barne. Sententzia, 1938ko urtarrilaren 14an jakinarazi zen, Santanderren bertan, non izaera ezkertiarra izatea eta 1931 eta 1936ko hauteskundeetan Debako zinegotzi kargura aurkeztea egozten zitzaion. 36koetan Sindikato Sozialistaren siglen azpian aurkeztu izana eta bere kargua mantendu zuelarik azken unera arte. Gerran zehar, garraioen sailaren kargu egiteaz akusatu zuten eta berau betetzeko ibilgailuak eta idazteko makinak konfiskatzeaz. Horrez gain, CNTko kideei, altxamendu frankistarekin bat egiten zuten pertsonen atxiloketetan laguntza eskaintzea egotzi zioten. Aurreko lerroetako guztiagatik, matxinadarekin bat egitea inputatu zioten, transzendentzia eta zitalkeriarekin eta ondorioz heriotza zigorrera kondenatu zuen tribunalak.

Horrez gain, kondenaren baitan, bere ondasun eta baliabide guztiak enbargatzea erabaki zuen tribunalak, baina hori ezinezkoa izan zen, Esteban, langile xume bat baitzen eta ez zuen inolako ondasun edota aurrezkirik bere izenean.


xaminados los índices de este Registro, resulta,
bre del penado Esteban Antia Ulacia, vecino de
aparece inscrito derecho ni finca alguna. Azpeitia
Noviembre de 1938. III Año Triunfal.

Providencia Juez Azpeitia veintinueve de Noviembre
Sr. Beguiristain mil novecientos treinta y ocho. III Año
Triunfal
El presente mandamiento
exhorto de su razón.
Lo mandó y firma S.S.ª certifico

Azpeitiko epaitegiaren erantzuna gerra kontseiluko tribunalei, Esteban Antia Ulaciak bere izenean ondasunik ez zuela adierazten. / Respuesta del juzgado de Azpeitia a los tribunales de Consejos Guerras, diciendo que Esteban Antia Ulacia no tiene bienes a su nombre.


Apellidos ANTIA ULACIA Nombre ESTEBAN
Conocido por ... Prisión de COLONIA PENITENCIARIA DEL DUESO
Se halla a disposición de la Jefatura del Servicio Nacional de Prisiones / Auditoria de Guerra de la 6ª Región Militar
Nombre del padre Juan José
Nombre de la madre Francisca
Nombre del cónyuge Zuia Echevarria Galdos
Edad 34 Naturaleza Deva
Partido de Azpeitia Provincia de Guipúzcoa
Vecindad Deva Provincia Guipúzcoa
Domicilio Cruz 8 Profesión albañil
Delito adhesión a la rebelión
Ingresó en 9 de septiembre de 1938
Procedente de Prisión Provincial de Santander
Condenado por sentencia de ... de ... a la pena de reclusión perpetua
EL DIRECTOR,
(1) O indicar si es preventivo.
SERVICIO NACIONAL DE PRISIONES
DE LA POBLACIÓN RECLUSA
Sello de Registro 1938
VITORIA

Esteban Antiaren espetxeko fitxa. (AGA). / Ficha penitenciaria de Esteban Antiaren. (AGA).

Hala ere, defentsak gauzatutako errekurtsoen barruan, Estatu Buruak kondenaren berraztertze bat burutzean, berau kommutatzea erabaki zuen betirako espetxealdiagatik, Burgosen 1938ko uztailaren 7an[662]. Kondena hau betetzera El Duesoko espetxera eraman zuten, urte bereko irailaren 9an. Hurrengo urteetan emaniko kondena errebisioetako batean, zigorra 12 urte eta egun batera kommutatu zitzaion. 1943ko martxoaren 3an presoaldi arindua lortu zuen. Baldintzapeko askatasunarekin, Debara bizitzera itzuli zen[663].

Hala ere, 1947 uztailaren 2an berriro atxilotu zuten, Zarauzko guardia zibilaren aginduz eta Irungo mugazain buruaren esku utzi zuten, honek Estebani espetxealdi inkomunikatua aplikatuz. Berarekin batera Agustin Azcoitia Mendizabal ere atxilotu zuten. Ez da zehazten kausa baina bi izan daitezke zergati nagusiak, bata estraperloa edo kontrabandoarekin harrapatu izana eta bestea, Francok uda Donostian pasa zuelako. Uztailaren 8an, Epaitegi Militarren esku uzten dute eta Donostiara eraman zuten. Abuztuaren 3an, behin-behineko espetxealdia ezarri zioten eta berriro inkomunikatua izan zen gainera. Irailaren 16an askatasuna lortu zuen, bere aurkako inolako diligentziarik burutu gabe, beraz pentsa genezake “pertsona arriskutsu” bezala izendatuko zutela eta horregatik espetxeratua izan zela. Askatasuna berreskuratutakoan, bere jaioterrira bueltatu zen, Debako Maxpe kaleko 7. zenbakian bizitzen hasiz[664].

Esteban era un albañil de 34 años, nacido el 16 de abril de 1903[656] y que vivía en la calle Cruz nº 8 de Deba junto a su esposa Zuia Echevarría Galdos[657]. Junto a Pedro García, era el único representante de izquierdas de la corporación municipal. Desde 1931, estuvo de concejal durante toda la República. Aunque era crítico con el estatuto de Lizarra, cuando expulsaron a Marquiegui dimitió como la mayoría de los demás concejales, por solidaridad. Se preocupó de los derechos de los trabajadores y de sus condiciones de vida, mostrando una postura favorable a mejorar el desempleo local y las condiciones de vida. En las elecciones de 1936 se presentó bajo el Frente Popular. Estaba afiliado a UGT y a Izquierda Republicana, presentándose en nombre de ese en esas elecciones[658].

662 AIRMN, 507/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 507/37.
663 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
664 AHPG-GPAH, 03670 kutxa, 0037 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 03670, exp. 0037.

En unas declaraciones que hizo Tomás Rodríguez Egaña mientras estaba preso, lo identifica como miembro del Comité de Defensa de Deba, como representante de Izquierda Republicana[659]. Antia lo negó en el juicio, y defendió que no era miembro del Comité de Defensa, que solo fue responsable del salvoconducto y del transporte del Frente Popular. Cuando entraron los sublevados en el pueblo, fue evacuado a Bizkaia, alistándose voluntariamente en el Ejército Vasco, en el batallón González Peña, donde estuvo en la oficina de intendencia. De allí, primero fue a Castro Urdiales con el batallón y después fue evacuado a Santander[660]. En Santander, la mayoría de ese batallón fue apresado, pero el 24 de agosto (en los días en los que se estaba dando la batalla de Santander) él aparece como desaparecido en los datos de los republicanos[661]. Iniciaron diligencias en su contra el 12 de septiembre, donde se especifica que tenían preso a Esteban en el frontón Alcázar de Santander. La razón era una denuncia de Antonio López Cordón (agricultor de Deba), del 8 de septiembre, que le acusaba de que fue concejal, detuvo a la familia Sierra y asesinó a Luis Sierra.

Por lo tanto, se realiza una declaración de investigación en su contra el 12, donde aún no se le imputaba ningún delito. Se le pidió un informe a la Guardia Civil local y en su nombre, Enrique Aragón Especial, realizó una declaración parecida a la de Antia, y solamente añadió que ayudó a realizar detenciones a los del CNT. Aún así, usaron esa declaración para iniciar un consejo de guerra, uniendo varios procesos sumarísimos y juzgando a 21 personas, entre ellas a Esteban. La sentencia se dictó el 14 de enero de 1938, en Santander, donde se le acusó de ser izquierdista y de presentarse como concejal a las elecciones de 1931 y 1936 en Deba. En las de 1936 se presentó bajo las siglas del Sindicato Socialista, cargo que mantuvo hasta el último momento. Le acusaban de ser responsable de la sección de transporte durante la guerra, y que confiscaba vehículos y máquinas de escribir para cumplir su trabajo. Además, le acusaban de ayudar a miembros de CNT en la detención de personas afines al alzamiento franquista. Por todo lo anterior, le imputaron adhesión a la rebelión con transcendencia y con ruindad, y en consecuencia, el tribunal lo condenó a pena de muerte.

Además, el tribunal decidió confiscar todos sus bienes y recursos, pero eso fue imposible, porque Esteban era un humilde trabajador y no tenía ningún bien, ni ningún ahorro a su nombre.

De todos modos, gracias a los recursos realizados por la defensa, al realizarse una revisión de la condena por el Jefe de Estado, se le decide conmutar por cadena perpetua, el 7 de julio de 1938[662]. Fue enviado a la prisión de El Dueso a cumplir esa condena, el 9 de septiembre del mismo año. En una revisión de la condena realizado en los próximos años, se le conmutó la condena a 12 años y un día. El 3 de marzo de 1943 consiguió la prisión atenuada. Con la libertad condicional volvió a vivir a Deba[663].

El 2 de julio de 1947 fue detenido por orden de la Guardia Civil de Zarautz y puesto en manos del jefe de fronteras de Irun, y le aplican la prisión incomunicada. Junto a él también detuvieron a Agustín Azcoitia Mendizabal. No se especifica la causa pero pueden ser dos las razones principales: por un lado, que lo apresaron haciendo estraperlo o contrabando, y por otro, que Franco pasó el verano en Donostia. El 8 de julio lo dejaron en manos del Juzgado Militar y lo llevaron a Donostia. El 3 de agosto lo pasaron a prisión preventiva, estando incomunicado. El 16 de septiembre logró la libertad, sin que aparezca ninguna diligencia en su contra, por lo que pensamos que lo nombrarían “persona peligrosa” y que fue detenido por eso. Cuando recobró la libertad volvió a su pueblo natal y estableció su vivienda en la calle Maxpe nº 7 de Deba[664].

### ARANA GOROSTEGUI, JESUS

36 urte zituela[665], 1943ko otsailak 22an, taberna batean, “Gora Euskadi Askatuta” esan eta liskarra izan zuen jabea eta beste pertsona batekin. Ondorioz, bere aurkako prozesu judizial bat abiatu zuten Donostian bertan, non 6 hilabete eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten “oihu iraultzaileak” burutzearen delitua egotzita, irailaren 3an. Behin behineko espetxean aurkitzen zen martxoak 24tik[666].

Teniendo 36 años[665], el 22 de febrero de 1943, dijo “Gora Euskadi Askatuta” en un bar y tuvo una trifulca con el dueño y otra persona. En consecuencia, iniciaron un proceso judicial en su contra en Donostia, y el 3 de septiembre lo condenaron a 6 meses y un día acusado de proferir “gritos revolucionarios”. Desde el 24 de marzo estaba en prisión preventiva[666].

### AROSTEGUI JAUREGUI, JUAN

Herriko EAJ alderdira afiliatua zegoen eta Debako Defentsa Komitean jardun zuen lanean, alderdi hau ordezkatzen. Bertan hainbat guardia armatu burutu zituen baina batez ere gidari gisa ibili zen. Eusko Gudarostea antolatzearekin batera, bere kintoa deitua izan zen eta Ariztimuño batailoira batu zen gudari postuan. Batailoiak, Jose Ariztimuño “Aitzol” idazlearen omenez hartu zuen izena. Bertan Bizkaiaren defentsako bataila nagusienetan parte hartu zuen, batailoi honek parte hartze nabarmena izan baitzuen kanpaina honetan. Bere kide gehienekin batera Santoñako itunak ez gauzatzean preso hartu zuten abuztuaren 26an, non arma eta guzti aurkeztu zen altxatuen aurrean.

Bilbon bere aurka burutuko duten gerra kontseiluan, 1937ko abenduaren 3an, Bigarren Gerra Kontseilu Iraunkorrak, matxinadari laguntza ematea egotzi zion, baina gidari izateagatik arrisku gutxiko funtzioak garatzeagatik 6 urte eta egun bateko

[665] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[666] AIRMN, 238/43 sumario arrunta. / AIRMN, sumario ordinario 238/43.

kartzela zigorra ezarri zioten[667]. 1942ko apirilaren 1ean, Deban aurkitzen zen baldintzapeko askatasunarekin, Poteseko (Asturias) kartzelatik irten ostean[668].

Estaba afiliado al PNV local y anduvo trabajando en representación del partido en los Comités de Defensa de Deba. Realizó varias guardias armadas pero sobre todo anduvo como conductor. Cuando se organizó el Ejército Vasco, fue llamado su quinta y se unió al batallón Ariztimuño como gudari. El batallón tomó el nombre del escritor José Ariztimuño "Aitzol". Participó en las batallas principales de defensa de Bizkaia, pues este batallón tuvo una destacada participación en esa campaña. Junto a la mayoría de los miembros del mismo, fue detenido al no cumplirse el pacto de Santoña, el 26 de agosto, donde se presentó ante los sublevados con las armas.

En el consejo de guerra que se hizo contra él el 3 de diciembre de 1937, en Bilbo, el 2º Consejo de Guerra Permanente le acusó de ayudar a la rebelión, pero como al ser conductor desarrollaba funciones de poco riesgo, le impusieron una condena de 6 años y un día de prisión[667]. El 1 de abril de 1942, se encontraba en Deba con libertad condicional, después de haber salido de la cárcel de Potes (Asturias)[668].



CAMPO PENITENCIARIO
DE
POTES (Santander)
DIRECCION

...mero 1.916

Consecuente con su escrito de fecha 4 del actual, en el que notifica que el penado con prision atenuada JUAN AROSTEGUI JAUREGUI, no posee ningún certificado de liberacion condicional, tengo el honor de remitirle el adjunto para su entrega al interesado, ya que sin duda por extravío no ha llegado a su poder el que se le ha remitido en anterior fecha.- Ruégole acuse recibo.- Dios guarde a Vd. muchos años.
Potes 7 de Abril, de 1.942
EL JEFE

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de DEVA.-Guipúzcoa.-

**Poteseko espetxetik Baldintzapeko Askatasunaren dokumentu ziurtagiria.** (DUA). / **Certificado de libertad condicional de la prisión de Potes (Asturias).** (AMD).

### AROSTEGUI URAIN, ROMAN

47 urte zituen eta Deban jaio eta bizi zen pintorea zen Roman. Juan Jose eta Ana Maria zituen gurasoak eta ezkondua zegoen. 1937ko uztailaren 3an, Bilbo erori eta bi aste baino gutxiagora Antonio Lopez Cordonek altxatuen aurrean aurkeztu zuen, Laureano Jimenezekin batera Bilboko Ikerketa eta Zaintza komisarian.

Egun horretan bertan deklarazio bat burutu zuen, non onartu zuen 1931tik zinegotzi abertzalea izan zela eta ez zuela inongo komiteetan parte hartu. 1937ko uztailaren 13an, gerra kontseilu bat abiarazi zuten Bilbon, bera eta beste zazpi pertsonen aurka. Horren baitan, 4 egun lehenago, eginiko ikerketa-deklarazio bat agertzen zen. Bertan, Ramonek zioen Euskal Udaletxeen Matxinadan parte hartu zuela, zinegotzi kargua baitzuen Deban, EAJko kide bezala. Hala ere, berau gauzatu eta gero, mugimendu honekin hautsi egin zuela, nahiz eta zinegotzi izaten jarraitu zuen. Altxamendu frankistaren ostean, ez zuela errepublikaren aldeko jarrera aktiborik izan, nahiz eta CNTkoek Itziarko apaiza exekutatu ostean, guardia armatuetara batu zen, ordena publikoa mantendu eta horrelako ekintza estrajudizialak ekiditeko. Deba frankisten esku erori zenean ihes egitea erabaki zuela ere adierazi zuen, frankistek egin ziezaioketenaren beldur.

[667] AIRMN, 1381/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1381/37.
[668] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

Epaiketan zehar, ez zen inolako lekukorik aurkeztu, froga bakarrak bere deklarazioak izan zirelarik. Gerra kontseilu honen sententzia urte bereko uztailaren 20an gauzatu zen eta bertan, Ramoni matxinadari laguntzea ematea egotzi zioten eta 12 urte eta egun bateko kondena ezarri zion epaimahaiak. Bilbotik, urriaren 7an Burgosera eraman zuten kondena betetzera. Ondoren, epaitegietan zigorraren kommutazio eskaera ezberdinak burutu zituen, horren adibide da, Bilboko Komisio Probintzialak kondena 6 hilabete eta egun batera murriztu ziola.

Hala ere, azkenean, erabaki hau moldatu eta Zigorren Azterketarako Batzorde Zentralak berak, bi urteko espetxe zigorrera kondenatu zuen 1940ko maiatzaren 24an. Erabaki honi kasu eginez, Astorgako espetxeak aske utzi zuen urte bereko maiatzaren 29an. Kalkuluak eginez gero, 1939ko uztailaren 2an irten beharko zen espetxetik, kondenaren kommutazioa ia urte bat beranduago iritsi zitzaiolarik. Hala ere, ez du askatasun osoa berreskuratuko, izan ere Bilboko Gerra Auditoreak kondena hau hartu eta espetxealdi arindua ezarri zion, bere etxebizitzan, 1940ko ekainaren 30ean. Prozesu judizial honi amaiera, 1946ko martxoaren 25an eman zitzaion[669].

Tenía 47 años, nació y vivía en Deba. Sus padres eran Juan José y Ana María, y estaba casado. El 3 de julio de 1937, a menos de dos semanas de que cayera Bilbo, Antonio López Cordón lo presentó en la comisaría de Investigación y Vigilancia de Bilbo, junto a Laureano Jiménez.

Ese mismo día hizo una declaración, donde aceptó que era concejal abertzale desde 1931 y que no había participado en ningún comité. El 13 de julio de 1937, iniciaron un consejo de guerra en Bilbo, contra Román y otras siete personas. En él aparece una declaración de investigación realizada 4 días antes. En ella Román dice que participó en la Rebelión de los Ayuntamientos Vascos, pues tenía cargo de concejal en Deba como miembro del PNV. De todos modos, que tras realizarse, rompió con ese movimiento aunque siguió siendo concejal. Que tras el alzamiento franquista no tuvo actitud activa a favor de la República, y aunque cuando los del CNT ejecutaron al sacerdote de Itziar se unió a las guardias armadas, fue para mantener el orden público y evitar actos extrajudiciales parecidos. Dice también que cuando Deba cayó en manos de los franquistas decidió escapar, por miedo a lo que le pudieran hacer.

Durante el juicio no se presentó ningún testigo y las únicas pruebas fueron sus declaraciones. La sentencia de ese consejo de guerra se dictó el 20 de julio del mismo año, y bajo la acusación de ayuda a la rebelión, el jurado lo condenó a 12 años y un día de prisión. De allí, lo llevaron a Burgos a cumplir la condena. Después, realizó varias peticiones de conmutación de condena en los juzgados, y ejemplo de ello es que la Comisión Provincial de Bilbo le rebajó la condena a 6 meses y un día.



**Roman Arostegui Urain, Lizarrako ekitaldi batean 1931n.** (Deva ayer 260 fotografias liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / **Román Arostegui Urain en un acto de Lizarra, en 1931.** (del libro: Deva ayer 260 fotografías, Biblioteca Koldo Mitxelena, DFG).

[669] AIRMN, 196/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 196/37

De todos modos, finalmente, la Comisión Central de Examen de Penas, el 24 de mayo de 1940, cambió esa decisión y lo condenó a dos años de prisión. Siguiendo esa decisión, la prisión de Astorga lo soltará el 29 de mayo del mismo año. Haciendo los cálculos, tendría que haber salido de prisión el 2 de julio de 1939, llegándole la conmutación de la condena un año más tarde. De todos modos, el auditor de guerra de Bilbo cogió esta condena y le aplicó la prisión atenuada, en su vivienda, el 30 de junio de 1940. Se dio fin a este proceso judicial el 25 de marzo de 1946[669].



Declaración indagatoria de ROMAN AROSTEGUI URAIN

En Bilbao a nueve de Julio de mil novecientos treinta y siete ante el Sr. Juez Militar núm. 4 asistido por mí el Secretario, comparece el inculpado del margen, al cual es exhortado a decir verdad en lo que sepa y se le pregunte, habiéndolo ofrecido así:

Preguntado a tenor del art. 457 del Código de Justicia Militar dice: Que se llama como queda indicado de edad 47 años; natural de Deva provincia de Guipuzcoa partido judicial de Azpeitia vecino de Deva de estado casado ; de oficio pintor hijo de Juan Jose y de Ana Maria ; ha sido procesado por delito por la rebelion de los Alcaldes Vascos ; sabe leer escribir. Preguntado convenientemente manifiesta: Que fué concejal del Ayuntamiento como nacionalista idea que sustentó durante toda su vida hasta que comenzaron las violencias de este partido con la rebelion de los Ayuntamientos Vascos, pues desde entonces si bien continuo siendo concejal ya habia comprendido lo perjudicial de esta idea. Que durante el movimiento no tuvo actuacion alguna contraria al Ejercito Nacional ni figuró en el comite rojo de Deva. Que solo cuando se enteró de que individuos de la C.N.T. que habian ido al pueblo a detener a un Sacerdote lo habian matado de acuerdo con otros elementos de orden de Deva formaron una guardia armada con el proposito de evitar que volvieran a cometerse crimenes semejantes. Que no esperó en Deva la entrada las fuerzas Nacionales por el miedo que le habian hecho adquirir las propagandas que se hicieron acerca de los malos tratos que daban los fascistas.

**Roman Arosteguik eginiko deklarazioa.** (AIRMN, 196/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa). / **Declaración de Roman Arostegui.** (AIRMN, causa sumarísima de urgencia 196/37).



ÓN CENTRAL DE ASTORGA DIRECCIÓN

Núm 3.570

Ilmo Señor

Tengo el honor de devolver a V.I. su escrito nº 1061 fecha 24 del actual, remitido por conducto de la Central de Burgos, concediendo los beneficios de la prision atenuada en su domicilio al penado en el sumario 196-37, Roman Arostegui, por haber sido este licenciado definitivamente el 3 del actual en virtud de su orden nº 2.297 de 29 de mayo ppdº, según le participé. Dios guíe a V.I. m. a.

Astorga 30 Junio 1940

visto

Ilmo Señor Auditor de Guerra de Bilbao

**Roman Arosteguik espetxealdi arindua lortu zuenaren inguruko dokumentua.** (AIRMN, 196/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa). / **Documento sobre la consecución de la prisión atenuada por parte de Roman Arostegui.** (AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 196/37).

## ARRUE GAINZA, SABINO

1911eko otsailaren 20an jaio zen, Lersundi kalean, Deban[670]. Amuategui batailoian jardun zuen gerran, miliziano gisa[671]. Altxatuek herria hartzean, ebakuatu egin zuen, Santanderrera arte, non altxatuek preso hartu zuten[672]. Sabinoren aurkako prozedura judiziala 1938an abiatu bazen ere, bere aurkako sententzia 1940ko urtarrilaren 30a arte luzatu zen, non Bilboko Gerra Auditoreak bere aurkako kausa artxibatzea erabaki zuen, inputatzen zitzaizkion ekintzak erantzukizun penalik ez zutela ebatzita[673].

Nació el 20 de febrero de 1911 en Deba, en la calle Lersundi[670]. Combatió en el batallón Amuategui, como miliciano[671]. Cuando los sublevados tomaron el pueblo fue evacuado hasta Santander, donde fue detenido por los sublevados[672]. Aunque el proceso judicial contra Sabino comenzó en 1938, la sentencia contra él no se dictó hasta el 30 de enero de 1940, donde el auditor de guerra de Bilbo decidió archivar la causa en su contra, resolviendo que por los actos que se le imputaban no se le podían exigir responsabilidades penales[673].

## ASTIGARRAGA BERISTAIN, MIGUEL

Miguel, Itziarren bizi zen. Bere aurkako prozesu judiziala 1938ko maiatzaren 13tik behintzat abiatua zegoen, non beste kausa batetik desglosatua den. 1938ko azaroaren 9an gerra kontseiluaren erabakia berraztertu zuen Gerra Auditoreak, bertan, Miguel jada espetxealdi arinduan aurkitzen zen, Debako guardia zibilaren postuan aurkeztu behar zelarik periodikoki. Auditoreak, bere aurkako kausa artxibatzea erabaki zuen, baina 500 pezetako isuna ezarri zion[674].

[670] DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

[671] EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoian, 2004. / EGAÑA, I. (Dir.): 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

[672] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0166548.

[673] AIRMN, 2686/38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, causa sumarísima de urgencia 2686/38.

[674] AIRMN, 14113/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 14113/38.

Miguel vivía en Itziar. El proceso judicial contra él estaba empezado para el 13 de mayo de 1938, donde es desglosado de otra causa. El 9 de noviembre de 1938, el auditor de guerra revisó la decisión del Consejo de Guerra; Miguel ya estaba en prisión atenuada, y periódicamente tenía que aparecer al puesto de la Guardia Civil de Deba. El auditor decidió archivar la causa en su contra, pero le impuso una multa de 500 pesetas[674].

## ASTIGARRAGA MENDIZABAL, FERMIN

Mutrikuarra zen jaiotzez, baina Oion herrian bizi zen (Araba), bere emazte Emiliana Fernandezekin batera. 34 urte zituen (1939) eta herri honetako industrian doitzaile gisa lan egiten zuen[675]. Salamancako artxiboan hiru fitxa daude bereak, non Ferminekiko datu kontrajarriak agertzen diren, batean CNT sindikatura afiliatua zegoela dio 1936ko urrian Iruneko frontera joan zela dio (Irun irailak 5an erori zen). Bigarrenean, 24 urte zituela, komunista zela eta Campo de La Iglesia herriko hautesle zerrendan zuela EAJk. Hirugarrenean berriz, eta fidagarriena, Pi i Margall batailoiko miliziano zela, zulatzaile batailoi bat[676].

Santoñan preso erori zen, altxatuek bertako espetxera eraman zutelarik. Bertatik, San Pedro de Cardeñakora lekualdatu zuten (Burgos)[677]. Espetxe honetatik, presoak sailkatzeko batzordeak SLB batera bidali zuen, Terueleko frontean bortxazko lanak egitera. Hala ere, ihes egitea lortu zuen eta frontea hurbil zuela baliatuz, errepublikarren aldera pasa zen. Puntu honetatik aurrera, ez dugu datu gehigarririk gerra osteko uneetara arte. Horrela, 1939ko azaroak 5an Logroñoko espetxetik Gasteizkora lekualdatu zuten, beraz badakigu data honetatik aurrera behintzat altxatuen esku preso egon zela. 1940ko urtarrilak 5an, Donostiako espetxera lekualdatu zuten eta otsailaren 5an Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura eraman zuten.

1941eko uztailak 17an Bilbon zegoen berriz, Donostiara lekualdatuko zutelarik eta 1942ko urtarrilak 20an berriro Bilbora. Otsailak 18an aske utzi zuten[678]. Baina askatasunak ez dio luze iraungo, zehazki 1942ko irailak 29a arte, non Bilbon epaitu zuten gerra kontseilu batean. Epaiketa honetan, miliziano gisa izan zuen jardunagatik eta ihes egiteagatik, matxinada militarrari laguntzearen delitua inputatu zioten eta 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[679].

1943ko maiatzak 20an, Deban bizitzen aurkitzen zen, Irailak 23 kalean, beraz baldintzapeko askatasuna berreskuratu zuela pentsa genezake[680].


ASTIGARRAGA FERMÍN
MENDIZABAL
De 24 años;jornalero.Comunista.Figura en libro de "lectores hecho por el P.N.V.del Campo de la Iglesia
Carp.R-41.-Exp.3.-Fol.13.

ASTIGARRAGA Fermín
MENDIZABAL
Miliciano del batallon de zapadores minadores (antes Pi y Margall)
"EUZKADI ROJA".Nº. 206 Pag. 5 dia 21 de Mayo de 1937.

ASTIGARRAGA FERMIN
MENDIZABAL
Soldado evadido a la zona roja.
S.M.-Carp.1156.-Fol.364.

ASTIGARRAGA FERMÍN
MENDIZABAL
Afiliado a la C.N.T. salio para el frente de Irun en Octubre de 1936 ( Leg. L. 527- Exp. 1- fol- 2-)

**Fermin Astigarraga Mendizabalen inguruan dauden dokumentu batzuk.** (CDMH). / **Algunos documentos sobre Fermín Astigarraga Mendizabal.** (CDMH).

Era mutrikuarra de nacimiento, pero vivía en Oion junto a su esposa Emiliana Fernández. Tenía 34 años (1939) y trabajaba en la industria de ese pueblo como ajustador[675]. En el archivo de Salamanca hay tres fichas suyas en los que aparecen datos contrapuestos sobre Fermín. En una se dice que estaba afiliado al CNT y que en octubre de 1936 fue al frente de Irun (Irun cayó el 5 de septiembre). En la segunda, que tenía 24 años, era comunista y que el PNV lo tenía en la lista de los electores de Campo de La Iglesia (Asturias). En la tercera, la más fiable, que era miliciano del batallón de zapadores Pi i Margall[676].

Fue apresado por los sublevados en Santoña (Cantabria), y llevado a la cárcel de allí. De Santoña fue trasladado a San Pedro de Cardeña (Burgos)[677]. De esa prisión, fue enviado a un BDST por la junta de clasificación de presos, y estuvo haciendo trabajos forzados en el frente de Teruel. De todos modos, consiguió huir y, aprovechando que el frente estaba cerca, pasó al bando de los republicanos. Desde ese momento en adelante no tenemos más datos sobre él hasta la posguerra. Así, el 5

---

[675] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

[676] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0170540, A0170541 eta A0170542. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 5, A0170540, A0170541 y A0170542.

[677] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea. / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

[678] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

[679] AIRMN, 12903/42 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 12903/42.

[680] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

de noviembre de 1939, lo trasladaron de la cárcel de Logroño a la de Gasteiz, y por lo menos sabemos que a partir de ese momento estuvo preso. El 5 de enero de 1940, lo trasladaron a la cárcel de Donostia, y el 5 de febrero lo llevaron al campo de concentración de Miranda de Ebro (Burgos).

El 17 de julio de 1941 estaba en Bilbo y fue trasladado a Donostia, y el 20 de enero de 1942 otra vez a Bilbo. Se menciona que lo liberan el 18 de febrero[678]. Pero la libertad no le duró mucho, porque el 29 de septiembre de 1942 fue juzgado en consejo de guerra en Bilbo. En ese juicio, por la actividad que tuvo como miliciano y por haber huido, le imputaron el delito de ayuda a la rebelión militar, y fue condenado a 12 años y un día de prisión[679].

El 20 de mayo de 1943 vivía en Deba, en la calle 23 de septiembre, por lo que pensamos que recobró la libertad condicional[680].

## AZCOITIA MENDIZABAL, AGUSTIN

1909 urteko abuztuaren 11n jaio zen Deban[681]. Lanbidez ebanista zen eta Iturkale kalean bizi zen bere emaztearekin batera, Eugenia Aizpurua. Bi seme alaba zituzten[682].

Altxamenduaren aurka antolatutako milizietako kide izan zen, Gonzalez Peña batailoian. Hau dela eta, Donostian eginiko auditoretza batean, Agustinek altxamendu frankista eman ostean izan zuen papera aztertu zuten. Bertan, Langileen Batailoietan aritu zela zehazten zen, gerra garaian izaniko jarrera zela eta, dokumentuan bere destino zehatza zehazten ez delarik. Horrela, 1940ko otsailak 29an, Bilbon eginiko berrikuspenean, badakigu jada baldintzapeko askatasunean aurkitzen zela. Honetaz gain, erantzukizun deklaraziorik gabe aske geratzea eta honekin kausa ixtea ebatzi zuen auditoreak[683].

Hala ere, berriro espetxeratua izan zen 1947 urteko uztailaren 2an, Zarautzeko guardia zibilaren postuko sarjentuaren aginduz. Mugazain buruaren esku utzi zuten eta honek inkomunikazio egoeran preso sartu zuen. Uztailaren 8an Epaitegi Militarren esku egotera pasa zen eta Donostiara eraman zuten. Irailaren 16an askatasuna lortu zuen, bere aurkako inolako diligentziarik burutu gabe, beraz pentsa genezake "pertsona arriskutsu" bezala izendatuko zutela eta horregatik espetxeratua izango zela. Beste gipuzkoar askok bezala, Francoren udako oporraldi garaiagatik atxilotua izango zen[684].


Sexta Región Militar
83
3516
Nº Auditoria 810-40 617
1939
Año de la Victoria
Legajo 93
Diligencias Previas nº 2,784-1939
CONTRA: AGUSTIN AZCOITIA MENDIZABAL, vecino de DEVA
... esclarecer su actuación en relación con el Glorioso Movimiento Nacional
INICIADO: En 4 Diciembre, 1939
SITUACION DEL ENCARTADO: Libertad Provisional

Nº 490-28
D.P. 2784-39
San Sebastian.-

Bilbao, 29 de Febrero de 1940

Examinadas las presentes diligencias previas instruidas contra AGUSTIN AZCOITIA MENDIZABAL y teniendo en cuenta que su conducta queda sancionada con su anterior permanencia en los Batallones de Trabajadores.

VISTO el artículo 396 del Código de Justicia Militar.-

ACUERDO: la terminación y archivo de estas actuaciones sin declaración de responsabilidad, quedando el encartado en situación de libertad definitiva por lo que a esta causa se refiere.-

Pasen los autos al Juzgado de Ejecuciones de San Sebastian.-

EL AUDITOR,

Auditoria de Guerra Bilbao

**Agustin Azcoitiaren aurkako sententzia.** (AIRMN, 810/40 auditoria). / Sentencia contra Agustin Azcoitia. (AIRMN, 810/40 auditoria).

681 DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.
682 AHPG-GPAH, 03640 kutxa, 0066 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 03640, exp. 0066.
683 AIRMN, 810/40 auditoria. / AIRMN, auditoría 810/40.
684 AHPG-GPAH, 03640 kutxa, 0066 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 03640, exp. 0066.

Nació en Deba el 11 de agosto de 1909[681]. Vivía en la calle Iturkale, junto a su esposa Eugenia Aizpurua y sus dos hijos. Trabajaba como ebanista para las carpinterías del pueblo[682].

Fue miembro de las milicias organizadas contra el alzamiento, en el batallón González Peña. A cuenta de eso, se investigó en una auditoría de Donostia el papel que tuvo tras el alzamiento franquista. Allí se detalla que estuvo en batallones de trabajadores, por su conducta durante la guerra, pero no se especifica su destino concreto. Así, en la revisión que se le hizo en Bilbo el 29 de febrero de 1940, sabemos que ya estaba en libertad condicional. Además, el auditor resolvió que quedase en libertad sin declaración de responsabilidades y, con ello, cerrar la causa[683].

De todos modos, fue otra vez encarcelado el 2 de julio de 1947, por orden del sargento del puesto de la Guardia Civil de Zarautz. Lo dejaron en manos del carabinero jefe, en situación de incomunicación. El 8 de julio pasó a manos del Juzgado Militar y lo llevaron a Donostia, y el 3 de agosto lo pasaron a prisión preventiva, estando en situación de incomunicación. El 16 de septiembre logró la libertad, sin que aparezca ninguna diligencia en su contra, por lo que pensamos que lo nombrarían "persona peligrosa" y que fue detenido por eso. Como otros muchos gipuzcoanos, fue detenido por las vacaciones veraniegas de Franco[684].

### AZPEITIA ORBEGOZO, ESTEBAN

Ferrocarriles Vascongadoseko langilea zen, Tren buru bezala lan eginez[685]. Burgosen, 1943ko irailaren 2an, Gerra Auditoreak, Gerra Zibilean izan zuen papera aztertzeko bere aurka irekita zuen kausa artxibatu zuen[686].

Empleado de Ferrocarriles Vascongados, en el puesto de jefe de tren[685]. El 2 de septiembre de 1943, en Burgos, el auditor de guerra archivó la causa abierta contra él para analizar el papel que tuvo durante la Guerra Civil[686].

### AZPEITIA ORBEGOZO, JOSE EULALIO

Debakoa zen jaiotzez, baina Alegian bizi zen eta mikeletea zen, kabo gradua zuelarik. 47 urte zituen (1937) eta ezkondua zegoen. Altxatuek atxilotu eta gero, Santanderren ikerketa deklarazio bat burutu zuen 1937ko urriak 14an, beraz, kontuan izanda datak, Santoña edota Santander eroritakoan preso hartu zuten seguruenik. Mikeleteen gorputza gogor errepresaliatua izan zen, askok kartzela urte luzeak pairatu behar izan zituztelarik, honen adibide da Jose Eulalioren aurkako gerra kontseilua, non bera barne 30 mikelete epaitu ziren, 1938ko ekainaren 20an. Eulalioren kasuan, Burgosko Gerra Auditoreak bere aurkako kausa artxibatzea erabaki zuen[687].

Nació en Deba pero vivía en Alegia, y era miquelete con graduación de cabo. Tenía 47 años (1937) y estaba casado. El 14 de octubre de 1937, se realizó una declaración de investigación en su contra en Santander, por lo tanto, teniendo en cuenta la fecha, seguramente fue detenido al caer Santoña o Santander. El cuerpo de los Miqueletes fue fuertemente represaliado y muchos tuvieron que sufrir largos años de prisión. Un ejemplo de ello es el consejo de guerra contra José Eulalio y otros 29 miqueletes, que fueron juzgados el 20 de junio de 1938. En el caso concreto de Eulalio, el auditor de guerra de Burgos decidió archivar la causa en su contra[687].

### AZPIAZU IRIONDO, JOSE FRANCISCO *SAKABI*

*Sakabi* bezala ezagutzen zuten eta 28 urteko gazte ezkongabea zen. Deban jaio zen, baina Elgoibarren bizi zen, Sakabi etxean, Garagarza-Mendaron. Bere ogibidea tornulari-mekanikari gisa garatzen zuen[688].

UGTko afiliatua zen eta Amuategui Batailoian jardun zuen. Gerran zehar, errepideen zaintzaz arduratu zen. Tropak herrira hurbiltzen zirela ikusita, ihes egin zuen Bizkaia aldera, bertan suposa genezake bere batailoian jardun zuela ahalik eta Santoñan preso erori zen arte. 1937ko urriak 27an, jada preso aurkitzen zen, bere izenean dagoen ikerketa-deklarazio bat aurkitzen baita. Bertako gerra kontseiluak epaiketa bat burutu zuen eta Joseri matxinada laguntzearen delitua inputatu zioten, horregatik 12 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten. Hala ere, 1938ko otsailaren 11n, prozedura honen gaineko sententzia berri bat agertu zen, non Jose jokaera oneko pertsona bezala definitzen zen, atxilotutako pertsonen aldeko jarrera erakutsi zuela argudiatuz, hau guztia dela eta, aurreko sententziak ez bezala, absolbitu egin zuten[689].

Baina hor ez da amaitzen Jose Franciscok pairatuko duen jazarpena, izan ere espetxean jarraitu zuen, 1939ko maiatzak 20an Donostiara lekualdatu baitzuten, kausa bat irekita zuela argudiatuz. Dokumentu honetan,Santanderren bertan, Constructora Naval La Reinosan lanean ari zela aipatzen da, bortxazko lanen batailoiak lan egiten zuten kokapen bat[690]. Beraz, pentsa genezake bortxazko lanen SLB batean preso eduki zutela denbora guzti hau[691].

---

[685] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,5,A0181608.
[686] AIRMN, 41/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 41/37.
[687] AIRMN, 1515/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1515/37.
[688] AHPG-GPAH,  02840 kutxa, 0009 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02840, exp. 0009.
[689] AIRMN, 174/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 174/37.
[690] AHPG-GPAH, 02840 kutxa, 0009 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02840, exp. 0009.
[691] AGMG, BDST 611 kutxa, 20128 espedientea. / AGMG, BDST, caja 611, exp. 20128.

Donostian, Espetxe Probintzialera eraman zuten Gipuzkoako Gobernadore Militarraren aginduz. Atxilotu ostean, Erregioko Gerra Auditorearen esku geratu zen. Bertan, espetxean zegoela, bere aurka irekita zegoen 15202 urgentziazko prozedura sumarisimoan, bertako lehendakariak Jose aske ustea erabaki zuen, 1940ko otsailaren 6an.

Hala ere, ez zen behin betiko askatasunean irten kalera, izan ere, baldintzapeko askatasunean egon zen, ahalik eta Bilboko Gerra Auditoreak, bere aurka irekita zegoen diligentzia bat aztertu ostean, inolako deliturik ez zegoela argudiatuz, bere aurkako prozesua artxibatzea erabaki zuen, 1940ko ekainaren 22an[692].



Expediente procesal de José Azpiazu Iriondo 1940

Natural de Deva provincia de Guipuzcoa
vecino de Elgoibar provincia de Guipuzcoa
hijo de José y de María
edad 28 profesión tornero mecánico
instrucción tiene religión —
estado soltero hijos — núm. de ellos —
antecedentes ingresa por primera vez
Domiciliado Casa Sakabi Garagarza Mendaro

Señas particulares: Iris (ojos), Cabello, Piel, Cejas, Nariz, Boca, Barba, Cara, Talla

Fórmula dactiloscópica

Partido judicial de naturaleza Azpeitia
Nombre del cónyuge —
Conocido por "Sakabi"

Pulgar derecho

CAUSA

| Registro del individuo al ingresar: Número General | De orden | De libro | Número: Sumario | Rollo | Año | Juzgado | Secretaría | Delito | Fechas: De la detención o prisión | De la libertad |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

VICISITUDES

| Fechas: Hora | Día | Mes | Año | Vicisitudes |
|---|---|---|---|---|
| | 20 | Mayo | 193 | Ingresa en esta prisión procedente de la Capital entregado por fuerza pública en concepto de detenido a disposición de Iltmo. Señor Auditor de Guerra de la Sexta Región Militar, con orden del Excmo. Sr. Gobernador Militar de esta Provincia que se une. Se da cuenta. El Subdirector accidental. Vº. Bº. El Director accidental. |

Prisión Provincial de San Sebastián. Dirección



MINISTERIO DE JUSTICIA
SERVICIO NACIONAL DE PRISIONES

Con esta fecha digo al Sr. Gobernador civil de Santander lo que sigue:

«Excmo. Sr.: Sírvase disponer la conducción con las seguridades convenientes a San Sebastián para su ingreso en la Prisión Provincial, a disposición del Juzgado Militar Nº21, del detenido JOSE ASPIAZU IRIONDO, que se encuentra en la Constructora Naval de Reinosa de esa Provincia.

Debiendo efectuarse el transporte por ferrocarril con arreglo a las condiciones del contrato entre el Estado y las Compañías ferroviarias».

Lo traslado a V. para su conocimiento y demás efectos.
Dios guarde a V. muchos años.
Vitoria 23 de Marzo de 1939
III Año Triunfal.
EL JEFE DEL SERVICIO,

Sr. Director de la Prisión Provincial de SAN SEBASTIAN

Ministerio de Justicia. Servicio Nacional

**"Sakabi"ren Ondarretako espetxe fitxa eta Santanderretik irten zenaren dokumentua.** (AHPG-GPAH, 02840 kutxa, 0009 espedientea). / **Ficha penitenciaria de Ondarreta y documento de salida de Santander de "Sakabi".** (AHPG-GPAH, caja 02840, expediente 0009).

Era conocido con el apodo de "Sakabi", y era un soltero joven de 28 años. Nació en Deba, y vivía en el caserío Sakabiaga. Su oficio era de tornero-mecánico[688].

Era afiliado de UGT y anduvo en el batallón Amuategi. Durante la guerra se encargó de la vigilancia de las carreteras. Viendo que las tropas franquistas se acercaban al pueblo escapó hacia Bizkaia. Allí, suponemos que trabajó para su batallón hasta que fue apresado en Santoña (Cantabria). El 27 de octubre de 1937 ya estaba preso, pues se encuentra una declaración de investigación a su nombre. Se le realizó un consejo de guerra, donde se le imputaba el delito de ayuda a la rebelión. Por ello, se le condenó a 12 años y un día de prisión. De todos modos, el 11 de febrero de 1938 apareció una nueva sentencia sobre este procedimiento, donde se define a José como una persona de buena conducta, que tuvo trato favorable hacia los detenidos; por todo ello, no como en la anterior sentencia, fue absuelto[689].

Pero no termina ahí la persecución que sufrió José Francisco, ya que sigue en prisión, y lo trasladaron a Donostia el 20 de mayo de 1939, arguyendo que tenía una causa abierta. En ese documento de Santander, se menciona que estaba trabajando en la Constructora Naval La Reinosa, en el lugar donde trabajaba el batallón de trabajos forzados[690]. Por lo tanto, suponemos que todo ese tiempo estuvo en un batallón de presos trabajadores realizando trabajos forzados[691].

En Donostia, lo llevaron a la Prisión Provincial por orden del gobernador Militar de Gipuzkoa. Tras detenerlo, quedó en manos del auditor de guerra de la Región. Estando en prisión, en el procedimiento sumarísimo de urgencia 15202 abierto contra él, el presidente decide dejarlo en libertad. El 6 de febrero de 1940 salió de la cárcel de Ondarreta y quedó en libertad.

De todos modos, no salió en libertad definitiva porque estuvo en libertad condicional, hasta que el auditor de guerra de Bilbo, tras analizar una diligencia abierta en su contra, arguyendo que no había ningún delito, decidió archivar los procesos en su contra, el 22 de junio de 1940[692].

[692] AHPG-GPAH, GEZ 02840 kutxa, 0009 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02840, exp. 0009.

## BERASALUCE BEITIA, FELIPE

Deban jaio eta bizi zen, Astillero kaleko 1 zenbakiko lehen solairuan. Felipek, 40 urte zituen (1942) eta itsasontzietako makinista zen. Abertzalea zen eta EAJ alderdiaren jarraitzailea[693]. Ibilbide luzetako itsasontzietan lan egiten zuen, Bartzelona-AEB linean zehatzagoak izateko. Bartzelonatik irten eta AEBn sei hilabete igaro ostean, berriro itzultzen zen[694]. Altxamenduak, pentsa genezake Bartzelonan harrapatu zuela, izan ere, *Mar Cantábrico* itsasontziarekin batera Amerikarantz joan zen Errepublikarentzako armamentu bila. Itsasontzi hau, uztailean konfiskatu zuen itsas armada errepublikanoak eta espetxe moduan erabili zuen hasiera batean eta ostean Mallorkan eginiko eraso saiakeran parte hartu zuen. Hala ere, 1936 amaieran, Amerikara bidali zuen gobernu errepublikanoak, gerrarako materiala lortzeko helburuarekin.

1936ko azaroan, Liverpooletik irten eta Atlantikoa gurutzatu ostean New Yorkera iritsi zen. Bertan zortzi hegazkin zibil eta jaki batzuk lortu zituzten soilik, bertako gobernuak armak erostea galarazi baitzion Errepublikari lege bidez. Bertatik, Mexikoko Veracruz hiriko portura joan ziren, bertan armamentu militarra kargatzea lortu zutelarik. Urtarrilaren 13an, portutik irten eta Santanderrerako bideari ekin zion ontziak. Armada frankistak, ontziak igorritako mezuak atzeman eta deskodetu ostean, *Canarias* gurutzontzia zuen zain Bizkaiako golkoan. Bere helmugatik 115 itsas miliara ontzia atzeman eta Ferrolera eramanak izan ziren, itsasontzi honetan, frankistek atzemandako arma kontingente handiena aurkitzen zen. Bertan, gerra kontseilu bat burutu zuten beraien aurka, 50/37 zenbakiarekin izenpetua, non tripulazioko 16 kide heriotzara kondenatu zituzten, uztailak 8 eta 9an fusilatu zituztelarik Ferroleko portuan bertan. Lehenago, apirilak 17an, ontzian zihoazen atzerriko boluntarioak fusilatu zituzten, lau mexikar, AEBtako bat eta bulgariar bat. Itsasontziko tripulazio guztiari, matxinadarekin bat egitea egotzi zieten[695].

Feliperen kasuan, 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten. Espetxera bidalia izan zen, eta denborara, gerra kontseiluak indultatu egin zuen[696]. Cadizeko espetxean hiru urtez egon zen preso[697].





**Mar Cantabrico itsasontzia eta bertako tripulazioa ezker ukabila goian agur egiten.** (La tragedia del Mar Cantábrico y otros apresamientos navales en la Guerra Civil, Drassana aldizkaria). **/ La tripulación del barco Mar Cantábrico saludando con el puño en alto.** ("La tragedia del Mar Cantábrico y otros apresamientos navales en la Guerra Civil", revista Drassana).

Nació y vivió en Deba, en el primer piso del número 1 de la calle Astillero. Tenía 40 años de edad (1942) y era maquinista de barco. Era nacionalista y seguidor del partido PNV[693]. Trabajaba en los barcos con recorridos de larga distancia, para ser más concretos en la línea EEUU-Barcelona. Tras salir de Barcelona y pasar seis meses en EEUU, volvía[694]. Podríamos pensar que el levantamiento lo sorprendió en Barcelona, puesto que fue con el barco “Mar Cantábrico” hacia América a por armamento para la República. El ejército republicano confiscó este barco en julio y lo utilizó de prisión en un principio y posteriormente tomó parte en el intento de ataque a Mallorca. A pesar de todo, a finales de 1936 el gobierno republicano lo envió a América con el objetivo de conseguir material de guerra.

En 1936, tras salir de Liverpool y cruzar el Atlántico, llegó a New York. Solamente consiguió ocho aviones civiles y algo de comida ya que el gobierno americano le prohibió por ley comprar armas. De allí se trasladó a México, al puerto de la ciudad de Veracruz y esta vez logró cargar armamento militar. El 13 de enero salió del puerto y emprendió viaje rumbo a Santander. El ejército franquista había interceptado los mensajes enviados por el barco, y una vez descodificados el crucero Canarias les esperaba en el Golfo de Bizkaia. Fueron interceptados a 115 millas marinas de su destino y llevados a Ferrol, transportando en el barco el mayor contingente de armas capturado por los franquistas. Les formaron consejo de guerra allí mismo, con el número 50/37, y 16 miembros de la tripulación fueron condenados a muerte, siendo fusilados entre los días 8 y 9 de julio en el mismo puerto de Ferrol. Antes de eso, el 17 de abril, fusilaron a los voluntarios extranjeros que viajaban en el barco: cuatro mexicanos, un americano y un búlgaro. Acusaron a toda la tripulación de apoyo a la rebelión[695].

[693] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[694] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.
[695] SUÁREZ X.M., La tragedia del Mar Cantábrico y otros apresamientos navales en la Guerra Civil, Drassana aldizkaria, 88 zenbakia, Bartzelona, 2010. / SUÁREZ, X.M: “La tragedia del Mar Cantábrico y otros apresamientos navales en la Guerra Civil”, Revista Drassana, número 88, Barcelona, 2010.
[696] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[697] Ahozko testigantza. / Testimonio oral.

En el caso de Felipe, fue condenado a 30 años de prisión[696]. Lo enviaron a prisión y, al tiempo, el propio Consejo de Guerra lo indultó. Estuvo tres años en la cárcel de Cádiz[697].

**CASTRO RICHARD, JAIME**

1913ko azaroak 18an jaio zen, Geltokian[698] Tomas eta Sofiaren semea zen eta Debatik ihes egin zuen, Euskaditik ebakuatutako pertsonen zerrendan agertzen baita[699]. Eusko Gudarosteko kide ere izan zen, Enlaces y Transmisiones batailoian jardun zuelarik[700]. Bilbon ospatutako gerra kontseilu batean, bera eta beste 10 pertsona epaitu zituzten. 1938ko urtarrilak 17an eman zen epaiketa eta gerra kontseiluak bere aurkako kasua artxibatzea proposatu zuen, Jaimeri inputatzen zitzaizkion ekintzek ondorio penalik ez zutelako. Martxoaren 5an, Gerra Auditoreak erabakia berretsi eta beste kausarik ezean aske utzi zuten[701].

Nació el 18 de noviembre de 1913 en la Estación[698]. Hijo de Tomás y Sofía, fue evacuado de Deba puesto que consta en las listas de personas evacuadas de Euskadi[699]. Fue miembro del Ejército Vasco, en el batallón de Enlaces y Transmisiones[700]. Será juzgado junto con otras 10 personas en consejo de guerra celebrado en Bilbo. El juicio se celebró el 17 de enero de 1938 y el Consejo de Guerra pedirá que se archive el caso contra su persona, ya que las acciones imputadas a Jaime no tienen consecuencias penales. El 5 de marzo el auditor de guerra confirma la decisión y ante falta de otras causas lo deja en libertad[701].

**CASTRO ANTONIO, TOMAS**

Bere herrikide zen Isaac Peinadosekin batera epaitua izan zen, Bilbon, 1938ko urtarrilaren 30ean. Prozesu honetan, 7 pertsona epaituak izan ziren, guztiak Gipuzkoako trenbideetako langileak. Bertan, Tomas ideologia ezkertiarreko pertsona zela aipatzen da, altxamendua ematean, bere lanpostuan mantendu zena, trenbide sarean lan eginez, errepublikaren aldeko indar eta gobernuarekin batera erretiratuz. Gerra kontseilua eman zen datan, espetxealdi arinduan aurkitzen zen, Bilboko Iturribide kalean ezarrita zuelarik etxebizitza, kontuan izanda Bilbon epaitua izan zela eta prozesuko kide bat Larrinagako espetxean hil zela, ondoriozta genezake, baldintzapean aske geratu aurretik Bilbon gerra ostean altxatuek sortutako espetxeetako batean egon zela preso.

Gerra kontseiluan, akusazioak, bere ideologia eta lanbideaz aparte ezin izan zion beste ezer egotzi eta kausa artxibatu egin zen, Tomasek behin betiko askatasuna berreskuratu zuen honi esker[702].

Fue juzgado en Bilbo el 30 de enero de 1938 junto a su paisano Isaac Peinados. En este proceso fueron juzgadas 7 personas, todas ellas trabajadores de los ferrocarriles de Gipuzkoa. En el proceso se cita que Tomás era una persona de ideas izquierdistas, que cuando se dio el alzamiento mantuvo su puesto de trabajo en la red de ferrocarriles y se retiró junto con las fuerzas y el gobierno republicano. En la fecha en la que se celebra el consejo de guerra se encontraba en régimen de prisión atenuada y tenía fijada su residencia en la calle Iturribide de Bilbo. Siendo juzgado en Bilbo y al haber muerto un miembro del proceso en la prisión de Larrinaga, es de suponer que, antes de quedar en libertad condicional, estuvo preso en alguna de las cárceles que los franquistas habilitaron en Bilbo en la posguerra.

En el consejo de guerra la acusación no puede achacarle más que su ideología y oficio, por lo que se archiva la causa y Tomás recuperará la libertad definitiva[702].

**ECHEVARRIA GALDOS, FERMIN**

1910ko apirilak 10ean jaio zen Deban eta bertan jarraitzen zuen bizitzen, Maxpeko errebalean. Ezkondu gabe zegoen eta trenbideetako langilea zen[703].

Alderdi Sozialistako afiliatua zen Deban eta trenbideko langile asko bezala, UGTko parte zen Sindicato Nacional Ferroviariokoa ere. Agrupación republicana eta Agrupación Socialistara ere afiliatua egon zen[704]. Gerrak eztanda egin zuenean, bere izaera ezkertiar eta errepublikazalearekin bat, Debako Defentsa Komiteetan parte hartu zuen, non bertan hainbat funtzio bete zituen horretarako batzuetan armak eskuan ibili zelarik. Gerra aurrera joan zenean eta errepublikarren erantzuna gero eta koordinatuagoa zen unean miliziano gisa batu zen borrokara, frontean jardun zuelarik, Amuategui batailoian[705]. Borrokan jarraitu zuen Santander erori zen unean preso hartu zuten arte[706].

698 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
699 CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,12,C0121139.
700 EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA I. (Dir.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.
701 AIRMN, 3159-38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 3159-38 procedimiento sumarísimo de urgencia.
702 AIRMN , 43/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 43/37 procedimiento sumarísimo de urgencia.
703 DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.
703 CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0006212.
705 EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004. / EGAÑA I. (Dir.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.
706 AIRMN, 3482 sumarisimo arrunta. / AIRMN, 3482 sumarísimo simple.


COMITÉ CENTRAL SOCIALISTA DE EUZKADI

SECCIÓN CONTROL E INFORMACIÓN

*El afiliado* Fermin Echeverria Galdós pertenece,
*a la Agrupación Socialista de* Deva, *provincia de* Guipuzcoa,
*ocupa el cargo de* ……… *en la* ………,
*tiene además cargos directivos en* ………,
*pertenece a las organizaciones de Socorro, Cooperativas, etc.,* ………
*se halla encuadrado en el Batallón, ostentando el cargo o mando de* miliciano
del batallón (Amuategui) ……… *, fué designado, para las representaciones que ostenta, por la Agrupación de* ……… *o* (1) ………
……… *Representación política que tiene: Consejero, Gestor, Concejal, Director, etc.,* ………
*Reside habitualmente en* Deva
*Observaciones* ………

*Bilbao,* …… *de* ……… *de 193*

El afiliado,

104/4
28

(1) Anótese qué Agrupación o Comité le nombró para los cargos que ostenta.

**Fermin Echeverria Galdos, PSOEko militante bezala, Amuategui batailoira izendatua izan zenaren dokumentua.** (EAH). / **Documento que certifica que Fermín Echeverria Galdos, como militante del PSOE, fue asignado al batallón Amuategui.** (AHE).

Seminario Corbaneko Kontzentrazio Esparrura eraman zuten preso Fermin, 1937ko irailak 16an. Bertan deklarazio bat burutu zuen Guardia Zibilaren aurrean, non Agrupación Socialistako kide zela onartu zuen (1932an afiliatu zelarik) eta hauteskundeen garaian propaganda egiteaz arduratu zela, Fronte Popularreko hautagaitzak banatuz. Gerra Zibila hasi zenean, uztailak 24an Debako Defentsa Komitera aurkeztu zela esan zuen eta bertan eskopeta eta pistola bat eman zizkiotela, hauekin Donostiara joan zen baina hurrengo egunean itzuli zen. Donostia frankisten esku erori eta segituan, beste miliziano batzuekin hainbat eskuindar eta militarren atxiloketetan parte hartu zuela esan zuen, hauek Defentsa Komiteei entregatuz (Larrucea, Astiria, Luis Sierra Bustamante). Horrez gain, hainbat konfiskazioetan ere parte hartu zuela onartu zuen. Arlo militarrean, 1936ko urritik aurrera Amuategui batailoian parte hartu zuela zioen, sukaldari postuan, hauekin hainbat frontetan egon zelarik, ahalik eta abuztuaren 26an preso erori zen. Deklarazioan, berak ez zuela inor hil eta ez zekiela nortzuk izan ziren hilketa horien arduradunak adierazi zuen.

Irailak 19an Santanderreko Espetxe Probintzialera lekualdatu zuten, hiri honetako Gerra Auditoreak aginduta. Bertan, hasiera batean eginiko deklarazioa berretsi zuen, urriak 7an. Honen ostean, Debako autoritate frankistei Ferminen inguruko txosten bat eskatu zion epaileak.

Debako udalak, “Komunista oso propagandista, bere jarduna azpimarragarria izan zelarik errepublika garaian… beti armatua ibiltzen zen… Oso subjektu arriskutsua, herrian kartsuki mugimendu nazionalaren aurka aritu zena eta mugimendu nazionalaren aurkaria” hitzekin definitu zuen. Guardia zibilak ere “subjektu arriskutsu eta Espainia berriarentzat kaltegarria” kontsideratzen zuen.

Santanderren bertan epaitu zuten, 1938ko urtarrilaren 13an, non 2. Gerra kontseilu Iraunkorrak, bere kausa eta beste 5 bateratu eta 20 pertsona epaitu zituen. Bertan, Fermin, komunista, propagandista, atxiloketa eta miaketetan partaide izan eta arriskutsua zela ebatzi zuten. Horrela, matxinadarekin bat egitea egotzi zioten eta bizi arteko espetxealdira kondenatua izan zen, hots, 30 urteko kartzela zigorrera[707].

Momentu honetan, El Duesoko espetxera lekualdatu zuten, bertan kondena bete zezan. Bertan pasa zituen lehen urteak, igeltsero gisa lan egin zuelarik kondena murrizketa lortzeko.

1941eko otsailaren 2an, Bilboko Gerra Auditoriak Ferminen kondenaren inguruko kommutazio proposamen bat burutu zuen, berau 8 urtetara murrizteko. Murrizketa hau, apirilak 30ean behin betikoa izan zen[708]. Ondorioz, baldintzapeko askatasuna lortzeko atea ireki zitzaion 1940ko ekainaren 4ko legea baliatuz. El Duesoko zuzendaria ados zegoen erabakiarekin eta berau aurrera eramateko Debako FET-JONSko buruari, Guardia Zibilaren postuari eta Alkateari telegrama bana bidali zizkien gaiaren inguruan zuten iritzia galdetuz. Alkateak eta Falangeko buruek mezu bateratua bidali zuten erantzun bezala, non baldintzapeko askatasunari trabarik ez zioten jarri, baina baldintza moduan herrira ezin zela sartu eta Gipuzkoatik kanpo bizi behar zela jarri zuten. Hala ere, Donostian ireki zioten prozedura judizial berri bat zela eta, baldintzapeko askatasunaren aukera bertan behera geratu zen.

1941eko uztailaren 11ean, El Duesoko espetxetik Donostiakora lekualdatu zuten, bertan epaiketa zain geratu zelarik. Honen instrukzioa 1939ko maiatzaren 5tik hasita zegoen. Tartean, hiri honetako espetxe zaintzak, udalari jakinarazpen bat igorri zion 1942ko martxoak 7an, non Ferminek baldintzapeko askatasuna lortzearen inguruko iritzia eskatzen zion. Honek erantzun zion. Errepublikaren alde izaniko jarreragatik, bere askatasunak herrian “alarma soziala” sor zezakeela eta honen aurka zegoela eta berau emanez gero, 250 kilometroko deserriratzearekin izatea eskatu zuen[709].

[707] AIRMN, 481/37 prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 481/37 procedimiento sumarísimo.

[708] Id.

[709] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

Epaiketa, 1942ko abenduaren 15an eman zen. Bertan, Larruceatarren atxiloketengatik epaituak izan behar ziren, baina epaileak ikusita Santanderren jada ekintza beragatik epaituak izan zirela, absolbitua izan zen.

Erabaki honek, baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera eman zion berriz Fermini. Hala ere, Debako Udalak zein FET-JONS eta Guardia Zibilaren buruek eskutitz bana idatzi zuten, bertan baldintzapeko askatasuna lortzearen alde agertu baziren ere, deserriratua izateko baldintza ezartzen zuten. Espetxeko zerbitzu buruak, behin dokumentu hauek jasota, ez zuen deserriratzearen aldeko hautua egin eta Fermin aske utzi zuten 1942ko abenduaren 18an, Debara bizitzera itzuli zelarik.

Debara itzulita, gerra aurreko bizileku berean jarri zen bizitzen eta jornalari gisa hasi zen lanean, espetxealdia edota gerra kontseiluak izan zituzten pertsonek zailtasunak izaten baitzituzten berriro beraien lanpostuak berreskuratzeko. Bere bizitza aurrera eramaten hari zela, 1944ko urriak 12an Donostian preso sartu zuten berriro, Elgoibarko Guardia Zibilaren postuak atxilotu ostean “por considerarse como peligrosos en las actuales circunstancias, son detenidos… a disposición del Excmo. Señor Governador Civil de la Provincia”. Berarekin batera, German Miguel del Rio eta Juan Morales Montes de Oca atxilotu zituzten, debarrak biak[710].

Mandatari frankista garrantzitsuren bat edota Franco bera Gipuzkoara etortzen ziren bakoitzean, hamarnaka pertsona espetxeratzen ziren, inolako arrazoirik gabe, soilik arriskutsuak kontsideratzen zirelako. Behin bisita amaituta, berriro aske uzten zituzten, Ferminen kasuan, urriak 31an.

Nació en Deba el 10 de abril de 1910 y residía en el arrabal de Maxpe del mismo municipio. Era soltero y trabajaba en los ferrocarriles[703].

Afiliado al Partido Socialista de Deba y, como otros muchos trabajadores de los ferrocarriles, al Sindicato Nacional Ferroviario que formaba parte de UGT. También estaba afiliado a Agrupación Republicana y a Agrupación Socialista[704]. Cuando estalló la guerra, afín a su personalidad izquierdista y republicana, tomó parte en los Comités de Defensa de Deba cumpliendo diversas funciones, incluso portando armas. Conforme avanzaba la guerra y la respuesta de los republicanos era cada vez más coordinada, se unió al combate como miliciano luchando en el frente con el batallón Amuategui[705], hasta que lo detuvieron al caer Santander[706].

Lo llevaron al Campo de Concentración del Seminario de Corbán el 16 de septiembre de 1937. Hizo una declaración ante la Guardia Civil en la que admitió ser miembro de Agrupación Socialista (afiliado en 1932) y de repartir propaganda del Frente Popular en época de elecciones. Cuando estalló la Guerra Civil el 24 de julio, se presentó ante el Comité de Defensa de Deba y allí le entregaron una escopeta y una pistola, fue con las armas a Donostia y volvió al día siguiente. En cuanto Donostia cayó en manos franquistas, participó con otros milicianos en las detenciones de derechistas y militares, entregándolos a los Comités de Defensa (Larrucea, Astiria, Luis Sierra Bustamante). Además de eso, reconoce haber tomado parte en diversas confiscaciones. En el apartado militar, dice haber formado parte del batallón Amuategui a partir de octubre de 1936, en el puesto de cocinero actuando en diferentes frentes, hasta que cayó preso el 26 de agosto. En su declaración alegó que él no había matado a nadie y que no sabía quiénes habían sido los responsables de esas muertes

El 19 de septiembre lo trasladan a la Prisión Provincial de Santander por orden del auditor de guerra de esta ciudad. El 7 de octubre corrobora su declaración inicial. Tras esto, el juez pide a las autoridades franquistas de Deba un informe sobre la persona de Fermín.

El Ayuntamiento de Deba lo definirá con estas palabras: “Comunista muy propagandista, durante la República su actividad fue muy destacable…, siempre iba armado… Un sujeto muy peligroso, que hizo contra fervientemente al movimiento nacional y contrario al movimiento nacional”. La Guardia Civil también lo consideraba: “sujeto peligroso y dañino para la nueva España”.

Lo juzgaron en el mismo Santander el 13 de enero de 1938 donde el 2º Consejo de Guerra Permanente unió su causa a la de otros 5 y juzgó a un total de 20 personas. En el juicio alegaron que Fermín era comunista, propagandista, partícipe de detenciones y registros, y peligroso. Así, lo acusaron de adhesión a la rebelión y lo condenaron a cadena perpetua, es decir, 30 años de prisión[707].

En ese momento lo trasladan al Dueso para cumplir condena. Pasará allí los primeros años y trabajará de albañil para conseguir una reducción de condena.

El 2 de febrero de 1941 la Auditoría de Guerra de Bilbo lanzó una propuesta de conmutación de la condena de Fermín, rebajándola a 8 años. Esta reducción fue definitiva el 30 de abril[708]. Por consiguiente, valiéndose de la ley del 4 de junio de 1940 se le abrieron las puertas para conseguir la libertad condicional. El director del Dueso estuvo de acuerdo con la decisión y para seguir adelante mandaron telegramas al jefe de las FET-JONS de Deba, al puesto de la Guardia Civil y al Alcalde para preguntar su opinión acerca del tema. El Alcalde y los jefes de la Falange enviaron un mensaje conjunto a modo de respuesta en el que no se mostraban contrarios a la libertad condicional pero imponiendo como condición que no podía entrar en el municipio y que debería vivir fuera de Gipuzkoa. Aun así, se canceló el proceso debido al procedimiento judicial nuevo que le abrieron en Donostia.

El 11 de julio de 1941 lo trasladan del Dueso a la prisión de Donostia quedando a la espera de juicio. Su instrucción ya estaba abierta para el 5 de mayo de 1939. Mientras tanto, el servicio de vigilancia de prisiones de esta ciudad le manda el 7 de marzo de 1942 una notificación al Ayuntamiento en la que Fermín les pide opinión acerca de la petición de la libertad condicional. El

[710] AHPG-GPAH, 03611 kutxa, 0013 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 03611, expediente 0013.



FALANGE ESPAÑOLA TRADICIONALISTA y de las J. O. N. S.
DEVA (Guipúzcoa)
DELEGACIÓN LOCAL de ~~PRENSA Y PROPAGANDA~~

Or nº 1196

Siguiendo instrucciones de su comunicado num.2226 fecha 7 del actual, en el que nos indica el que si existe o no alguna alarma social o razon que aconseje no sea puesto en libertad el vecino de esta Villa, FERMIN ECHEVERRIA GALDOS, según el criterio de esta Jefatura, al alcanzarle los beneficios de libertad condicional, convendria que no se le permitiese residir en esta Provincia y de menos a unos 200 klimetros de distancia de esta localidad, pues durante el dominio rojo fué uno de los que más se distinguieron en sus fechorias y seria muy mal visto por todos los afiliados al Movimiento y gente de orden adicta al mismo

Por Dios, España y su Revolucion Nacional Sindicalista.

Deva 11 de Marzo de 1942

El Jefe Local

Sr. Director de la Prision Provincial-San Sebastian

AYUNTAMIENTO DE LA M.N.Y L. VILLA DE DEVA

1 1 MAR. 1942

Or nº 1143

Nº 237

En contestación a su oficio nº 2226 de fecha 7 del actual referente al recluso FERMIN ECHEVERRIA GALDOS, tengo el honor de comunicarle que dadas las actividades a que se dedicó durante el dominio rojo-separatista en esta localidad y por su significación política, juzga esta Alcaldía que existe razón de alarma social el que sea puesto en libertad y su residencia en ésta, o caso de que pudiera disfrutar de los beneficios de libertad condicional, sería de agrado de esta Alcaldía el que fuera desterrado a más de 250 kilometros de esta localidad el referido sujeto.

Dios guarde a V.S. muchos años

Deva a 10 de Marzo de 1.942

El Alcalde

Director de la Prisión Provincial de SAN SEBASTIAN

Or nº 1242

En contestación a su superior escrito núm. 2226 de fecha 7 del actual tengo el honor de comunicar a V. que en esta población no hay inconveniente en que puedan serle concedidos los beneficios de libertad al recluso de su Establecimiento de su mando Fermín Echeverria Galdos, pero dada su filiación política extremista, será perjudicial su permanencia en esta villa

Dios guarde a V. muchos años.

Deva a 12 de Marzo de 1942.

El Comandante de Puesto,

Antonio [illegible]

Señor Director de la Prisión Provincial San Sebastián

**Fermin Echeverria deserriratzearen alde Debako autoritate frankistek idatzitako eskutitzak.** (AHPG-GPAH, 03611 kutxa, 0013 espedientea). / **Cartas que escribieron las autoridades franquistas de Deba pidiendo el destierro de Fermín Echeverria.** (AHPG-GPAH, caja 03611, expediente 0013).

consistorio respondió diciendo que por la actitud demostrada a favor de la República, su libertad podría causar “alarma social” y, por lo tanto, se posicionaban en contra pero, en caso de darse, exigieron que fuera con un destierro de al menos 250 km[709].

El juicio se celebró el 15 de diciembre de 1942, siendo juzgados por las detenciones de los Larrucea, pero al darse cuenta el Juez que ya habían sido juzgados por la misma causa en Santander, decide absolverlo.

Esta decisión le volvió a dar la oportunidad de lograr la libertad condicional. Aun así, tanto el Ayuntamiento de Deba como los jefes de las FET-JONS y la Guardia Civil escribieron cada uno una carta a favor de la libertad condicional pero con el condicionante de ser desterrado. El Director del Servicio de Prisiones, una vez recibidos todos los documentos, se decantará en contra del destierro, por lo que dejará en libertad a Fermín el 18 de diciembre de 1942, volviendo a residir a Deba.

Una vez regresado a Deba, seguirá en su misma residencia y trabajando de jornalero, ya que las personas que habían estado en prisión o que habían sufrido consejo de guerra tenían dificultades para recuperar su anterior puesto de trabajo. Mientras estaba intentando rehacer su vida, el 12 de octubre de 1944 vuelven a ingresarlo en la prisión de Donostia tras ser detenido por

el puesto de la Guardia Civil de Elgoibar "por considerarse como peligrosos en las actuales circunstancias, son detenidos… a disposición del Excmo. Señor Gobernador Civil de la Provincia". Junto a él se encuentran Germán Miguel del Río y Juan Morales Montes de Oca, debarras ambos[710].

Cada vez que algún mandatario franquista o el mismo Franco venían a Gipuzkoa, decenas de personas eran encerradas sin razón alguna, solamente por ser considerados peligrosos. Una vez que la visita concluía volvían a dejarlos en libertad, tal y como pasó con Fermín el 31 de octubre.

## ECHEVARRIA GALDOS, JOSE LUIS

Donostian aurrera eraman zen kausan, Jose Luisen gaineko kausa behin behinean artxibatzea eskatu zen. Hala ere, sententzia honen gainean Burgosen 1939ko apirilaren 13an eginiko berrikuspen batean kausa artxibatzearekin ados agertu ziren baina beste puntu bat gehitzen zuen. Gerra kontseiluarekin ados jarrita Jose Luis jauna berari zegokion kintoen kutxan sartzea agindu zuen, hots, bando frankistako soldadutza egiteko pertsona moduan identifikatu zuten[711].

En la causa que se está llevando a cabo en Donostia, se pide que la causa de José Luis sea archivada provisionalmente. La revisión de la sentencia que se hace en Burgos el 13 de abril de 1939 se muestra a favor de archivar la causa pero añaden otro punto. Poniéndose de acuerdo con el consejo de guerra ordenan incluir a José Luis en la caja de quintos, esto es, lo identifican como persona apta para el servicio militar del bando franquista[711].

## EGAÑA IBARRA, MIGUEL

1904ko irailaren 29an jaio zen Miguel Deban, baina Bergaran bizi zen bere emazte zen Ana Telleriarekin, Mugertza kaleko 6. zenbakian[712]. Trenbideetako langilea zen, orratz zaintzailea zehazki, Mekolaldeko estazioan[713]. Altxatuen aurrerakada zela eta herritik joan behar izan zuen[714].

Bere aurka aurkitzen dugun lehenengo prozesu judiziala, Bilbon emango den gerra kontseilu bat da. Prozesua, 1937an hasi zen, pentsa genezake Santander erori ostean, baina jada zehazten da Miguel baldintzapeko askatasunean aurkitzen zela. Epaiketan, beste sei pertsonarekin batera prozesatu zuten eta gerra kontseiluak berak Miguelen aurka irekita zegoen kausa artxibatzea erabaki zuen. Gerra Auditorea ere ados egon zen erabaki honekin eta behin betiko askatasuna berreskuratu zuen 1938ko otsailaren 3an. Ondorioz, pentsa genezake Errepublika garaian izan zuen paperagatik, Bergaratik ihes egin behar izan zuela Bizkaia aldera eta bertan jardun zuela ahalik eta Bizkaia erori zen arte, non preso hartuko zuten frankistek. Bere aurkako kausaren beste ezaugarrietako bat, berarekin batera epaitutako guztiak, trenbideetako langileak zirela[715]. Sektore honek, garrantzia berezia zuen lurraldeen azpiegitura bermatzeko momentuan eta gainera mobilizazio politiko nabarmena burutzen zuten aspaldidanik, betiere ideia ezkertiarren baitan barnebilduta. Horregatik, erregimen frankistak errepresio zabala garatu zuen sektore honetako langileen aurka.

Bergarara itzuli zen, baina 1941eko uztailaren 18an berriro errepresaliatua izan zen. Taberna batean zegoela, pertsona bat sartu eta "Viva España y viva el 18 de Julio" oihukatu zuen eta Miguelek honi "¡Viva Rusia!" erantzun zion. Norberaren ideia politikoak ezkertiarrak baziren, hauek publikoki adieraztea arriskutsua zen eta gogorki ordaindu zuen Miguelek bere erantzuna. Salaketa jarri zioten eta atxilotua izan zen eta urte bereko abuztuaren 5an Donostiako Espetxe Probintzialean preso sartu zuten.


Agosto 41

Prisión

Expediente procesal de Egaña Ibarra Miguel conocido por

Hijo de Esteban y de [illegible] esposo de Ana Telleria
edad 36 naturaleza Deva partido de Azpeitia
provincia de Guipuzcoa vecindad Vergara provincia Guipuzcoa
domicilio Mugueza 6 religión C. A. R. profesión Ferroviario
instrucción [illegible] estado casado hijos —
núm. de ellos — antecedentes — ingresa por 1ª vez

SEÑAS PARTICULARES
Nació el 29 septiembre 1904

FORMULA DACTILAR

CAUSA

| NUMERO | | | Juzgado | Secretaría | Delito | FECHAS | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sumario | Rollo | Año | | | | Ingreso | Salida |
| | | | REMITIDA FICHA AL REGISTRO INDICE EL DIA 5 AGOSTO1941. Entrada nº 37 | | | | |

| FECHAS | | | VICISITUDES |
|---|---|---|---|
| Día | Mes | Año | |
| 5 | Agosto | 1941 | Ingresa en esta Prisión, procedente de la capital entregado por fuerza pública en concepto de detenido a disposición de Audicor de Guerra de la Plaza orden del Gobernador de Militar que se une. Se da cuenta. VºBº El Director. El Subdirector. |

**Miguel Egaña Ibarraren Ondarretako espetxeko espedientearen orrialde bat.** (AHPG-GPAH, 3572 kutxa, 0037 espedientea). **/ Una hoja del expediente penitenciario de Ondarreta de Miguel Egaña Ibarra.** (AHPG-GPAH, caja 3572, expediente 0037).

[711] AIRMN, 15023/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 15023/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.
[712] AHPG-GPAH, 3572 kutxa, 0037 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 3572, expediente 0037.
[713] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[714] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0007764.
[715] AIRMN, 2291-37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 2291-37 procedimiento sumarísimo de urgencia.

Abuztuaren 8an, 11. zenbakidun Epaitegi Militarraren esku utzi zuten, honek 4011-41 sumarioa ireki ziolarik. Hala ere, epaiketa eman aurretik aske utzi zuten, abuztuaren 28an, espetxealdi arindua ezarriz. Kasua, Bilbon behin behineko Auditoreak aztertu zuen 1942ko otsailaren 11n. Fiskalak, desordena publikoak sortzeagatik hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatu zuen eta defentsa ados egon zen erabaki honekin. Ondorioz, Auditoreak kondena eskariarekin zigortu zuen. Kontuan izanda epaiketa aurretik espetxean pasa zuen denbora, ez zuten berriro kartzelaratu Miguel[716].

Nació el 29 de septiembre de 1904 en Deba, pero residió en Bergara junto a su esposa Ana Telleria, en el número 6 de la calle Mugertza[712]. Era trabajador de los ferrocarriles, vigilante de agujas exactamente, en la estación de Mekolalde[713]. Debido al avance de los sublevados se tuvo que ir del pueblo[714].

El primer proceso judicial que encontramos contra su persona es un consejo de guerra celebrado en Bilbo. El proceso se inició en 1937, suponemos que tras la caída de Santander, pero se menciona que para entonces Miguel ya se encontraba en libertad condicional. En el juicio fue procesado junto a otras seis personas y el mismo Consejo de Guerra decidirá archivar la causa abierta contra Miguel. El auditor de guerra estará de acuerdo con la decisión y recuperará la libertad definitiva el 3 de febrero de 1938. En consecuencia, por el papel que cumplió en la época de la República, podemos pensar que tuvo que huir de Bergara hacia Bizkaia y que estuvo allí hasta que cayó Bizkaia y lo detuvieron los franquistas. Otra de las características de su causa es que todos los que fueron juzgados junto a él eran trabajadores de los ferrocarriles[715]. Este sector era especialmente importante en un momento en el que se estaban intentando garantizar las infraestructuras del territorio, además de ser impulsores de una gran movilización política, siempre con ideas izquierdistas. Por eso, el régimen franquista desarrolló una amplia represión contra los trabajadores de este sector.

Volvió a Bergara pero el 18 de julio de 1941 volvió a ser represaliado. Mientras estaba en un bar entró una persona y gritó “Viva España y viva el 18 de Julio”, a lo que Miguel contestó “¡Viva Rusia!”. Si las ideas políticas personales eran de izquierdas, era muy peligroso expresarlas públicamente y Miguel pagó muy cara su respuesta. Lo denunciaron y fue detenido el 5 de agosto del mismo año, ingresando en la Prisión Provincial de Donostia.

El 8 de agosto, lo dejan en manos del Juzgado Militar número 11 y este le abre el sumario 4011-41. Aun así, antes de que se celebre el juicio lo dejan en libertad el 28 de agosto al aplicarle la prisión atenuada. El caso lo examinará el auditor provisional de Bilbo el 11 de febrero de 1942. El fiscal lo condena a un mes y un día de prisión por provocar desórdenes públicos y la defensa se muestra de acuerdo con la decisión. El auditor cumple la petición de condena pero teniendo en cuenta el tiempo que pasó en prisión antes del juicio, Miguel no volverá a ser encerrado[716].

## EGAÑA URBIETA, ANTONIO

Deban jaio eta bizi zen Antonio, 42 urte zituen eta larru ontzailea zen. Antonia eta Juan ziren bere gurasoak eta Arenal 2. zenbakian bizi zen[717]. Santoñan eginiko epaiketetan aipatzen denaren arabera, Errepublikaren aldeko defentsan jardun zen hasieratik, herriko Defentsa Komitera boluntario batu zelarik eta hainbat guardia burutu zituen bertan. Horrez gain, hainbat armen konfiskazioan parte hartu zuen.

Eusko Gudarosteko miliziano ere izan zen, zerrendetan bi batailoi ezberdinetan aurkitzen da, UHP batailoiko lehen konpainian eta Fermin Galan batailoian[718]. Santoñan preso erori eta epaitua izan zen Antonio, bertan matxinadarekiko atxikimendua delitua egotzita biziarteko kartzela zigorrera kondenatu zuten[719]. Askatasuna, 1940ko abuztuak 20an berreskuratu zuen, presoaldi arindu bezala[720].


Apellidos EGAÑA URBIETA Nombre Antonio
Conocido por ... Prisión de CENTRAL PUERTO SANTA MARIA.

Se halla a disposición de la Jefatura del Servicio Nacional de Prisiones para cumplir condena. impuesta por Consejo de Guerra celebrado en SANTOÑA

Nombre del padre Juan
Nombre de la madre Antonia
Nombre del cónyuge (soltero)
Edad 42 Naturaleza Deva
Partido de Azpeitia Provincia de Guipúzcoa
Vecindad Deva Provincia id.
Domicilio Arenal 2 Profesión curtidor
Delito Adhesión a la rebelión
Ingresó en 6 de agosto de 1938
Procedente de Colonia del Dueso
Condenado por sentencia de 24 de noviembre de 1937 a la pena de reclusión perpétua (1)

EL DIRECTOR,

Sello de la Dirección Prisión

Servicio Nacional de Prisiones Registro-Indice de la Población Reclusa 25 NOV. 1938 Vitoria

Sello de Registro

22 OCT 1938

(1) O indicar si es preventivo.

**Antonio Egaña Urbietaren espetxeko fitxa.** (AGA). / **Ficha penitenciaria de Antonio Egaña Urbieta.** (AGA).

1944ko ekainaren 10ean, atxilotu egin zuten berriro, gaua zela, Durangoko Bolatokian kotxe batera gerturatu eta “Gora Euzkadi Askatuta” birritan oihukatzeagatik. Azaroaren 3an epaitua izan zen, gertakari hau dela eta, bertan urtebeteko kartzela zigorrera kondenatua izan zelarik[721]. Uztailak 1etik, behin behineko espetxealdian aurkitzen zen, kartzelatik 1945eko ekainaren 9an irten zen Antonio[722].

[716] AIRMN, 4011-41 sumarisimo arrunta. / AIRMN, 4011-41 sumarísimo simple.
[717] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[718] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0007885 eta E0007884. / CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA, FICHERO, 16, E0007885 y E0007884.
[719] AIRMN, 20124 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 20124 procedimiento sumarísimo de urgencia.
[720] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[721] AIRMN, 382-44 sumarisimoa. / AIRMN, 382-44 sumarísimo.
[722] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

Nació y vivió en Deba, tenía 42 años de edad y era curtidor de piel de profesión. Hijo de Antonia y Juan, vivía en el número 2 del Arenal[717]. Según se menciona en los juicios de Santoña, desde un principio actuó en la defensa de la República, uniéndose como voluntario al Comité de Defensa del pueblo y realizando varias guardias. Además de ello, tomó parte en la confiscación de armas.

Fue miliciano de Ejército Vasco y aparece en las listas de dos batallones diferentes: la primera compañía del batallón UHP y el batallón Fermín Galán[718]. Lo detuvieron y juzgaron en Santoña, acusándolo de un delito de adhesión a la rebelión y condenándolo a cadena perpetua[719]. Recuperó la libertad el 20 de agosto de 1940 bajo el régimen de prisión atenuada[720].

El 10 de junio de 1944 por la noche volvieron a detenerlo en el Bolatoki (Juego de Bolos) de Durango al acercarse a un coche y gritar "Gora Euzkadi Askatuta" dos veces. Lo juzgaron el 3 de noviembre por este hecho condenándolo a un año de prisión[721]. Desde el 1 de julio se encontraba en prisión provisional y salió el 9 de junio de 1945[722].

### EGAÑA URBIETA MARIANO

Mariano, 34 urteko trenbideetako langilea zen, Deban jaioa eta Orion bizi zena Jose Mª Primo de Rivera kalean, Cristina San Sebastianekin ezkondua[723]. SNF sindikatura afiliatua zegoen 1934tik, aurrez 1928arte egon bazen ere (hau bere testigantzaren araberakoa da, beste iturri batzuek 1931/06/10ean afiliatu zela diote[724]).

Altxamenduaren lehen uneetatik Errepublikaren alde lerratu zen eta honen defentsara bideratu zituen bere indarrak, beste hainbat pertsona bezala, gerraren lehen egunetan, Donostiara joanez, bertan hiriaren aldeko defentsan jardutera. Bertan, trenbideetako langilea izanik, Amarako estazioa zaindu eta bertako telefonoetan guardiak egin zituen. Horrez gain, hainbat preso zaintzeaz ere arduratu zen.

1936ko urriak 12an milizia armatuetako kide egin zen eta Enlaces y Transmisiones batailoiko kide gisa. Hainbat frontetan ekinean aritu eta gero, Santoñan gaixo erori zen eta Santanderrerako bideari ekin zion, bertan artatua izateko. Tropa frankistenengana entregatu zen bertan, hiria erortzearekin batera[725]. Hasiera batean ez zen atxilotua edota prozesatua izan, kontuan izaten badugu, 1938ko abuztuak 20an, Orion atxilotu ostean Bilbon espetxeratu zutela[726]. Era honetako atxiloketak, herriko autoritate baten, eliza, udala, Falangea edota Karlistak; edo bizilagunen baten denuntzien ondorio izaten ziren. Eskolapioen espetxean preso aurkitzen zela, Fiskalak Matxinadari atxikimendua egotzi zion. 1938Ko Abenduaren 17an, Bilboko Bigarren Gerra Kontseilu Iraunkorrak hamabi urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuen[727].

Bilbotik, Iruñeko San Kristobalgo espetxera lekualdatu zuten (Iruña), 1939ko martxoak 5an, non aipatzen den bere hasierako kondena 30 urtekoa zela, baina badirudi berau kommutatua izan zela, ondoren 12 urteko kondena aipatzen baita berriro[728]. Urte bereko azaroak 24an, Orduñako espetxera eraman zuten, non bertan preso egon zen, 1940ko irailaren 20an behin behineko askatasuna lortu zuen arte[729].

Mariano era un trabajador del ferrocarril de 34 años de edad, nacido en Deba y residente en la calle José María Primo de Rivera de Orio junto a su esposa Cristina San Sebastián[723]. Era trabajador del ferrocarril y estaba afiliado al sindicato SNF desde 1934. (Según su testimonio estuvo afiliado hasta 1928, dejándolo ese año y volviéndose a afiliar en 1934. Pero otras fuentes mencionan que para el 10/06/1931 ya se encontraba afiliado[724]).

Desde el primer momento del alzamiento se posicionó del lado de la República y dirigió sus fuerzas a su defensa, dirigiéndose a participar en la defensa de la ciudad de Donostia como otras muchas personas durante los primeros días de la guerra. Siendo trabajador de ferrocarriles cuidó de la estación de Amara e hizo guardias en los teléfonos. Además, también se encargó de la custodia de varios presos.

El 12 de octubre de 1936 se hizo miembro de las milicias armadas formando parte del batallón Enlaces y Transmisiones. Después de estar en diversos frentes, enfermó en Santoña y viajará a Santander para ser tratado. Allí se entregó a las tropas franquistas con la caída de la ciudad[725]. En un principio no fue encarcelado ni procesado, teniendo en cuenta que el 20 de agosto de 1938, tras ser detenido en Orio lo encarcelan en Bilbo[726]. Este tipo de detenciones solían ser consecuencia de la denuncia de alguna autoridad del pueblo como la Iglesia, el Ayuntamiento, la Falange, los Carlistas o de algún vecino. Estando preso en la cárcel de los Escolapios, el Fiscal lo acusó de adhesión a la rebelión. El 17 de diciembre de 1938 el Segundo Consejo de Guerra Permanente de Bilbo lo condenó a 12 años y un día de prisión[727].

De Bilbo lo trasladaron a la prisión de San Cristóbal de Iruñea el 5 de marzo de 1939, donde se menciona que su primera condena es de 30 años, pero parece ser que se la conmutaron puesto que se vuelve a mencionar la condena de 12 años[728]. El 24 de noviembre del mismo año lo trasladaron a la prisión de Urduña, donde seguirá cumpliendo condena hasta que el 20 de septiembre de 1940 logra la libertad provisional[729].

---

723 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
724 CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,16,E0007887.
725 AIRMN, 18007/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 18007/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.
726 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
727 AIRMN, 18007/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 18007/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.
728 Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea. / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.
729 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

## ELORRIAGA ECHEVERRIA, MANUEL

Altxamendua eman zenean, EAJ alderdira afiliatua zegoen eta Gipuzkoako Komandantziaren menpe zegoen milizianoa zen[730]. 1938ko urtarrilaren 28an atxilotua izan zen Deban eta Ondarretako espetxera eraman zuten. Bertan eduki zuten preso frankistek, urriak 22an, Bilbon, Gerra Auditoreak bere aurkako kausa artxibatzea erabaki zuen arte[731].

En el momento del alzamiento estaba afiliado al PNV y era un miliciano a las órdenes de la Comandancia de Gipuzkoa[730]. El 28 de enero de 1938 fue detenido en Deba y conducido a la cárcel de Ondarreta. Los franquistas lo mantuvieron preso allí hasta que el 22 de octubre el auditor de guerra en Bilbo decida archivar la causa existente contra él[731].

## ERRAZQUIN BASURTO, EUGENIO

29 urte zituen (1942), Itziarren jaio bazen ere, Errenteriara joan zen bizitzera, paper industria batean lan egiten zuelarik bertan, mekanikari gisa. Ezkongabea zen. Eusko Gudarostea egonkortuz joan zen heinean, batailoiak Dibisio eta Brigadetan antolatuz joan ziren, erantzun koordinatuagoak eman ahal izateko, 1937ko urtarrilak 28an, Eugeniori, 7 Brigadaren kapitaintza eman zioten. Gerra garaian zauritua izan zen, tamalez ez dakigularik datu gehiago gaur egun gertakari honen inguruan[732].

Bilbo erortzearekin batera edota hurrengo egunetan egin zuten preso, izan ere 1937ko uztailean Bilboko espetxeetatik Burgoskora eramandako presoen zerrendan aurkitzen da. Hala ere, bere aurkako prozesu judiziala, Santoñan aurkitzen zen gerra kontseiluak burutu zion. Irailean gauzatu zen epaiketan, heriotzara kondenatu zuten matxinadarekin bat egiteaz akusatu ostean, nahiz eta azkenean kondena 30 urteko espetxealdiagatik kommutatu zioten azaroaren 6an[733]. Epaiketarako, Bilboko Espetxe Probintzialera lekualdatu zuten baina, 1938ko uztailak 26an bertatik berriro ere Burgosko Espetxe Zentralera lekualdatu zuten, bertan kondena bete zezan. Espetxe honetatik, baldintzapeko askatasunarekin irten zen 1943ko martxoak 25an[734].

Tenía 29 años de edad (1942) y aunque nació en Itziar se fue a vivir a Errenteria, trabajando como mecánico de una empresa papelera. Era soltero. Según se iba estabilizando el Ejército Vasco, los batallones se iban organizando en Divisiones y Brigadas, para poder responder de forma más coordinada. El 28 de enero de 1937 le dieron a Eugenio la Capitanía de la 7ª Brigada. Fue herido en la guerra, pero no disponemos de más datos acerca de este suceso[732].

Fue apresado con la caída de Bilbo o en los siguientes días, puesto que consta en las listas de presos trasladados de la prisión de Bilbo a la de Burgos en julio de 1937. De todas formas, el proceso judicial contra su persona lo llevó a cabo el Consejo de Guerra que se encontraba en Santoña. El juicio se celebró en septiembre y fue condenado a muerte tras ser acusado de adhesión a la rebelión, pero el 6 de noviembre le conmutaron la pena por la de 30 años de prisión[733]. Lo trasladaron a la Prisión Provincial de Bilbo para el juicio, pero el mismo 26 de julio de 1938 lo volvieron a trasladar a la Prisión Central de Burgos para cumplir la condena. Logrará salir de prisión bajo libertad condicional el 25 de marzo de 1943[734].

## ERRO CASTILLO, JOSE

Deban jaio zen baina Donostia zuen bizileku Josek, bertara ezkondua zegoelarik bere emazte Maximarekin. Bulego batean lan egiten zuen 42 urteko gizona zen (1940an), ideologia ezkertiarrekoa eta UGT sindikatura afiliatua zegoen. Donostia erori ostean, milizia popularretara batu zen, milizietako Lehen Intendentzia batailoian[735], bertan jardun zuen Santanderren erorketarekin batera tropa frankistek atxilotu egin zuten arte[736].

Bere inguruan dugun hurrengo datua 1938ko azaroaren 9ko da, non Donostiako Espetxe Probintzialera eraman zuten, bertako Gobernadore Militarraren esku utziz. 1939ko ekainaren 9an, Josek ospitalera eramateko eskaria egin zuen eta honen baitan egin zioten azterketa medikoan, bronkitis kroniko bat diagnostikatu zioten. Hala ere, bere espedientean ez dago inolako daturik ospitalera eraman zutela adierazten duenik. Gainera, urte bereko irailaren 23an, Joseren aurkako prozesuari hasiera emango zitzaion.


Sr. Jefe de Servicios:
Permitirá la salida del Establecimiento previa su identificación al interno del mismo JOSE ERRO CA STILLO en virtud de mandamiento del Iltmo. Sr. Presidente del Tribunal Militar Permanente de la Plaza.
San sebastian, 1 de Enero de 1940
El Director
Fórmula dactiloscópica
Cúmplase la precedente orden de la Dirección por el Guardian de la entrada principal.
El Oficial del Centro
Cumplimentada a las horas del día de la fecha.
El Guardian de la entrada principal,


**Jose Erro Castillo espetxetik irtetea baimentzen zuen dokumentua.** (AHPG-GPAH, 02831 kutxa, 0065 espedientea). / **Documento que permitía salir de la cárcel a José Erro Castillo.** (AHPG-GPAH, caja 02831, expediente 0065).

---

730 CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0015379.
731 AIRMN, 637/38 kausa sumarisimoa. / AIRMN, 637/38 causa sumarísima.
732 CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0021752.
733 AIRMN, 49-37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 49-37 procedimiento sumarísimo de urgencia.
734 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
735 CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0021907.
736 AIRMN, 2388-38 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, 2388-38 sumarísimo de urgencia

1940ko urtarrilaren 17an, Donostiako Tribunal Iraunkorreko Lehendakariaren aginduz, behin behineko askatasunean utzi zuten, epai zain. 1940ko apirilak 26an, Donostian epaitu zuten, gerra kontseilu bidez, bertan bere jarduna aztertuko dute epaileek eta delitu zantzurik aurkitzen ez zutenez, akusazioak absoluzioa eskatu zuen eta epaitegia ados agertu zen[737].

Nació en Deba pero vivía en Donostia junto a su esposa Máxima. Era oficinista y tenía 42 años de edad (1940), de ideología izquierdista y afiliado a UGT. Cuando cayó Donostia se unió a las milicias populares, en el batallón de Primera Intendencia[735], hasta que lo detuvieron las tropas franquistas al caer Santander[736].

El siguiente dato que tenemos sobre José data del 9 de noviembre de 1938, momento en el que lo trasladan a la Prisión Provincial de Donostia dejándolo a disposición del Gobernador Militar. El 9 de junio de 1939 José pide ser llevado al hospital y en el examen médico que se le realiza le diagnostican una bronquitis crónica. A pesar de todo, en su expediente no hay constancia de la visita al hospital. Además, el 23 de septiembre del mismo año da comienzo el proceso contra su persona.

El 17 de enero de 1940, por orden del Presidente del Tribunal Permanente de Donostia, lo dejan en libertad provisional en espera del juicio. El 26 de abril de 1940 fue juzgado en Donostia mediante consejo de guerra. Los jueces examinaron su actividad y al no encontrar pruebas de ningún delito, la acusación decide pedir la absolución y el juzgado se mostrará de acuerdo[737].

**ESNAOLA IRAOLA, IGNACIO**

Deban jaio zen eta Donostian bizi zen bere emaztearekin batera, Autonomia kaleko 10 zenbakian, hiru seme-alaba zituztelarik. Ogibidez trenbideetako langile gisa aritzen zen[738].

Bere inguruko datu gehienak, 1940ko uztailaren 12an, Donostian eginiko gerra kontseilutik dakizkigu. Ignacio Esnaolak 30 urte zituen epaitua izan zenean, ezkerreko ideiak zituen eta UGTko militantea zen. Horrela, milizietako kide bilakatu zen, hainbat kargu eta ardura garatuko zituelarik bertan.

Bere jarduna fronte ezberdinetan burutu zuen, hasiera batean teniente kargua lortuz. 1937Ko maiatzak 15an koronel kargua lortu zuen, 22. Dragoi batailoia eta ondoren Larrañaga batailoiak gidatu zituelarik[739]. Beste iturri batzuek, Guillermo Torrijos batailoian ere kokatzen dute[740]. Iparraldeko Frontearen erorketarekin batera, itsasoz ihes egin eta Frantzia gurutzatu ostean Errepublikarren esku aurkitzen zen Kataluniara igaro zen. Bertan, 4. Diziplinazko Batailoiaz arduratu zen, izaera eskuindarra zutela akusatzen zien kideez osatua. Batailoi honetako kideak babesteaz arduratu zen gerran zehar, non berau amaitzean bertako kide guztiak bizirik entregatzea lortu zuen. Beste iturri batzuen arabera, alderdi komunistan afiliatu zen eta Armada Errepublikarreko 2. Brigada Mixtoaren buru egin zuten Kataluniara pasa zenean[741]. Indar militar honen buruzagitza, Bruneteko batailaren ostean jaso zuen eta Madrileko frontean jardun zuen, Panarras mendiaren inguruetan 1938ko udaberrira arte. Orduan, Levante aldera mugitu ziren, bertan frankistak burutzen ari ziren erasoaldia gelditzen laguntzera, bertan, baja larriak jasan zituen brigada honek eta berrantolatu ostean, Levanteko frontean mantendu zen urte amaiera arte[742]. 1939 hasieran, Brigadari buruzagitza berria eman zioten, beraz, posible da gerraren azken hilabeteak Katalunian pasatzea, diziplinazko batailoiak agintzen.

Gerra amaitzearekin batera atxilotua izan zen, data zehatza ez dakigularik, hala ere, badakigu Unamunoko Kontzentrazio Esparruan eduki zutela preso eta 1939ko abuztuaren 25an Ocañako espetxera eramana izan zen. 1940ko apirilak 4an, Guardia Zibilak Donostiara ekarri zuen, bere aurka irekita zegoen prozesu judiziala zela eta. Dokumentu honetan bertan ere aipatzen da Madrileko Presoen Epaitegian urgentziazko sumarisimo bat irekita zuela 8241 zenbakiduna[743].

1939ko abenduak 9an, Donostian hasi zen Ignacioren aurkako epaiketa. Fiskalak matxinadarekin bat egitea akusatzen zion eta 30 urteko espetxe zigorrera kondenatua izan zen. Hala ere, Katalunian diziplinazko batailoian eta beste hainbat pertsona eskuindar babesteko egin zuen lanagatik kondena, hogei urte eta egun batera kommutatzea lortu zuen[744].

1942ko azaroak 24an, Iruneko Penalera lekualdatu zuten, non bertako bortxazko lanen destakamenduan txertatu zuten. Bertan hainbat obra publiko burutzen jardun zuen, besteak beste Iruneko defentsa kanala[745]. 1944ko otsailak 23an, Iruneko Destakamendu Penalean zegoela, baldintzapeko askatasuna lortu zuen Ignaciok. Bere baldintzapeko askatasuna lortzeko prozedura 1943ko abenduak 23an abiatu zen. Irunetik, Madrilerako bidea egin zuen, bertan ezarri zelarik bizitzen, Guzman Bueno kaleko 14. zenbakian.

Hala ere, goian aipatutako Madrilen irekita zuen kausa oraindik itxi gabe zuen eta espetxe zaintzak hainbat jakinarazpen bidali zituen prozesu hau aurkitzen zen egoeraz galdezka. Madriletik jasotako erantzunak berriz, ez zuten argitu gaia, epaitegi ezberdinen artean pasatzen baitzuten prozesuaren ardura eta azkeneko epaitegiak erantzun zuen ez zuela inolako daturik Ig-

[737] AHPG-GPAH, 02831 kutxa, 0065 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02831, expediente 0065.

[738] AHPG-GPAH, 02853 kutxa, 0031 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02853, expediente 0031.

[739] VARGAS ALONSO F.M., Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, 2015. / VARGAS ALONSO, F.M.: Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, 2015.

[740] EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoian, 2004. / EGAÑA I. (Dir.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

[741] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0032032.

[742] http://www.sbhac.net/Republica/Fuerzas/EPR/EprL/BM002.htm.

[743] AHPG-GPAH, 02836 kutxa, 0003 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02836, expediente 0003.

[744] AIRMN, 3002/39 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 3002/39 procedimiento sumarísimo de urgencia.

[745] http://www.asociacionrepublicanairunesa.org/down/nombres-presos-canal-olaberria.pdf.

nacioren inguruan. Azkenik, Espetxeetako Zuzendaritza Orokorretik jakinarazpen bat igorri zuten, 1944ko abuztuak 1ean, kausa hau artxibatua izan zela esanez, argudiatuz bertan inputatzen zitzaizkion delituengatik epaitua izan zela Donostian.

1948ko apirilak 19an, Donostiako epaile komandanteak, Ignacio indultatzeko erabakia hartu zuen[746].

Nació en Deba pero vivía en Donostia junto a su esposa y sus tres hijos, en el número 10 de la calle Autonomía. Era trabajador de ferrocarriles[738].

La mayoría de los datos acerca de él nos llegan a través del consejo de guerra celebrado en Donostia el 12 de julio de 1940. Tenía 30 años de edad cuando fue juzgado, de ideas izquierdistas y militante de UGT. Se hizo miembro de las milicias, ostentando distintos cargos y responsabilidades.

Errepublikaren alde Deban izan zuen paper garrantzitsua zela eta, Debako autoritate frankisten txostenetan oinarrituta matxinada militarraren delitua inputatu zioten Donostian gauzatzen zen gerra kontseiluan eta heriotza zigorrera kondenatu zuten, 1938ko urtarrilaren 24an. Debako Defentsa Komiteko kidea izanik, Generosoren aurkako ekinbidea frankisten aldetik oso gogorra izan zen, horrela uler dezakegu nahiz eta presoen trukaketa baterako proposatua izan, 1938ko ekainaren 25an, goizeko bostetan Bidebietako zelaian exekutatu zutela, Polloeko hilerrian lurperatua izan zelarik[783].

Preso trukaketaren saiakeraren gainean, Eusko Juarlaritzaren Prentsa eta Propaganda idazkaritzak bidalitako telegrama bat daukagu, Baionatik, 1938ko uztailak 26an. Bertan, jakinarazten zen Generoso Ibañez Larramendi jauna fusilatua izan zela, ez baitzen Isidro Valbuena Garcia jaunarekin trukaketa burutzeko proposamena gauzatu[784].

Generoso nació en Lizarra pero se fue a vivir a Deba ya que trabajaba en los ferrocarriles, tenía 36 años de edad (1937). Vivía junto a su mujer Paula Díaz Egaña y su hijo Ángel en el número 21 de la calle Ostolaza.

De oficio era pica en los Ferrocarriles Vascongados. Como muchos de los trabajadores de ferrocarriles, era persona de ideas izquierdistas y militante del PSOE. Cuando comenzó la Guerra Civil ostentaba el cargo de Vicepresidente del grupo del municipio y provisionalmente también el de secretario[780].

Estaba afiliado al sindicato UGT y era miembro del Comité de Ferrocarriles de la misma institución. Cuando se dio el alzamiento lo nombraron Comisario del Comité de Defensa de Orden Público de Deba. Era conocido en el pueblo porque llevaba siempre una estrella roja en la chaqueta. Al ver que los sublevados se estaban acercando al municipio dieron la orden de evacuar a los presos de la cárcel del pueblo a Bilbo y él mismo también se trasladó en tren. En el momento en el que Bilbo estaba a punto de caer, lo evacuaron a Santander y allí se hizo miembro del batallón Enlaces y Transmisiones[781].

Cuando la República perdió la batalla de Santander, lo apresaron en el municipio de Guriezo Rioseco[782]. A los pocos días lo dejaron en libertad y se trasladó a Bilbo para presentarse ante el juez, pero como este no se encontraba en la ciudad siguió camino hacia Donostia, siendo detenido entre Orio y Aginaga en el tren en el que viajaba.

El 7 de septiembre de 1937 se encontraba en Ondarreta en prisión preventiva. Las autoridades franquistas enseguida iniciaron el proceso judicial en su contra.

Las autoridades franquistas del municipio aportaron diversos testimonios, el juez José María Eizaguirre, el falangista Antonio Cordón y el sacristán José Urain. En dichas declaraciones afirman que era un destacado socialista del pueblo. Lo acusaron de infringirles malos tratos cuando estaban presos en la cárcel de Deba y de ser el responsable de la evacuación de la cárcel pistola en mano. Lo tachan también de ser el responsable de las detenciones y confiscaciones y de empujar a los milicianos a la lucha. Esta misma línea es la que siguen los testimonios del alcalde Antonio Allica, el mando de la Falange Antonio Trecu y los comandantes de la Guardia Civil Enrique Aragón y Ramón Bustamante y el mismo Antonio Cordón de nuevo. A todo ello le añadieron además ser el responsable de la detención del Teniente de Carabineros del pueblo Antonio Sanchiz.

Generoso, en cambio, argumentó que no dio ninguna orden de detenciones ni confiscaciones, que estas venían de la Junta de Donostia así como los milicianos que tenían que llevarlas a cabo.

Debido al importante papel que desempeñó en Deba a favor de la República y basándose en los informes de las autoridades franquistas de Deba, en el consejo de guerra llevado a cabo en Donostia le imputan un delito de rebelión militar y el 24 de enero de 1938 lo condenan a pena de muerte. Al ser miembro del Comité de Defensa de Deba, las acusaciones por parte de los franquistas fueron muy duras, y así podemos entenderlo puesto que a pesar de estar propuesto para un intercambio de presos, el 25 de junio de 1938 a las cinco de la madrugada fue ejecutado en el campo de Bidebieta y enterrado en el cementerio de Polloe[783].

Acerca del intento de intercambio de presos, tenemos un telegrama enviado el 26 de julio de 1938 desde Baiona por la secretaría de Prensa y Propaganda del Gobierno Vasco. En él se comunica que el señor Generoso Ibáñez Larramendi ha sido fusilado al no aceptarse la proposición de hacer un intercambio con el señor Isidro Valbuena García[784].

**ICIAR AMILIBIA, ALEJO**

Deban jaio zen Alejo, baina altxamendua eman zen garairako Madrilen bizi zen, General Lacy kaleko 30. zenbakian, bertan zapatagilea zelarik. 33 urte zituen (1941) eta Maria Gonzalez Guillenekin ezkondua zegoen[785]. Altxatuek hasieran aurrera eramatea pentsatzen zuten estatu kolpeak porrot egitean, Espainiako Estatuko hiriburua defendatzeko sortu ziren milizietako kide bilakatu zen Alejo. 1936ko urte amaieran eratu zen 46. Brigadako kide izan zen, Madril eta honen inguruko borroketan parte

[783] AIRMN, 1638-37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, 1638-37 procedimiento sumarísimo de urgencia.
[784] SAF Irujo 00102 -01 Generoso Ibañez.2 / SAF Irujo 00102 -01 Generoso Ibañez.2.
[785] AGA, Espexeko fitxa / AGA, ficha penitenciaria.

hartu zuelarik. Bertan, CNTaren batailoi batean jardun zuen, zauritua izan zelarik “El Pairo” deituriko frontean, 1937ko otsailak 13an. Hori dela eta, hilabete egon zen zaurietatik berreskuratzen, berriro prest egon eta frontera batu zen arte, martxoak 12an[786] Ondoren, Kataluniara mugitu zen, dibisio honen 37. Brigadarekin.


IZIAR AMILIBIA Alejo.- 31 años.- Deba.- Nº 5482

En Euzkadi:
En Cataluña: Soldado 37 Brigada.- 46 División.
Profesión: Zapatero.

S. Cyprien.- Campo nº 15.

CAMPO DE GURS.- Islote B.- Sale a la Cª de Trabajadores de TOURS el 24/6

**Alejo Iciar Amilibiaren Gurseko kontzentrazio esparruko dokumentua.** (EAH, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza Saileko funtsa, Delegaciones atala, En Perpignan y Oloron azpiatala, Ficheros (varios) seriea). / **Documento del campo de concentración de Gurs de Alejo Iciar Amilibia.** (AHE, Archivo Histórico del Gobierno Vasco, fondo del Departamento Lehendakaritza, sección Delegaciones, subsección de Perpignan y Oloron, serie Ficheros (varios).

Erresistentzia errepublikanoaren gainbeherarekin, Pirinioak zeharkatu eta Estatu Frantsesean errefuxiatu zen, lehenik Saint Cyprienen egon zelarik, Gurseko kontzentrazio esparruan amaitu aurretik, 5482 zenbakiarekin. Azkenean, bertatik ere mugitu egin zen, Tours-eko Langile Konpainiarekin batera hiri honetan lan egitera[787]. Espainiako Estatuan gerra amaitua eta frankistek orokortutako errepresioa lasaitu zenean, Madrilera itzultzeko erabakia hartu zuen Alejok. Bertan, atxilotu egin zuten eta Getafeko espetxean preso sartu zuten, 1941eko ekainaren 2an, auzo bereko epaitegiaren esanetara geratuz. Hala ere, urte bereko ekainaren 6an baldintzapeko askatasunarekin libre geratu zen[788].

Nación en Deba pero para cuando se dio el alzamiento se encontraba viviendo en Madrid junto a su esposa María González Guillen, vivían en el número 30 de la calle General Lacy, era zapatero de oficio y tenía 33 años de edad (1941)[785]. Cuando el Golpe de Estado que tenían pensado llevar a cabo los sublevados fracasó, Alejo se hizo miembro de las milicias que se crearon para defender la capital del estado. Fue miembro de la 46 Brigada creada a finales del año 1936, luchando en Madrid y alrededores. Estuvo también en un batallón de la CNT hasta que fue herido en el frente llamado “El Pairo” el 13 de febrero de 1937. Tras un mes recuperándose de las heridas, volvió al frente el 12 de marzo[786]. Posteriormente se trasladó a Cataluña con la 37 Brigada de esta División.

Con el declive de la resistencia republicana cruzó los Pirineos y se refugió en el estado francés, primeramente en Saint Cypriene y finalmente en el campo de concentración de Gurs, con el número 5482. Se volverá a trasladar, esta vez al Batallón de Trabajadores de Tours[787]. Una vez terminada la guerra en el estado español y al relajarse la represión franquista decidió volver a Madrid. Una vez en Madrid fue detenido y conducido a la prisión de Getafe el 2 de junio de 1941 quedando a disposición del juzgado del mismo barrio. De todas formas, el 6 de junio del mismo año saldrá en libertad condicional[788].

## IDIAQUEZ EGAÑA, IGNACIO

Nicolas eta Maria zituen guraso eta Itziarren jaio zen. Nekazaria zen ofizioz eta Terueleko Escucha herrira joan zen bizitzera, bertako Horno kaleko 2. zenbakian ezarriz. 1938ko martxoak 23an atxilotua izan zen bere etxebizitzan eta Zaragozako espetxera eraman zuten altxatuek[789]. Kontuan izanda, Terueleko bataila urte bereko otsailaren 22an amaitu zela eta ondoren frankistek hainbat erasoaldi burutu zituztela bertan, altxatuen tropak herrira sartu eta gutxira atxilotuko zuten Ignacio.

Espetxe honetan preso izan zuten, 5. Erregio Militarreko Gerra Auditorearen esku utziz. Zaragozako Lehen Gerra Kontseilu iraunkorrak, 1939ko urtarrilaren 4an, matxinadara kitzikatzeagatik, 6 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuen, 866/38 sumarioaren baitan[790]. Urte bereko abuztuaren 23an, Astorgako espetxera lekualdatu zuten eta bertan eduki zuten preso, ahalik eta 1940ko urriak 19an baldintzapeko askatasuna lortu zuen arte[791]. Zaragozako epaitegi militarraren aburuz, 1944ko martxoak 19a arte egon zen preso, baina baliteke kondenaren bigarren zati hau espetxealdi arinduan bete izana.

Nacido en Itziar, hijo de Nicolás y María, agricultor de oficio, se fue a vivir a la provincia de Teruel, al número 2 de la calle Horno del municipio de Escucha. El 23 de marzo de 1938 fue detenido en su propio domicilio y trasladado a la prisión de Zaragoza[789]. Teniendo en cuenta que la Batalla de Teruel terminó el 22 de febrero del mismo año y que los franquistas posteriormente llevaron a cabo varios ataques, suponemos que Ignacio fue detenido al poco tiempo de la entrada de las tropas franquistas en el pueblo.

Estuvo preso en esta cárcel a disposición del auditor de guerra de la 5ª Región Militar. El Primer Consejo de Guerra Permanente de Zaragoza lo condenó el 4 de enero de 1939 a 6 años y un día de prisión acusado de provocación a la rebelión, dentro del sumario 866/38[790]. El 23 de agosto del mismo año lo trasladaron a la prisión de Astorga y estará preso allí hasta conseguir la libertad condicional el 19 de octubre de 1940[791]. Según el juzgado militar de Zaragoza estuvo preso hasta el 19 de marzo de 1944, pero es muy posible que esta segunda parte de la condena la cumpliera en prisión atenuada.

[786] CDMH, SM 273.
[787] CHUECA J., Gurs. El campo vasco, Txalaparta, Tafalla, 2007.
[788] AGA, Espetxeko fitxa / AGA, ficha penitenciaria.
[789] AGA, Espetxeko fitxa / AGA, ficha penitenciaria.
[790] Auzgado Togado Militar Territorial nº32 (Cert_Zaragoza_866_38_TMT3).
[791] AGA, Espetxeko fitxa / AGA, ficha penitenciaria.

## IDIAQUEZ GARATE, FRANCISCO

35 urte zituen epaitu zutenean, 1938ko ekainaren 8an. Bere inguruan ditugun datuak Gerra Zibilean egin zioten gerra kontseilutik lortuak dira. Berau, Bilbon gauzatu zen eta hirugarren zenbakidun gerra kontseiluak eraman zuen aurrera. Honen arabera, Francisco alarguna zen eta Deban bizi zen, bertako harrobietan lan egiten zuelarik. Ideia abertzaleak izatea eta honen baitan gerrak eztanda egitean Debako komitearen alde lerratzea egotzi zioten, beronentzat hainbat guardia egin eta zenbait ondasun konfiskatuz.

Gerrak aurrera egin ahala eta Euzko Jaurlaritza eta Errepublikaren aldeko indarrak frankistei aurre egiteko antolatuz joan ziren heinean, kintoak deitzeari ekin zieten eta Franciscok bere unea iritsi zenean dei honi erantzun zion. Bere jarduna orduan, Berangoko errepidean lan egiten zuten preso eskuindarrez arduratzea bilakatu zen. Preso hauen testigantzen arabera, jarrera egokia izan zuen beraiekiko eta hauekin batera bando frankistara egin zuen ihes 1937ko ekainaren 26an, Turtzioz herrian. Izan ere, Bilbo aste bat lehenago erori zen eta euskal indarrak Kantabriara bidean zihoazen momentua baliatu zuen.



**Francisco Idiaquez, Debako harrobietan lanean, galtzada-harriak egiten.** (Deva ayer 260 fotografias liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / **Francisco Idiaquez haciendo adoquines en las canteras de Deba.** (Del libro Deva ayer 260 fotografías, biblioteca Koldo Mitxelena, DFG).

1938ko maiatzaren 14an, herrian, Franciscoren aurkako gerra kontseilurako deklarazioak batu ziren, Jose Manuel Esnaola Macazagak, ideia abertzale sakoneko pertsona bezala definitu zuen, hauteskundeetan parte hartze aktiboa izan zuena, nahiz eta mahaietan ez egon eta kargurik ez izan. Herrian, guardiak egin zituela esan zuen, horretarako armatua joaten zelarik. Beste hiru lekukok, ildo beretik burutu zituzten testigantzak, baina horietako bik armatutako guardiak egitera behartu zituela adierazi zuten. Herriko epaileak, Jose Maria Eizaguirre Mendicute jaunak, Mutrikun konfiskazioak egitea egotzi zion eta frontean borrokatzea ere.

Ia urtebetera epaitua izan zen, non epaileek bere jardunaren izaera ez-arriskutsua zela argudiatuz eta presoekiko izan zuen jarrera kontuan izanik, gerra kontseiluak 3 urteko zentzategi espetxera kondenatu zuen[792].

Tenía 35 años de edad cuando lo juzgaron el 8 de junio de 1938. Los datos que tenemos sobre su persona nos llegan a través del consejo de guerra celebrado durante la guerra. Se realizó en Bilbo y lo llevó a cabo el Tercer Consejo de Guerra. Según esto Francisco era viudo, vivía en Deba y trabajaba en la cantera del mismo municipio. Le acusaron de tener ideas izquierdistas y de posicionarse a favor del Comité de Deba al estallar la guerra, realizando para este último varias guardias y confiscando pertenencias.

Según avanzaba la guerra y el Gobierno Vasco y las fuerzas a favor de la República se organizaban para hacer frente a los franquistas, comenzaron a llamar a quintos y Francisco respondió a la llamada en cuanto le llegó el momento. Su trabajo aquí fue encargarse de los presos derechistas que estaban trabajando en la carretera de Berango. Según los testimonios de estos presos su actitud hacia con ellos fue correcta y huirá con ellos al municipio de Turtzioz en Enkarterriak, al bando franquista el 26 de enero de 1937. Bilbo había caído una semana antes y aprovecharon el momento en el que las tropas vascas viajaban a Cantabria.

El 14 de mayo de 1938 reunieron en el municipio las declaraciones para el consejo de guerra celebrado contra su persona. José Manuel Esnaola Macazaga lo definió como persona de ideas profundamente izquierdistas y participante activo en las elecciones a pesar de no estar en la mesa ni tener cargos. Dijo que hacía guardias en el pueblo y que para ello iba armado. Otros tres testigos testificaron en la misma línea y dos de ellos añadieron que les obligó a hacer guardias armados. El juez del pueblo, José María Eizaguirre Mendicute, lo acusará de hacer confiscaciones en Mutriku y de luchar en el frente.

Fue juzgado casi al año y los jueces considerando que su actividad no era peligrosa y teniendo en cuenta la actitud demostrada con los presos, el Consejo de Guerra lo condena a 3 años de prisión correccional[792].

[792] AIRMN, 10065/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, 10065/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.

## IDIAQUEZ GARATE, JUAN


Prisión Provincial
San Sebastián

Enfermería

Con esta fecha ingresa en esta enfermería el recluso Juan Idiaquez Garate, por padecer Asma Bronquial con Enfisema Pulmonar.

Cumplimentada
El Oficial

San Sebastián a 25-Diciembre de 1940.

**Juan Idiaquez Garate, espetxeko erizaintzara eraman zuten asma bronkioetako asma zuelako.** (AHPG-GPAH, 03596 kutxa, 0023 espedientea). / **Juan Idiaquez Garate fue llevado a la enfermería de la prisión porque tenía asma bronquial.** (AHPG-GPAH, caja 03596, expediente 0023).

Deban jaio zen 1909ko urriak 7an, San Roque kalean[793] eta zapataria zen. Iturkale kaleko 24. zenbakiko bigarren solairuan bizi zen bere emazte Francesca Larrearekin batera, Galdakaokoa. Alaba bat zuten, Francisca izenekoa[794].

Ideia abertzaleak zituen eta ANV alderdira afiliatua zegoen Estatu Kolpe Frankista eman zenean[795]. Honen aurkako erantzun bezala Debako Defentsa Komitea eratu zenean, bertako konfiantzako kide bilakatu zen eta talde armatu baten buru izendatu zuten. Horrela, hainbat funtzio bete zituen Komitearen aginduz, tartean hainbat konfiskazio eta herriko eskuindarren irratien zigilatzea[796]. Azken ekintza hau, herriko eskuindarrek bando frankistatik mezuak jaso ahal ez izateko burutzen zen.

Debatik Bizkaira pasa zen, berau altxatuen esku geratu zenean eta bertan Milicias PNV Bizkaia batailoian izen eman zuen[797]. Juanen gainean daukagun hurrengo datua jada 1940koa da, non Burgosko Valdenoceda espetxetik lekualdatu zuten irailaren 14an, Donostiako Espetxe Probintzialera eramanez, Bilboko Gerra Auditorearen esku utziz. Dakiguna da, ofizialki bere espetxealdi garaia 1940ko uztailak 13an hasten dela, bere kondenaren likidazio dokumentuan ikus dezakegun bezala.

30 urte zituen momentu honetan Juanek eta irailaren 25an, Lehenengo Epaitegi Militarraren esku utzi zuten, epai zain. Prozesu hau 1940ko irailaren 7an abiatu zuten eta Debako Defentsa Komitean eginiko ekintzengatik, matxinada laguntzearen delitua egotzi zioten eta 12 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatu zuten, 6 urteko espetxealdiagatik kommutagarria. Bilboko Gerra Auditoreak kondena hau berretsi zuen 1942ko uztailaren 24an[798].

Espetxean preso jarraitu zuen, non bere kondenaren berrezpenak jasoko zituen urriak 23 eta abenduak 15an hurrenez hurren. Gerra Zibileko eta Frankismoko espetxeetako bizi baldintzak tamalgarriak izan ohi ziren eta ohikoa zen presoak gaixorik jartzea. Juanen kasuan, abenduaren 25an erietxean ingresatu zuten, biriketako enfidema duen asma bronkiala diagnostikatu ziotelarik. Horregatik, aske uzteko eskatu zion epaitegiari eta honen ezetzaren ostean ospitalera eraman zezatela. Ez zuen inolako erantzunik jaso, baina 1941eko uztailaren 18an askatasuna berreskuratuko zuen, espetxealdi arindu bezala. Berau baliatuz, Debara itzuli zen.

Goian aipatu bezala, Bilboko Gerra Auditoreak kondena berretsi zuen, non bere aurkako kondena 1946ko uztailaren 13an amaitzen zela zehazten zen. Honen baitan, 1942ko azaroaren 19an Debako autoritateei txostenak eskatu zizkieten Juanen inguruan, ea baldintzapeko askatasuna emateko aukeraren aurrean aurkako irizpide edo argudiorik zuten galdetzen. Honi, Debako Guardia Zibilen postuak erantzun zion abenduaren 5ean, baldintzapeko askatasuna ematearen alde zegoela, baina 250 kilometro baino gehiagoko deserriratzea baldintza gisa ezarriz. Udalak ez zuen erantzungo hasiera batean.

1943ko urtarrilak 1ean, espetxeko diziplina batzordeak Juanen espedientea aztertu eta jarrera egokia izateagatik baldintzapeko askatasuna ematea proposatu zuen, otsailaren 2an berretsiko zutena. Horrela, baldintzapeko askatasuna deserriratzearekin onartu zuten. Kontua da, 1942ko abenduaren 25an Juan hil egin zela, 32 urterekin[799], seguruenik espetxealdian jasandako egoera gogorren ondorioz eratorri zitzaion gaixotasuna zela eta.

Nació en la calle San Roque[793] de Deba el 7 de octubre de 1909 y era zapatero. Vivía junto a su esposa Francesca Larrea nacida en Galdakao y su hija Francisca en el segundo piso del número 24 de la calle Iturkale[794].

Tenía ideas izquierdistas y estaba afiliado a ANV cuando se dio el Golpe de Estado franquista[795]. Cuando se creó el Comité de Defensa de Deba en respuesta al golpe, se convertirá en miembro de confianza y lo nombraron mando de un grupo armado.

[793] DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

[794] AHPG-GPAH, 03596 kutxa, 0023 espedientea / AHPG-GPAH, caja 03596, expediente 0023.

[795] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

[796] AIRMN, 3659-40 sumarisimo arrunta / AIRMN, 3659-40 sumarísimo simple.

[797] EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoian, 2004 / EGAÑA I. (Dir.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

[798] AIRMN, 3659/40 sumarisimo arrunta. / AIRMN, 3659/40 sumarísimo simple.

[799] AHPG-GPAH, 03596 kutxa, 0023 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 03596, expediente 0023.

Así, cumplirá diferentes funciones por orden del Comité, entre ellas realizar confiscaciones y precintar las radios municipales de los derechistas[796]. Esta última acción se llevó a cabo para que los derechistas del pueblo no pudieran recibir mensajes del bando franquista.

Cuando Deba quedó en manos de los sublevados Juan pasó a Bizkaia y allí se alistó en el batallón Milicias PNV Bizkaia[797]. El siguiente dato que tenemos sobre Juan es de 1940 cuando el 14 de septiembre lo trasladan de la prisión de Valdenoceda de Burgos a la Prisión Provincial de Donostia, dejándolo a disposición del auditor de guerra de Bilbo. Tal y como podemos ver en el documento de liquidación de su condena, lo que sabemos es que oficialmente su periodo de prisión comienza el 13 de julio de 1940.

Juan tenía 30 años de edad cuando lo dejaron el 25 de septiembre a disposición del Primer Juzgado Militar para celebrar un juicio en su contra. El proceso se inició el 7 de septiembre de 1940 y por las actividades realizadas en el Comité de Defensa de Deba lo acusaron de auxilio a la rebelión y lo condenaron a 12 años y un día de prisión, conmutable por 6 años de prisión. El auditor de guerra de Bilbo corroborará la sentencia el 24 de julio de 1942[798].

Seguirá en prisión y seguirá recibiendo las confirmaciones de su condena el 23 de octubre y el 15 de diciembre. Las condiciones de vida en las cárceles de la Guerra Civil y del Franquismo solían ser lamentables y era muy común que los presos enfermasen. En el caso de Juan, lo ingresaron en el hospital el 25 de diciembre para diagnosticarle asma bronquial con enfisema pulmonar. Estando enfermo pedirá al juzgado que le dejen en libertad y ante la negativa de este pedirá que lo lleven al hospital. No recibirá respuesta alguna hasta que el 18 de julio de 1941 recuperó su libertad, bajo régimen de prisión atenuada. Valiéndose de ello regresa a Deba donde seguirá viviendo en adelante.

Tal como se ha mencionado anteriormente, el auditor de guerra de Bilbo ratificará su condena donde se especificaba que terminaría de cumplirla el 13 de julio de 1946. Al hilo de esto el 19 de noviembre de 1942 pedirá informes acerca de Juan a las autoridades de Deba por si tienen algo que alegar en contra de una posible libertad condicional. Contestará a esto el puesto de la Guardia Civil de Deba el 5 de diciembre posicionándose a favor de la libertad condicional pero con la condición de que sea desterrado a una distancia mínima de 250 km. El Ayuntamiento en un principio no contestará.

El 1 de enero de 1943 la Junta Disciplinaria de la Prisión examinará el expediente de Juan y propondrá concederle la libertad condicional por buena conducta, proposición que se ratificará el 2 de febrero y en la que le concedieron la libertad condicional con destierro. Pero el 25 de diciembre de 1942 había fallecido a la edad de 32 años[799], seguramente a consecuencia de la enfermedad contraída debido a las duras condiciones de vida de la prisión.

### IRIONDO IRIONDO, JULIAN

Julian Iriondo Iriondo Bilbon epaitua izan zen, gerra kontseilu batean, 1938ko abuztuaren 19an. Bertan, bere pertsonaren gainean zeuden kausak behin behinean artxibatzea erabaki zuen epaitegiak. Hala ere, auditoreak, Julian jauna Langileen Batailoi batera destinatzea erabaki zuen, nahiz eta sententzian esaldi hau zirriborratua egon[800].

Julián Iriondo Iriondo fue juzgado en Bilbo, en consejo de guerra el 19 de agosto de 1938. En él deciden archivar provisionalmente las causas que hay contra su persona. Aun así, el auditor decide destinar a Julián a un Batallón de Trabajadores, a pesar de que en la sentencia esta última frase se encuentre anulada[800].

### IRIONDO IRIONDO, MANUEL

Deban jaio eta herri berean bizi zen nekazaria zen, Iturkale kaleko 18. zenbakian. 45 urte zituen eta Matilde Mendizabalekin ezkondua zegoen, bost seme alaba zituztelarik[801]. Ideia abertzaleak zituen eta nahiz eta ez egon alderdi batera afiliatua, 1936ko hauteskundeetan propaganda lanak burutu eta hauteskunde-agente gisa jardun zuen. Altxamendu frankista eman zenean, Defentsa Komitearekin kolaboratu zuen, hornidura lanetan[802]. Altxatuen tropak herrira iristear zeudela, Bizkaira joan zen. Ez da zehazten noiz egin zuten preso, baina Donostian epaitua izan zen, 1940ko urtarrilak 7an, non gerra kontseiluak bere aurkako kausa artxibatzea erabaki zuen. Bilboko Gerra Auditoriak erabakia berretsi zuen urtarrilaren 27an eta honi esker behin betiko askatasuna berreskuratu zuen Manuelek[803] Hala ere, urte bereko irailaren 7an, Gobernadore zibilaren aginduz atxilotua izan zen. Inolako kausa edo prozesurik ireki gabe aske utzi zuten irailaren 26an[804]. Horrelakoetan, autoritate garrantzitsuren baten bisitagatik burutzen ziren atxiloketak eta datak kontuan izanda, pentsa genezake Donostiako estropadak izanda tartean, Franco Donostiara joango zela bisitan eta hori izan zitekeen atxiloketaren kausa. Gerra kontseiluaz gain, ondasunak konfiskatu zizkioten eta Erantzunkizun Politikoen Tribunalak isun ekonomiko bat ezarri zion.

Manuel era un agricultor que nació y vivió en Deba, en el número 18 de la calle Iturkale. Tenía 45 años de edad, estaba casado con Matilde Mendizabal y tenían cinco hijos[801]. Tenía ideas nacionalistas y a pesar de no estar afiliado a ningún partido, en las elecciones de 1936 estuvo haciendo propaganda y ejerciendo de agente electoral. Cuando se dio el alzamiento fran-

800 AIRMN, 12838/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 12838/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.
801 AHPG-GPAH, 02846 kutxa, 0076 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02846, expediente 0076.
802 TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS,Lb.2,N.675. / TRRPN, ES/NA/AGN/F363/TRP_SENTENCIAS, Lb.2, N.675.
803 AIRMN, 14865/40 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, 14865/40 sumarísimo de urgencia.
804 AHPG-GPAH, 02846 kutxa, 0076 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02846, expediente 0076.



**Manuel Iriondo "Zesterokua", 1930 hamarkadako argazkia.** (Deva ayer 260 fotografias liburutik, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegia, GFA). / **Manuel Iriondo "Zesterokua" en una fotografía de la década de 1930.** (Del libro Deva ayer 260 fotografías, biblioteca del Koldo Mitxelena, DFG).

quista colaboró con los Comités de Defensa trabajando en el abastecimiento[802]. Cuando las tropas estaban a punto de llegar al pueblo, se fue a Bizkaia. No se especifica cuándo lo detuvieron, pero fue juzgado el 7 de enero de 1940 en Donostia, juicio en el que el Consejo de Guerra decidirá archivar la causa en su contra. El auditor de guerra de Bilbo ratificará la decisión el 27 de enero y Manuel recuperará la libertad definitiva[803]. Pero el 7 de septiembre del mismo año vuelve a ser detenido por orden del Gobernador Civil. El 26 de septiembre lo dejaron de nuevo en libertad sin abrirle ninguna causa ni proceso[804]. En casos así, las detenciones se producían por la visita de alguna autoridad importante, y teniendo en cuenta las fechas, podemos pensar que Franco iría a Donostia de visita aprovechando las regatas, y que esa puede ser la razón de la detención. También le confiscaron todos sus bienes.

### IRIONDO IRIONDO, RAMON

Ramonen inguruan ditugun datuak murritzak dira, 1937ko abenduaren 11n, Donostiako espetxeko agintaritzak ikerketa bat burutu zuen, jakiteko kartzela horretara eraman ziren 22 presoren lekualdatzearen zergatiaz, tartean Ramon aurkitzen zelarik. Hauek, Medina de Rioseco (Valladolid) kontzentrazio esparrutik zetozen. Espetxeko zuzendaritzak, guztiek bat izan ezik, diligentziak irekita zituztela argudiatuz, preso mantendu zituen[805]. Diligentzia hauek, gerra kontseilu batean amaitu ziren, 1938. urtean, non jada Ramon espetxealdi arinduan aurkitzen zen. Bertan, kausa artxibatzea erabaki zen eta epaia Bilboko Gerra Auditoreak berretsi hostean, 1940ko urtarrilaren 27an, Ramonek behin betiko askatasuna lortu zuen[806].

Los datos que tenemos sobre Ramón son muy escasos. El 11 de diciembre de 1937 la Autoridad de la Prisión de Donostia llevó a cabo una investigación para esclarecer la razón acerca del traslado de 22 presos, Ramón entre ellos. Estos venían del Campo de Concentración de Medina de Rioseco (Valladolid). La dirección de la prisión, argumentando que todos, salvo uno,

805 AIRMN, 1644 aurretiko eginbideak. / AIRMN, 1644 diligencias previas.
806 AIRMN, 14865 urgentziazko kausa sumarisimoa. / AIRMN, 14865 causa sumarísima de urgencia.

tenían abiertas diligencias, los mantenía presos[805]. Las diligencias acabaron en un consejo de guerra en 1938, pero para entonces Ramón ya se encontraba en prisión atenuada. Se decidirá archivar la causa y el auditor de guerra de Bilbo lo ratificará, recuperando el 27 de enero de 1940 la libertad[806].

**IZAGUIRRE MOCHOVE, RAMON**

Deban jaio bazen ere, Sestaon bizi zen Ramon, txantiloigile gisa lan egiten zuelarik inguruko fundizioetan. Doloresekin ezkondua zegoen, Pi i Margall kaleko 4. zenbakian[807]. UGT sindikatuko afiliatua zen eta Asociacion de Maestros Metalurgicos de Vizvaya-ko lehendakaria ere[808]. Altxamendua eman zenean, Errepublikaren alde eta honen gerra esfortzuan laguntzeko diru funtsak lortzen jardun zuen. Diru hau, miliziarren soldata eta materialak ordaindu, gerrak sortutako umezurtzen laguntzarako edota *Komsomol* untziarentzat izan ziren. Azken hau, frankisten itsas armadako *Canarias* gurutzontziak ondoratutako SESBko ontzi bat zen, Errepublikarentzat gerra materiala zeramana. Errepublikak, beste ontzi bat lortzeko finantzaketa kanpaina bat burutu zuen, postal, zigilu… salduz, beraz Ramon hau saltzeaz arduratu zen bere esparruan.

1937ko abuztuaren 13an, Bilbon, gerra kontseilu bat burutu zuten tribunal frankistek Ramon eta beste sei pertsonen aurka. Bertan, goian azaldutako ekintzak burutzeagatik matxinada militarra egotzi zioten, 30 urteko espetxealdira kondenatuz. Datak kontuan izaten baditugu, pentsa genezake Bilbo hiria frankisten esku erori eta gutxira egin zutela preso frankistek, epaiketa bera Santanderreko hiria erori edota Santoñako ituna sinatu aurretik burutzen baita.

Sententzia irmoa egin ostean, Ezkabako gotorlekura eraman zuten azaroak 17an. Bere inguruan dugun hurrengo datua, Jefatura Servicio Nacional de Prisionesen esku geratzen zela da ihes egite bategatik. Ezkabako ihesa, 1938ko maiatzak 22an eman zen, non 800 preso inguruk ihes egitea lortu zuten. Soilik bi pertsonak lortu zuten Pirinioak zeharkatzea, gainontzeko guztiak atxilotu egin zituzten berriro. Horietatik 207 ez ziren espetxera itzuli, lekuan bertan hil baitzituzten eta beste 20 berriz epaituak eta fusilatuak izan ziren. Ramon, ihesaldiagatik epaitua eta kondenatua izan zen.

1940ko ekainaren 22an espetxeratze arindua eta askatasuna lortu zuen gerra garaiko karguengandik, baina ihesaldiagatik 17 urte 4 hilabete eta egun bateko kondena zuen oraindik[809]. Hala ere, bi hilabete beranduago, abuztuak 28an, espetxealdi arindua lortu zuen. Ezkaban, 2488 zenbakia eraman zuen[810].




**Komsomol untzi berria lortzeko kanpainarako zigilua.** (Euskal Memoria). / **Sello para la campaña para conseguir el nuevo barco Komsomol.** (Euskal Memoria).

[807] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[808] CDMH, sig. DNSD-SECRETARIA,FICHERO,17,E0011571 eta E0011570.
[809] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[810] SIERRA F. ETA ALFORJA I., Fuerte de San Cristobal, 1938: La gran fuga de las cárceles franquistas, Pamiela, Iruñea, 2006.

Nacido en Deba, vivía en Sestao y trabajaba de modelista en las fundiciones cercanas. Vivía junto a su esposa Dolores en el número 4 de la calle Pi i Margall[807]. Estaba afiliado al sindicato UGT y era el presidente de la Asociación de Maestros Metalúrgicos de Vizcaya[808]. Se dedicó a recaudar fondos para la República y para ayudar en el esfuerzo que debía hacer en la guerra. Este dinero se destinó a pagar el sueldo de los milicianos y materiales, ayudar a los huérfanos provocados por la guerra o para el barco Komsomol. Ese barco era de la URSS y traía material de guerra para la República, pero lo hundió el acorazado Canarias del ejército franquista. La República comenzó una nueva campaña de financiación para conseguir otro barco vendiendo postales, sellos, etc. Ramón se encargó de la venta de estos productos.

El 13 de agosto de 1937 los tribunales franquistas celebraron un consejo de guerra en Bilbo contra Ramón y otras seis personas. Le imputaron las acciones antes mencionadas y le acusaron de rebelión militar, condenándolo a 30 años de prisión. Si tenemos en cuenta las fechas podemos pensar que lo detuvieron a los pocos días de caer Bilbo, puesto que el juicio se celebró antes de la caída de Santander y de firmar el pacto de Santoña.

Tras hacer firme la sentencia lo trasladaron al fuerte de Ezkaba el 17 de noviembre. El siguiente dato que tenemos acerca de él es que queda a disposición de la Jefatura del Servicio Nacional de Prisiones por una fuga. La fuga de Ezkaba ocurrió el 22 de mayo de 1938 y escaparon alrededor de 800 presos. Tan solo dos personas consiguieron cruzar los Pirineos, todos los demás fueron detenidos nuevamente, 207 no volvieron a prisión porque los mataron en el momento y otros 20 fueron juzgados y fusilados. Ramón fue juzgado y condenado por la fuga.

El 22 de junio de 1940 consigue prisión atenuada y la libertad por los cargos imputados durante la guerra, pero todavía mantenía la condena de 17 años, 4 meses y un día de prisión por la fuga[809]. De todas formas, el 28 de agosto, dos meses más tarde, le concedieron prisión atenuada. En Ezkaba llevaba el número 2488[810].

## JOSUE BLANCO, FRANCISCO

39 urte zituen (1937an) eta Bartzelonan jaio bazen ere gerra hasi zen unean Euskal Herrian bizi zen. Hala ere, bereganako lehen zalantzak bere bizilekuaren inguruan agertzen dira, horrela Santanderren eginiko 10-37 sumariodun gerra kontseiluan, Eibarren bizi zela agertzen da, baina, bere aurka Gipuzkoan burututako 3482 sumariodun gerra kontseiluan Debakoa dela agertzen da eta herri honetako Agrupación Socialista de Deva talde politikoko afiliatu gisa ere agertzen da[811]. Beraz, pentsa genezake Debako sozialisten taldeko kide izanda, Deban biziko zela, gainera, Debako Defentsa Komiteko kide izan zen Altxamenduaren ostean.


COMITÉ CENTRAL SOCIALISTA DE E

SECCIÓN CONTROL E INFORMACIÓ

El afiliado Francisco Josué Blanco pertenece a la Agrupación Socialista de Deva, provincia de Guipúzcoa ocupa el cargo de vocal en la ...

tiene además cargos directivos en ...

pertenece a las organizaciones de Socorro, Cooperativas, etc., Socorro Rojo Internacional

se halla encuadrado en el Batallón, ostentando el cargo o mando de Comandante-Intendente, Btl. Jaurés-8º del Partido y U.G. de T., fué designado, para las representaciones que ostenta, por la Agrupación de Deva y Comisión (1) de Guerra del Partido ... Representación política que tiene: Consejero, Gestor, Concejal, Director, etc., ...

Reside habitualmente en Deva

Observaciones ...

Bilbao, ... de ... de 193...

El afiliado,

104/4

26

(1) Anótese qué Agrupación o Comité le nombró para los cargos que ostenta.

**Euskadiko Sozialisten Komite Zentralak Francisco Josue Blancoren baitan eginiko fitxa.** (EAH, sig. Caja 104 Nº3 a 5). / **Ficha realizada por el Comité Central de los Socialistas de Euskadi sobre Francisco Josué Blanco.** (AHE, sig. Caja 104 Nº3 a 5).

Franciscoren inguruan dakiguna, bere aurka burutu zuten gerra kontseiluetatik lortutako datuak dira, non 1937ko abuztuaren 27an preso aurkitzen zela aipatzen zen, Santoñan. Horrela, preso zegoela ikerketa-deklarazio bat burutu zuten bere aurka, irailaren 5ean eta bertan honakoa deklaratu zuen, 1935an Frantziako Estatuan 12 urte bizitzen jardun eta gero, Eibarrera etorri zela bizitzera, non grabatzaile lanetan hasi zen, industria txiki bat eratuz, Orbea arma fabrikaren babespean. Altxamendu frankistaren ostean eta Gerra Zibilaren lehen egunetan, Frantziara ihes egitea pentsatu zuela deklaratu zuen, bertan aurkitzen baitzen bere emaztea, nazionalitate frantsesa zuena. Hala ere, azkenean Euskal Herrian geratu zen eta UGTk Bilbon zuen egoitzan hasi zen lan egiten, hasiera batean bulegari gisa. Ondoren, intendente bilakatu zen eta baita prestatzaile gisa jardun ere (habilitado jartzen du). Bertan soldata kobratzen zuen sindikatutik bertatik, lehen lanagatik 9 pta zirelarik egunean, 625 bigarrenagatik eta azkenagatik 500 pezeta, azken hauek hilero. Bilbo hirira tropa frankistak hurbiltzen hasi ziren momentuan, Santanderrera joatea erabaki zuen eta hiri honetara gerra heltzean Santoñan bere burua entregatu zuen[812].

Debako Talde Sozialistaren dokumentazioari esker, badakigu Defentsa Komiteko kide nabarmenetako bat izan zela. Horrez gain, gerra garaian, Euskadiko Sozialisten Komite Zentraleko kide izan zen, Kontrol eta Informazio atalekoa. Bertan, agertzen da Debako Talde Sozialistako kide zela eta bertan batzordekide kargua zuela. Horrez gain, Socorro Rojo Internacional antolakundeko kide zen ere, 1922ko Internazional Komunistan eratua, honen helburua, preso zeuden militante komunistei laguntza eta babesa eskaintzea zen. Gerra garaian, komandante-intendente kargua izan zuen Jean Jaures Batailoian (UGT). Kargu hori, Debako Talde Sozialistak eta Alderdiaren Gerra Komisioaren gomendioz burutu zuelarik[813].

[811] EAH, sig. Caja 104 Nº3 a 5. / AHE, sig. Caja 104 Nº3 a 5.

[812] AIRMN, 10-37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 10-37 procedimiento sumarísimo de urgencia.

[813] EAH, sig. Caja 104 Nº3 a 5. / AHE, sig. Caja 104 Nº3 a 5.

Santoñan bertan egin zuten Francisco eta beste 24ren aurkako gerra kontseilua, 1937ko irailaren 7an eta bizi arteko kartzela zigorra ezarri zioten bertan. Lau egun beranduago, sententzia hau berretsi egin zuen Gerra Auditoriak. Behin sententzia irmoa izanik, kondenaren denboraren likidazioa burutu zioten eta bertan zehazten zen biziarteko espetxe zigorraren iraupena 30 urte-koa izango zela[814].

Donostiako espetxera eraman zuten preso eta bertan egon zen, 1938ko uztailaren 25an Puerto Santa Mariako espetxera lekualdatu zuten arte. Ditugun datuen arabera, bertan bete zuen zigorra, 1940ko abuztuaren 23an espetxealdi arindua eman zioten arte. Hala ere, ez zen denbora asko aske egon, izan ere berriro espetxeratu eta 1941eko uztailak 9an Kadizko espetxetik Donostiakora lekualdatzen baitute. Espetxean berriro egotearen arrazoia eta baita lekualdatze honena, hiri honetan 1939ko ot-sailaren 8tik bere aurkako prozesu bat irekita zegoela zen.

Donostiako espetxe zaintzak, Debako udalari jakinarazpen bat bidali zion 1942ko martxoak 7an, non Franciscok baldint-zapeko askatasuna lortzearen inguruko iritzia eskatu zion. Honek erantzun zion Errepublikaren alde izaniko jarreragatik, bere askatasunak herrian “alarma soziala” sor zezakeela eta honen aurka zegoela, eta berau emanez gero, 250 kilometroko deserri-ratzearekin izatea eskatzen zuen[815].

Donostian, 1942ko abenduaren 15an egingo dioten gerra kontseiluan, bere herrikide Fermin Echevarria Galdosekin batera epaitu zuten. Gerra garaiko Debako agintarien artean pisu handia zuen pertsona bezala definitu zuten, finantzen komisario kar-gua izan zuelarik argudiatuz. Horrela, Rosario Tapia, Areizagaren alarguna zena eta Jose Joaquin Aztiria jaunari diru eskaerak egitea egotzi zioten (azken honek 3000ptako txekea igorri ziola adierazi zuen epaitegiak). Horrez gain, hainbat eskuindarren atxiloketan parte hartzeaz ere kargu hartu zioten. Tartean Jose Larruzea eta bere seme Carlos eta Javier. Fiskalak matxinada militarrarekin bat egitea egotzi zion hau guztiagatik.

Defentsak argudiatu zuen, Santanderren jada epaitua izan zela delitu horregatik eta epaileak, hau kontuan izanik eta gainera inputatzen zitzaizkion delituak ez zeudela era egokian justifikatuak argudiatuz bere aurkako kasua artxibatzea erabaki zuen. Momentu honetan, jada ez daukagu daturik Joseren egoeraren inguruan, ez baitakigu espetxealdi arindua berreskuratu zuen edota espetxean jarraitu zuen[816].

Dakiguna da, Madrilen, 1943ko apirilaren 13an, bere kondenaren kommutazioa proposatu zuela Zigorren Azterketarako Ko-misio Zentralak, non 4 urtetako kartzela zigorra ezarri zioten. Kondenaren likidazio berri bat burutzen zaio, eta kalkuluak eginez gero, ohartuko gara urte bat eta zortzi hilabete gehiago bete zituela Franciscok bere kondena berria kontuan izanez gero. Hala ere, bere aurkako kondenaren likidazioa hau ez zen 1945ko urtarrilaren 19a arte burutuko.

Momentu honetan, Donostiako eta Kadizko espetxeen artean notifikazioak bidaltzen hasi ziren, espetxeratuaren likida-zioaren harira. Donostiakoak Puerto Santa Mariakoari Francisco aske uzteko mezua bidali zion, urtarrilaren 23an eta honek erantzun zion martxoak 7an, 1941ean Donostiara eraman ostean ez zela berriro espetxe horretara itzuli. Puntu honetan pentsa daiteke Donostiko epaiketaren ostean, uneren batean aske geratu zela Francisco, izan ere, Jose Vera Pacha Eibarko Guardia Zibilaren arabera, senitartekoek Donostiako espetxea finkatu zuten Francisco preso egon zen azken espetxe bezala[817].

Tenía 39 años de edad (1937) y aunque nació en Barcelona cuando comienza la guerra se encuentra viviendo en Euskal Herria. Con todo, las primeras dudas aparecen ya con su lugar de residencia puesto que en el consejo de guerra celebrado en Santander con sumario 10-37, se menciona que vivía en Eibar, pero en el consejo de guerra con sumario 3482 celebrado en Gi-puzkoa se cita que vive en Deba y aparece afiliado al partido político Agrupación Socialista de Deva de este municipio[811]. Por lo tanto podemos pensar que si era miembro del partido socialista de Deba, lo lógico sería que viviera en Deba, teniendo en cuenta además que tras al alzamiento fue miembro del Comité de Defensa de Deba.

Lo que sabemos acerca de Francisco son los datos obtenidos a través de los Consejos de Guerra, en los que aparece que el 27 de agosto de 1937 es detenido en Santoña. Así, pusieron en marcha una declaración de investigación mientras está detenido y el 5 de septiembre declarará lo siguiente: que tras haber estado viviendo durante 12 años en el estado francés, en 1935 se viene a vivir a Eibar donde comenzará a trabajar de grabador formando una pequeña empresa bajo la protección de la fábrica de armas Orbea. Tras el alzamiento franquista y en los primeros días de la Guerra Civil piensa en huir a Francia ya que su esposa se encontraba allí al tener nacionalidad francesa. Aun así, finalmente decide quedarse en Euskal Herria y comienza a trabajar como primer oficinista en la sede que UGT tenía en Bilbo. Posteriormente pasó a ser intendente y habilitado. Cobraba un sueldo del propio sindicato, por el primer trabajo 9 pesetas al día, por el segundo trabajo 625 y por el último 500 pesetas. Cuando las tropas franquistas comienzan a acercarse a Bilbo, decide marcharse a Santander y cuando la guerra llega también a Santander, decide entregarse[812].

Gracias a la documentación del Partido Socialista de Deba, sabemos que fue uno de miembros más destacados del Comité de Defensa. Además, en época de guerra, fue miembro del Comité Central de los Socialistas de Euskadi, de la sección Control e Información. Aparece citado como miembro del Partido Socialista de Deba con el cargo de Juntero. También era miembro de la asociación Socorro Rojo Internacional, creado en 1922 en la Internacional Comunista, siendo su objetivo ayudar y proteger a los militantes comunistas que se encontraban presos. Durante la guerra ostentó el cargo de Comandante-Intendente en el

814 AIRMN, 10/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 10/37 procedimiento sumarísimo de urgencia.
815 DUA, signatura Gabe. / AMD, sin signatura.
816 AIRMN, 3482 sumarisimo arrunta. / AIRMN, 3482 sumarísimo simple.
817 AIRMN, 10/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 10/37 procedimiento sumarísimo de urgencia.

batallón Jean Jaures (UGT). Cumplió con el cargo por recomendación del Partido Socialista de Deba y la Comisión de Guerra del Partido[813].

Se celebrará en Santoña el consejo de guerra contra Francisco y otras 24 personas el 7 de septiembre de 1937 y lo condenaron a cadena perpetua. Cuatro días más tarde la Auditoría de Guerra ratificará la condena. Una vez que la sentencia fue firme ejecutaron la liquidación del tiempo de condena y en ella se especificó que la duración sería de 30 años[814].

Ingresará en la prisión de Donostia y estará allí hasta que el 25 de julio de 1938 es trasladado a la prisión de Puerto de Santa María para cumplir condena. Según los datos que disponemos, seguirá cumpliendo condena hasta que el 23 de agosto de 1940 le conceden la prisión atenuada. De todas formas, en la documentación del consejo de guerra se menciona que vuelve a estar en prisión y que el 9 de julio de 1941 lo trasladan de esta prisión de Cádiz a la de Donostia. La razón de estar de nuevo encarcelado y del traslado a Donostia radica en un proceso abierto contra su persona en esta ciudad desde el 8 de agosto de 1938.

La Vigilancia de Prisiones de Donostia le enviará una notificación al ayuntamiento de Deba el 7 de marzo de 1942 donde les consultará acerca de la posibilidad de concederle la libertad condicional. En consistorio contestará que por la actitud mantenida a favor de la República, su libertad podría generar "alarma social" en el municipio, por lo que se posicionaban en contra, y en caso de concedérsela exige un destierro de al menos 250 km[815].

En el consejo de guerra que celebraron en su contra el 15 de diciembre de 1942, lo juzgaron junto a su paisano Fermín Echevarría Galdós. Lo definen como una persona con mucho peso entre las autoridades de Deba durante la guerra, ostentando el cargo de Comisario de Finanzas. Lo acusaron de pedir dinero a Rosario Tapia, viuda de Areizaga, y a José Joaquín Astilla (este último le envió un cheque de 3000 pesetas). Aparte de eso, lo acusaron de tomar parte en las detenciones de varios derechistas, entre ellos José Larruzea y sus hijos Carlos y Javier. El fiscal lo acusará de adhesión a la rebelión militar.

La defensa argumentará que ya fue juzgado en Santander por el mismo delito, por lo que el juez, tomando esto en consideración y añadiendo que las acciones de las que se le acusó no están lo suficientemente justificadas, decide archivar el caso contra su causa. A partir de ahí no disponemos de datos que nos digan si recuperó la prisión atenuada o continuó en prisión[816].

Lo que sí sabemos es que el 13 de abril de 1943 la Comisión Central para la Revisión de Condenas propondrá la conmutación de su pena, rebajándosela a 4 años de prisión. Se le aplica una nueva liquidación de condena, y tras hacer cálculos, se puede comprobar que cumplió un año y ocho meses más de condena. De todas formas, esta liquidación de condena no se cumplirá hasta el 19 de enero de 1945, 3 años y 5 meses más tarde de cuando debería quedar en libertad. No es el primer caso en el que en la revisión de condena pasa más tiempo del que debiera en prisión, pero pasan casi dos años entre la conmutación y la liquidación.

En este momento comienzan a enviarse notificaciones entre las prisiones de Cádiz y Donostia, al hilo de la liquidación del preso. La prisión de Donostia el 23 de enero envía a Puerto de Santa María un mensaje pidiendo que lo dejen en libertad, a lo que esta contesta el 7 de marzo que tras haber sido trasladado a Donostia en 1941 no ha vuelto a dicha prisión de Cádiz y que en otro documento se menciona que consiguió la libertad condicional en 1940. No queda claro si Francisco seguía en prisión o estaba en libertad condicional, ya que ni los propios mandos de las prisiones en las que había estado lo sabían. Con todo esto podemos pensar que seguía preso en la prisión de Donostia, ya que cuando piden información sobre él a la Guardia Civil de Eibar, su superior José Vera Pacha comunica que no vive en Eibar y que no sabe dónde se encuentra. Según sus familiares la última prisión en la que estuvo fue la de Donostia, ya que aparece en un documento firmado el 15 de enero de 1945[817].

## LAMARIANO LAMARIANO, FELIX

Felix Antzuolan jaio zen eta Donato eta Monica ziren bere gurasoak. Aita, Errepublika garaian herriko alkatea izan zen EAJ alderditik eta altxamendua eman zenean, herrian sortu zen Defentsa Komitearen lehendakariorde ere bai. Hau guztia dela eta, irailean altxatuen tropen aurrerakada zela eta, herritik ihes egin behar izan zuen familia guztiak. Bermeon bizi ostean hasiera batean, Bilbora joan ziren beranduago[818]. Bertan, bere anaia Juan bezala, Eusko Gudarostean engaiatu zen eta bere ardura gudari eta miliziano berriak errekrutatzea izan zen. Ondorioz, Iparraldeko Frontearen gainbeheraren ostean, altxatuen tropek kartzelaratu egin zuten eta gerra kontseilu batean epaitu zuten. Horrela, 1937ko azaroak 22an, 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten Felix, matxinadari laguntza ematearen delitua egotzita. Kondena betetzera Astorgako espetxera eraman zuten (Asturias). Hortik, 1940ko abuztuak 18an Santa Barbarako espetxera lekualdatu zuten (Alacant) Espetxe honetan aurkitzen zela, kondenaren kommutatzio bat jaso zuen, 6 urte eta egun bateako espetxealdiagatik. Honi esker, 1941ko abuztuak 31an baldintzapeko askatasunarekin aske geratzea lortu zuen, behin betiko askatasuna 1942ko maiatzak 19an lortuz[819].

Nació en Antzuola y sus padres eran Donato y Mónica. Su padre fue alcalde del pueblo durante la República por parte del PNV y, cuando se dio el alzamiento, también vicepresidente del Comité de Defensa. Por todo ello, debido al avance de las tropas sublevadas en septiembre, tuvo que huir con toda la familia. Al principio vivieron en Bermeo pero luego fueron a Bilbo[818]. Una vez allí, se alistó en el Ejército Vasco junto con su hermano Juan. Su cometido era reclutar nuevos milicianos y gudaris. Tras el declive del Frente Norte lo encarcelaron los sublevados y fue juzgado en un consejo de guerra. El 22 de noviembre de 1937 lo condenaron a 12 años y un día de prisión imputándole el delito de auxilio a la rebelión. Empezó a cumplir la condena en la cárcel de Astorga

[818] RAMIREZ DE OCARIZ I., "Juanito Lamariano hil da", http://irinmodo.blogspot.com/2013/01/-tik lortua. / RAMIREZ DE OCARIZ I., "Juanito Lamariano hil da", conseguido de la página http://irinmodo.blogspot.com/2013/01/.

[819] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

(Asturias). El 18 de agosto de 1940 fue trasladado a la prisión de Santa Bárbara (Alicante). Estando en esa prisión le conmutaron la pena por otra de 6 años y un día. Gracias a eso, el 31 de agosto de 1941, quedó libre en libertad condicional. Logró la libertad definitiva el 19 de mayo de 1942[819].

## LARRAÑAGA ELORZA, ANTONIO

Deban jaio bazen ere, Mutrikun bizi zen Antonio, Arranbide baserrian, Aizpilgoeta auzoan. Ezkongabea zen eta moldatzaile lanetan jarduten zuen.

1939ko abenduaren 4an, Debako Guardia Zibilak atxilotu egin zuen beste hiru pertsonekin batera eta Donostian espetxeratua izan zen, hiriko Hirugarren Epaitegi Militarraren aginduz. Epaitegi honek gerra kontseilu batean prozesatu zuen Antonio, baina bertan inputatzen zaizkion ekintzek eragin penalik ez zutela argudiatuta bere aurkako kausaren artxiboa eskatu zuen[820]. Bilboko behin behineko Gerra Auditorea ados egon zen erabakiarekin, baina 1940ko martxoaren 5an harturiko erabaki honetan aske utzi beharrean, langileen batailoi batera bidali zuen[821].

Erabaki honen ondorioz, Donostian preso jarraitu zuen eta apirilaren 20an Guardia Zibilen esku utzi zuten, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura eramateko, bertan bere kondena bete zezan[822].


5

Detenidos:
1-ANTONIO LARRAÑAGA ELORZA.
2-JESUS RUIZ-SAN MARTIN, y
3-ANTONIO PAICERIAS MARCOS.
-------

Sr. Jefe de Servicios:

Permitirá la salida del Establecimiento, previa su identificación, al interno del mismo a los TRES detenidos que se anotan al margen, entregados a la Guardia Civil para su porducción al Campo de Concentración de Miranda.

San Sebastian 20 de Abril de 1940.

El Director,

Imp. T. P. A.—Mod. 150 bis.

PRISIÓN PROVINCIAL DE SAN SEBASTIAN * DIRECCION *

Fórmula dactiloscópica

Cúmplase la precedente orden de la Dirección por el Guardian de la entrada principal.

El Oficial del Centro.

Cumplimentada a las ____ horas del día de la fecha.

El Guardian de la entrada principal.

Alejandro Apestegui

Antonio Larrañaga Elorza, beste hiru presorekin batera, Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrura bidaltzea agintzen duen dokumentua. (AHPG-GPAH, 02846 kutxa, 0103 espedientea). / Documento que ordena el traslado de Antonio Larrañaga, junto a otros tres presos, al campo de concentración de Miranda de Ebro. (AHPG-GPAH, caja 02846, expediente 0103).

Aunque nació en Deba vivía en Mutriku, en el caserío Arranbide del barrio Aizpilgoeta. Era soltero y trabajaba de moldeador.

El 4 de diciembre de 1939 fue detenido por la Guardia Civil de Deba junto a otras tres personas e ingresará en la prisión de Donostia por orden del Tercer Juzgado Militar de la ciudad. Será juzgado en consejo de guerra pero argumentando que sus acciones no tienen consecuencias penales, se pedirá archivar la causa en su contra[820]. El auditor de guerra provisional de Bilbo estará de acuerdo con la decisión, pero en esta decisión tomada el 5 de marzo de 1940 en lugar de dejarlo en libertad, lo enviará a un batallón de trabajadores[821].

A consecuencia de esta decisión seguirá preso en Donostia hasta que el 20 de abril lo dejan en manos de la Guardia Civil para ser trasladado al Campo de Concentración de Miranda de Ebro para cumplir condena[822].

## LIZARRAGA ARANA, ANGEL

Angel Sabino Arana fundazioak duen datu-basean debar bezala agertzen da[823], nahiz eta bere aurka irekitako prozesu judizialean Donostiako Prim kalean bizi zela aipatzen den. Beraz pentsa genezake Deban jaio zela baina Gerra Zibilaren osteko lehen urteetan behintzat Donostian bizi zela.

Horrela, bera eta beste 225 pertsona epaituak izan ziren, 1939ko urriaren 1ean Aita Frantzizkanoen Elizan, Donostian eginiko elizkizun bat zela eta. Elizkizun hau, Gerra Zibilean hildako pertsona abertzaleen omenez egin zen. Zehazkiago, akusazioak Paulina Alustizak bere senarraren omenez egindako elizkizuna izan zela argudiatu zuen. Elizkizuna, lekukoen arabera, solemnitate guztiarekin egin zen. Elizkizun horretara joatearen ondorioz, Angel Donostiako Zapatari espetxean preso hartu zuten bere deklarazioa jaso ostean.

Ez zen inolako beste ekintzarik egin zenik frogatu eta hori dela eta gurtzearekin loturiko ekintzak ezin zirela doktrina penalaren baitan matxinadara bultzatzeko delitu bezala ikusi ebatzi zuen Auditoreak. Hori dela eta, akusatu guztien aurkako ekintzak artxibatzea proposatu zuen, behin-behineko espetxealdiak ezabatuz.

Hala ere, Auditorearen aginduz, gobernuaren ordenaz arduratzen ziren entitateei informazioa pasatu zitzaien, non ideologia anti-espainiarra erakutsi zuten pertsonen aurka eta ekintza lotsagabeak kontsideratzen zituenak saihesteko jardunbideak irekitzea proposatzen zuen. Eredu gisa balio zezakeen zigor bat ezar zitzaien eskatu zuen, joera hau zuzendua izan zedin. Horrela, Angel eta beste hainbat pertsonaren ideologia eta jarreraren inguruko datuak bidali zitzaizkion gobernadore zibilari.

---

820 AHPG-GPAH, 02846 kutxa, 0103 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02846, expediente 0103.
821 AIRMN, 3041/40 urgentziazko sumarisimoa. / AIRMN, 3041/40 sumarísimo de urgencia.
822 AHPG-GPAH, 02846 kutxa, 0103 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 02846, expediente 0103.
823 Sabino Arana Fundazioko datu-basea. / Base de Datos de la Fundación Sabino Arana.

Elizkizuna aurrera eramateaz arduratu ziren frantziskotarren patua ez zen samurragoa izan, hauei ideia abertzaleekin bat egitearen akusaziopean eta honen baitan ekintza susmagarriak egiteagatik, beraien probintzietan jardun erlijiosoa egitea galaraztea eta Kantabriara lekualdatuak izatea proposatu zion auditoreak Frantziskotarren Ordenako buruei[824].

En las bases de datos que posee la Fundación Sabino Arana aparece como debarra[823], aunque en el proceso judicial abierto en su contra conste que vive en la calle Prim de Donostia. Podemos pensar, por lo tanto, que nació en Deba pero que en los años posteriores a la guerra vivió en Donostia.

Fue juzgado junto a otras 225 personas por causa de una ceremonia religiosa que se celebró en la Iglesia de los Padres Franciscanos de Donostia el 1 de octubre de 1939 en honor a las personas nacionalistas caídas durante la Guerra Civil. En concreto, la acusación defiende que la ceremonia religiosa fue un acto de homenaje de Paulina Alustiza hacia su marido. Según los testigos, la ceremonia se hizo con toda solemnidad. A consecuencia de asistir a esa ceremonia Ángel ingresó en la prisión Zapatari de Donostia tras recoger su declaración.

No se pudo probar que hubiese habido ninguna otra acción y por ello el auditor resuelve que los actos relacionados con la devoción no se pueden considerar dentro de la doctrina penal como delito de provocación a la rebelión. Es por ello que proponen archivar las acciones contra todos los acusados, eliminando todas las prisiones preventivas.

Aun así, por orden del auditor se pasó información a todas las entidades encargadas del orden del gobierno donde proponen abrir acciones contra las personas que han demostrado ideología antiespañola y para evitar las consideradas como acciones vergonzosas. Se les aplicó un castigo que valdría de muestra para corregir estas actitudes. Así, le enviaron al Gobernador Civil datos acerca de la ideología y la conducta de Ángel y de varias personas más.

El destino de los franciscanos que se encargaron de celebrar la ceremonia no fue más suave, ya que bajo la acusación de adherirse a las ideas nacionalistas y realizar acciones sospechosas, el auditor propuso a los mandatarios de la Orden de los Franciscanos que se les prohibiese realizar ceremonias religiosas en sus provincias y que fuesen trasladados a Cantabria[824].

## LIZARZABURU LASA, FRANCISCO

1911eko martxoak 6an jaio zen, Cruz kalean[825]. Ezkondua zegoen, Julia Echeverria Egañarekin eta seme bat zeukaten, Jose Maria. Franciscok, aroztegi batean egiten zuen lan eta UGT sindikatura afiliatua zegoen. Arlo politikoan, gazte sozialisten antolakundera, JSUra, afiliatua zegoen. Altxamendua eman ostean, Mola jeneral faxistak Gipuzkoaren aurka eginiko erasoaldia zela eta Bizkaiara ihes egin behar izan zuen, bertan Eusko Gudarostean engaiatu zelarik, 1936ko irailak 10ean[826]. Milizianoa izan zen, Karl Liebknecht batailoian[827]. Bilboren inguruko burnizko gerrikoaren gainbeheraren ostean, errepublikarrek desagertutzat joko dute 1937ko abuztuak 21ean Turtziozen[828]. Altxatuen aurka eta Errepublikaren defentsan armak hartzeagatik altxatuek preso hartuko zuten, izan ere 1938ko azaroak 17an Murgiako presoendako kontzentrazio esparrutik aske geratu zen[829]. Bere aurka, altxatuek gerra kontseilu bat burutu zuten, lehen aipamena, Bilbon emandako gerra kontseilu batean daukagu, 1937an, non bere kausa desglosatu egin zuten, beste batzuekin batera[830]. Baina bere aurkako frankisten errepresioa ez zen hor eten, horrela bere kausa Donostiara eraman zuten, non 11. zenbakidun epaitegiak epaitu zuen[831] 1940ko urtarrilaren 10ean. Momentu honetarako jada espetxealdi arinduan aurkitzen zen Deban. Bertan, gerra kontseiluak berak proposatuta, Franciscoren aurkako kasua artxibatu egin zen, inputatzen zitzaizkion ekintzek ez zutelako ondorio penalik. Hau dela eta, behin betiko askatasuna berreskuratu zuen urte bereko urtarrilaren 30ean.

Nació el 6 de marzo de 1911 en la calle Cruz de Deba[825]. Estaba casado con Julia Echeverria Egaña y tenían un hijo llamado José María. Francisco trabajaba en una carpintería y estaba afiliado al sindicato UGT. Políticamente estaba afiliado a la organización JSU. Tras el alzamiento, y la ofensiva que inició el general fascista Mola contra Gipuzkoa, tuvo que escapar hacia Bizkaia. Una vez allí, el 10 de septiembre de 1936[826], se alistó en el Ejército Vasco y fue miliciano en el batallón Karl Liebknecht[827]. Tras la caída del “Cinturón de Hierro” alrededor de Bilbo, los republicanos lo dan por desaparecido el 21 de agosto de 1937, en Turtzioz[828]. Fue apresado por los sublevados, por coger las armas en contra del alzamiento y en defensa de la República. Quedó en libertad del campo de concentración de Murgia el 17 de noviembre de 1938[829]. Los sublevados iniciaron un consejo de guerra celebrado en Bilbo en 1937 en el que desglosan su causa junto a la de otros[830]. Llevaron su causa a Donostia donde lo juzgará el Juzgado nº 11[831] el 10 de enero de 1940. Para entonces ya se encontraba en prisión atenuada y viviendo en Deba. En este mismo juicio el propio Consejo de Guerra propondrá archivar la causa en su contra por considerar que sus acciones no tenían consecuencias penales. El 30 de enero del mismo año recupera su libertad definitiva.

[824] AIRMN, 2435/39 sumarisimoa. / AIRMN, 2435/39 sumarísimo.

[825] DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.

[826] CDMH, sig. PSET 103.

[827] EGAÑA I. (Zuz.), 1936, Guerra civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoian, 2004. / EGAÑA I. (Dir.), 1936, Guerra Civil en Euskal Herria, Aralar liburuak, Andoain, 2004.

[828] CDMH, sig. PSET 103.

[829] CDMH, sig. Incorporados, 1608,1.

[830] AIRMN, 1807/37 Urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 1807/37 procedimiento sumarísimo de urgencia.

[831] AIRMN, 3113/40 Urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 3113/40 procedimiento sumarísimo de urgencia.

### LIZARZABURU EGAÑA, JOSE

Deban jaio zen Jose eta 55 urte (1940) zituen arotza zen. Eibarrera ezkondu zen bere emazte Salome Egaña Berasteguirekin, bi seme alaba izan zituztelarik. Isasi kalean bizi ziren, 11. zenbakiko 2. solairuko eskumako atean.

Altxamenduaren ostean izan zuen papera ezagutzen ez badugu ere, momenturen batean preso hartu zuten, eta "B" erako preso gisa identifikatu. Izan ere, bortxazko lanak burutzen jardun zuen SLB batean[832]. Langileen batailoietatik aske geratu eta Eibarrera itzuli zen, baina 1940ko abuztuaren 29an berriro espetxeratu zuten, aurrez Eibarko Ikerketa eta Zaintza Inspekzioak atxilotu eta gero, Auditorearen esku utziz. Irailaren 4an Epaitegi Militarraren esku utzi zuten eta prozesu sumarisimo arrunt bat ireki zioten. Hala ere, irailaren 20an bertan, aske utzi zuten, espetxealdi arinduarekin[833].

Bilboko Gerra Auditoriak kasua aztertu zuen, urte bereko abenduaren 11n. Bere aburuz, egozten zioten ekintzak ez zuten garrantzia penalik beraz prozedura behin behinean artxibatzea erabaki zuen, Josek behin betiko askatasuna berreskuratu zuelarik horrela[834].

José nació en Deba y era un carpintero de 55 años de edad (1940). Vivía junto a su mujer Salomé Egaña Berastegui y sus dos hijos en el piso 2º derecha del número 11 de la calle Isasi de Eibar.

Aunque no conocemos el papel que desempeñó tras el alzamiento, en algún momento fue detenido e identificado como preso tipo "B". De hecho, estuvo haciendo trabajos forzados en un BDST[832]. Lo encarcelaron el 29 de agosto de 1940 tras haber sido detenido por la Inspección de Investigación y Vigilancia de Eibar, dejándolo a disposición del auditor. El 4 de septiembre pasará a disposición del Juzgado Militar y le abrieron un proceso sumarísimo ordinario. El 20 de septiembre mismo lo dejaron en libertad, bajo prisión atenuada[833].

La Auditoría de Guerra de Bilbo examinará el caso el 11 de diciembre del mismo año. Según su opinión las acciones de las que se le acusó no tienen importancia penal, por lo que propone archivar provisionalmente el procedimiento, recuperando así su libertad definitiva[834].

### LOMBIDE SAN MARTIN, JOSE MARIA




**Jose Maria Lombide San Martinen gudari dokumentua.** (AIRMN, 1054-37 sumarisimoa). / **Documento de gudari de José María Lombide San Martin.** (AIRMN, sumarísimo 1054-37).

Bergaran jaio zen Jose Maria 1910ko otsailak 11n[835], baina Itziarren bizi zen, bertako mediku titularra baitzen[836] 27 urteko gaztea zen, 1937an, ideia abertzaleak zituen eta EAJ alderdira afiliatua zegoen. Horrez gain, Itziar bertako batzokiko zuzendaritzako kide zen ere.

Altxatuen estatu kolpe saiakeraren ostean, Debako Defentsa Komiteko partaide izan zen, non Itziarren komite honen ordezkaria izan zen. Horrela, frankisten aurkako erresistentzia antolatze aldera, arma eta ibilgailuen konfiskazioak aurrera eramaten lagundu zuen, baita ere sortzen hari ziren miliziak sustengatzeko beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak lortzen ere, horretarako txartelak igortzeaz arduratu zelarik. Itziarko parrokoa miliziano anarkista batzuek fusilatu eta gero, elizako giltzen ardura hartu zuen, bertako ondasunak gordetzea bere kargu hartuz.

Loiolan Eusko Gudarostea antolatzen hasi zenean eta bere kintoa engaiatzera deitu zutenean, Itziarko gazteak baserri batean bildu ziren eta bertan gudari bilakatzeko deiari kasu egitera animatu zituen. Gudari gisa, Itxarkundia batailoiko mediku bilakatu zen, batailoi hau, ia osorik gipuzkoarrez osatua zegoen, Loiolan batu ziren milizietatik eratorri zelarik. Bertako kide izanik, Bizkaiaren defentsan jardun zuen, Bilboko defentsan hiritik irten ziren azken batailoietako bat izan ziren batailoi honetakoak[837]. Batailoi hau Santoñako Hitzarmenaren barnean kokatzen zen, baina italiarrek hau bete ez zutenean, altxatutako tropek preso hartu zituzten batailoiko gudari gehienak. Hala ere, Jose Mariak borrokan jarraitu zuen, Rosa Luxem-

[832] AGMG, BDST, 2738 kutxa, 37 espedientea. / AGMG, BDST, caja 2738, expediente 37.
[833] AHPG-GPAH 02843 kutxa, 0039 espedientea. / AHPG-GPAH caja 02843, expediente 0039.
[834] AIRMN, 3624 sumarisimo arrunta. / AIRMN, 3624 sumarísimo simple.
[835] AHPG-GPAH 03667 kutxa, 0016 espedientea. / AHPG-GPAH caja 03667, expediente 0016.
[836] AGAko bere fitxan Bergaran bizi dela agertzen da, baina bere aurka aurrera eramaten duten gerra kontseiluan Debakoa dela agertzen da. Datu hau fidagarriagoa da kontuan izaten badugu Itziarko mediku titularra zela. / En su ficha de AGA aparece que vive en Bergara pero en el consejo de guerra que se está llevando a cabo en su contra consta que vive en Deba. Este parece el dato más fiable teniendo en cuenta que era médico titular de Itziar.
[837] AIRMN, 1054-37 sumarisimoa.

burgo batailoiko kide bezala. Bertan kapitain mediku kargua lortu zuen[838]. Iparraldeko frontean azken unera arte borrokatu zuen, baina ez zuen itsasoz ihes egiterik lortu eta Gijon erortzearekin batera preso egin zuten.

Asturiasen preso hartu eta gero, denbora batera aske utzi zuten eta bere jaioterrira itzuli zen, Bergarara. Bertan jarri zen bizitzen, baina 1937ko azaroak 19an Donostiako Ondarretako espetxean preso sartu zuten, Errepublika eta gerra garaian izan zuen papera aztertzen ari zirelako[839]. Bertan izan zuten preso, 1938ko uztailak 12an bere aurkako gerra kontseilua burutu zuten arte. Hemen, Debako Defentsa Komitean izan zuen paperagatik eta ondoren altxatuen aurkako batailoietan jarduteagatik, matxinada militarrarekin bat egitea egotzi zioten. Bertan, Donostiako Medikuen Elkargoko Lehendakariak deklaratu zuen, herriko komiteko buru bat zela esanez, konfiskazioak burutu zituela eta Itziarko herritarren zerrenda bat burutu zuela argudiatuz, herrira itzultzean hauek hiltzeko intentzioarekin[840]. Honen baitan, Fiskaltzak heriotza zigorra eskatu zuen, bere defentsak absoluzioa eskatuko zuelarik kontrara. Epaileak, bere ekintzetan izate larririk ikusten ez zuela argudiaturik, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zion[841].

Behin sententzia irmoa bilakatu zenean, Burgosko Espetxera lekualdatu zuten 1938ko azaroaren 24an. Bertan egon zen preso, 1940ko apirilak 20an Soriako espetxera eraman zuten arte. Sorian izan zuten preso ahalik eta aske irten zen zehazteke dagoen momentu batean, berau ez baita zehazten bere AGAko fitxan, ez eta bere espedientean. Hala ere, badakigu 1946ko uztailak 10ean aske aurkitzen zela eta Bergaran atxilotu egin zutela, beste bi bergararrekin batera. Gobernadore zibilaren esku geratu ziren, ikerketa bat irekita baitzeukaten hiru pertsona hauen aurka, 315-46 zenbakiduna. Frankistek, Bergaran EAJ alderdia berreraikitzen saiatzen ari zirela eta Frantzian erbesteratuta zeudenei laguntza ematen zebiltzala uste zuten. Baina prozesu honek ez du bide luzerik egingo, izan ere Jose Mariak baldintzapeko askatasuna lortu baitzuen sei egunetara.

Baldintzapeko askatasuna lortzeko arrazoia, biriketako tuberkulosia pairatzen zuela zen eta espetxeko zuzendariordeak aipatzen zuen bezala, berau artatzeko zentro egoki batera bidali behar zelako[842]. Berarekin atxilotutako beste bi pertsonak ere aske utzi zituzten egun berean. Behin askatasuna berreskuratuta, bere jaioterrira, Bergarara itzuli zen, bertako Bidekurutzeta kaleko 7. zenbakian bizitzen jarriz.

Kartzelan egon zen bitartean, bere lanpostutik depuratua izan zen 1937ko urtarrilaren 15an, Fronte Popularraren garaian izan zuen jardun politikoagatik eta bere lanpostutik justifikaziorik gabe alde egiteagatik[843].

Nació en Bergara el 11 de febrero de 1910[835], pero vivía en Itziar donde era el médico titular del municipio[836]. Tenía 27 años de edad (1937) e ideas izquierdistas, estaba afiliado al PNV. Además de ello, era miembro de la dirección de la sede del PNV (batzoki) de Itziar.

Tras el intento de Golpe de Estado de los sublevados, fue miembro del Comité de Defensa de Deba y ejerció en la delegación del Comité de Itziar. En un intento por organizar la resistencia contra los franquistas, colaboró en llevar a cabo confiscaciones de armas y automóviles, así como consiguiendo recursos económicos para sostener a las milicias que se estaban creando, encargándose para ello de enviar tarjetas. Después de que un grupo de milicianos anarquistas fusilaran al párroco de Itziar, se ocupó de la custodia de las llaves de la Iglesia, encargándose también de la custodia de los bienes que allí había.

Cuando se comenzó a organizar el Ejército Vasco en Loiola y lo llamaron para quinto, reunió a todos los jóvenes de Itziar en un caserío y los estuvo animando para que se convirtieran en gudaris. Como gudari se convirtió en el médico del batallón Itxarkundia, formado mayoritariamente por guipuzcoanos venidos de las milicias de Loiola. Estuvo ejerciendo en la defensa de Bizkaia, siendo uno de los últimos batallones en retirarse de la defensa de Bilbo[837]. Este batallón se encontraba dentro del Pacto de Santoña, pero cuando los italianos no cumplieron con su parte, las tropas sublevadas apresaron a la mayoría de los gudaris del batallón. Aun así, José María siguió luchando ofreciendo sus servicios a otros batallones como médico que era. Al deshacerse en Santoña el Ejército Vasco se unió a las milicias que seguían luchando[838]. Se mantuvo de este modo hasta que cayó el denominado Frente Norte y lo apresaron en Gijón.

Tras ser apresado en Asturias al poco tiempo lo dejan en libertad, volviendo a su pueblo natal, Bergara. Estuvo viviendo allí hasta que el 19 de noviembre de 1937 lo encarcelan en la prisión de Ondarreta en Donostia debido a que estaban revisando el papel desempeñado durante la República y la Guerra[839]. Estuvo preso en Donostia hasta que celebraron el consejo de guerra en su contra el 12 de julio de 1938. Por el papel que jugó en el Comité de Defensa de Deba y por su actividad en los batallones contrarios a los sublevados, le imputaron adhesión a la rebelión militar. El Presidente de la Asociación de Médicos de Donostia declarará que era una de las cabezas del comité del pueblo, que ejecutó confiscaciones y que hizo una lista con los vecinos de Itziar a los que tenía intención de asesinar a su vuelta al pueblo[840]. Mientras la Fiscalía pide pena de muerte, la Defensa pedirá la absolución. El juez, argumentando que no veía nada grave en sus acciones, lo condenará a 30 años de prisión[841].

Cuando la sentencia fue firme, lo trasladaron a la prisión de Burgos el 24 de noviembre de 1938. Estuvo preso allí hasta que el 20 de abril de 1940 lo trasladan a la prisión de Soria. Estuvo en Soria hasta que salió en libertad en algún momento que aún está por determinar, ya que no se especifica este dato ni en su ficha penitenciaria de AGA ni en su expediente procesal. Aun así, sabe-

[838] CDMH, sig. PS Gijon, K, 273, 1 espedientea.

[839] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

[840] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

[841] AIRMN, 1054-37 sumarisimoa. / AIRMN, 1054-37 sumarísimo.

[842] AHPG-GPAH 03667 kutxa, 0016 espedientea. / AHPG-GPAH caja 03667, expediente 0016.

[843] EAH, DUA, sig. 079, 24 folioa. / AHE, AMD, sig. 079, folio 24.

mos que el 10 de julio de 1946 se encontraba en libertad ya que fue detenido en Bergara junto a dos paisanos suyos. Los dejaron en manos del Gobernador Civil puesto que tenían una investigación abierta contra estas tres personas por intentar recomponer el partido del PNV en Bergara y por ayudar a los que se encontraban exiliados en Francia, bajo el sumario 315-46. Este proceso no tendrá largo recorrido ya que José María logró la libertad condicional a los seis días.

La razón para conseguir la libertad condicional fue que padecía tuberculosis pulmonar y tal y como menciona el vicedirector de la prisión, para poder ser tratado debía ser enviado a un centro adecuado[842]. Las otras dos personas detenidas con él también fueron puestas en libertad el mismo día. Una vez recuperada la libertad volverá a su pueblo natal, al número 7 de la calle Bidekurutzeta de Bergara.

Mientras estuvo en prisión fue depurado de su puesto de trabajo el 15 de enero de 1937, por su actividad política en el Frente Popular y por ausentarse de su puesto de trabajo sin justificación[843].



PRISION PROVINCIAL
DE
SAN SEBASTIAN
Dirección

Nº

Tengo el honor de participar a V.S. que el Sr. Médico Oficial de este Establecimiento, comunica que el interno del mismo a disposición de ese Juzgado de su merecido cargo JOSE MARIA LOMBIDE SAN MARTIN, padece de Tuberculosis Pulmonar, por lo que es muy conveniente su ingreso en un Centro apropiado, rogándole tenga a bien manifestar si existe inconveniente o no en que sea trasladado a dicho Establecimiento.-

Dios guarde a V.S. muchos años.-
San Sebastián 15 de Julio de 1.946

ES COPIA

Sr. Juez del Juzgado Militar de Jefes y Oficiales PLAZA.-

INFORME DE RADIOSCOPIA:

J.Maria Lombide.Junio de 1946.

**Jose Maria Lombideren gaixotasuna zela eta, bere aske ustea eskatzen zuen dokumentua eta radioskopia.** (AHPG-GPAH 03667 kutxa, 0016 espedientea). / **Documento y radioscopia para pedir la liberación de José María Lombide debido a su enfermedad.** (AHPG-GPAH caja 03667, expediente 0016).

## LOPEZ MARTINEZ, ADRIAN

Deban jaio zen, baina Polancora (Santander) joan zen bizitzera, bertan bizi zelarik bere emazte Mariarekin. Jornalari moduan lan egiten zuen eta 34 urte zituen epaitua izan zenean 1937an[844]. PSOE alderdira afiliatua zegoen 1932tik aurrera eta baita honen gertukoa zen UGT sindikatura ere, Solray enpresako langilea zen heinean.

Altxamendua eman zenean, Errepublikaren defentsarako antolatutako milizietan engaiatu zen, 113. Batailoiko kide bezala. Asturiasera izendatu zuten indar militar hau eta bertan jardun zuen, abenduan Karabineroen Gorputzean engaiatu zen arte, bere aita karabineroa zenez sarrera eskatua baitzuen. Karabinero funtzioak betetzen jardun zuen, 1937ko abuztuak arte, non Suances herrian aurkitzen zirelarik, Karabineroen Talka Brigada eratu zen eta bertako kide izatera pasa zen. Adrian, bigarren batailoian txertatua zegoen baina ez ziren frontean borrokatzera iritsi, Santanderren zeudela altxatuen tropak hirira sartu baitziren. Batzuek ihes egin zuten Asturias aldera, baina bera hirian geratu zen.

Santanderren altxatuek preso hartu zuten, irailaren 19an, Oblataseko espetxean aurkitzen zelarik. Polancoko Falangeko ikerketa buruak, F. Gonzalo Tomas, ideia marxista sakoneko pertsona bezala definitu zuen, herriko defentsa komitearen laguntzan jardun zuela esanez, miliziano joan zen arte. Ildo beretik idatzi zuen alkateak, Juan Ruizek, egun berean gainera, 1937ko urriak 9an. Guardia Zibilak berriz, Esteban Velazquez Patriñok, txosten gogorrago bat igorri zuen, 1934ko Urriko Iraultzan, marxista

[844] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.

garrantzitsu bat zela esanez, elizak erretzea bultzatu eta eskuindarrak jazarri zituela argudiatuz. Gainera, Mugimendu Nazionalarentzako oso pertsona arriskutsu bezala identifikatu zuen. Deigarria da, Suanceseko udalak, Adrianekiko txosten eskariaren erantzuna, non aipatu zuen, konfiantzako karabineroa zela, ideia eskuindarrekoa eta Mugimendu Nazionalaren garaian konfiantzazkoa. Seguruenik pertsonaz nahasiko ziren.

1937ko irailaren 8an behin-behineko espetxealdia ezarri zioten eta urriak 2an, ikerketa-deklarazio bat burutu zuen, azkenik azaroaren 11n, Santanderren gerra kontseilu bat abiarazi zutelarik, bera eta beste hainbaten aurka. Gerra kontseilu honen sententzian, honakoa adierazten da, Adrianek ideia marxistak zituela eta Fronte Popularraren defentsan aritu zela, hala nola guardiak eginez itsasontzi-espetxeetan eta ostean Armada Popularrean borrokatu zuela ere. Horrez gain, elizak erretzeaz eta eskuindarrak jazartzeaz akusatua izan zen. Hau dela eta, matxinada militarraren delitua egotzi zioten eta betirako espetxealdira kondenatua izan zen (30 urte)[845]. Santanderreko Probintzialean egon zen preso, 1938ko irailaren 3an Burgosko Zentralera lekualdatua izan zen arte. Bertan zegoela, zigorra 10 urtekoagatik kommutatuko zioten. Azkenik 1941eko uztailaren 12an baldintzapeko askatasuna lortu zuen[846].

Nació en Deba pero se fue a vivir a Polanco (Cantabria) junto a su esposa María. Era jornalero y tenía 34 años cuando fue juzgado en 1937[844]. Afiliado al PSOE desde 1932 y al sindicato UGT mientras fue trabajador de la empresa Solvay.

Cuando se dio el alzamiento, se convirtió en miembro voluntario de las milicias organizadas en defensa de la República, miembro del batallón 113. Esta fuerza militar fue destinada a Asturias y estuvo allí hasta que en diciembre se enroló en el Cuerpo de Carabineros en el que ya tenía pedido el acceso puesto que su padre era carabinero. Estuvo ejerciendo funciones de carabinero hasta agosto de 1937, momento en el que, estando en Suances, se formó la Brigada de Choque de los Carabineros y pasó a ser miembro (según su declaración fue obligado). Adrián pertenecía al segundo batallón pero no llegaron a luchar en el frente ya que las tropas de los sublevados entraron en la ciudad cuando se encontraban en Santander. Algunos huyeron a Asturias pero él se quedó en la ciudad.

Los sublevados lo apresaron en Santander el 19 de septiembre ingresando en la prisión de las Oblatas. El jefe de investigación de la Falange de Polanco, F. Gonzalo Tomás, lo define como una persona con ideas profundamente marxistas y que ayudó al Comité de Defensa del pueblo hasta que se hizo miliciano. El alcalde, Juan Ruiz, seguirá esa línea de declaraciones el mismo día, el 9 de octubre de 1937. El Guardia Civil Esteban Velázquez Patriño, en cambio, enviará un informe más duro, diciendo que fue un marxista destacado en la Revolución de Octubre de 1934, que animó a quemar iglesias y que acosó a los derechistas. Además, lo identifica como una persona muy peligrosa para el Movimiento Nacional. Es llamativa la respuesta del ayuntamiento de Suances ante la petición de informes sobre Adrián, en la que menciona que es un carabinero de confianza, de ideas de derechas y hombre de confianza en la época del Movimiento Nacional. Es muy posible que se confundieran de persona.

El 8 de septiembre de 1937 le aplicaron prisión preventiva y el 2 de octubre realizó una investigación-declaración tras la cual, el 11 de noviembre, se celebró en Santander un consejo de guerra contra él y contra varias personas más. En la sentencia de este consejo de guerra se especifica que Adrián tenía ideas marxistas, que actuó en defensa del Frente Popular, que hizo guardias en los barcos prisión y que posteriormente luchó con el Ejército Popular. Lo acusaron también de quemar iglesias y de acosar a derechistas. Debido a esto, le imputaron delito de rebelión militar y lo condenaron a cadena perpetua (30 años)[845]. Estará preso en la Provincial de Santander y de allí lo trasladaron a la Central de Burgos el 3 de septiembre de 1938. Estando en Burgos le conmutaron la pena por otra de 10 años de prisión. Finalmente al 12 de julio de 1941 logrará salir bajo libertad condicional[846].

### LOPEZ MARTINEZ, VALENTIN

Deban jaioa, Suances (Cantabria) herrian bizi zen, ezkondua zegoelarik eta 37 urte zituen karabineroa zen. 1938an, Santanderren epaitua izan zen, berarekin batera beste 9 pertsona epaituak izan zirelarik, guztiak Karabineroen gorputzekoak. Ekainaren 22an, Burgosko Gerra Auditoreak bere kausa aztertu eta artxibatzeko erabakia hartu zuen, behin betirako aske geratu zelarik[847].

Nacido en Deba, vivía en Suances (Cantabria), tenía 37 años de edad, estaba casado y era carabinero. En 1938 fue juzgado en Santander junto a otras 9 personas, todas ellas del cuerpo de Carabineros. El 22 de junio el auditor de guerra de Burgos examinará su causa y decidirá archivarla, quedando en libertad definitivamente[847].

### LOYOLA ECHAVE, JOSE MARIA

Jose Maria, Debakoa zen, 1916ko maiatzaren 27an jaioa, Uzcanga baserrian eta bertan bizitzen jarraitzen zuen[848]. Baserriko lurrak lantzeaz arduratzen zen[849]. 1938ko maiatzaren 20an eginiko diligentzia batean Jose Maria Donostiako plazan preso aurkitzen zela agertzen da, Andres Errasquin Zubicaray-ekin batera. Bertan, errepublikarren aldera ihes egin eta miliziano gisa aritzea egotzi zioten, baina ez zitzaionez ekintza horretaz gain beste ezer inputatzen eta honek ez zirenez Gerra Jurisdikzioan ustez delitua, kausa

[845] AIRMN, 1976/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 1976/37 procedimiento sumarísimo de urgencia.
[846] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[847] AIRMN, 20697/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 20697/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.
[848] DUA, sig. 309 / AMD, sig. 309.
[849] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria

honekiko aske ustea erabaki zuen epaileak. Hala ere, Azpeitiko epaitegian oraindik kausa bat irekita mantentzen zuen. Azkenik, kontuan izateko beste puntu bat, epailearen erabakiz soinean zeramaten Errepublikaren diru guztia dekomisatu zieten[850].

Azpeitiako kausaren kondena, 1938ko maiatzaren 13an iritsi zitzaion, bertan baserri batean lapurreta eta homiziodioa burutzeagatik kondenatu zuten, berau izan zelarik Errepublikara ihes egitearen arrazoi nagusia. Epaitegiak, 25 urte, 9 hilabete eta 11 egunera kondenatu zuen. Donostiatik, Iruñako San Kristobal gotorleku-espetxera bidali zuten eta Burgos, Valdemoceda, Burgos berriro eta Gijonetik pasa ostean, baldintzapeko askatasuna lortu zuen 1954ko urriaren 31ean[851].

Nació en Deba el 27 de mayo de 1916, en el caserío Uzcanga, donde continuaba viviendo[848]. Se encargaba de labrar las tierras del caserío[849]. En una diligencia abierta el 20 de mayo de 1938 se menciona que José María de encuentra preso en la cárcel de Donostia, junto a Andrés Errasquin Zubicaray. Le acusaron de huir hacia el lado republicano y de ser miliciano, pero como no hay más acciones que se le puedan imputar y estas no son delito de Jurisdicción de Guerra, deciden dejarlos en libertad. Aun así mantienen la causa abierta en el Juzgado de Azpeitia. Finalmente, otro punto a tener en cuenta es la decisión del juez de decomisarle todo el dinero de la República que llevaba encima[850].

La condena por la causa de Azpeitia le llegará el 13 de mayo de 1938, en la que le acusaron de robar en un caserío y de cometer asesinato, condenándolo a 25 años, 9 meses y 11 días de prisión. De Donostia lo trasladaron a la fortaleza-prisión de San Cristóbal de Iruñea, de ahí a Burgos, de Burgos a Valdenoceda, de nuevo a Burgos y tras pasar por Gijón logrará la libertad condicional el 31 de octubre de 1954[851].

### MANCISIDOR ODRIOZOLA, TOMAS

Herriko autoritateei, Tomasen inguruko txostenak eskatu zizkieten epaile militarrek eta Debako epaileak, Jose Maria Eizaguirre Mendicutek, ideologia ezkertiarreko pertsona zela adierazi zuen, altxamendua ematean, milizietan izen eman zuelarik, herrian guardia armatuak burutu eta ibilgailuen gaineko kontrola eramanez. Horregatik, epailearen hitzetan, 10 pezetako soldata jasotzen zuen eguneko. Altxatuak herrira hurbiltzen zirela ikusita, beraien aurreratzea gelditze aldera, hainbat milizianorekin batera, zubia dinamitatzeko zuloak egiten jardun zuen, ekintza hau herrian erreketeen zutabea sartzeak galarazi zuelarik[852].

Bizkaia aldera mugitu zen eta momenturen batean altxatuen esku preso erori zen. Altxamendua eta gerra garaian izan zuen papera zela eta gerra kontseilu bat burutu zioten, Bilbon. Epaiketa honetan, egozten zizkioten ekintzek erantzukizun penalik ez izateagatik kausa artxibatzea proposatu zen. Gerra Auditoreak, epaia aztertzean, 1938ko abuztuaren 3an, erabakiarekin ados egon zen, baina Presoen Sailkatze Irizpideak jarraituz, B sailean sailkatu zuen Tomas eta SLB batera bidali zuen[853].



**Deba ibaiaren gaineko zubiaren irudia 1947an.** **(Gipuzkoako Artxibo Orokorra GFA/Indalecio Ojanguren). / Fotografía del puente sobre el río Deba de 1947.** **(Archivo General de Gipuzkoa DFG / Indalecio Ojanguren).**

[850] AIRMN, 1164/1567 6. Eskualdeko Gerra Auditoria, hirugarren saila. / AIRMN, 1164/1567 Auditoría del 6º Regimiento de Guerra, sección 3ª.
[851] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[852] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[853] AIRMN, 11967/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, 11967/38 procedimiento sumarísimo de urgencia.

El juez militar pedirá informes a las autoridades locales sobre Tomás. El juez de Deba, José María Eizaguirre Mendicute, dirá de él que es una persona de ideas izquierdistas alistándose en las milicias en el momento del alzamiento, hizo guardias armadas en el pueblo y llevó el control de los automóviles. Por todo ello, en palabras del juez, recibía un sueldo de 10 pesetas diarias. Al ver que los sublevados se acercaban al pueblo, queriendo adelantarse, se dedicó junto a otros milicianos a agujerear el puente para colocar explosivos y dinamitar el puente, impidiendo así la entrada de la columna de los requetés al pueblo[852].

Se movió hacia Bizkaia, cayendo preso en algún momento. Debido al papel jugado durante el alzamiento y la Guerra, le celebraron consejo de guerra en Bilbo y en él propusieron archivar su causa por no tener consecuencias penales. El auditor de guerra al revisar el juicio el 3 de agosto de 1938, se mostrará de acuerdo con la decisión, pero siguiendo las Directrices de Clasificación de Presos, lo clasificará en el departamento B y lo mandará a un BDST[853].

## MARQUIEGUI OLAZABAL, FLORENCIO



**Florencio Marquiegui Olazabal.**
(AIRMN, 8/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 8/37).

Debako alkatea zen, 39 urte zituen eta ezkondua zegoen Miren Garate Arriolarekin, hiru alaba zituztelarik, Itziar, Lore eta Nekane. Izatez, industria gizona zen, baina 1931tik 1934ra Debako alkatea izan zen. 1934an, Udaletxe Euskaldunen Iraultza zela eta, kargutik kendu zuten epaileek, baina 1936ko kargu publikoen amnistiarekin berriro ere alkatetza berreskuratzea lortu zuen. Irailaren 23an, frankistak Deban sartu zirenean, ihes egin zuen Bizkaira.

Bere bizitzaren zatirik handiena EAJrekin lotua egon zen. Bere hitzetatik jasota, 1915etik EAJn afiliatua zegoen. Gipuzkoako lehenengo EGI taldea sortu zen Deban 1916an eta jada bertako batzordekide bezala agertzen zen 1918an. 1920an Euzkadiko publikazio batean, Batzokiko edo EGIko lehendakari gisa agertzen da[854].

Gerra Zibilak eztanda egitean, Deban aurkitzen zen Florentzio eta EAJko kideak batu eta udaletxera joan zen. Bertan, indar errepublikarrekin aurkitu eta herriaren gestioaren inguruko akordio bat garatu zuten. Indar abertzaleak Udaletxeaz eta ordena publikoaz arduratuko ziren eta errepublikanoak horrela frontera joango ziren borrokara. Hau dela eta, Debako Defentsa Komiteko buru izendatu zuten. Hala ere, herriko militante ezkertiarrekin gatazka ugari izan zituen, bere jarduna aurrera eramateko moduagatik eta ondorioz Komitetik kanporatua izan zen. Hala ere, herriko alkate izaten jarraitu zuen.

Tropa frankistak herrira hurbiltzean, Lekeitiora ihes egin zuen eta ondoren Bilbora. Bertan, Debako Udalbatza berriro eratu zuen eta EBBko kide izatera pasa zen. Bilbo erortzearekin batera, erretretari ekin zioten, Herrera eta Turtziozetik pasaz, azkenik Santanderren egonkortuz, bertan Udalbatza eta EBBko kide izaten jarraitu zuelarik. Hiri honetan, itsasontziz ebakuatzeko aukera eman zioten baina bertan geratzeko hautua egin zuen. Azkenik, hiri hau erortzearekin batera, Santoñara joan zen bertan Eusko Gudarostearekin batera tropa frankistengana entregatuz.

1937ko irailak 5an, El Dueson, ikerketa-deklazario bat burutu zioten, non 1934ko Udaletxe Euskaldunen Matxinadagatik, berari zegozkion funtzioak bertan behera uztea egotzi zioten. Hurrengo egunean bertan, Santanderreko Lehenengo Gerra Kontseilu Iraunkorra batu zen, kausa aztertu eta epaia emateko. Bertan, Florentzio, EAJko kide izan eta Debako alkate eta Defentsa Komiteko buru izateagatik, matxinada delitua egotzi zioten, arriskugarritasunarekin, eta ondorioz heriotza zigorrera kondenatu zuten.

Bere aldeko lekuko bezala, lehen udalbatza frankistako zinegotzi zen Antonio Trecu, Manuel Lizarraga herriko apaiza, Gasteizko Gobernadore Militarraren emaztea eta Luis Hernando Larramendi diputatu tradizionalista aurkeztu zituen, baina ez ziren garaiz iritsi ez epaiketarako ez eta auditoriarako. Antonio Trecu eta Manuel Lizarragak, zinegotzia eta parrokoa hurrenez hurren, honakoa adierazi zuten (irailak 28an datatua eskutitza) “Florencio Deban egon zen garaian eliztar zintzo bat bezala portatu zela, asteroko komuniokoa eta parrokiara gehien joaten zenetako bat zela…”. Josefa Diaz Gallok honakoa adierazi zuen (urriak 1), “ni eta nire alaba, gerraren lehen egunetan CNTkoek jazarriak ginen, gizona Arabako Gobernadore Militarra izateagatik. Horregatik, EAJren preso joan ginen, Florenciok, gure kustodiaz arduratu eta izen faltsuekin Debara eraman gintuelarik. Bertan, CNTkoek identifikatzeko beldurrez, Azpeitira eraman gintuen, bertan geratu ginelarik preso, herria tropa nazionalek hartu arte. Oso ongi tratatu zigun Florencio jaunak, betirako eskertuko diogularik bere jarduna eta laguntza”.

Elgetako alkate frankista zen Felipe Elcoro Arbuluk adierazi zuen, irailak 22an idatzitako eskutitz batean, “Mugimendu Nazionala abiaraztean, 40 bat herriko pertsona eskuindar herritik kanporatzeko erabakia hartu zuten bertako gorri-separatistek, baina egoera honetaz jabetzean, Florentzio Bilbotik herrira etorri zen eta bere itxura zurrunak eta bere gestioei esker kanporaketa hau ekiditea lortu zuen, horregatik herritar ugari betirako eskertuak geratuko direlarik bere pertsonarekiko”

Horrez gain, Gerra Auditoretzari zuzendutako eskutitz bat bidali zuten hainbat pertsonak, Florentzioren alde testifikatzeko nahia azalduz: Jose Maria Aresti y Ortiz, Luis Fernando de Larramendi, Jose Jimenez de la Serna y Agrela eta Antonio Beristain Gomiz Echeverrizar.

[854] GRANJA SAINZ J.L.,Las organizaciones juveniles del nacionalismo vasco, Política, cultura y ocio, (1893-1923), (2011).

Testigantzak kontuan izan gabe, gerra kontseiluaren epaia, berretsia izan zen lehenik Gerra Auditorearengandik, irailak 11n eta ondoren Estatu Buruko Idazkaritzarengandik, urriak 9an[855]. Hau dela eta, jada kondena irmoa zen eta berau urriak 15an gauzatu zuten, Florentzio El Duesoko espetxean bertan fusilatu zuten, goizeko zazpietan[856].

Bidasoako dokumentu bilduman, Florentzioren exekuzioaren gaineko testigantza bat dago, Carmen Izagarena. Bertan esaten du sententzia hiru ordu lehenago jakinarazi ziotela. Fusilatzea, hilerriaren ondoan eman zen eta berarekin bost pertsona gehiago exekutatu zituzten. Horietako lau kristautasunera bihurtu zituen eta denekin komulgatu zuen. Exekuzioa baino momentu bat lehenago irrifarre bat zuzendu zien bere burkideei eta hauek izan ziren bere azken hitzak "Dentro de breves instanten daremos cuenta ante el Tribunal del cielo"[857].

Aurreko gauean, bere agur eskutitzak idatzi zituen, emaztea eta bere semearentzat, azken hau bere komunioan irakur zezan. Deban, bere omenezko hiletak burutu ziren, bere anaiaren heriotzaren urteurrenarekin bat eginez. Apaizak honela iragarri zuen "Se celebrarán los funerales ...... por ....... que entregaron su alma a Dios". Bederatzi egunetara gabekoa ere ospatu zen[858].

El que fuera alcalde de Deba, tenía 39 años, estaba casado con Miren Garate Arriola y tenían tres hijos: Itziar, Lore y Nekane. De por sí era industrial, y fue alcalde de Deba entre 1931 y 1934. En 1934, debido a la Revolución de los Municipios Vascos, los jueces lo destituyeron de su cargo pero, con la amnistía de los cargos públicos de 1936, logró recuperar la alcaldía. Huyó el 23 de septiembre, cuando los franquistas entraron al pueblo.



M.7.381.6[illegible]

Declaración indagatoria de Florencio MARQUIEGUI Olazabal

En el Dueso a cinco de Septiembre de mil novecientos treinta y siete ante el Sr. Juez Militar núm. ____ asistido por mí el Secretario, comparece el inculpado del margen, el cual es exhortado a decir verdad en lo que sepa y se le pregunte, habiéndolo ofrecido así:

Preguntado a tenor del art. 457 del Codigo de Justicia Militar, dice: Que se llama Florencio Marquiegui Olazabal de edad treinta y nueve años; natural de Deva provincia de Guipuzcoa partido judicial de Azpeitia vecino de Deva de estado casado; de oficio industrial hijo de Guillermo y de Maria Jesus;

que ha sido procesado por delito de abandono de funciones con motivo de la sublevacion de Ayuntamientos Vascos el año 1934.

Zigor hau, 20 urtekoagatik kommutatua izango zaio denborara[995] eta jada zaintzapeko askatasunean aurkitzen zen 1943ko martxoak 27an, Debako Batzordea sortzen denean[996].

Nacido en Valderas (León), vivía en Basauri donde ere Guardia Municipal. Tenía 28 años (1938) de edad y estaba casado. Durante la guerra formó parte del 10º Batallón de UGT, el cual fue un batallón de reserva[993]. Este batallón de formó en noviembre-diciembre de 1936 pero nunca fue más allá de la fase de formación, ya que se limitaron a enviar a sus miembros a cubrir las bajas del resto de batallones y a realizar trabajos de retaguardia. Según algunas fuentes, se presentaron ante los sublevados en Bilbo, aunque en la práctica se había deshecho un mes antes[992].

Fructuoso fue uno de los miles de gudaris y milicianos que fueron apresados por los sublevados en Santoña, y estuvo ahí hasta que fue trasladado a la prisión provincial de Bilbo el 25 de diciembre[993]. Mientras se encontraba detenido en la prisión de Larrinaga, en el consejo de guerra realizado en Bilbo lo acusaron de ser una persona de mala conducta e ideas extremistas. Lo acusaron de participar en una reunión en la Casa del Pueblo municipal en la que se decide, según el juez, asesinar al carlista Juan José Monasterio (10 de febrero de 1936[994]). Además, es acusado de participar en el registro del cuartel de la Guardia Civil de Basauri y en la detención de Emilio Piquero. Por todo ello, le imputan delito de rebelión y lo condenan a 30 años de prisión.

Este castigo con el tiempo le fue conmutado a una pena de 20 años de prisión[995] y para cuando se forma la Junta de Deba el 27 de septiembre de 1943 ya se encontraba en libertad vigilada[996].


MES DE NOVIEMBRE de 1944

Fructuoso Gonzalez Robles
Pedro Garcia Ansola
Isaias Gonzalez Rubio
Esteban Antonia Ulacia
José Ostolaza Egaña
José Agustin Esnaola Iraola
Rufino Arritoquieta Alza
Carmen Lafuente Rubio
Elvira Rodriguez Pulgar
Asunción Rodriguez Pulgar
Florentina del Cabo Arrese
Ildefonso Garrido Garcia
Manuel Portillo Gil
Josefa Domenech Elizondo
José Mir Roig

**1944ko azaroko baldintzapeko askatasunean aurkitzen ziren pertsonen errolda.** (DUA). / **Censo de noviembre 1944 de las personas que se encontraban en libertad condicional en Deba.** (AMD).

992 VARGAS ALONSO F.M., Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República, EHU, Leioa, 2015.
993 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
994 ECHEANDIA J., La persecución roja en el País Vasco: estampas de martirio en los barcos y cárceles de Bilbao: memorias de un excautivo, Bartzelona 1945.
995 AIRMN, 16821/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 16821/38.
996 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

## GONZALEZ RUBIO, ISAIAS

Palentzian jaio bazen ere, Bilbon bizi zen, lan bila etorritako milaka pertsona bezala. Deustuko Remigio Sagarduy kalean zuen etxea, bere emazte Flora Saleguirekin batera[997].

27 urte zituen (1938) eta ideia ezkertiarrekoa zen, UGT sindikatura afiliatua zegoelarik. Errepublika garaian, sindikatu honen delegatu izan zen bere lantokian, Artiach galleta enpresan. Altxamendua eman zenean, berau geratzeko antolatutako milizietan izena eman zuen, hasiera batean UGTko 3. Batailoian (Gonzalez Peña), baina denborara 6. Batailoira (Pablo Iglesias) pasa zen[998]. Bertan, kabo eta sarjentu funtzioak bete zituen, 1936ko urrian teniente izatera pasaz. Hilabete bereko 24an, Ondarroan kokatutako postu defentsibo batean, bera bakarrik geratu zen metrailadore batekin altxatuen erasoa erantzuten, hauek herria hartzea galaraziz. Horregatik, kapitain karguarekin kondekoratu zuten. Miliziekin borrokan jardun zuen, Iparraldeko Frontea erori zen arte, Gijonen preso hartu zutelarik 1937ko urriak 21ean.

Bertatik, Santoñako espetxera eraman zuten eta ondoren Bilboko Eskolapikoetara 1938 urriak 27an eta epai zain geratu zen[999]. 1938ko azaroak 25an, gerra kontseilu bidez epaitu zuten, non matxinadarekin bat egitea egotzi zioten. Horrez gain, Artiach enpresako ibilgailu baten konfiskazioaren ardura ere inputatu zioten. Horregatik, 30 urteko espetxealdira kondenatu zuten. Errekurtsoak zirela eta, kondena 7 urtekoagatik kommutatu zioten[1000].

1939ko apirilak 23an Puerto Santa Mariara eramana izan zen, bertan egon zelarik preso 1941eko uztailak 19an espetxealdi arindua lortu zuen arte[1001]. Deban Baldintzapeko Askatasunaren Batzordea eratu zenean, herrian bizitzen aurkitzen zen, J.J. Aztiria kaleko 6 zenbakian, jornalaria zen bitartean. 1944 urriak 18a baino egun batzuk lehenago, Guardia Zibila bere etxera atxilotzera zihoala ikusita, ihes egin zuen herritik[1002]. Ez dugu bere gaineko notiziarik, 1947ko uztailak 2a arte, non Donostiako espetxean preso hartuko zuten, baina aste batera aske utzi zuten berriro ere[1003].


PROVINCIAL DEL
...IO DE LIBERTAD
...DA DE GUIPÚZCOA
PRESIDENCIA

Consecuente a su escrito de fecha 18 de Octubre pasado referente al liberado condicional ISAIAS GONZALEZ RUBIO, sirvase informar a esta Junta Právincial si el citado liberto ha regresado a su domicilio y caso contrario paradero que el mismo puede tener en la actuálidad.
Dios guarde a Vd. muchos años.
San Sebastian 10 de Noviembre de 1944.

EL PRESIDENTE.

Sr Presidente de la Junta Local de Libertad Vigilada de DEVA.


En cumplimiento de cuanto interesa en su atta oficio fecha 10 de lqs corrientes, tengo el honor de comunicarle que el liberado condicional ISAIAS GONZALEZ RUBIO no ha regresado a su domicilio ignorandose su actual paradero.

Dios salve a España y guarde a V.E. muchos años.

Deva 13 de Noviembre de 1944

El presidente de la J.L.

Excmo.Sr. Presidente de la Junta Provincial del Servicio de Libertad Vigilada de Guipuzcoa

SAN SEBASTIAN

**Isaias herritik ihes egin zuenaren gaineko dokumentua.** (DUA). / **Documento sobre la huida de Isaías del pueblo.** (AMD).

Aunque nació en Palencia, vivió en Bilbo, como las miles de personas que vinieron buscando trabajo. Vivió en la calle Remigio Sagarduy de Deustu junto a su esposa Flora Salegui[997]

Tenía 27 años de edad (1938), de ideas izquierdistas y afiliado al sindicato UGT. Fue delegado de dicho sindicato en su lugar de trabajo, la empresa de galletas Artiach. Cuando se dio el alzamiento, se alistó en las milicias organizadas, primero en

[997] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[998] Aranzadi Zientzia Elkarteko datu-basea. / Base de datos de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.
[999] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[1000] AIRMN, 14828/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 14828/38.
[1001] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[1002] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[1003] DHPG-GPAH, 03670 kutxa, 0037 espedientea. / AHPG-GPAH, caja 03670, exp. 0037.

el 3º Batallón de UGT (González Peña), pasando posteriormente al 6º Batallón (Pablo Iglesias)[998]. En este último desempeñó las funciones de cabo y sargento, pasando a ser teniente en octubre de 1936. El 24 del mismo mes, se quedó él solo con una ametralladora defendiendo la posición en Ondarroa ante el ataque enemigo, impidiendo así que los sublevados tomasen el municipio. Por ello lo condecoraron con el cargo de capitán. Estuvo luchando con las milicias hasta que cayó el Frente Norte y fue apresado el 21 de octubre de 1937.

Lo trasladaron a Santoña y posteriormente a los Escolapios de Bilbo el 27 de octubre de 1938, donde quedó a la espera de juicio[999]. Fue juzgado mediante consejo de guerra el 25 de noviembre de 1938 y lo acusaron de adhesión a la rebelión. Además de eso, le imputaron la responsabilidad de la confiscación de un vehículo de la empresa Artiach. Por todo ello lo condenaron a una pena de 30 años de prisión. Gracias a los recursos le conmutaron la pena por 7 años de prisión[1000].

El 23 de abril de 1939 lo trasladaron a Puerto de Santa María y estuvo allí hasta que consiguió la prisión atenuada el 19 de julio de 1941[1001]. Para cuando se formó la Junta de Libertad Condicional en Deba ya residía en el municipio, en el número 6 de la calle J.J. Aztiria y trabajaba como jornalero. Pocos días antes del 18 de octubre de 1944, huyó del municipio tras darse cuenta que la Guardia Civil pensaba detenerlo en su domicilio[1002]. No volveremos a tener noticias suyas hasta el 2 de julio de 1947, momento en el que ingresa detenido en la prisión de Donostia, para volver a salir libre a la semana siguiente[1003].

## MARTIARENA MARTINEZ DE ILARDUYA, FELIX

Araian jaio eta bizi zen Felix, ideia abertzaleduna zen eta EAJra afiliatua zegoen. 1936an, soldadutza burutzen ari zen, Santanderreko garnizioko Valencia Infanteria Erregimentuan. Uztailak 18an, altxamenduaren datetan, herrian aurkitzen zen baimen bat gozatzen eta egoeraz jabetu zenean, Bizkaiara joan zen, Errepublikaren aldeko zonaldera. Bertan hainbat milizietan jardun zuen, 1937ko abuztuak 24an Suancesen (Cantabria) altxatuen tropek atxilo hartu zuten arte. Bertatik, Bilboko Escolapioen espetxera eraman zuten eta behin-behineko espetxealdia ezarri zioten.

Gerra Kontseilu batean epaitua izan zen, Bilbon 1938ko martxoak 10ean eta bertan, altxatuen lurraldetik ihes egin eta Eusko Gudarostean borrokatzeagatik matxinadarekin bat egitea egotzi zioten eta biziarteko espetxealdira kondenatu zuten[1004] Ez dakigu ze espetxetan egon zen preso, ez eta noiz lortu zuen baldintzapeko askatasuna. Baina, 1943an Debako baldintzapeko askatasuna zutenen erroldan agertzen da, non aipatzen zen Puerto Santa Maria izan zela preso egon zen azken kartzela. 1943an, J.J. Aztiria kalean bizi zen eta Tomas Cendoya Cia enpresan egiten zuen lan. 1945an berriz, Deban erroldatzeko hautua egin zuen eta 1953an oraindik baldintzapeko askatasunarekin aurkitzen zen[1005].

Félix nació y vivió en Araia; de ideas nacionalistas, estaba afiliado al PNV. En 1936 se encontraba cumpliendo el servicio militar en el Regimiento de Infantería Valencia en la guarnición de Santander. El 18 de julio, día del alzamiento, se encontraba en el pueblo gozando de un permiso, y al darse cuenta de la situación se fue a Bizkaia a la zona favorable a la República. Luchó en varias milicias, hasta que el 24 de agosto de 1937 lo detuvieron en Suances (Cantabria) las tropas de los sublevados. Fue trasladado a la prisión de los Escolapios de Bilbo y estuvo en prisión preventiva.

Lo acusaron de adhesión a la rebelión y lo condenaron en Bilbo a cadena perpetua el 10 de marzo de 1938. El 14 de diciembre de 1938 lo volvieron a juzgar bajo la misma acusación, pero esta vez lo condenaron a 30 años de prisión[1004]. Desconocemos sus movimientos de cautiverio y en qué momento logró la libertad condicional. Pero, en 1943, aparece en el censo de las personas que gozan de libertad condicional en Deba, donde a su vez se menciona que la última prisión por la que pasó fue Puerto de Santa María. En 1943 residía en la calle J.J. Aztiria y trabajaba en Tomás Cendoya Cía. En 1945 decidió empadronarse en Deba quedándose a vivir definitivamente. En 1953 todavía se encontraba en libertad condicional[1005].


JUNTA PROVINCIAL DEL
RVICIO DE LIBERTAD
IGILADA DE GUIPÚZCOA
PRESIDENCIA

Sirvase Vd. dar de ALTA en el censo de esa Junta Local, al liberado condicional FELIX MARTIARENA MARTINEZ DE ILARDUYA, el cual residen en esa localidad donde tiene trabajo.
Dios guarde a Vd. muchos años,
San Sebastian 27 Marzo 1945
EL PRESIDENTE.

Presidente de la Junta Local de Libertad Vigilada
DEVA.

**Felix Martiarena Martinez de Ilarduya herriko baldintzapeko askatasuna duten pertsonen zerrendan alta ematen duen dokumentua. (DUA). / Documento que da de alta a Félix Martiarena Martínez de Ilarduya de la lista de personas del pueblo en libertad condicional. (AMD).**

[1004] AIRMN, 1293/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 1293/37.
[1005] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

## MARTIARENA MARTINEZ, FRANCISCO

Araiakoa jaiotzez, bertan bizi zen eta doitzailea zen. 25 urteko ezkongabea (1937) zen[1006]. Abertzalea zen eta EAJ alderdira eta ELA sindikatura afiliatua zegoen. Hau dela eta, espainiar eskuindarren altxamendua eman zela ikusita, euskal abertzaleen eta errepublikazaleen kontrolpean zegoen Euskadiko lurraldeetara pasa zen. Bertan, berau defendatzeko eratu ziren batailoietan jardun zuen borrokan gudari bezala. Iparraldeko frontea erori zenean, 1937ko udan, altxatuek preso hartu zuten.

Santoñan preso zegoela, bere aurkako prozesu bat abiatu zuten 1937ko urriak 6an, gerra kontseilu batean amaituko zena 4. Epaitegi Iraunkorrean, 1937ko azaroak 30ean. Francisco, beste 18 pertsonekin batera epaitua izan zen eta Eusko Gudarostean jardutea egotzi zioten eta horrez gain, Juan Quintana jaunari mehatxuak egitea eta honi dirua eskatzearen ardura ezarri zioten. Hori dela eta, matxinadarekin bat egitearen delitua egotzi eta gero, heriotza zigorrera kondenatu zuten, baina tribunalak berak zigor hau bizi arteko espetxealdiagatik kommutatzea erabaki zuen. Kondenaren kommutazioa berretsiko zaio 1938ko otsailak 24an[1007].

Bilbon preso aurkitzen zela, 1938ko azken hilabeteetan, ekintza berberengatik beste gerra kontseilu bat abiatu zioten, baina berau artxibatu egin zuten ekintza berdinengatik ezin zelako bigarren aldiz epaitua izan[1008]. Urte bereko abuztuak 12an, Burgosko espetxera lekualdatu zuten. Espetxe honetan preso zegoela, kondenen errebisio batzordeak azkenean kondena 6 urte eta egun batekoagatik kommutatuko zion. 1943ko apirilak 28an espetxealdi arinduarekin aske geratu zen[1009].

Behin baldintzapeko askatasuna lortuta, Deban hasi zen bizitzen, nahiz eta Bilboko epaileak Eibarren bizitzeko baimena eman zion. Egoera hau konpontzea lortu zuen eta J.J. Aztiria kaleko 7. zenbakiko lehen solairuan ezarri zuen bere etxebizitza[1010].


...TA PROVINCIAL DEL
...VICIO DE LIBERTAD
...ADA DE GUIPÚZCOA
PRESIDENCIA

Sirvase Vd. informar a esta Junta Provincial, si el liberado condicional FRANCISCO MARTIARENA MARTINEZ, se encuentra en esa localidad residiendo en la calle Azquiria 7-1º y requerir al interesado si para ello cuenta con la autorizacion correspondiente y de que autoridad, y caso negativo hacerle saber se debe reintegrar inmediatamente a su residencia anterior en la Provincia de Alava, gestionando si lo cree oportuno el cambio de residencia a esa localidad, la que tramitara por medio de la Junta Provincial del servicio de Alava.

Dios guarde a Vd. muchos años.
San Sebastian 2 Agosto 1944.

EL PRESIDENTE.

...sidente de la Junta Local de Libertad Vigilada
DEVA

**Francisco Martiarena Martinez Deban bizi zenaren jakinarazpena.** (DUA). / **Notificación de que Francisco Martiarena Martínez vivía en Deba.** (AMD).

Nacido en Araia y residente en el mismo municipio, ajustador de profesión. Soltero de 25 años de edad (1937)[1006]. Abertzale afiliado al partido PNV y al sindicato ELA/STV. Cuando la derecha española consumó el alzamiento se pasó a territorio bajo control de los republicanos y los abertzales. Allí, participó en los batallones que se crearon para la defensa.

Estando preso en Santoña inician un proceso en su contra el 6 de octubre de 1937, que acabará en consejo de guerra del Juzgado Permanente nº 4, el 30 de noviembre de 1937. Francisco fue juzgado junto a otras 18 personas. Le acusaron de pertenecer al Ejército Vasco y de ser el responsable de amenazar a Juan Quintana para pedirle dinero. Debido a ello, lo acusaron de adhesión a la rebelión y lo condenaron a la pena muerte, si bien en el mismo juicio el tribunal decidirá conmutarle el castigo por el de cadena perpetua. La conmutación de la condena se ratificará el 24 de febrero de 1938[1007].

En los útimos meses de 1938 y mientras se encontraba preso en Bilbo, iniciaron un nuevo consejo de guerra bajo la misma acusación, pero quedó archivado al no estar permitido ser juzgado una segunda vez por la misma causa[1008]. El 12 de agosto del mismo año lo trasladan a la prisión central de Burgos donde seguirá cumpliendo condena. En Burgos la junta de revisión de condenas le conmutará la suya por una menor de 6 años y un día. El 28 de abril de 1943 saldrá en libertad por medio de prisión atenuada[1009].

Una vez conseguida la libertad condicional se irá a vivir a Deba a pesar de que el juez de Bilbo le diese permiso para residir en Eibar. Consiguió arreglar su situación y fijó su residencia en el primer piso del número 7 de la calle J.J. Aztiria[1010].

## MORALES MONTES DE OCA, MANUEL

37 urte zituen (1944), ezkondua zegoen eta Las Palmas hiriko Molinos de Viento kaleko 28an bizi zen (Kanariar Irlak)[1011]. Kanariar irletako Palmako Gobernu Militarrak, gerra kontseilu bat burutu zuen bera eta beste pertsona baten aurka 1936an, 44/36 sumarioaren baitan. Bertan, matxinadarekin bat egitea egotzi zioten eta espetxe zigorrarekin kondenatu zuten. 1941eko irailaren 22an, baldintzapeko askatasuna lortu zuen, seguruenik deserriratze aginduarekin, Deban ezarri baitzuen etxebizitza eta Careaga y Echeverria lantegian lan egiten baitzuen. 1953an oraindik baldintzapeko askatasunarekin aurkitzen zen Deban[1012].

---

[1006] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[1007] AIRMN, 307/37 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 307/37.
[1008] AIRMN, 16920/38 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 16920/38.
[1009] AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
[1010] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
[1011] Id.
[1012] Id.

Tenía 37 años de edad (1944), estaba casado y residía en el número 28 de la calle Molinos de Viento de la ciudad de Las Palmas (Islas Canarias)[1011]. El Gobierno Militar de las Palmas de la Islas Canarias inició en 1936 un consejo de guerra contra él y otra persona, dentro del sumario 44/36. Lo acusaron de adhesión a la rebelión y lo condenaron a prisión. El 22 de septiembre de 1941 logra la libertad condicional, pero seguramente con orden de destierro, puesto que fija su residencia en Deba y pasa a trabajar a la fábrica Careaga y Echeverría. En 1953 todavía sigue en Deba bajo libertad condicional[1012].

## SOTO RODRIGUEZ, BENITO

Nogeira de Ramoin (Ourense) jaioa Mutrikun bizi zen, Churruca kaleko bigarren zenbakian, bere emazte Juliarekin. Ofizioz iturgina zen eta 35 urte zituen (1938)[1013]. Arlo politikoan, Izquierda Republicana alderdira afiliatua zegoen. Altxamenduari erantzuteko eratu zen Defentsa Komiteko kide izan zen, iraila amaieran, altxatuen tropen gertutasuna zela eta herritik Bizkaia aldera mugitu zen arte.


3-3-44 Exhorto del Juzgado Militar de Santander – Para notificar en forma al procesado Benito Soto Rodriguez la resolución recaída en el sumario nº 140 – el cual vive en la calle San Roque nº 12-3º
3-3-44 Exhorto del Juzgado Militar de Santander – para que se cumpla lo dispuesto en el artículo [illegible] de la Ley de Enjuiciamiento Criminal y sus concordantes para la ejecución de la pena de [illegible] impuesta a Adrian Lopez Martinez de 42 años hijo de [illegible] y [illegible],

Benito Soto Rodriguez epaitua izan zen sumarioaren irakurketa egiteko jakinarazpena. (DUA). / Notificación para la lectura del sumario de Benito Soto Rodriguez. (AMD).

Santoñan altxatuen esku preso erori zen eta bere deklarazioa urriak 15an burutu zuen. El Duesoko espetxean preso egon zen, bere aurkako gerra kontseilua Santoñan bertan burutu zioten arte, 1937ko azaroak 10ean. Epaiketan, matxinadari laguntza ematea egotzi zioten eta 12 urte eta egun bateko espetxealdira kondenatu zuten[1014]. 1938ko abuztuak 11n, beste euskal herritar asko bezala, Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten, baina ez zuen denbora asko eman bertan, azaroak 28an Astorgakora (Asturias) lekualdatu baitzuten. Bertan bete zuen kondena, 1940ko uztailak 7an espetxealdi arindua lortu zuen arte[1015].

1943ko irailak 27an, Deban baldintzapeko askatasunean zeuden pertsonak kontrolatzeko batzordea eratu zenean, herrian bizi zela aipatzen da, San Roque kaleko 12 zenbakiko hirugarren solairuan eta jornalaria zen herrian. 1944ko martxoak 3an, bere sumarioaren irakurketa burutu zioten[1016].

Nacido en Nogueira de Ramuín (Ourense), residía junto a su esposa Julia en el número 2 de la calle Churruca de Mutriku. Fontanero de profesión, tenía 35 años de edad (1938)[1013]. Estaba afiliado al partido Izquierda Republicana. Fue miembro del Comité de Defensa creado para hacer frente al alzamiento, hasta que tuvo que huir a Bilbo a finales de septiembre, ante la proximidad de las tropas sublevadas.

Fue apresado por los sublevados en Santoña y declaró el 15 de octubre. Estuvo preso en el Dueso y le hicieron consejo de guerra en el mismo Santoña el 10 de noviembre de 1937. Lo acusaron de auxilio a la rebelión y lo condenaron a 12 años y un día de prisión[1014]. El 11 de agosto de 1938, al igual que otros muchos ciudadanos vascos, lo trasladaron a la prisión de Puerto de Santa María, pero no estuvo mucho tiempo allí ya que el 28 de noviembre lo trasladaron a Astorga (Asturias). Allí siguió cumpliendo condena, hasta que logra la libertad condicional el 7 de julio de 1940[1015].

Cuando el 27 de septiembre de 1943 se creó la junta para controlar a las personas que estaban bajo libertad condicional en Deba, se mencionó que vivía en el municipio, en el tercer piso del número 12 de la calle San Roque. Era jornalero. El 3 de marzo de 1944 terminan la lectura de su sumario[1016].

## URBERUAGA INCHORBE, PEDRO

Eibartarra jaiotzez, Elgoibarren bizi zen, bere emazte Josefarekin batera, Garagartzan. Inguruko langile asko bezala, arma industrian lan egiten zuen, 44 urte zituelarik. 1937ko azaroak 30ean, Donostiako espetxera eraman zuten preso, Bergaran aurkitzen zelarik aurrez, seguru asko herri honetan aurkitzen zen kartzelan[1017]. Urteak pasa ziren epaitua izan zen arte eta denbora guzti hau behin behineko espetxealdian pasa zuen. 1939ko urtarrilak 21ean, 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, matxinadarekin bat egitea leporatuz. Kondena hau 15 urtekoagatik kommutatzea lortu zuen azkenean[1018].

1942ko urriak 18an Bartzelonara lekualdatu zuten eta bertan egon zen preso, 1943ko uztailak 17an askatasuna berreskuratu zuen arte[1019]. Aske geratu eta gero, Deban ezarri zen bizitzen, 1943ko baldintzapeko askatasuna zuten pertsonen erroldan agertzen baita, Azpiluetan bizi zelarik[1020].

---

1013 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
1014 AIRMN, 140 urgentziazko prozedura sumarisimoa. / AIRMN, procedimiento sumarísimo de urgencia 140.
1015 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
1016 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.
1017 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
1018 AIRMN, 675 sumario arrunta. / AIRMN, sumario ordinario 675.
1019 AGA, Espetxeko fitxa. / AGA, ficha penitenciaria.
1020 DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

Nacido en Eibar, residía en Elgoibar junto a su esposa Josefa, en Garagartza (hoy en día Mendaro). Tenía 44 años de edad, y al igual que muchos trabajadores de los alrededores, trabajaba en la industria de las armas. El 30 de noviembre de 1937 lo trasladan de Bergara a la prisión de Donostia, siendo muy posible que en Bergara ya se encontrase detenido[1017]. Pasaron años hasta que fue juzgado, y mientras tanto, se mantendrá en prisión provisional. El 21 de enero de 1939 lo acusaron de adhesión a la rebelión y lo condenaron a 30 años de prisión. Finalmente, conseguirá que le conmuten la pena por una de 15 años de prisión[1018].

El 18 de octubre de 1942 lo trasladan a Barcelona y allí permanecerá hasta que logra recuperar la libertad el 17 de julio de 1943[1019]. Pasó a vivir a Deba ya que aparece en el censo de personas que consiguieron la libertad condicional en 1943[1020].

### VALDES ALONSO, TOMAS

Debako Baldintzapeko Askatasunaren batzordean, izen honekin sinatzen duen pertsona bat aurkitzen zen, Lersundi kaleko 23 zenbakian bizi zena, 1943ko irailean datatutako erroldan[1021]. Izen bereko miliziano tolosar bat daukagu, Errepublikak desagertutzat eman zuena Asturiasen. Posible da pertsona beraz hitz egiten aritzea, izan ere, fronteko borroketan desagertu asko, altxatuen esku erortzen zirelako izaten ziren, ondoren, espetxeren batera eramanak eta epaituak izan zitezkeenak.

Maulen (Zuberoa) jaioa, Tolosan bizi zen 19 urteko gaztea zen. Altxamenduaren lehen uneetatik milizianoekin mobilizatu zen, Buruntza mendiko lehen konpainietan eta Karl Marx konpainian (UGT). Eusko Gudarostea antolatuz joan zen unean, Rusia batailoira pasa zen, bertan kabo kargua eramatera iritsi zelarik. Miliziano bezala, hainbat borroketan jardun zuen eta horietako batean zauritua izan zen 1936ko urriak 21ean. Miliziano gisa jardun zuen denbora guztian, Errepublikako Gobernuak Infiesto herrian desagertutzat jo zuen arte[1022].

En el censo de la Junta de Libertad Condicional de septiembre de 1943, aparece una persona que firma con este nombre y que vive en el número 23 de la calle Lersundi[1021]. En nuestras bases de datos figura un miliciano de Tolosa con el mismo nombre y que la República dio por desaparecido en Asturias. Es posible que nos estemos refiriendo a la misma persona, puesto que muchos de los desaparecidos en los frentes lo hacían porque caían en manos de los sublevados y posteriormente eran conducidos a alguna prisión y juzgados.

Se trataba de un joven de 19 años de edad nacido en Maule, pero que residía en Tolosa. Desde un primer momento, tras el alzamiento, se movilizó con los milicianos, en las primeras compañías del monte Buruntza y en la compañía Karl Marx (UGT). Al mismo tiempo que se iba formando el Ejército Vasco, pasó al batallón Rusia llegando a ostentar el cargo de cabo. Participó en numerosas batallas hasta que fue herido en una de ellas el 21 de octubre de 1936. Participó siempre como miliciano hasta que el Gobierno de la República lo dio por desaparecido en el municipio de Infiesto[1022].

### VEGA ALVAREZ, CRISTOBAL *VEGUITUS*

Cristobal, Jerez de la Fronteran (Cadiz) jaio zen 1914ko apirilak 14an, baina Utrera (Sevilla) zen bere bizitokia. 26 urte zituen (1940an) eta kazetaria zen, Rafagas aldizkarian idazten zuelarik. Ideia libertariodun pertsona zen eta ideia anarkistak islatzen zituen artikuluak idazten zituen.

Altxamendu militarra ematean, Sevilla altxatuen kontrolpean geratu zen eta Cristobalek ezkutatzea erabaki zuen, altxatuen errepresioaren beldur. Gerra zela eta, bere kinta deialdiei kasu ez egitea erabaki zuen gainera. Bien bitartean, altxatuen kontrolpean zeuden lurraldeetatik ihes egiteko plana prestatzen jardun zuen. Hala ere, bere lagun bati bidalitako eskutitz bat autoritate frankistek atzeman eta atxilotu egin zuten. Horrela, bere aurkako gerra kontseilu bat burutu zioten Avilan, 1940ko abenduak 18an. Bertan, 20 urteko espetxealdira kondenatu zuten[1023]. 1943ko maiatzak 19an, Donostian preso aurkitzen zelarik, hiri honetako baldintzapeko askatasun batzordeak, baldintzapeko askatasuna eman zion, Zegaman bizitzeko aginduarekin, non herriko autoritateek zaintzeko ardura zuten. Tolosako autoritateek Debakoei mezua bidali zien esanez Cristobal Itziarrera bizitzera ziohala, ABC Enpresan lan egitera, Itziarko errepideko lanetan. Autoritateek, pertsona "arriskutsu" bezala definitu zuten[1024].

Cristobalek 1944ko irailak 9an, herritik ihes egin zuen, bere sinadurak desagertzen direlarik. Honen zergatia, Makien gerrillaren sorrera burutzen ari zela zen, Frantziako Estatuan. Horregatik, muga zeharkatu eta hauekin bat egin zuen. Makiak, Gerra Zibilaren hasieratik eratutako gerrilla diferenteak deitzeko erabiltzen zen hitza zen. Baina kasu honetan, Frantziako Estatuan eratzen zebilen Gerra Zibileko beteranoen indar armatua izendatzeko erabiltzen hari gara. Hauen helburua, gerrilla bidezko gerra burutuz, Espainiako Estatuko lurralde ezberdinetan erresistentzia guneak sortu eta Estatu Frankistaren aurkako borrokaz herritar iraultza bat antolatzea zen. Horregatik, Pirinioak zeharkatu zituzten, hainbat puntutatik, 1944ko urrian eraso nagusia Aran bailaran eman zelarik. Cristobal, indar armatu honetako 4. Batailoiko 227 brigadako kide zen.

Erasoaldi honek porrot egin zuen, tropa frankistek saiakeraren berri baitzuten eta bortizki erantzun baitzien gerrillariei. Borroka gogorren ostean, ihesari ekin behar izan zien eta ehunka atxilotuak izan ziren. Cristobal, Ezkurran (Nafarroa) atxilotu zuten, bere gerrillari taldetik banandu ostean borroka batzuk medio. Metraileta batekin atxilotu zuten. Hau guztia dela eta, bere

[1021] Id.

[1022] ERRAZKIN AGIRREZABALA M., Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945, Aranzadi Zientzia Elkartea, Tolosa, 2013.

[1023] EAIRMN, 623/44 sumario arrunta. / AIRMN, sumario ordinario 623/44.

[1024] DUA, signatura gabe. / AMD, sin signatura.

aurkako gerra kontseilu arrunt bat burutu zen, Donostian, non matxinadarekin bat egitea egotzi zioten eta horregatik, 30 urteko espetxealdia ezarri zioten. Horretaz gain, berarekin zeraman dirua ere konfiskatu zitzaion[1025].

Cristóbal nació en Jerez de la Frontera (Cádiz) el 14 de abril de 1914 pero tenía su residencia en Utrera (Sevilla). Tenía 26 años de edad (1940), era periodista y escribía en la revista “Ráfagas”. Era una persona de ideas libertarias y solía escribir artículos donde se reflejaban ideas anarquistas.

Cuando se dio el alzamiento militar, Sevilla quedó bajo el control de los sublevados y Cristóbal decidió esconderse por miedo a represalias. Debido a la guerra decidió hacer caso omiso a los llamamientos a filas. Mientras tanto, se dedicó a preparar su huida del territorio bajo control de los sublevados. A pesar de ello, las autoridades franquistas interceptan una carta enviada a un amigo y consiguen detenerlo. Así, le forman consejo de guerra en Ávila el 18 de diciembre de 1940. Lo condenaron a 20 años de prisión[1023]. El 19 de mayo de 1943 mientras se encontraba preso en Donostia, la junta de libertad condicional de esta ciudad decide otorgarle la libertad condicional con la orden de que se vaya a vivir a Zegama, dejando su custodia en manos de las autoridades locales. Las autoridades de Tolosa enviaron un mensaje a las de Deba señalando que Cristóbal va a ir a vivir a Itziar y a trabajar en la empresa ABC, en las obras de la carretera a Itziar. Las autoridades se refieren a él como persona peligrosa[1024].

Pero el 9 de septiembre de 1944 huye del municipio, desapareciendo así sus firmas. La razón para ello es que se estaba creando la guerrilla de los Maquis en el estado francés. Por ello, cruzó la frontera y se unió a estos. Maquis era la palabra que definía a las diferentes guerrillas que se crearon desde el comienzo de la Guerra Civil. Pero en este caso nos referimos a las fuerza armadas de los veteranos de la Guerra Civil que se estaba creando en el estado francés. Su objetivo era mediante una guerra de guerrillas crear focos de resistencia a lo largo del territorio del estado español, y organizar una revuelta popular contra el estado franquista. Por ello, cruzaron los Pirineos a través de diferentes puntos, dándose el mayor ataque en el valle de Aran en octubre de 1944. Cristóbal era miembro de la 227ª brigada del 4º Batallón de estas fuerzas armadas.

El ataque fracasó porque las tropas franquistas estaban informadas al respecto, y respondieron violentamente a los guerrilleros. Tras duras batallas se vieron obligados a huir y hubo cientos de detenidos. Cristóbal fue detenido en Ezkurra tras separarse de su grupo de guerrilleros. Lo apresaron con una ametralladora. Debido a todo ello, le formaron Consejo Ordinario de Guerra en Donostia, y acusándolo de adhesión a la rebelión lo condenaron a 30 años de prisión, confiscándole asimismo el dinero que llevaba encima[1025].

[1025] AIRMN, 623/44 sumario arrunta. / AIRMN, sumario ordinario 623/44.



33

S E N T E N C I A

En la Plaza de San Sebastian a trece de Marzo de mil novecientos cua renta y cinco se reunio el Consejo de Guerra Ordinario de Plaza, para ver y fallar la Causa seguido como Sumario Ordinario con el nº 623-44 contra CRISTOBAL VEGA ALVAREZ, de 30 años de edad, soltero, de profesion listero, natural de Jerez de la Frontera y vecino de Iciar, hijo de Cristóbal y Ana, con antecedentes penales.-

Oido el apuntamiento, los informes del Fiscal y Defensor y el procesado, y;

RESULTANDO: Que en el curso del mes de Octubre de 1.944 grupos militarmente organizados constituidos en la vecina nacion Francesa e integrados, en su mayor parte, por individuos que lucharon en la pasada Campaña de Liberacion, encuadrados en las Fuerzas anti-nacionales y al servicio de un titulado Comite de Union Nacional formado por representantes de partidos politicos declarados fuera de la Ley, pasaron la frontera Franco-Española por distintos sectores de la misma, encuadrados en Divisiones, Brigadas, Batallones y Compañias con la mision de propagar el programa del referido Comite, organizar la subversion en territorio español y derrocarvel Gobierno y las Instituciones legitimamente establecidas en la Nacion, sosteniendo lucha armada con las fuerzas Nacionales de Guarnicion en la Frontera, constituidas por Unidades del Ejercito.-

RESULTANDO: Que el encartado CRISTOBAL VEGA ALVAREZ de antecedentes politicos izquierdista destacado, en libertad vigilada en Iciar (Guipuzcoa) por anterior condena cuyo testimonio se une al folio 8, paso clandestinamente la frontera el 9 de Septiembre de 1.944 y enrolado en el 4º Batallon 227 Brigadavolvio a pasar a España con los grupos rebeldes sosteniendo algun encuentro con las Fuerzas Nacionales disgregandose de su grupo y siendo detenido en las cercanias de Ezcurra por Fuerzas de la Division 162, sin resistencia ocupandosele una ametralleta, viniendo en las fuerzas rebeldes como soldado.- HECHOS PROBADOS.-

RESULTANDO: Que el Ministerio Fiscal en su informe considero los hechos como constitutivos de un delito de adhesion a la rebelion militar previsto y penado en los articulos 237 y 238 del Codigo de Justicia Militar solicitando se impusiese al encartado la pena de muerte.-

CONSIDERANDO: Que los hechos que se declaran probados, directamente encaminados mediante el alzamiento en armas a sustituir el Gobierno e Instituciones fundamentales de la Nacion, formando los encartados grupos militarmente organizados superiores a diez individuos y hostilizando a las Fuerzas del Ejercito, exustiendo en el procesado un perfecto conocimiento de los fines que se proponia la rebelion y una plena identificacion con los mismos que se deduce de sus antecedentes politicos y experiencia de la pasada Campaña, son constitutivos de un delito de adhesion a la rebelion militar previsto en el art. 237 y penado en el art. 238 del Codigo de Justicia Militar, del que es responsable en concepto de autor el procesado CRISTOBAL VEGA ALVAREZ.-

CONSIDERANDO: Que concurren como circunstancias espaciales de agravacion las de gravedad y transcendencia en el hecho cometido y el daño ocasionado y podido ocasionar.-

CONSIDERANDO: Que dada la naturaleza del delito cometido y la ausencia de daños concretos acreditados no procede exigir responsabilidades civiles.-

Vistos los articulos que se citan y demas de general aplicacion.-

FALLAMOS: Que debemos condenar y condenamos al procesado CRISTOBAL VEGA ALVAREZ como autor del delito ya definido, a la pena de TREINTA AÑOS DE RECLUSION MAYOR y accesorias de interdiccion civil e inhabilitacion absoluta durante la condena, con abono de la prision preventiva sufrida.-

A las armas ocupadas ocupadas se les dara el destino reglamentario y un testimonio de los particulares que hacen referencia ala posesion de moneda extrangera por el encartado sera enviado a la Jurisdicion espacial de delitos monetarios.-

Asi por esta nuestra sentencia, lo pronunciamos, mandamos y firmamos

**Cristobal Vega Alvarez Makietan izandako parte hartzeagatik izan zuen epaiketako sententzia** (AIRMN, 623/44 sumario arrunta). / Sentencia de Cristóbal Vega Álvarez por el juicio por participar en los Maquis. (AIRMN, sumario ordinario 623/44).

# 5. Lekukotzak

## Testimonios



# Agirregabiria Aizpurua, JOSEFA JUANA



Josefa Juana Aguirregabiria, Itziarko Gaintza-Etxeberria baserrian jaio zen 1932ko ekainaren 30ean. Josefa Antonia Aizpurua Beristain eta Rafael Aguirregabiria Irigoien ziren bere gurasoak. Familia abertzalekoa, aita Larrinagako espetxean egon zen preso.

### 1936an zuk lau urte zenituen. Zer gogoratzen zara gerrako lehen momentuaz?

Beste baserri batzuk daude hemen inguruan eta militarrak bertatik pasatu behar zutela ohartu ginen. Baserrietako guztiak errekaren albo batera joan ginen, ni horrena gogoratzen naiz. Olondoko zuloa deitzen genion leku horri. Niretzako festa bezalako bat izan zen hura, ez nuen beldurrik. Horrelako ezkutaleku batean egon ginen eta militarrak mendi goitik pasatzen Deba aldera ikusi genituen. Abioiak ere ikusi genituen. Ez dakit zenbat denbora egon ginen gordeta, baina horrena gogoratzen naiz.

### Familian norbait gerrara joan zen?

Jose Martin anaiak, gerrara alde egin zuen, Bizkaia aldean jardun zuelarik, ez dakit ze bandotan. Gerra amaituta herrira itzuli zen, ia segituan Afrikara soldadutza bidali zuten. Aitaren kasuan, Itziarreko beste hainbat bezala, preso eraman zuten, Bilboko Larrinaga espetxera. Bi urte egon zen bertan, bi pneumonia pasa zituelarik, herriko jendeak ez zuelako sinatu nahi bera aske uzteko.

### Nolakoa zen aita?

Abertzalea eta euskalduna zen aita, batzokian ere ibiltzen zen. Itziarko beste batzuekin egon zen preso eta beraiekin preso zeuden batzuk, kamioi batean sartu eta mendi batera eramanak eta fusilatuak izan ziren.

Familia bisitara joaten zen eta koltxoi eta guzti eraman ziotelarik. Hala ere, ez zidaten asko kontatu, beldur handia zegoen eta.

### Etxean zuek bakarrik geratu zineten?

Bai, baina kaleko jendea morroi ere ibili zen gure etxean, gose handiko garaia zen, batez ere kalean eta tripa-truke lan egin zuten batzuek gure baserrian.

Etxean geratu ginen eta Itziarko batzuk kalte egin nahi izan ziguten, herritik kanporatzea nahi ziguten. Hala ere, amak erabaki zuen etxean geratuko ginela eta hil behar baginen denok batera hilko ginela. Azkenean ez ziren mehatxuak gauzatu.

### Ondoriorik izan zuen erabaki honek?

Nik dakidala ez, ez genuen isunik jaso ez eta konfiskaziorik.

### Zer nolako oroitzapena duzu Itziarko Soldadu Langileen Batailoietaz?

Urtia baserrira etorri ziren, errepideak egitea. Gure etxe aurrean, Sindikatua deitzen genion baserri bat zegoen eta hor militarren ofizina zegoen. Kanpotarrak ziren denak.

# Aizpurua Askasibar, BIZENTA



Itziarko Iparragirre baserrian jaio zen, 1931ko martxoak 28an.

### Gerra hasi zenean zuk 4-5 urte edukiko zenituen. Zer gogoratzen duzu edo zer kontatu dizute?

Kontatu gauza gutxi. Nik gauza bakanak gogoratzen ditut, adibidez, Itziarren miliziano eta altxatuen artean eman zen borrokan hona tiroak botatzen zituztenekoa. Arraska parean baldak genituen zintzilik eta bala batek zulatu zituen. Gero gogoratzen naiz baita ere, txabolan ginela, gau batean oilo guztiak eraman zituzten frankistek.

### Zure gurasoak zein ideologiakoak ziren ?

Beti abertzaleak. Hiru anai frontera joan ziren eta gure aita bakarrik gelditu zen, gure aita eta beste osaba bat. Gure aitak joatea pentsatu zuen eta gero Debako Berasaluze alkateak esan zion andrearengan, umeengan eta baserriarengan pentsatzeko.

Orduan nire aita hemen gelditu zen, eta hiru osabak gerran ibili ziren. Bat Laguardian hil zen. Irailean Gernika beraien omenaldia izan genuen. 180 abertzaleren omenez izan zen omenaldia. Ni mareatu egin nintzen, beroa zegoen eta. Tronpeta jo zutenean mareatu egin nintzen.

### Beraiek buelta egin zuten edo preso egon ziren ?

Preso egon ziren. Gure aita alkatearen atzetik ibili zen San Roke egun batean. Orduko alkateari anaiak askatzeko baimena eskatu nahi zion. Bere sinadura behar zuen bere anaiak askatzeko. Egun osoan bere atzetik ibili ondoren, iluntzeko azken orduan, kasu egin eta bere anaia non zegoen galdetu zion. Santoñan erantzun zion eta alkateak esan zion bertan ongi egongo zela. Osaba urteetan gaizki egon zen, itsututa. Alkateak, ordea, esaten zuen denbora gehiago pasa behar zuela kartzelan.

### Orduan, bi anai horiek Santoñako kartzelan egon ziren ?

Bai, bai. Eta hemen ibili zirenak aske. Gure aita eta besteak beste aldekoekin ibili ziren. Gure amak esaten zuen inoiz ere ez zuela horrenbeste lotsa sentitu (esnea eramaten baitzuen Deban banatzeko). Tabernara joan zen behin, lehen errepublikarren zentroa zena, eta bertako mantel eta traste guztiak hondartzan erretzen ikusi zituen. Hori ikusteak lotsa handia eman ziola kontatzen zuen.

### Mutrikun, Saturraranen, emakumeen kartzela zegoen. Zerbait entzuten zenuten ?

Bai, galtzerdiak eta puntua egiten zutela entzuten genuen. Gogoratzen naiz baita ere, beroki berri bat estreinatzeko, Saturrarango presoak egindakoak zirela. Konjuntoak eta dena egiten zituzten. Hiru ahizpa herrian bizitzen geratu ziren.

### Debako emakume nazionalista edo errepublikarra zenari mespretxurik egin al zioten?

Badakit behin emakume bat bere alabarekin udaletxean eduki zutela 15 egunez, bere beharrak balde batean egiten eta guzti. Anai bat hil eta ama-alabak udaletxean sartu zituzten. Presoentzako ogia estraperlatzen nuen nik, okinaren laguna nintzenez, gaizki irten zirenekin. Horretaz gain, “rekadistak” ere ezagunak ziren, horien artean Martzelina Egaña zegoen, trenez donostiatik gauzak ekartzen zituena.

# Alcibar Sorazu, ASUNCION



1927ko martxoak 4an jaio zen Arzabal auzoan. Bere gusasoak, Maria Aventura Sorazu Unanue (Zoatzuzar baserrikoa, Itziar) eta Jose Mari Alcibar Osa (Sakoneta baserrikoa).

### Debako bonbardaketak gogoan dituzu?

Bai, itsasontzi bat etorri zen. Zubia bota nahi izan zen. Zubia pitzatu egin zen. Bota ez zuten egin baina etxe bati raja handia egin zioten. Raja hartan gu bizi izan ginen gero. Aita bota egin zuten kaminerotik eta hantxe bilatu genuen tokia denak sartzeko. Gure familia handia zen eta leku bat harrapatu behar genuen, nire amaren anaia eta osaba ere gurekin baitzeuden.

### Zer gertatu zen? Zer gogoratzen zara gerra hasi zeneko momentu horietaz?

Gerra hasi zenean umeak ginen. Udaletxeak dauzkan arkupe horietan dena hondarrezko zakuz beteta zegoen. Abioiak etortzen zirenean herria bonbardatzeko, denak refugiora joaten ginen. Egon zen portikoaren elizan ere bai beste refugio bat. Han ere dena zakuz beteta zegoen.

### Zure aitak martxa egin zuenean, nora joan zen?

Kamioi batean joan ziren eta salto egin zuen gure aitak. Ez dakit noraino joan zen. Ez naiz akordatzen. Baina salto egin zuen eta hankako behatz handia apurtuta ekarri zuen salto horregatik. Baina traka-raka traka-raka, baserrira ailegatu zen.

### Berriro ere etxera bueltatu zineten?

Bai. Etxera bueltatu ginen. Kamineroen etxera aitarekin. Baina aita bota egin zuten. Kaminero lanetik bota egin zuten. Abokatu bat bilatu zuen. Nik ez dakit nola bilatu zuen aitak. Gizon txiki bat zen. Berriz sartu zen aita kaminero. Borroka asko egin zuen horretarako.

# Altzibar Osa, PATXI



1927ko abenduaren 3an jaio zen, Itziarko Aitz-Zuri baserrian. Familia abertzale eta erlijioso batean jaio zen, gerra hasi zenean, beraien aita eta honen anaia frontera joan ziren. Ondorioz, ama hamar seme-alabekin geratu zen eta bere jaiotza baserrira joan behar izan ziren bizirauteko. Aita eta osaba hiru urte pasata itzuli ziren Debara.

### Gerra hasi zenean zenbat urte zenituen?

Nik zortzi.

### Zer gogoratzen zara lehenengo momentu horietaz?

Aitak ihes egin behar izan zuen etxetik. Aita, Jose Manuel Altzibar, osaba eta anaiak Itziarko zinegotziak ziren eta. Jaietan, nire aita batzokiko ikurrina ateratzen zuena zen. Gogoratzen naiz Batzokian egiten zituzten bilerena, Prudencio Aguinagalde, Antonio Akortaten Sorrero eta gure aita eta osaba bat egoten ziren. Niri askotan eraman ninduen, gailetak ematen zizkidan beraiek bilera egiten zuten bitartean. Nire osaba alkateordea zen.

### Altxatuak herrira hurbiltzean ihes egin behar izango zuten.

Bai, gure aitak ihes egin behar izan zuen. Berarekin, alkatea eta beste asko. Amaren aldetik, Vicenta Osa, bi osaba ere herritik joan ziren, Mendata baserrikoak. Hauek, preso hartu zituzten eta Iruñeako espetxean egon ziren. Patxiko Osa, Urduñako espetxean egon zen preso, bitartean bere bi seme, 19 eta 17-18 urtekoak, SLBetan izan zituzten. Aita kartzelan eta bi semeak lanean.

### Aita nondik nora ibili zen ihesean?

Markiegitarrekin batera joan zen Bizkaia aldera, errepresioaren beldur. Herriz herri ibili ziren, baina Karrantzara iristean, Markiegik berak esan zien “Hemen Euskadiren mugara iritsi gara, hemendik aurrera ni ez noa”. Puntu honetan zatitu egin ziren, herrira itzultzea arriskutsua baitzen. Trenbideetan lan egiten zuen familia zuen eta ezkutuan ibili zen, hainbat baserritan ezkutatuz. Berak zioen Martutene inguruetan eta Orion ibili zela herrira itzuli arte.

### Ama berriz etxean seme-alaba guztiekin geratu zen?

Seme txikienak sei hilabete zituela, bere jaiotze baserrira, Mendatara joan ginen. Akordatzen naiz despedidarena “Agur eta ikusi arte” esan zigun, hiru urtez ez zen Itziarrera itzuli aita.

### Nola bizi izan zenuten gerra Itziarren?

Amaren baserrian, Mendata izenekoa, lana egin behar zen eta niri ganadua zaintzera bidaltzen zidaten. Horrelako batean, bi miliziano agertu ziren eta beraiekin joateko esan zidaten. Amonak denak ikusi eta etxean ezkutatzeko esan zidan.

Goiza zen eta gutxira, sukaldeko leihotik, mendian behera dozena bat inguru miliziano ikusi genituen, kaleko jantziekin eta fusil eta pistolekin. Txartudi aldetik berriz nazionalak agertu ziren, askoz gehiago ziren metrailadoreak zeramatzaten. Milizianoak, menditik jaitsi, itxiturak eta erreka kontran jarri ziren tiroka, gero trenbide aldera mugitu zirelarik, bertako tunelean ezkutatuz. Nazionalak gure baserrira iritsi ziren eta aurreraxeago zegoen “Haitz-zubi” izeneko haitz luze eta handi batean jarri zuten trintxera. Ondorioz, tiroketa hasten zenean, gure baserrian joten zuten balek. Gu bitartean baserrian ezkutatua egon ginen.

Tiro hotsa amaitu zenean, baserritik atera eta zaldiak eta otarrak hartu eta kaskiloak batzera joan behar izan ginen, bi otarra oso bete genituen. Arratsaldeko 19:00ak aldera, soldadu bat ekarri zuten baserrira, bala zauri batekin. Gela batean zuten, oso larri zegoen eta apaiza ekarri zuten konfesa zedin. Artatu eta bizirik atera zuten etxetik, zaldi baten gainean, baina esan ziguten Itsasburu baserrirako bidean hil zela gaztea.

### Soldaduz beteko zen orduan Debako etxeak

Gurean, sei soldadu utzi zituzten reserba moduan, herrian agertu ahal ziren “gorriak” harrapatzeko. Jatekorik ez zutenez, genuen jan guztia irentsi zuten. Bigarren erreleboa iritsi zenean, militaren ardura zuen kaboa, aitarekin trenbideetan lanean ibilitakoa zen, beraz, kanpotik guri jana ekartzeaz arduratu zen.

### Bonbardaketez oroitzen zara?

Abioiak hurbiltzen ziren bakoitzean, gu etxe ondoko tunelean ezkutatzen ginen, ama eta izeba errosarioa errezatzen ibiltzen zirelarik etengabean. Itasoz ere bonbardatu zuten herria eta Eusko Gudontzidiko ontziak igarotzen ere ikusten genituen.

# Altzibar Sorazu, JUAN




1930eko ekainaren 27an jaio zen, Artzabalen jaio zen. Kamineroen etxean jaio zen, bere aita bidezaina zelako, aita lanpostutik kanporatua izan zen, baina denborara berreskuratzea lortu zuen.

## Nola gogoratzen duzu gerraren hasiera?

Gerra hasita zela, Diputazioko bidezainak Donostiatik Bilbora zihoazen kamioi batean eta aita hauekin batu zen. Pentsakeraz gorria zen, ezkertiarra. Bidean zihoazela, kamioitik erori egin zen eta hainbat saihets hautsi zituen, kamioia ez zen geratu bera jasotzera. Saihetsak apurtuta, guregana iristea lortu zuen.

Guk bitartean, kamineroen etxea utzi eta Lasturko Goikoetxea baserrira joan ginen, astoa, arropak eta denarekin. Etxe hau, amaren ahizpa Ana Sorazu Venturarena zen, berau herritik ebakuatu egin zuen.

## Nola izan zen bizitza bertan?

Denborara, aita baserrira iritsi zen, baina hiru hilabete behar izan zituen osatzeko. Bitartean, mutil gazteak sabaian ezkutatzen ginen, frankistek gidari eraman ez ziezaguten.

Aita osatu zenean, bidezainaren etxera itzuli ginen, baina lanetik bota zuten, beraz beste etxe bat bilatu behar izan genuen. Altxatuek egoera hau baliatu zuten etxea eta altzariak konfiskatzeko. Aita igeltseroa zen.

## Bonbardaketak egon ziren herrian?

Nazionalak herrian sartu zirenean, etxe guztietako balkoietan Espainiako bandera jarri behar izaten zen. Egun batean, Bizkaia aldetik hegazkin bat iritsi zen eta bidezainen etxean bandera hura ikustean bonba bat jaurti zion, trenbidean eztanda egin zuena. Horrelakoetan, gu zubi azpian sartzen ginen, hau babesleku bezala erabiliz.

Itsasoz ere bonbardatu zuten herria, bidezainen etxea kaltetu zutelarik. Eskolan eta udaletxean hondar zakuz eginiko babeslekuak zeuden eta baita Ostolazaren sotoan ere.

## Familian gerrara nortzuk joan ziren?

Anaia eta aita joan ziren, Jose Martin eta Rafael. Gainontzeko familia nazionalengandik hurbilago zegoen, gu errepublikarrak ginen.

## SLBetaz gogoratzen zara?

Lanean hasi nintzen 11 urterekin eta haiekin hasi nintzen, ABC Ferrocarriles y Contrucciones enpresarentzat sukalde laguntzaile moduan. 100 bat pertsona ibili ziren lanean hemen, Arruako elizatik Itziarrerako bideak egiten. Erlazio ona egin nuen presoekin, debar eta inguruko asko ere bertan egon ziren lanean.

Gurasoak ere pozik zeuden, jornala irabazten nuelako, sei pezeta eta erdi irabazten nituen egunean. Errepidea amaitu zenean, kanterara lanera pasa ginen, presoekin batera.

### Debatik jende askok egin zuen ihes?

Hori kontu jakina da, nire koinatuak, Luciano Idiaquezek ere herritik joan behar izan zuen. Ostean, aldundian bidezain gisa hasi zen, gure familiako etxean bizi izan zelarik.

### Errazionamenduaren inguruan zer dakizu?

Goizeko bostetan kolan jartzen ginen, kanteran lan egiten genuenok kartilla bat genuen eta hilean behin jasotzen genuen ekonomatoan. Astoarekin egunero Arroan ogia hartu eta Itziar eta inguruetan banatzen genuen, "txusko" bat pertsonako, eta kanterako langileentzat hiru.

### Estraperloa ezagutu zenuen?

Presoentzako ogia estraperlatzen nuen nik, okinaren laguna nintzenez, gaizki irten zirenekin. Horretaz gain, "rekadistak" ere ezagunak ziren, horien artean Martzelina Egaña zegoen, trenez donostiatik gauzak ekartzen zituena.

# Amuchastegui Echave, IÑAKI



Nació el 21 de abril de 1934, en Deba. Vivió con su madre, Francisca Echave, que nació en Itziar, en el caserío Etxenagusia. No tuvo ningún trato con su padre.

### Tu hermano combatió en la Guerra Civil.

Si, fue voluntario cuando todavía no había cumplido los 18. Combatió en Asturias y después en Bizkaia, donde le hirieron, concretamente en Durango. Después, los sublevados lo hicieron preso y lo llevaron a Extremadura, a un batallón de trabajadores. Cuando volvió a Deba, estaba de parranda en el Casino Deva cuando gritó "Gora Euskadi Askatuta". El dueño llamó a la Guardia Civil y detuvieron a mi hermano. Por ese incidente lo tuvieron preso en Ondarreta.

### ¿Tu madre se quedó sola con seis hijos durante la guerra?

Luis el mayor se fue al frente y otros dos de tuvieron que ir de criados y mi madre se quedó con tres hijos. El padre de mi mujer, Raimundo Elosua también combatió en el frente y estuvo preso tres años en Miranda de Ebro, construyendo la estación de dicha ciudad. Contaba que lo pasaron muy mal. Un veraneante que solía ir a la casa de mi suegra le ayudó a volver al pueblo..

### ¿Recuerdas los bombardeos?

Solo tenía tres años, pero siempre me han contado que murió un joven en ellos.

### ¿Y qué recuerdos tienes del racionamiento?

Lo recuerdo, teníamos una cartilla y un día establecido para recoger lo que nos tocaba. Nos daban muy poca cosa, lo que era para quince días nos duraba tres o cuatro. Por eso, teníamos que ir a los caseríos a pedir leche y harina de maíz. Esos años sobrevivimos gracias a la leche y harina de maíz de los caseríos, con los cuales hacíamos talos y borona. También estaba el Auxilio Social, donde íbamos yo y mi hermano. Íbamos con una cazuela que tenía las raciones en distribuciones separadas.

### ¿Cómo era la escuela?

Había mucho clasismo, a los pobres nos apartaban y nos mandaban a por leña y cosas así. En la escuela había dos tipos de estudiantes según el dinero que tenían.

### ¿Recibió algún castigo tu familia?

En nuestra situación solo les quedaba cortarnos la cabeza. Mi madre trabajó en muchas casas del pueblo y una de ellas era la del juez de paz. Un día, el juez le apareció en la cocina a incriminarle algo y mi madre le respondió "Si yo he hecho algo mal, pues córtame también el cuello". Llego contenta a casa porque supo hacerle frente.

# Aranberri Ostolaza, MANUELA TERESA



1938ko irailaren 17an jaio zen, Isasi baserrian (Itziarren). Aita, Antonio Aramberri Araquistain, bere lau anaiekin batera gerran jardun zuen, hiru errepublikarrak eta bat abertzalea zelarik. Bi gerran hil ziren eta gainontzekoek espetxea eta SLB pairatu zituzten.

### Nolakoa zen zure aita?

Abertzalea eta erlijiosoa, bere gainontzeko anaiak errepublikanoak ziren. Gure aitak, aitaita laga zuen gure amarekin eta nire bi anai arrebekin eta gerrara joan zen. Batailoi abertzale batean jardun zuen.

### Zauritu zuten edota preso egon zen?

Duesoko kartzelan sartu zuten eta espetxeratua egon zen bi urtez. Amak Itziarko bikarioari eskatu zion aitaren askatasunaren alde sinatzeko eta ukatu egin zen apaiza. Orduan, nire izebarekin jarri zen kontaktuan, eskuindar batekin ezkondua zegoena. Aitaren alde sinatzea lortu zuen eta aske utzi zuten aita.

### Zure osabak, errepublikarrak zirenak, zer nolako bizipenak izan zituzten?

Jose Agustinen kausan, Bizkaiako herriren batean fusilatu zuten. Juan Jose eta Pedro berriz SLBetara bidali zituzten. Lehena, errepideak eta trenbideak egiten ibili zen. Urteetara itzuli ziren herrira, osasunez ondo ikusten ziren baina gazterik hil ziren biak.

### Aita Itziarrera itzultzean zailtasunik izan zuen?

Lanerako ez, baserritik bizi baiginen. Baina herrian izan zituen arazoak, frankista eta karlista ugari baitziren bertakoak. Elizara joan zen batean, emakume bat joan zitzaion espainiako banderarekin eta “Hik elizara sartu nahi badek, honi muxu eman behar diok” esan zion, aitak, sartu ahal izateko musu eman behar izan zion. Anaia errepublikarrak ez ziren elizara joaten.

Mezaren ostean, herritarrak ondoko tabernan biltzen ziren hamaiketakorako eta ez zioten sartzen utzi ere batean. Hori guztia abertzalea zelako gure aita.

### Errezionamenduaren oroitzapenik baduzu?

Goserik ez genuen pasa, baserritik bizi ginenez beti genuen jateko zerbait. Hori bai, txokolatea bezalako produktuak falta ziren.

### Saturraraneko espetxearen inguruan berriz nolako oroitzapenak dituzu?

Gure etxe parean, asturiar emakume bat etorri zen bizitzera “La asturiana” deitzen genion. Bizikleta denda ireki zuen herrian, nahiz eta tratu hona genuen berarekin, ez zigun inoiz espetxeko ezer kontatu.

### Emakumeen aurkako mespretxurik kontatu dizuete?

Nire izebak kontatzen zuen, Jesusak, Itziarreko emakume talde bat, gure baserriaren bueltan danborra jotzen eta bueltaka ibiltzen zirela, “Lapurrak zarete” deitzen zioten bitartean baserriko anai denak gerran zebiltzalako. Burla asko egiten zioten anaiengatik.

# Arozena Egaña JOSEFA eta Aldalur Urkiri, APOLINAR



Josefa Arozena eta Apolinar Aldalur, Itziarren jaio eta bizi izan diren senar emazteak dira. Baserri bizitza izan zuten hasieratik eta ez zuten errepresio politiko zuzenik jaso. Baserrikoak izanda, ez zuten goserik pasa, baina ogi falta sumatu zuten.

### Josefa: Etxekoren bat gerran ibili zen?

Amak kontatzen zuen, bere anai bat, jesuita, Egaña Beristain *, atxilotu, zulo bat egitera behartu eta bertan exekutatu zutela. Ez naiz bere izenaz gogoratzen.

### Josefa: Gaztelaniaz bazenekien?

Bai, soldadu trabajadoreekin ikasi nuen, Txartudi baserrian izaten genuen janaria beraientzat. Gehienak kanpokoak baziren ere, Bilbokoak ere bazeuden. Nire aitak bat batailoitik ateratzea lortu zuen. Urtia baserrian bizi ziren langileak, errepideak egiten zituzten bitartean.

### Apolinar: Familiakorik ibili zen gerran?

Etxera frankistak etorri ziren eta aitaren hiru anai eraman zituzten, Simon, Jose eta Antonio Aldalur Carrera. Aita, Jose Martin, Lasturreko baserri batean ezkutatu zen, gerrara ez joateko. Simon, gerran zauritu egin zuten.

### Biek batera: Estraperloa eta errazionamendua nola gogoratzen duzue?

Gosea pasa genuen, batez ere ogiarena. Udalari baserrian jasotzen genuenaren zati bat entregatu behar zitzaion, babak, garia, baratzeko gauzak… Baserri guztietan bezala, zati bat guretzako gordetzen zen. Ohikoa izaten zen etxera konfiskazioak egitera etortzea eta zerbait gordetzen genuen ikustera etortzea. Artoa eta ogia etxean egiten genituen, baina jende askok estraperlatzen zuen ogi-irinarekin, batez ere okina ibiltzen zen horretan.

Errazionamenduaren kasuan, hilean behin joaten ginen dendara kartillan zegokiguna jasotzera.

# Arrizabalaga Alberdi, PRUDENCIO



1932an jaio zen Prudencio, Txartudi-beheko baserrian. Gerra zela eta, aita ezkutatu egin behar izan zen ez errekrutatzeko. Ondarretan preso egon zen geroago.

### Gerra hasi zenean zer gertatu zen zure etxean? Zein pentsamendu politikokoak ziren?

Etxean ez zuten politikarekin erlaziorik. Aita soldaduak iritsi zirenean ezkutatu egin zen, frontera eramana izan ez zedin. Egun batzuk egin zituen ezkutatuta eta gero zortzi egun gehiago arrebarekin.

### Gerra garaiaz nolako oroitzapenak dituzu?

Frontea hemen egon zenean, beldurrez etxean ezkutatuta pasa genuen eguna. Ostean, mendi tontorrean bala-zorro mordoa aurkitu nituen.

### Familiakoren bat preso egon zen?

Gure aita preso egon zen Ondarretan. Herrian hartu eta espetxera eraman zuten. Pertsona baten bitartez aske uztea lortu genuen.

### Baserrikoak izanda, konfiskaziorik izango zenuten?

Soldadu frankistek behin baino gehiagotan arrautzak eta oiloak eramaten zituzten etxetik. Mendata behean, familia errepublikar bat zegoen eta hauei ere konfiskatzen zioten.

### Saturraraneko emakumeak Deban ezagutu zenituen?

Bai, nire lankidea izan zen Silvino Moran. Amak, Saturrarango espetxean zela izan zuen, oso gaizki pasa zutela kontatzen zidan.

# Arrizabalaga Oñederra, MIREN ITZIAR



1932ko abuztuaren 20an jaio zen, San Roke kalean Deban. Kanpaiak jotzean, babeslekuetara joaten ziren. Errazionamenduaren ogi beltzaz oraindik gogoratzen da.

### Zer gogoratzen duzu gerraz?

Bost urte nituen eta abioiez gogoratzen naiz. Pasatzen zirenean, nire ama eta bizilaguna errezatzen hasten ziren eta ni bizilagunaren semearekin balkoitik abioiak begira egoten nintzen. Aita eta beste gizon bat etxetik joaten ziren abioiak iristen ziren uneoro.

### Baina bonbardaketak ere egon ziren

Bai, udaletxean aurkitzen zen babeslekura joan ginan egun horretan, ondarrezko zakuz beteta zeuden arkuak eta hauen atzean egoten ginen, jende asko batzen ginen bertan. Nire aita, soroetan lan egiten zegoen batean, berari amaiketakoa eramatera joan ginen eta abioi batek bonba bat jaurti zuen, izugarrizko zuloa utzi zuen lurrean.

### Gerra denbora kanpora joan zineten edo Deban geratu zineten?

Gu Debatik ez ginen atera. Ni bakarrik bizi nintzen oraindik.

### Deban asko joan ziren Bilbo aldera?

Askok esaten zuten joan zirela bai.

### Gogoratzen zara errazionamenduaz?

Bai. Kolan egotea tokatzen zitzaidan neri. Ogi txiki batzuk ematen zizkiguten. Ondarrarekin eginak zeudela ematen zuten. Gogor gogorrak egoten ziren. Patata egosten genuen eta babarruna ere bai, ez zen bestetik egoten jateko.

# Arrona Salegui, JOSEFA AGUSTINA



Itziarreko Baratza baserrian jaio zen 1932ko martxoak 31an. Jose Maria Arrona Albizu aita eta anai bat ezkutatu egin ziren errekrutatuak ez izateko. Domingo anaia, gerrara joan zen eta ez dute ezer jakin berea ordudanik.

### Gerra hasi zenean zuk 4-5 urte zenituen. Zer gogoratzen zara edo zer kontatu izan dizute gerraren inguruan?

Niri gerrako konturik ez zidaten kontatu. Irailaren 23an, tiro hotsa entzun genuen Itziar ingurutean. Egoeraz kezkatuta, nire osabak amari esan zion: “Hemen ez dago egoterik”. Bizkarrean hartu, etxetik irten mendiaren atzean koba bat zegoen eta hara joan ginen. Balak pasatzen ziren gure parean.

### Zenbat joan zineten kobazulora?

Osaba, ama eta ni. Bizkarrean eraman zidan, ezin nuen oinez joan bakarrik eta.

### Zenbat denbora egon zineten han?

Ilundu arte. Erretiratu zirenean gu ere bai. Gabean etxera itzuli ginen, non ohartu ginen aita eta beste osaba ezkutatu egin zirela ere bai beste nonbaiten. Ama kezkatuta zegoen: “Hauek non egongo ote dira? Etorriko dira?”. Gure amama ere gogorra zen, guardia zibila etorri zen kuartelera eraman behar zutela, amonak ezin zuen bidaia oinez egin, asto gainera igotzera behartu eta Debako kuartelera eraman zuten. Handik denbora gutxira hil zen.

### Konfiskaziorik edo izan zenuten?

Egun batean, soldadu batzuek etxeko oilo guztiak hil eta eraman zituzten, bitartean gu isilik egon behar.

### Familiako norbait gerran egon zen?

Domingo aitaren anaia, gerra hasterako joan egin zen. Ez genuen ezer gehiago jakin berarekin inguruan. Ez dakigu ez hil zen, ez ezer. Bere arrastorik ez dugu. Aita eta osaba bat ezkutatu egin ziren, frankistek errekrutatu ez zitzaten, baina osaba beranduago gerrara joan behar izan zen frankistekin. Amaren aldetik, familiako bat gerrara joan zen, karta bidez jakin genuen bizi zela, baina ez naiz bere izenaz gogoratzen.

# Azkoitia Deba, LIBE eta, MIREN



1926ko azaroak 15ean eta 1928ko ekainak 24ean jaio ziren, hurrenez hurren. Familia abertzalea zen. Aita, Antonio Azkoitia Mendizabal eta bere anaia Agustin, preso egon ziren. Aitak, udalean gaueko guardia izan zen gerra aurretik, ostean aroztegi bat ireki zuen. Ama, Julia Deba Albizu, etxeak garbitzen jarduten zuen.

### Gerra garaian, hasi zenean 1936an, zuk zortzi (Miren) eta zuk hamar (Libe). Zer gogoratzen duzue?

**M:** Frontea gertu egon zen egunetako oroitzapen oso txarrak ditut, eta baita nazionalak herrian sartu zirenekoa. Antonio Nava, madrildarra zen udatiar bat, herriko plazara sartu zen “Arriba España, Viva España” oihuka. Gero, nazionalak, udaletxean sartu eta Agirreren eta errepublikarren argazkiak atera, bandera eta ikurrinak eta plazan su eman zioten. Ostean, irudi erlijiosoak eta altxatuen bandera ipini zituzten udalean.

**L:** Gure amona eta aitaitak, udaletxe ondoan bizi ziren eta ikurrina zuten balkoian, iritsi aurretik kendu eta puskatu egin zuten, beldurrez, zati zuriak zapi bezala erabiltzeko eta gainontzekoa erre egin zuten.

### Herria bonbardatu zuten ere

Itsasontziak askotan hurbiltzen ziren kostara eta batean bonbardatu egin zuten. Kanpaiak jotzen ziren eta gu elizako babeslekura joaten ginen.

Berdina gertatzen zen hegazkinekin. Hegazkin bat agertzen zen bakoitzean, astean behin edo pasatzen ziren herritik eta gu korrika joaten ginen babeslekuetara.

### Familiakoren bat edo joan zen gerrara?

Aita, Eusko Gudarostearekin joan zen. Laredon preso egin zuten. Agustin osaba ere preso eraman zuten. Osaba, gauzak lasaitu eta urte askora berriz eraman zuten preso denbora labur batez.

**M:** Gure ama, lau seme alabekin geratu zen herrian. Hotel batean lan egiten zuen eta guk bitartean etxez etxe joaten ginen ea jateko zerbait ematen ziguten. Gerra ostean, amak arraindegia ireki zuen.

### Askori etxea edo ondasunak kendu zieten?

**L:** Gure etxera askotan etortzen ziren miaketak egitera, batean, amari, oraindik ordaintzeke zuen josteko makina konfiskatu zioten. Ondoren “Margaritei” eman zietelarik. Amak oraindik ordaintzeke zuen makina. Gero denborara itzultzea lortu zuen.

**Saturraraneko emakumeez zer esan dezakezue?**

**L:** Txikiak ginen, baina pena ematen ziguten. Batzuk gero herrian bizitzen geratu ziren.

**Razionamendua eta estraperloa ere bizi izan zenuten?**

**M:** Bale batzuk genituen ogia, olioa eta azukrearentzako

**L:** Estraperloa oso orokortua zegoen. Gure etxe azpiko dendak zaku ugari mugitzen zituen estraperloan, baina guk ez genuen dirurik ezer erosteko. Diru asko egin zuen jendeak horrekin.

# Berasaluze Markiegi, XABIER



1931ko urtarrilaren 4an jaio zen, Kale Zaharrean. Oso haurtzaro gogorra bizi izan zuen gerrarengatik. Aita itsas-gizona zen eta ez zen etxean asko egoten eta ama, oso gazte hil zen minbiziarengatik. Beraz, Xabier eta bere arreba, amamarekin hezi ziren. Maitasunarekin gogoratzen du bere osaba ere, Polentzi Markiegi, oso senide garrantzitsua izan zen bere bizitzan.

### Nolakoak ziren zure gurasoak? Zure ama nolakoa zen?

Nire ama zen ama guztiak diren bezalakoa, oso ona. Guk ama galdu genuen eta gelditu ginen nire arreba eta ni amarik gabe. Gure aita itsas-gizona zen, Bartzelonatik Estatu Batuetara itsas bidaia egiten zuen eta han ibiltzen zen gero 6 hilabetez. Ostean, berriz, etortzen zen Bartzelonara. Joan eta etortzeko 36 egun izaten ziren. Debara ezin zuen etorri Bartzelonan aste bat ematen baitzioten bakarrik. Ezkontzeko ere gure aitonak, amamak eta guraso guztiak Bartzelonara joan behar izan ziren. Montserraten ezkondu ziren, horregatik nire arreba Montserrat da izenez.

### Zure aita, gerra hasi zenean itsasontzian zegoen?

Bai, itsasontzian zegoen. Joan zirenean errepublika zegoen hemen nagusi, itsasontzia beraz errepublikanoa zen. Itzuleran zirela, altxamendua eman zen eta Canarias kruzeroak kainoikadaka geratu zuen. Kapitainak bere buruaz beste egin zuela zioen aitak. Itasontzia Ferrolera eraman zuten eta ez dakit askoz gehiago, gure etxean ez zen horretaz hitz egiten. Cadizen egon zen aita hiru urtez, ama ere hil zitzaigun eta guraso gabe geratu ginen.

### Nola zuen izena amonak?

Maria Jesus Olazabal.

### Nola bizi izan zenuten gerra Deban?

Eguna, etxe ondoan gure terrenotan zegoen koba batean pasatzen genuen. Gabetan etxean lo egiten genuen, baina egunez koban egoten ginen. Batean abioi batek bonbak bota zituen kale zaharrean eta plazan. Itsasoz ere bonbardatu zuten herria. Guk larrua hontzeko fabrika genuen baina itxi egin zen, diru gabe geunden.

### Familian hildakorik edo egon zen?

Nire bi osaba fusilatu zituzten, Polentzi eta Joseba Markiegi. Lehena, Joseba apaiza izan zen eta gero Polentzi alkatea, El Dueson eduki zuten aurretik. Beraien anai gaztea, lehenik Iparraldera eta ostean Amerikan errefuxiatu zen. EAJkoak ziren, nire ama bezala.

Polentziren emaztea, Maritxu Garate eta bere hiru alabak, Santanderretik Iparraldera errefuxiatu ziren, nire osaba gudariekin geratu zen, "Ezin diet bakarrik laga" esan zuen. Gogoratzen dut nire izeba eta ama negarrez aurkitu nituela egun batean eta esan zidatela "Ez duzu gehiago ikusiko".

### Gerra eta gero errazionamendua eta estraperloa egon ziren

Guk baratze handi bat genuen eta ez genuen goserik pasa. Ogia eta azukrea falta zitzaigun baina jatekoa bagenuen. Erregistro ugari egin ziguten, baina urte haietan ez genuen dirurik eta ezer. Salesianoetara joan nintzenean bai pasa nuela gosea, han ez zegoen jateko askorik.

### Futbolari ere ibili zinen

Erreala, Alaves eta Real Madrilen ibili nintzen bai. Ongi etorri zen, etxera dirua eramaten bainuen. Amonak errealera nindoala, soldata negoziatu zuen eta zati bat etxeko gastuetarako hartu zuen.

### Saturraraneko emakumeen oroitzapenik baduzu?

Ni oso txikia nintzen eta ez nintzen konturatzen. Hala ere, gertaera bat kontatu zidaten, hilzorian zegoen emakume bat "Ai amatxo, ai amatxo" aritu zen esaten, beste emakume erdaldun batzuek erantzun zioten "A ver, estamos aquí en la cárcel y tal y está pidiendo un macho". "Ai amatxo, ai amatxo" "Se está muriendo y está pidiendo un macho".

# Berezibar Aranburu, CARMELE



1932an jaio zen Elgoibarren, gerra garaian Eibarren bizi zen. Gerra amaitu eta aita kartzelatik askatu zutenean Debara etorri ziren bizitzera, elizaren atzealdean aroztegi bat irekiz.

### Gerra hasi zenean Elgoibarren zinen?

Ez, ni Eibarren bizi nintzen. Nire aitak lokal batean zuen tailerra. Hiru arreba ginen eta gerra hasi zenean, aitak denei hartu eta Gernikara joan ginen. Nire anai gazteena Gernikan jaio zen gerra denboran. Zaharrena Elgoibarren geratu zen. Gu amarekin Gernikara joan ginen eta etxean dena utzi genuen.

Gogoratzen naiz gerran nik amari galdetzen niola zer zen lurrean ikusten nituen gorpuak. Amak esaten zidana zen: “Segi aurrera”. Nik ama gonatik hartzen nuen eta berarekin joan ginen. Ostean, Bilbon itsasontzi bat hartu genuen. Nik aitari galdetu nion orduan: “Aita zu ez zatoz?”. Ez zioten utzi joaten. Esan nion sartzeko eta tapatzeko mantarekin eta esan zidan: “Ezin dut”. Gerra iritsi bertara eta kartzelara sartu zuten.

### Nora eraman zuten?

Santoñan egon zen. Cadizen ere egon zen. Alcala de Henaresen ere bai.

### Zuek nora joan zinaten?

Gu bitartean barkuan ginen, gogoratzen naiz, itsasoaz. Bazegoen andre ere bi alabarekin eta bat hil egin zitzaion bidaian. Hileta ontzian bertan egin eta uretara bota zuten errezoekin.

Gero Olotera joan ginen. Nire anaiak, egarri handia zuen eta itsasoko ura edan zuen. Tripetatik oso gaizki egon zen ondorioz. Oloten (Katalunia) ospitalera eraman genuen. Errekonozimendua egin ziguten bertan, guk eztula egiteko gogoa genuen eta amak esaten zigun: “Ez egin, bestela nire aldetik joango zarete”. Azkenean Oloten geratu ginen.

Bertan amaren aldeko osaba bat, pilotaria zena, gure bila etorri zen, ni Bartzelonara eramanez. Ama eta gainontzekoak denborara ere etorri ziren. Gerra amaitu arte egon ginen bertan.

### Gerra eta gero?

Aita kartzelan zegoen eta anai zaharrena gudariekin. Handik urte bat eta gero, Elgoibarrera etorri ginen amamaren etxera. Ama tela fabrika batera joaten zen eta gu eskolara joaten ginen. Aita etorri zenean Debara etorri ginen bizitzera. Hemen tailer txiki bat jarri zuen tailatzeko elizaren ondoan.

# Egaña Alberdi, MARI CARMEN



1923ko martxoak 11an jaio zen, Arronamendin, bertako harrobien ondoan. Aitak zein amak trenbidean lan egiten zuten. Itziarren, miliziano/gudarien eta erreketeen artean eman zen borroka etxe ondoan izan zen eta egun osoa ezkutatuta pasa behar izan zuten familiak. Anai bat, Domingo, gerrara joan eta desagertu egin zen.

## Non jaio zinen?

Arronamendin jaio nintzen, Deban zeuden harrobi batzuetan. Bertan bi etxe zeuden. Nire aitak harrobiaren ondoan zegoen trenbidean egiten zuen lan, trenaren errailen zaintzan, amak bezala. Itziarkoak ziren biak.

## Ostolazak egin zuen eskola, zer dakizu horren inguruan?

Nire bi anaia ibili ziren bertan, erlijio klaserik ematen ez zen eskola zen. Nire kasuan ezin nintzen joan, mutilentzat soilik zelako. Amari Ostolazak berak esan zion bere semeak bidaltzeko eta komunioa egin nahi bazuten bere oniritzia zutela. Askok esaten zuten hura erlijioaren kontrakoa zela, hori akusatu ziotelarik eta ez, ez zen horrela.

## Eta berari zer pasatu zitzaion gero?

Gero gerra hasi zenean Mexikora joan zen. Debakoa zen baina Mexikon izan behar zituen familiar asko eta baita fabrika batzuk ere. Azpimarragarria da, Ostolazak berak, joan haurretik, herriko txiroentzako ogia ordainduta utzi zuela ez dakit zenbat denborarako.

## Gerra hasiera nolakoa izan zen?

Irrati bidez ohartu ginen, udatiarrak urduri jartzen hasi ziren, familia askok gizonak Madrilen zituzten eta. Gerrak eztanda egin zuenean, jendea antolatzen hasi zen, hemengo teniente bat atxilotu eta Donostiara eraman zuten, bertan fusilatu zutelarik.

Poliki-poliki, gerra herrira hurbilduz joan zen, estazioan mutil bati tiro bat eman eta egunak egon zen bertan, inor erretiratzera ausartzen ez zelako. Nazionalak, Zarautzera iritsi zirenean, herrian zeuden tren guztiak Zaldibarreraino joan ziren. Gure anaia, Domingo, ez zuen herrian geratu nahi, “Nola joango zara?” esan zion amak, “Bi hilabete iraungo ditu, hau ez da gauza handia izango” esan eta auzotar batzuekin Zaldibar aldera joan zen. Ez dugu jakin ezer gehiago berea.

Mari Cruz eta horiek, senarra boluntario joan zenez, mehatxatu eta erbestera joan behar izan ziren, Munguia, Katalunia eta azkenik Frantziako Estatura.

## Altxatuak nola iritsi ziren herrira?

Gure etxera jendea bizitzera etorria zen, emakume bat hiru seme alabekin, eta hala moduz moldatzen ginen. Baserri batekoak abisatzera etorri ziren, tropak Debarantz zetozela, trenbidetik ikusten ziren gainaldetik zetozela.

Trenbide ondoan bizi ginenez, tunelaren azpira joan ginen egoera ikustera, eta bat-batean tiro hotsak hasi ziren. Nire aita eta Jose Mari anaia, tunela gurutzatu eta itsaso ondoan ezkutatu ziren. Tiro bat gugandik gertu jo zuen eta auzoko andre bat zorabiatu egin zen, nik bere haurrak hartu eta guardaren etxe ondoan ezkutatu ginen. Pareten aurka tiro hotsak entzuten ziren bitartean.

Mendian gora begiratu eta miliziano mordoa ikusi genituen urdin ilun eta gorria zen dena. Tiro hotsa itzela zen eta berriro mugitzea erabaki genuen, nire aitaren bila, garo arte batean aurkitu genituen eta bertan geratu ginen denok. Goizeko 11 bueltatik arratsaldeko 5ak arte luzatu zen borroka. Ezkutalekutik irten ginenean, dena soldaduz betea zegoen.

### Borrokan hil ziren milizianoak zer?

Gure etxe parean, mutil gazte baten gorpua geratu zen, milizianoa. Hildako lekuan geratu zen, auzotarrek beraiek, zuloa egin eta enterratu egin zuten, baina animaliek berriro atera zuten. Ondorioz, aitak eta beste batek, berriro lurperatu eta harri pila bat ipini zuten gainean. Bertan jarraitzen du mutil gazte horrek, ez du inork atera.

Beste bat, itsasaldera dago, hura aurkitzen den lekuan belar berde-berdea irteten zen. Hirugarren bat berriz, gertu zegoen, nik ez dakit seguru non, baina harri handi bat eta makila bat zituen marka moduan.

### Etxea egoera onean zegoen?

Altxatuak etxean sartu ziren eta eraman ahal zuten guztia eraman zuten eraman zuten, ez zuten arropa, zapata… ezer utzi.

### Bonbardatu egin zuten Deba egun gutxira

Itsasoz bai, hainbat etxe kaltetu zituzten, ni aita trenbidea zaintzen laguntzen nindoan ikusi nuenean, inpresio handia egin zidan. Aitari laguntzen nion, amak ez zuelako aita bakarrik ibiltzea nahi, badaezpada.

Airez ere abiaoiak ibiltzen ziren, gu holakotan trenaren tunelean ezkutatzen ginen. Gabonak bueltan, abioi batek bonba bat jaurti zuen herrian eta pertsona bat hil zen ondorioz.

### Altxatuen tropak herrian nola

Tren ugari iritsi ziren herrira, espainiar tropa asko ekarriz, frontoiaren ondoan zeuden etxeetan ezarri ziren, dena zerri zerri eginda utzi zuten. Ondoren, italiarrak iritsi ziren eta hauek dena garbitzea egin zuten lehenengoz. Soldadu hauentzat, artatzeko ospitale bat ere ezarri zuten.

### Errepresiorik egon zen herrian, fusilatzeak?

Bi amona fusilatu zituzten adinez nagusiak zirenak, bata Catalina “La Jodida” eta bestea Etxebarriaren alarguna. Horretaz gain, bi gizon ere fusilatu zituzten, gure etxe ondoan, goizeko seiak aldera. Bata, Mendaroko Salvador zen, Arronamendiko harrobietan lan egin izan zuena, ezagutzen genuen.

### Anaia gerran desagertu zela diozu

Nire arreba Bilbon galdezka ibili zen eta batek erantuzn zion “Ertzainaz jantzita Artxandara joaten ikusi nuen, hura defenditzera”. Ez dugu ezer gehiago jakin, ahalegina egin genuen, baina ezin zen ezer egin, nora joan ahal ginen? Zeini galdetu? Beti esperantza izan genuen ea atzerrira joana zen eta deitzen zuen.

### Errepresio edo multarik jaso zenuten?

Ez, baina kontuan izateko egoera, nire aita, trenbide ondoan auzotar batekin hitz egiten zebilela, falangista batek trenetik “Hablen en cristiano o si no cállense” esan zien.

Baina herritik familiak kanporatuak ere izan ziren, ni baino urte bat zaharragoa zen neska bat eta bere familia frontearen beste aldera kanporatuak izan ziren.

orr.

# Elosua Agirre, CONCHI



Nació el 8 de diciembre del año 1923 en Deba. Sus padres fueron Sabina Aguirre y Raimundo Elosua. Raimundo era republicano y cuando se dio la sublevación se fue al frente. Fue apresado y le mandaron a un batallón de trabajadores. Conchi, junto a sus hermanos y hermanas y su madre, fueron expulsadas de Deba.

### ¿De qué trabajaban tu madre y tu padre?

Mi madre tenía una pescadería y mi padre trabajaba en mampostería. Después de la guerra, mi padre no encontraba trabajo, porque era socialista y mi madre nacionalista.

### ¿Cómo recuerdas los años de la guerra?

Estaba jugando en la calle cuando vino la gente diciendo que había empezado la guerra. Yo me fui a casa gritando "¡Ha empezado la guerra!" y mi madre me riñó, mandándome a callar. Había una gran tensión en casa por la guerra. Mi padre fue llamado a filas y cogió una manta y se fue a Mutriku. Nos dijeron, "Si bajan sin tiroteo volvemos a la noche a casa, sino es así, tendremos que seguir para adelante". Entraron con tiroteos a las tres de la tarde, al grito de "Viva el Cristo Rey".

### ¿Recuerdas los bombardeos de Deba?

Si, uno fue por mar. La familia estábamos en Iturkale cuando sonó la alarma, mi madre estaba embarazada y no se podía mover mucho y por eso no pudo llegar a los refugios. Pasó el bombardeo en la calle.

### ¿Por dónde anduvo tu padre en la guerra?

Primero en Eibar y luego en Bilbo, como otros muchos. Lo hicieron preso en Castro-Urdiales. De allí le enviaron a un batallón de trabajadores, donde estuvo durante cuatro años. Lo tuvieron haciendo trabajos forzosos en Altsasu, Burgos y Lleida. En este último sitio estuvo reconstruyendo un puente. Llego muy envejecido a casa, estaba molido.

### ¿Cómo fue la vuestra vida durante esos años?

Los primeros días nos registraron la casa pero no encontraron nada. Mi madre siguió trabajando en la pescadería y nosotros íbamos a la escuela. Después de Navidades, mi madre llegó a casa un día y nos dijo: "Tenemos que marcharnos. Me ha venido un aviso de que nos tenemos que marchar". Teníamos que cruzar el frente en Ondarroa o irnos a Francia. Luego, más tarde, querían llevar a mi madre a Nafarroa. Ella decía, "¿Cómo voy a ir con cinco niños? ¿Si aquí no me dan de comer cómo me van a dar en un sitio que no me conocen?". Mi madre alquilaba una casa a unos veraneantes de Madrid que eran de la Falange y hablando con ellos consiguió que ella se fuera con dos niños a Araia y nosotros nos fuimos con una tía a Zegama. Allí estuvimos 8 meses.

### ¿Os confiscaron los bienes?

El hombre que le ayudó con el destierro el pasó un aviso a mi madre que estaban confiscando bienes en el pueblo. Mi madre habló con la que nos alquilaba la casa y esta señora nos guardó todas nuestras cosas.

### ¿Cómo fue la vuelta al pueblo?

Mucha gente nos dio la espalda, los de la tienda en la que trabajó toda su vida mi madre fueron los peores. Los que fueron los más republicanos fueron los más fascistas, a nosotros nos ayudó un carlista con las confiscaciones.

### ¿Recibisteis alguna multa o humillación?

Nosotros no. La madre de una amiga mía la fusilaron, junto a la madre de un miquelete. A las dos les cortaron el pelo y los pasearon por el pueblo. Luego fueron fusiladas.

### ¿Tienes recuerdos de la cárcel de Saturraran?

Tres o cuatro familias se quedaron a vivir en Deva, después de salir de la cárcel. Una era sastre y otra abrió una tienda de bicicletas.

# Elosua Gorostola, ITZIAR



1922an jaio zen, Deban. Aita, Esteban Elosua Salegui igeltseroa zen eta ama okina. Bera eta Petra Gorostola Salegui ama, herritik kanporatu nazionalek eta Ondarroan frontea gurutzatzera behartu. Bilbotik Frantziako Estatura errefuxiatu ziren.

### Gerra hasi zenean zuk 14 urte zenituen, zer gogoratzen duzu?

Nik oroitzapen txarrak ditut. Herrira milizianoak etorri ziren batean, urdinez jantzita, gogoratzen dut tartean amaren iloba bat Donostiakoa, Inaxio izenekoa. “Itziar, Itziar” “Zein ari da niri deika?”. Kamioi batetik zetorren zarata, begiratu nuen eta Inaxio, nire lehengusua. Ezagutu eta berarengana joan nintzen agurtzera. “Esan amari ikusi nauzula eta ongi gaudela” “Esango diot”. Etxera saltoka joan nintzen, beste gauzak egin beharrean etxera joan nintzen: “Ama Inaxio ikusi dut” esan nion amari eta amak: “Ez joan gauza horietara” esan zidan.

Gutxira, nazionalak sartu ziren herrira, tiroka. Gu plaza erdian bizi ginen, udaletxearen parean, bertan zeukan okindegia amak. Bertara sartu eta: “¡Viva España!” oihuka jardun zuten. Sartu eta berehala dena konfiskatzen hasi ziren. Etxe bateko emakumea garrasika hasi zen: “Gudaris, gudaris venid a ayudarnos”. Gudari batzuek jada ihesi zihoazela bat edo harrapatu egin zuten. Niri esan zidaten Buztiñeko parean hil egin zituztela eta hantxe enterratu zituztela. Ziur ezin esan, gizon bat soilik zen edo zein zen.

### Gogoan dituzu herriko bonbardaketak?

Itsasoz bonbardatu zuten egun batean, Tomas osabak abisatuta, Lastur aldera joaten hasi ginen, bonbak guregandik gertu erori ziren batean izebak orkatila bihurritu zuen.

Herrian elizako kanpaia jotzen zuten, nolako beldurra pasatzen genuen. Gabon gauaren egunean, ondarbeltzera joan nintzen lehengusuarekin egur bila, bertan geundela, kanpaiak jotzen hasi ziren eta non eskutatzerik ezin genuenez, bertan zegoen alga multzo baten azpian sartu ginen. Etxera bidean, berriro ere pasa ziren eta harri multzo baten atzean ezkutatu ginen. Hura beldurra, negar batean egon nintzen.

Beste batean itsasotik etorri ziren eta osaba Tomasekin Lastur aldera ihes egin genuen. Nire izebak, bonbardaketaren eztanda batekin izutu eta orkatila okertu zuen, nik bere seme Iñaki besoetan hartu eta ihesean jarraitu genuen.

### Familiako inor joan zen gerrara?

Aita, Bilbora joan zen, gure lehengusu Francisco Lazcanorekin ibili zen erretagoardian.

### Isun edo konfiskaziorik jaso zenuten?

Bai, amari multa bat jarri zioten abertzalea zelako. Okindegian Sabino Aranaren argazki bat zuelako.

### Kanporatuak izan zineten herritik

Bai, amaren okindegian, milizianoek armak gordetzen zituzten eta guk ezin ezer esan. Gainera aita herritik joana zen, ondorioz, nazionalek karta bat eman zioten amari. Eskutitzak, Nafarroara edo nahi bagenuen gorrien aldera joateko zioen. Eusko Jaurlaritzaren kontrolpean zegoen guneari deitzen zioten gorriena. Nire amak gorriengana joan nahi zuela jarri zuen, hara joan baitziren aita eta denak. Kaleratze agindua, nazionalak sartu eta pare bat hilabetetara izan zen. Gabon bueltan abisua pasa zuten, ez dakit zein egun zen baino eguraldi txarra eta hotza egiten zuen. Joan egin behar genuela ordenatu ziguten. Gutxi ginen Debakoak, ez naiz gogoratzen zein ginen ere, asko hil egin dira eta. Nik dakit joan ginela Ondarroara bertakoekin juntatzera.

### Oinez edo kamioian?

Ez, ez. Taxia ordaindu genuen eta Ondarroara joan ginen. Ondarroan geundela batzuekin eta besteekin elkartu ginen eta Lezeanekuak zeuden. Ume asko zituen eta batek zuen nire edadea, Juan Luisek. Berak makil batean trapu txuri bat jarri zuen beste aldekoek guri tirorik ez egiteko.

### Haurrak zinetela ikusteko?

Bai. Eta gu bidean gindoazela sumatzen genuen mendian tiro hotsa. Hura dardara, amaren ondotik mugitu ere ez nintzen egiten. Norbere arropak utzi, mudak eta fardelak hartu eta horrekin joan ginen.

### Nolakoa izan zen frontea gurutzatzea?

Denak batera joan ginen. Bideak apurtuta zeuden, gerrako alanbradaz josia, telebistan ikusten diren berdinak. Oso eguraldi txarra egiten zuen, euri etengabearekin. Bide ertzetatik pasa behar izan ginen, euripean baina pasa ginen. Urrutitik baina gudari eta milizianoek ikusi egiten ziguten Lekeitiorako bidean. Ondarrutik Lekeitiorako bidea oinez lokatza artean egin genuen. Gogoratzen naiz gurekin joan zela edadetutako andre bat, 80 edo 90 urtekoa. Nazionalek esan zioten asilo batean sartuko zutela nahi bazuen, baina honek erantzun zien berak nahiago zuela gorriekin eta bere familiakoekin egon. Andrea oinez joan zen. Hantxe joan ginen denak. Iritsi ginenean beste aldera paro! Gelditu egin ginen. Mendian sumatzen genituen tiroak eta frontea, baina bidean paro eman ziguten. Lekeitiora bidean. Iritsi ginenean denak besarkatu egin ginen. Senide asko zeuden bertan zain, beraien familiakoen esperoan.

### Zer egin zenuten ostean?

Bertako denek asko lagundu ziguten, gure familiak lokalizatzen. Bilbora autobusez joan ginen eta bertan Florencio Marquieguirekin aurkitu ginen. Honek segituan jarri zigun kontaktuan nire aita eta izebarekin. Bertatik, Areetara joan ginen, bertan ezarri ginen.

Gernika bonbardatu zutenean, gu Portugaleten geunden, tunel batean ezkutatuta. Irtetean dena kontatu ziguten eta handik aurrera sirenak entzuteko beldur nintzen. Gurasoek, Frantziako Estatura bidali nahi zidaten, baina nik ez nuen bakarrik joan nahi eta azkenean ama eta biok La Habana itsasontzian joan ginen, La Pallicen lurrartu genuelarik. “Orain Europara datozenak gu bezala dabiltza, pena ematen didate. Nik hori bera pasatuta daukat”.

La Pallicen, ukuilu batean jarri ginen, Sinonen berriz kartzela zen eraikin batean. Ahal genuen tokian. Bertako jendea oso ongi portatu zen gurekin, janaria eta laguntza ematen ziguten. Kale garbitzaile batek, eskutitz bat bidaltzeko behar nuen zigilua erosi zidan eta txokolatea oparitu. Denbora asko neraman txokolatea jan gabe.

Ostean, Ipar Euskal Herrira etorri ginen, hasieran Donibane Lohitzunera eta ostean Azkainera. Bertan, lehengusuekin batu ginen, Lazcano Gorostolatarrak. Hauek, Ameriketara joan ziren gero, baina guk ez genuen dirurik eta gainera aita Ondarretan preso zegoen. Diru gabe geratu ginen eta eskabetxe industria batean lanean hasi ginen. Euskaldun talde bat ginen eta dantzan ere jarduten genuen, koadrila polita osatu genuen.

### Aitak preso jarraitzen zuen?

Donostian, “Infiernillo” deitzen zioten espetxeari, baimena eman zigutenean gu herrira itzuli ginen, etxeko gauza guztiak konfiskatu zizkiguten eta gu ez arropa ez diru aurkitu ginen. Tomas osabaren etxera joan behar izan ginen bizitzera.

Aita igeltsero hasi zen lanean eta ama ahal zuenean. Poliki poliki bizimodua aurrera atera genuen.

### Lehengusuren bat fusilatu zizueten

Kontxa Buztiñekoaren semea, Tomas Rodriguez. Debara etortzen zen udatiar batek salatu zuen. Ondarretan zela, gurasoei abisua pasa zioten “Despediros ahora que no lo vais a ver más”, egin behar da hori e?, Donostian fusilatu zuten.

# Endeiza Zubeldia, MARIA TERESA



Mendaron jaio zen, 1923ko maiatzaren 16an. Familia erlijiosoa eta errepublikanoa zen. Bere aita eta anaia, Kanbon (Iparralde) errefuxiatu ziren gerra zela eta. Mendaron kalean bizi ziren, aitak industrian eta amak etxean lan egiten zuelarik.

### Gerra garaiaren ze oroitzapen dituzu?

Nire amak negar asko egiten zuela gogoratzen dut, aita eta anaia falta zirelako. Egun batean, gizon bat etorri zen berarekin hitz egitera eta pentsatu zuen hil egin zirela ezatera zetorrela. “Lasai egon, bizi dira eta Kanbon daude” esan zion. Bertara, Arrasateko batzuekin joan zen.

### Nolakoa zen aita?

Langilea zen, pentsakeraz errepublikanoa. Ez naiz gogoratzen zenbat denbora egin zuen Kanbon, baina eskerrak egoera lasaitu arte han egon zen.

### Bitartean zuek Mendaron

Ama, bi ahizpa eta izeba bat geratu ginen Mendaron. Amak beldur asko zuen eta ez zigun etxetik irteten uzten, eskolatik etxera eta etxetik eskolara egiten genuen.

### Errepresiorik egon zen?

Garai arriskutsua izan zen. Pertsona batzuk mendira eraman eta hil egin zituzten. Mendarotarrak beraien artean salatu ziren. Pertsonak fusilatu eta atxilotu zituzten.

### Isunik edo konfiskaziorik izan zenuten?

Ez, baina etxean soldaduak jasotzera behartu ziguten, nafarrak ziren, batzuk Otsagabiakoak. Amak beldur asko pasa zuen, “roja, más que roja” esaten zioten euskaraz entzunez gero. Guri amak ez zigun beraiekin erlazionatzen uzten.

### Mendaron beran, frontea 15 egunez egon zen

Oroitzapen oso txarrak ditut egun horienak. Bonba eta tiro hotsak entzuten genituen, denbora gehiena etxean pasa genuen.

### Aita eta seme nagusia errefuxiatuak, nola atera zenuten aurrera bizimodua?

Lan asko eginda eta asko sufrituta. Baserritarrei erosten genien produktuak genuen diru apurrarekin, herri txikia izanda, asko laguntzen zen herriren oroitzapena dut. Amak lan asko egin zuen eta terreno zati txiki bat genuen eta bertan oiloak eta ortu txiki bat ipini zuen.

### Aita eta semea itzuli ziren denborara

Hilabete askoren ostean, biak batera itzuli ziren, hura emozioa! Aitak gerra aurretik tailer bat zuen, bera falta zela, beste batzuek gestionatu ziotena, itzuleran berriro hasi zen lanean tailer horretan.

# Galdona Chapartegui, JESUS



Su padre, Pedro Galdona Anduaga, Aita Pedro Galdona Anduaga, fue combatiente del batallón Amuategui. Eran cuatro hermanos y los otros tres combatieron en batallones nacionalistas. Pedro su padre, fue herido en una pierna y cuando lo hicieron preso lo llevaron a un batallón de trabajadores a Zaragoza.

### ¿Cómo fueron los años de la guerra?

Cuando se dio la sublevación, mi padre se alistó en el batallón Amuategui desde el principio. Tenía 23 años en aquel entonces. Luchó en los alrededores de Markina, en Kalamua. Los hombres que se encontraban allí tenían el deber de defender el sector de Markina y lo hicieron durante seis meses. Cuando al final el frente cayó, luchó en Oiz, Sondika y Bilbo.

### ¿Cómo era su relación con tu madre?

En esa época todavía eran novios. Mi madre se aprovechó de ser de Ondarroa para poder cruzar el frente y visitar a mi padre.

### ¿Por dónde anduvo tu padre como miliciano?

Cuando cayó el frente, se fue a Bilbo y después a Laredo. Po último, se quedó en Santoña, donde cayó preso, al romper el tratado los franquistas. Lo tuvieron en la cárcel de allí un tiempo y luego lo mandaron a Segorbe (Zaragoza) a un batallón de trabajadores. Lo tuvieron cuatro años haciendo trabajos forzosos, cuando llegó a Deba no era persona, parecía un palo con una chaqueta.

### ¿Cómo fue la posguerra?

Siempre faltaba comida, la gente comía con sebo. Nuestro padre no podía encontrar trabajo, pero como era buen futbolista pudo trabajar de ello. Se dedicó a ello hasta los 38 años.

### ¿Cómo era Deba en los años de posguerra?

Había muchos carlistas en el pueblo, muchos de ellos habían llegado incluso antes de la guerra. Después de que los sublevados tomaran el pueblo, se hicieron dueños de los mejores puestos de trabajo y todos los negocios, la gasolinera, el estanco o la farmacia.

Los sublevados cogieron el Hotel Kresala, que estaba sin terminar, como cuartel. Después también estuvieron los italianos. Unos italianos, hicieron amigos en el pueblo y se quedaron aquí. Uno de mis amigos, era de Florencia y vino como soldado, luego se casó con una mujer de aquí. La hija de Dávila se casó en el pueblo y sus hijos todavía viven aquí.

### ¿Y tus padres qué?

Cuando llegó mi padre al pueblo, se casaron. Mi padre después abrió un taller de pavimento y mi madre trabajó en los hoteles del pueblo. Las familias de mi madre y padre eran nacionalistas pero mi padre era republicano. En esa época el euskera estaba muy perseguido y nuestra familia perdió el idioma por los problemas que podían surgir y por miedo.

### ¿Algún familiar más estuvo en la guerra?

Mi padre y sus cuatro hermanos combatieron en la guerra, en el Ejercito Vasco. Mi padre estuvo en el frente con los milicianos y los otros tres hermanos, que eran del PNV, en retaguardia. Un tío mío, Felipe Galdona Anduaga, murió en Gernika, cuando los fascistas bombardearon el pueblo. No encontraron el cuerpo y ni lo enterramos.

# Garate Garate, ANGEL



1928ko martxoaren 5ean Sasiola baserrian jaiotako debatar semea da Angel Garate, Concepcion Garate Kaltzakorta eta Jose Maria Garate Elortzaren semea. Bere bi anai altxatuek errekrutatuak izan ziren, ejertzito frankistan zirela hil ziren, bat gaixotasunez eta bestea frontean.

### Gerra hasi zenean zuk 8 urte zenituen. Lehenengo gerrako momentuak nola gogoratzen dituzu?

Gure etxe zaharra bota egin genuen eta etxe berria hasita zegoen zementoarekin. Han ibiltzen ziren harginak eta igeltseroak etxea egiten. Bi kamioi txiki azaldu ziren eta: “Gerra hasi da”. Mendaroko harginak eta: “Zein gerra?”. Ni mutil kozkorra han nengoen dena entzuten. Orduan denak mosketoiak eta denak hartu eta Debara joan ziren. Hori izan zen hasiera.

### Bi anaia soldadu joan ziren?

Alfonso eta José. Arroara joan ziren eta koba batean ezkutatu ziren soldadu ez joateko. Esan zuten ez baziren azaltzen horiek desertore kontsideratuko zirela eta ez zuela izango bizitzarik ondoren. Orduko kontuak dira horiek. Azkenean, etorri ziren eta udalean aurkeztu ziren eta soldadu joan ziren. Jose zena, joan eta denbora gutxira gaixotu egin zen tifusarekin. Neumonia edo pulmonia hartu zuen eta sei hilabetera hil egin zen. Gerra hasi eta agudo hil zen. Bestea Katalunian egon zen. “El frente de Tremp” edo horrelako zerbait. Han konbate handi bat egon zen eta bala sartu zitzaion buruan. Ia gerra bukatzen ari zenean hil zen bestea.

### 1938. urtean?

Bai gerraren bukaeran, datak ez dakizkit. Haren kartera Mendaroko batek ekarri zuen lau hilabetera gerra bukatu zenean. Ekarri zigun kartera eta diru pixka bat zuen eta erretratoa. Dena gogoratzen du, amak nola egiten zuen negar.

# Iriondo Lizarzaburu, ASUNCION eta Irastorza Lizarzaburu, KARMELE



Asuncion Iriondo 1918an jaio zen Deban. Bere aita Mendarokoa zen eta ama Debakoa. Karmele Irastorza 1948an jaio zen, Altzan.

**Asuncion: Nola gogoratzen dituzu zure gurasoak? Nolakoak ziren?**

Nire ama ona zen. Lan eta lan egiten zuen. Taberna bat zuen eta denda bat ondoan. Ni ez naiz gogoratzen baina lan eta lan. Aita berdin. Aita ere amarekin zegoen. Etxetik joan egin behar izan genuen Batzoki moduan jarri zelako. Gu beldurrez joan ginen.

**Asuncion: Zer gogoratzen duzu? Zer gertatu zen familian?**

Hasiera batean, familiako batzuengana Deustura joan ginen. Bertan bonbardaketez gogoratzen naiz lurrean botata. Gainera batek kantatzen zigun “Ponme la asadura que me la quitaste de mi sepultura”. Gu neska txikiak ginen eta beldurtu egiten ginen. Nire lehengusina: “Dame la asadura que me la quitaste de mi sepultura.”

Aita kartzelan preso sartu zuten, Santoñan eta bi anai gerrara joan ziren. Bi mutil, Leocadio eta Julian, lehenak metraila zauriak izan zituen Elgetan eta hanka gangrenatu eta moztu egin behar izan zioten.

**Asuncion: Ostean Solares-era joan zineten lau anai-arreba eta ama? Zenbat denbora pasa zenuten?**

Ez dakit. Pasa zenean buelta egin genuen. Bueltan ez genuen etxerik. Konfiskatuta zegoen dena, etxe guztia. Esaten zuen amak 13 koltxoi zeudela kubiertoak zilarrez.

Tabernan gordetzen zituzten gauza guztiak. Etxe guztia konfiskatu zuten. Ni gogoratzen naiz etxeaz, dena gaizki harrapatu genuen, egur guztiak eta txarto laga zutelako grifo bat zabalik apropos. Egon ginen denbora bat etxera sartu gabe, hiru urte.

**Asuncion: Nolabaiteko salaketarik jaso duzue? Multak, salaketak?**

Gure amari bat jarri zioten. Etorri ginenean komun publikoak garbitu behar zituen.

Hori etorri baino lehen Solares-etik niri eta beste anai esan ziguten Errusiara eramango zigutela. Lehendabizi Bilbotik Pasaiara barku batean. Ni gogoratzen naiz, umeak ginen. Ama etorri zen Pasaiara guri ez eramateko Errusiara.

**Asuncion: Egun señalatuetan Frankistek mezak egiten zituzten. Eta mezetara joaten zineten monjekin?**

Gu bai, monjek eramaten ziguten. Cara al sol kantatzen genuen. Julianen anaiaren bila etorri ziren ez zelako joan mezara. Multa jartzen zuten ez bazinen joaten.

**Karmele: Aita gerrara joan zen?**

Gu bai, monjek eramaten ziguten. Cara al sol kantatzen genuen. Julianen anaiaren bila etorri ziren ez zelako joan mezara. Multa jartzen zuten ez bazinen joaten.

**Karmele: Gerra garaiko urte horietaz zer kontatu dizute?**

Ez naiz asko gogoratzen. Gogoratzen naiz aita gaixorik zegoela Donostian. Egun batean Igeldoko andre bat etorri zen guregana eta komentatu zigun anai bat zuela eta gure aitak lagundu ziola. Esan zigun: “Ay, tu padre le salvó a mi hermano”. Kamioi batean omen zeuden eta nire aita: “¿Cómo se te ocurre venir aquí vestido de cura? Quítate esa ropa enseguida. Que te van a fusilar”. Kendu arropa eta ez dakit, zer eman zion. Gogoratzen dut andre hori etorri zela nire aita gaixorik zegoenean. Aldakatik operatu zuten. Badakit kartzela batean egon zela baina ez dakit non. Hori nire amak jakingo zuen ni baino hobeto.

**Karmele: Gerra ostean emakumeei lanen bat edo horrelako umilaziorik egin zioten?**

Neska gazteak saldu behar zituzten falangearen auxilio social-eko edo horrelako gauza bateko partxeak zapatuetan. Eta saltzera behartuta zeuden. Nire ama hauek saltzera behartu zuten.

# Iriondo Mendizabal MIREN eta MIREN GARBIÑE



Iriondo Mendizabal familiakoak, 1930ko apirilaren 19an eta 1934ko urtarrilaren 30ean jaio ziren hurrenez hurren. Iturkaleko 18 zenbakian.

## Kontatu zuen gurasoak nolakoak ziren

**M:** Ama oso langile eta maitakorra zen. Beti laguntzeko prest. Aita, oso gizon zuzena. Gurea, kale-baserria zen, animaliak genituen eta danetik pixkat. Horretaz gain, aita "bañeroa" zen, etxolak zituen hondartzan eta udan jendeari igeri egiten erakusten zion.

**MG:** Arlo politikoan, aita abertzalea zen, oso. Amak berriz, ez zuen politikaz hitz egiten.

## Nolako oroitzapenak dituzue gerraren baitan?

**M:** Abioiena gogoratzen naiz, nola joten zituzten kanpaiak eta gu etxeko bodegan ezkutatzen ginen. Inguruko etxeetako batzuk ere etortzen ziren guregana. Gogoratzen dut, etxeko baratzera joan zela batean amona eta bonba batek gertu eztanda egin eta zipriztinez beteta heldu zela etxera.

## Itsasoko bonbardaketa ere egon zen?

**MG:** Bai, pertsona bat hil zen, 10-11 urtekoa. Beste bat itsu geratu zen.

## Nolakoa zen zuen bizitza gerra garaian?

Aita Bizkaia aldera joan zen eta amak beldur asko pasatzen zuen soldaduekin. Guri egin ahal ziezagutenagatik.

## Noiz bueltatu zen aita? Ongi itzuli zen?

**M:** Urte batzuk geroago itzuli zen, gaixorik. Egunak bustita igaro zituela zioen. Bronkioetatik eta bihotzean arazoekin itzuli zen.

**MG:** Gazterik hil zen gure aita.

### Gerran hil zenik badago familian?

**MG:** Arriolako Santiago, gerran hil zen, baina ez dakigu ze bandotan.

### Multa edo konfiskaziorik pairatu zenuten?

**MG:** Gure gurasoak, ezkontzean, aitaren gurasoen etxera etorri ziren bizitzera. Denborarekin alboko etxea erosi eta batu egin zituzten, bat eginez. Gure aita joan zenean, konfiskatu egin ziguten eta etxe gabe geratu ginen. Ez ziguten inoiz esan, baina herriko batzuk salatu behar izan zuten aita. Guk uste dugu bazekiela nortzuk izan ziren baina guri ez zigun inoiz esan.

**M:** Hura amorrua genuena. Salaketa ugari jaso genituen ere, ganadua egoera txarrean genuela eta sagardoa ez genuela ondo egiten esanez. Epaile eta gero alkate zena eta botikarioa etortzen ziren miaketak egitera. Beranduago, amari ez zioten telefonoz euskaraz egiten utzi bere ahizparekin, amak ez zekien gazteleraz.

### Gerra garaian besteren bat atxilotu zuten?

**MG:** Guk garai horretaz gutxi dakigu, aitaren bizipenez ere ezer, beldurra edo kezka izan genuen eta ez genien galdetu. Orain bai, orain galdetuko genuke.

# Iriondo Salinas, MAITE



1946ko ekainaren 17an jaio zen Deban. Bere gurasoak gerran ibili ziren, ama, Carmen Salinas Arando, elorriokoa jaiotzez, irakasle zen eta erizain gisa ibili zen gerran. Aita, Celestino Iriondo Iriondo, arotza zen eta gudari izan zen, iparralden errefuxiatua egon zen.

### Zentratuko gara 36ko gerran. Zure gurasoak gazteak ziren orduan, kontatu pixka bat zuri esan zizutena.

Nik dakidan gehiengoa amagandik izan da. Debakoa aita zen. Lau anai ziren, bera gazteena eta denak joan ziren gerrara. Nik entzuten nien beraiei Elgeta aldera joan zirela esaten.

### Badakizu zein batailoietan?

Izen bat dut buruan baina nik ez dakit bera hor egon zen, Itxarkundia. Entzuna badut baina ez dakit zein anai egon zen bertan. Sasoi horretan, nire amak karrera bukatu berria zeukan eta erizain prestatu zen. Berak kontatzen zuen Gurutze Gorri batekin joaten zela furgoi batean. Nire aitari gerra hasi eta ez dakit zenbat denborara balazo bat eman zioten hankan. Marka handia geratu zitzaion. Aita eta guztiak, mendian jarraitu zuten. Debara ezin zuen etorri eta hantxe jardun zuen eta kontatzen zuen mendi batetik bestera ibili zela. Halako batean, ama ikusi eta aitak muletak mugitu zituen pasatzerakoan eta nire amak bertan bakarrik ikusi zion gerrak iraun zuen denbora guztian zehar.

### Ezkonduta zeuden?

Ez, 1945ean ezkondu ziren. Baina aurrez ezagutzen ziren, nire ama Debara etortzen zelako itsasoan bainatzera, akne zuen eta medikuak gomendatu ziolako.

### Nondik nora ibili ziren zure gurasoak?

Aita esan bezala zauritu egin zuten eta Valentziara eraman zuten. Bertan pasa zuen negu bat. Ostean Kataluniara bidali zuten, non altzarigile erdi erretiratu batekin lanean ibili zen. Debara ezin zenez itzuli, La Rochelleen egon zen gerra amaitu arte. Bertatik herrira itzuli eta arotzeria bat muntatu zuen.

Ama, irakasle ikasketak amaitu eta Galdakaon hasi zen lanean, gerrak eztanda egin zuenean. Kurtsilo azkar bat eman zioten eta erizain moduan ibili zen eta erizain guztiekin Ameriketara joateko ontzi bat hartu zuten Gijonen. Bidean frankistek atzeman eta itzularazi egin zuten ontzia. Hori eta gero, elorriora joan zen bizitzera. Elorrion aitarekin juntatu zen eta denborara Debara bizitzera etorri ziren.

### Aitaren anaiak nondik ibili ziren?

Nik dakit aita joan zela eta ez dakit besteak non ibili ziren. Konturatzen naiz beraiek ez direla gai izan gauza asko kontatzeko. Eta niri benetan zerbait kontatu didate, baina hori gero nagusitan konturatzen da bat, ezta? Ez zeukaten gogorik komentatzeko. Baina zerbait eskertu dudana, ez digutela inoiz sekula gorrotorik transmititu izan da. Amak ere, ez digu sekula gorrotorik transmititu.

### Familian presorik egon zen?

Aitaren bi anai espetxean egon ziren, Ramon eta Manuel, Inpernuan, Donostian.

### Zuk ez zenuen gerra bizi, baina bai diktadura. Zer kontatuko zenidake diktaduraren inguruan, gerraren ondorio gisa?

Jose Antonio eguna ospatzera behartzen ziguten. Eskolatik mezetara joaten ginen, laurelezko koroa batekin. Deban gainera denetarik egoten zen, Sección Femenina etortzen zen udan, konfiskatutako hotel batera. Han ibiltzen ziren banderekin gimnasia egiten eta Cara al Sol kantatzen. Jubilatuen etxea denean orain, produktoreak deitzen geniena egoten ziren, karreradun jendea, errejimenekoak.

### Zuk uste duzu diktadura garaitik, gaur egun emakumeen eskubideak garatu direla, aldatu? Lehen nola zen?

Zer esango dizut ba? Bata eta bestearen rolak oso definituak zeuden. Andrea etxean lan egitera bultzatzen zuten, kanpoan oso gutxik lan egiten zutelarik. Umeen kasuan ere, mandatuak neskek egiten zuten. Ikasketak mutilak errazago egiten zituen neskek baino. Eta horrela guztia. Nik ikasketak egitea nahi zuen amak, baina gaixotu egin ziren eta etxean geratu behar izan nintzen. Orain gauzak asko aldatu dira, onerako.

# Izagirre Salegi, MARIA ISABEL eta MANUEL MARTIN



Mendaron jaio ziren anai-arrebak dira. Altxatuak herrira sartzean bere aita, Salvador Izaguirre Etxaniz fusilatu egin zuten Deban, lehengusuarekin. Familiak taberna bat zuen eta multak jasotzen zituzten. Manuel Martin, estraperloan ibili zen gerraostean.

## Aita fusilatu egin zuten bere lehengusuarekin

Herrira sartu zirenean eta batailoiak mendira zihoazela, aita eta lehengusua harrapatu zituzten. Gero Debara ekarri eta fusilatu ostean, “Hor dituzue gorpuak” esan zioten amari. “Gorria” zelako fusilatu zuten.

## Familian inor gehiago egon zen preso edo gerran?

Amaren aldetik, bi osaba, Salegui Arriolatarrak. Eusebio erbestean egon zen eta Patxi berriz Ondarretan preso. Gero beste osaba batzuk ere gerran ibili ziren, Jose Luis eta lehen aipatutako Patxi eta Celestino ere.

## Nolakoa zen gerraosteko bizitza?

**MM:** Guk taberna bat genuen Mendaron, eta bertara langileak joaten ziren tragoak hartzera. Nik 11 urtetatik estraperloan jardun nuen, familiako trenbideko langile bati esker, doan Debara joaten nintzen eta hemen, sakristian gordetzen zen estraperloko ogia hartu eta Mendarora eramaten nuen. Azkeneko tunelean zakua trenetik bota eta gero joaten nintzen horren bila. Behin atxilotu egin ninduten eta mehatxatu, baina hurrengo egunean berriro joan nintzen, bizimodua aurrera atera behar zen.

**MI:** Ama ere jarduten zen estraperloan, ez zuten inoiz harrapatu.

## Multa edo isunik jaso zenuten?

Beste tabernari bat gure kontra zegoen eta denuntzia asko jartzen zizkigun. Traba asko ipini zizkigun bai.

## SLBen oroitzapenik baduzue?

Mendaron ere egon ziren hauek, kanteretan lan egiten zuten. Uste dut osaba Jose Luis horrelako batzuetan izan zutela.

# Osa Maguregui, JOSEFA IGNACIA "Josefina"



1929ko abenduak 28an jaio zen, Mutrikuko Mizkia Goikoa baserrian. Baserritik bizi zen familia, bederatzi anai-arreba zirelarik. Horietako bi gerran ibili ziren, bat Afrikan. Denbora batez, baserria frontetik oso hurbil egon zen eta soldaduz inguratuta bizi izan ziren, beldur handiko garai bezala gogoratzen du.

### Gerra hasi zenean, zuk 6 urte zenituen. Zer gogoratzen duzu?

Gogoratzen dut nola frankistek aita eramaten zuten kanoiak frontera ekartzera. Guk frontea aurrean eduki genuen denbora batez, gure etxe aurrealdean. Eta orduan kanoiak ekartzera bidaltzen zuten idiekin. Errepide jenerala arte jaitsi behar izaten zuen eta handik gora idiekin armak igo. Horren oroitzapen batzuk baditut.

### Nola bizi izan zenuten gerra garaia?

Zalditeriaz eta soldaduez baserri eta inguruak inguratu zituzten. Soro denak zapaldu zituzten eta inguru dena zapalduta gelditu zen, labrantzarik egin ezindako moduan. Dena mugimendua zen, soldaduz betea zegoen eta beldurra zabaldu zen, inguruko baserrietan.

Frontea oso hurbil zegoen eta abioi hotsa eta bonbardaketena entzuten eta ikusten zen. Batzuetan etxetik bidaltzen ziguten gauza guztiekin. Bonbardaketa batean, granada bat baserrian sartu zen zulo bat eginaz, baina ez zuen eztandarik egin.

### Soldaduak zuen etxera joaten al ziren ?

Bai, tejabana batean untxiak gordetzen genituela ohartu zirenean, nire anairi esaterako, makil batekin egundoko kolpea eman zioten esku batean zigor bezala. Beste batzuek, egunero esne marmita bat erosten ziguten.

### Familiakorik joan zen gerrara?

Bi anai joan ziren, biak frankistekin, bata Eusebio, apaiz ikasketak egiten zebilena, kartak bidaltzen zizkion nondik nora ibili zen kontatuz. Notizia onak zirenean ama asko pozten zen, gauera Ama Birjinari errezatzen zion bere semeengatik. Pedro, Santander inguruan ibili zen frontean. Biak onik itzuli ziren, baina auzoan bi gazte hil ziren gerran. Gerra amaitu ostean, soldadutzan ere urte batzuk igaro zituzten.

### Ez zineten gerragatik lekuz mugitu?

Ez, baina bizkaiako familia bat, bere ganadu eta animaliekin, gure etxera bizitzera etorri zen denboraldi batez.

### Nolakoa izan zen gerraostea etxean?

Beti genuen zer edo zer jateko, gehiena baserrian bertan ekoiztutakoa. Frontea egon zen garaiak izan ziren gogorrenak, soroak txikituta utzi baitzuten soldaduek, labrantza ezin eginik. Errazionamenduaz, artozko ogi batzuez eta zaldi gantza zirudien koipez akordatzen naiz.

# Riesgo Oñederra, CARMEN



Nació en Deba, el 3 de mayo de 1924. Sus padres fueron Bonifacia Oñederra Eguzkizaga y Francisco Riesgo Mayo.

### ¿Cuantos años tenías cuando se inició la Guerra Civil? ¿Cómo era la situación en el pueblo?

Tenía 12 años. En esa época Deba era el centro desde donde se organizaba todo. Los gudaris y milicianos venían aquí, donde tenían que firmar y les daban destino. También venía mucho refugiado de San Sebastián, Irún y de los alrededores en trenes. En nuestro caso vinieron unas tías y un primo de San Sebastián. El 22 de septiembre, fuimos de los últimos en dejar el pueblo en un coche que nos prestó el ayuntamiento. Mi hermano era el que conducía. Decidimos irnos a Mungia, pero luego nos fuimos a cuidar un chalet de tres plantas.

### ¿Dónde estaba ese chalet?

Entre Urdulitz y Plentzia, muy elegante. Tengo buenos recuerdos de ese lugar, recuerdo que tenía un gran columpio. Estuvimos siete meses en esa casa, pero cuando empezaron los bombardeos contra Bizkaia, vino nuestro hermano, el conductor, y nos llevó primero a Laredo y luego a Santander. Allí no estuvimos tan bien, había muchos refugiados y la comida escaseaba.

### ¿Estuvisteis con vuestro padre?

Manteníamos el contacto. Venía a visitarnos cuando podía, trabajaba haciendo trincheras. Nuestro padre era republicano. Nuestro hermano el conductor también nos visitaba cuando podía. En una de esas, nos llevó a Llanes. Allí estuvimos en la casa de los marqueses Canillejas. En el pueblo no había tantos refugiados y la comida era mejor. Estuvimos bien hasta que empezaron los bombardeos de nuevo.

### ¿Qué hicisteis entonces?

Nuestro hermano nos llevó a todos a Ribadesella y allí non embarcamos en un buque inglés, mi madre, mi abuela, mis tías, mis primas, mi hermana y yo. Mi hermano y mi padre se quedaron en Asturias. Desembarcamos en Francia y nos llevaron a Perpignan y de allí a Portbou. En este pueblo, un delegado del Gobierno Vasco nos ayudó a meternos en un tren en dirección a Valencia. Pero en Girona, tuvimos oportunidad de bajarnos y toda nuestra familia se apeó. Desde allí nos llevaron en autobús a Bañolas, todavía me acuerdo de la tortilla de patatas que me comí en ese pueblo. Después de un tiempo, nos llevaron a un pueblo pequeño y nos alojaron a cada uno en una casa. A mí me tocó una panadería, donde solo hablaban en catalán y lo tuve que aprender. Mantuvimos una gran relación con esa familia y todavía mantengo la relación con la hija, que era un poco más joven que yo. Todavía me llama “hermana de la guerra”.

### ¿Después de estar siete meses allí, volvisteis a Deba?

Sí, nos recomendaron quedarnos en Cataluña hasta que se calmaran las cosas, pero queríamos juntar la familia. Cuando volvimos a Itziar, vimos que nuestra casa la habían convertido en un cuartel de los caseros de Itziar. Tuvimos que ir a vivir a la casa de unos conocidos. No nos querían devolver los muebles, pero un concejal nos recomendó pedirlos en la comandancia de la Guardia Civil de Zarautz y así lo hicimos. Gracias a eso, conseguimos que nos devolvieran los muebles, pero la casa no la recuperamos nunca.

### ¿Tu hermano estuvo preso?

El hermano mayor estuvo en un batallón de trabajadores, los últimos años en Asturias. Lo pasaron muy mal, mucha hambre. Le daba la gracias a uno de Deba que conseguía robar unas patatas. El hermano menor, era valioso porque era conductor y lo mandaron a Andalucía, donde estuvo de ayudante de un señorito de la zona. Contaba que anduvo bien.

En el caso de mi padre, le confiscaron todo el dinero de la cuenta corriente pero no estuvo preso. Trabajó en las fábricas de armas de Eibar hasta nuestra llegada.

### Habría racionamiento y estraperlo en el pueblo a vuestra llegada.

Había unas cartillas, pero no daban para mucho. Aquí las cosas se conseguían de estraperlo. Mi hermano era muy hábil en el contrabando, traía muchas cosas de Barcelona. Además, tenía contactos con la policía y de vez en cuando les daba una merluza para que mirasen a otro lado. No lo pillaron nunca.

### ¿Qué sabes sobre la represión contra las mujeres?

Pobres. Cuando entraron al pueblo en los primeros días mataron a dos mujeres, únicamente porque hablaban y decían “Que tal era un fascista”. Le dieron aceite de ricino y esas cosas.

# Salegi Urcaregui, CARMEN y Egaña Albizu, MARIA EULALIA



### Carmen

Nació el 28 julio de 1928. La familia era dueña del Hotel Playa. Su padre, Jose Maria Salegui Azcarate, también tenía una fábrica para curtir cuero. Su madre, Carmen Urcaregui Iriondo se dedicaba a cuidar a sus ocho hijos e hijas.

### Maria Eulalia

Nació el 25 de febrero de 1925. Su padre Jose Maria Egaña Beristain era mecánico y después de casarse trajo un taxi a Deba y vivía de ello. Su madre, Agustina Albizu Mendizabal, tenía una tienda de comestibles.

## ¿Dónde vivíais?

**Maria Eulalia:** Mis padres eran de caserío pero vivíamos en la calle. Pero cuando empezó la guerra, nos fuimos al caserío de mi madre, a Itziar, pero mis padres se quedaron en Deba. Yo solía escaparme de Itziar para irme con mis padres.

## La familia Salegui teníais un hotel.

**Carmen:** Sí. El hotel Playa, lo inauguramos el día de San Juan de 1936. Cuando empezó la guerra, los milicianos lo utilizaron como cuartel. Estuvieron los asturianos, que guardaban la munición en las bañeras. Antes de ir al frente, venían en camiones y se quedaban a dormir en nuestro hotel.

**Maria Eulalia:** Yo me acuerdo de ellos, los asturianos llegaban gritando consignas políticas. En cuanto los nacionales entraron al pueblo tranquilos, con bandera española y boinas rojas, porque eran requetés. Entraron directos a la plaza, no me acuerdo de más cosas.

## ¿Recordaís los bombardeos?

**Carmen:** De los bombardeos y del ruido de las campanas. Estábamos en la Alameda jugando cuando unos barcos se acercaron desde la costa. Todas las amigas nos fuimos al refugio pero a un señor mayor no le dio tiempo y murió por las bombas.

## ¿Cómo eran los refugios?

**Maria Eulalia:** Uno estaba en la capilla de la iglesia, lleno de sacos de tierra. Era pequeño solía estar lleno de gente. Otro refugio estaba en el túnel.

### Y luego estuvo el frente cerca de Deva

**Carmen:** Entre Mutricu y Ondarroa, el pueblo estaba lleno de soldados. Íbamos a ver los ranchos de los soldados.

**Maria Eulalia:** Si, que ranchos, les daban en la Alameda y el frontón.

### ¿Cómo fue la posguerra?

**Carmen:** Una temporada nos fuimos a vivir a Villafranca, mi abuela, los padres y los ocho hermanos, para alejarnos del frente. Cuando volvimos el hotel estaba destrozado.

### ¿Sufristeis algún tipo de represión?

No nos acordamos de eso.

### ¿Cómo era el racionamiento?

**Carmen:** Mi padre estaba en el ayuntamiento y el pan estaba racionado, nos daban cuatro panecillos para toda la familia. Pasamos mucha hambre, recuerdo que un día especial pudimos comer patatas con chorizo.

### ¿Os acordáis de la Sección Femenina?

**Carmen:** Yo tuve que estar allí para poder hacerme el pasaporte.

**Maria Eulalia:** Luego estaban las Mininas, chicas que venían de Madrid y así. Pasaban aquí el verano.

### ¿Sufristeis en la familia algún tipo de represión?

**Carmen:** Mi tía de Ondarroa, Lorenza Salegui, casada con el farmacéutico del pueblo, tuvo que huir con toda la familia a Francia, con un montón de hijos. Cuando volvieron empezaron a vivir en Deba.

# Unanue Egaña, KONTXI



Itziarren jaio zen, 1930ko abenduak 8an, Larragibel baserrian. Aita, Antonio Unanue Egaña, preso egon zen, tifusa hartu zuelarik espetxealdian. Dendan senide bat zuten eta estraperloan jardun zuten. Horretaz gain, izeba, Saturraranera joaten zen bertako presoei jana ematera eta Kontxi batzuetan berarekin joaten zen.

### Gerra garaiko oroitzapenak izango dituzu

Aita, Antonio Unanue Egaña, igeltseroa zen eta oso alaia eta maitakorra zen. Gerra hasi zenean, boluntario joan zen koinatua eta honen anaiarekin, Jose Beristain eta Francisco Aizpurua .

Gure ama, langilea zen oso eta hiru seme alabekin geratu zenez, bizimodua aurrera ateratzeko mandatari gisa hasi zen lanean, Bilbora eta hango espetxeetara gauzak eramaten. Larrinagako espetxera paketeak eraman eta ekartzen zituen, goizean goiz irten eta gabez iristen zen etxera.

### Frontea ez zen urrun izango zuen etxetik

Ez dut inoiz ahaztuko. Frankistak Itziarreko mendian zeuden eta gu baserrian. Hemen atzean beste tontor bat dago, Apakamendi izenekoa, hor milizianoak zeuden. Baserrian geunden denak ganbarara igo ginen eta leihoak koltxoiekin estali genituen. Baserria bi indarren erdian zegoen eta etxearen aurreko aldea txikituta geratu zen. Miliziano bat areka batean geratu zen hilik.

### Preso egon zen aita?

Santoñan egon zen, non tifusa edo halako zerbaitena gaixotu zen. Bere izeba, Jeneral frankista baten neskame zen eta ama aitarentzako paperak lortzera joan zen. Merkantzia trenean joan zen Santoñaraino eta bertan bi egun egon zen paperak egiten. Bere esfortzuari esker lortu zuen aita etxera ekartzea. Ez zigun ezer kontatu urte horiena, soilik zioen ez zuela arrozik jan nahi “Nahiko arroz janda nago eta”.

### Gerra ostean berriz kalean bizi zinaten

Bai, amak denda bat ireki zuen eta horren gainean bizi izan ginen. Errazionamendua genuen, baina dendari esker ez genuen goserik pasa. Nire lagun batzuek berriz diote gose itzela pasa zutela. Aita errekuperatu zenean, igeltsero gisa lan egin zuen eta ez zuen arazorik izan arlo horretan. Mandatari ere bili zen gero.

Nire kasuan, kontabilitate ikasketak egiten hasi nintzen, baina amak ume bat izan eta 15 urterekin etxera itzuli nintzen laguntzera.

### Denda izanda, estraperloan ere ibiliko zineten

Bai, ogia, azukrea eta olioa Elgoibartik ekartzen zen. Kafea ere bai baina zaila zen usain fuertea duelako. Ama mandataria zenez horretaz baliatzen zen gauzak ekartzeko. Askotan harrapatu zuten eta zeramana kendu, azkenean ezagutzen zuten. Horregatik isunak jaso zituen amak.

Ni mandatari ere ibili nintzen gero eta kafea ere ekartzen zuen, niri ere harrapatu zidaten baina ez zidaten inoiz isunik jarri.

### Konfiskaziorik izan zenuten?

Kalean ez baina baserrian miaketak egin zizkiguten, amak, etxean zegoen ikurrina eta liburuak teilatu azpian ezkutatu zituen.

### Saturraraneko kartzela ezagutu zenuen?

Nire izeba bat, Agustina Arteondo, esnea eramatera joaten zen. Pentsatzen zuen presoentzat zela, baina mojak geratzen ziren honekin eta gero Ondarroan saltzen zuten. “Han miseria dago” esaten zigun. Guk, dendatik, paketea eramaten genuen astero, baita Amorebietakora ere. Tristura transmititzen zidaten niri.

Batzuk gero Deban bizitzen egon ziren. Santanderrekoa bat, Extremadurakoa, Avilakoa… extremadurarra zenak, Josefa zuen izena eta nire anai eta ahizpak zaintzen ibili zen. Oso emakume ona zen.

# Urain Urbieta, CASIANA



1936an jaio zen, Lastur auzoko Abeltxe baserrian. Justina Urbieta Garate eta Francisco Urain Urbieta ziren bere gurasoak, bost seme alabetatik zaharrena zen Casiana. Aita eta bere bi anai Fermin eta Martin, altxatutako tropek indarrez errekrutatu zituzten, hiru urte gerran pasa zuten.

### Zure gurasoak nolakoak ziren? Nola gogoratzen dituzu?

Nire ama izan zen lana egiten zuen emakume bat. Oso gutxi irteten zen kanpora, beti baserrian egoten zen. Ondarroara joaten zen ikatza hartuta. Ni jaio nintzenean nire aita gerrara joan zen eta hiru urte egin zituen ni ikusi gabe. Asko sufritu zuen nire amak. Hiru anai (aita, Fermin eta Martin anaiak) eraman zituzten gerrara frankistek behartuta eta denak bizirik etorri ziren.

### Nola etorri zen?

Nik 3 urte neuzkan eta gogoratzen naiz Deba eta Lasterreko kanala nola zen. Gu ari ginen etxe atzealdean sua egiten. Nire amaren anaiak esan zuen: “Ene! Aita dator”. Laga dena eta etxe aurrealdera joan ginen berarengana. Gogoratzen naiz niri hartu zidala eta estutu egin zidan asko. Hori dut gogoan. Ekarri zuen makuto izeneko gauza bat usaiarekin. Batzuetan esaten zuen ganaduaren aurrean egoten zela tapatzeko. Larruaren usaia ekartzen zuen, usai fuertea.

### Aita zertan egiten zuen lan?

Baserrian. Aitaita eta amama ere etxean genituen. Haiek umeak zaintzen zituzten eta ura ekarri ere, ez baitzegoen etxean. Aitak, gehien gehiena ikatza egiten zuen mendian. Egur-ikatza egiten zuen.

### Zer dakizu estraperloaren inguruan?

Nik ezer ere ez. Hemen ez zen egon. Egoera gaiztotu egiten zen guardia zibilak etortzen zirenean. Guk garai horretan, garia egiten genuen eta artoa ere bai. Jasotzen genuen guztiaren zati bat Udalari eman behar genion. Guardia Zibilak etxera etortzen zirenerako garoaren azpian ukuiluan sartzen genuen. Hala ere, dena errebisatzen zuten. Simaurra gainera bota eta han gordetzen genuen. Harrapatuz gero, kendu egiten ziguten, izugarria izaten zen.

### Norbait Frantziara joan zen ihesi?

Bai. Bi lehengusu joan ziren. Amaren ahizparen semeak ziren, bizkiak ziren. Haurdun zegoen eta hemengo mutil batekin zegoen eta izan zituenean ukatu egin zituen. Nire baserrian hazi ziren biak. Hazi zirenean lanean hasi nahi zuten. Pobre ginen baino denak jaten genuen. Zaharrena amarena joan zen bizitzera. Handik egin zuen ihes Frantziara. Bestearekin ere hartu-emana egin zuen eta joan egin zen. Mariana eta Loreso Urbieta zuten izena.

# Zulaika Idiaquez, EUGENIO



1931ko ekainaren 3an jaio zen Santuaranen (Itziar). Gerra zela eta, Zestoako baserri batean babestu ziren, frontea Itziartik pasa arte. Aita, Aldundiko kamineroa zen eta Ingeniarien batailoian jardun zuen, Bilbon kontzentrazio esparru batean izan zuten. Erbestera kondenatua izan zen.

### Aita gerrara joan zen

Gerra piztu zenean, aita Aldundian bidezain jarduten zuen. Bidezain eta bide berriak egiten harrapatu zuen, mobilizatua izan zelarik. Debara frontea iristean Durangon harrapatu zuen eta ezin izan zen gugana itzuli. Trintxerak egiten jardun zuen gerran zehar eta ondorioz Bilbon Kontzentrazio esparru batean izan zuten preso. Nire osaba bat ere, Julian, aitarekin joan zen Bizkaia aldera eta hanka bat galdu zuen Gernikako bonbardaketan.

### Nolakoa izan zen gerra hasiera?

Gerra hasi zenean, militar ugari iritsi ziren Debara, hauek, herritik bota ziguten, trastu guztiak astoetan kargatu eta Zestoara joan ginen gauez. Bertan hamabost egunez egon ginen.

### Aita gerran egon zen eta gero preso

Diputazioko langilea izanda, frontean jardun zuen eta ondorioz kaleratua izan zen eta herritik 30 kilometrotara bizitzera behartua bost urtez. Preso ere egon zen Bilbon, kontzentrazio esparru batean. Ostean, Elgoibarren bizitzea lortu zuen, fabrika batean lan eginez. Debara itzultzea lortu zuenean, berriro bidezain izatea lortu zuen.

### Familiakoren bat gehiago egon zen gerran?

Aitaren anaia, Andres Zulaica Beloqui, bi anaiak batera joan ziren. Gerran zebilela desagertu zen, ez dugu jakin ezer berea, ez dakigu non dagoen bere gorpua.

### SLBena gogoratzen zara?

Itziarren ibili ziren, errepidea egiten eta obrak burutzen ibili ziren. Urtia baserrian egoten ziren eta Itsaspen ere. Kanpotarrak ziren gehienak.

### Estraperloaren inguruan zer nolako oroitzapenak dituzu?

Inguru hauetan beti egon da estraperloa, itsasotik burutzen zen, itsasbeherak baliatuz. Horretarako gabarrak erabiltzen ziren. Nire aitaita Txirritarekin ibili zen estraperloan.

# Iturriak eta bibliografia

## Fuentes y bibliografia



SEXTA REGION MILITAR

6485 2707-

Plaza de San Sebastián. Año de 1940.

JUZGADO MILITAR Nº 4

DILIGENCIAS PREVIAS NUM. 3.800

Instruidas contra ANICETA ESNAOLA OSA - Fallecida

MARIA ULACIA ESNAOLA

Tomasa Ulacia Esnaola.

Dieron principio estas actuaciones el día 23-10-40.

Situación de las encartadas:

JUEZ INSTRUCTOR

D. JOSE MARIA LEBIN LOPEZ

El Comandante de Infantería D. Manuel Cano Otero

SECRETARIO.

Cabo Rgto. Mixto Ingres. nº 6

DON JOSE MASMIQUEL PUIG.

Otro. El teniente de Infantería Dn. Anastasio González Rodríguez

## ARTXIBOAK / ARCHIVOS

- Debako Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Deba
- Debako Erregistro Zibila / Registro Civil de Deba
- Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa
- Bizkaiako Artxibo Historiko Forala / Archivo Histórico Foral de Bizkaia
- Bizkaiako Artxibo Historiko Probintziala / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia
- Euskadiko Artxibo Historikoa / Archivo Histórico de Euskadi
- Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Tribunala / Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas de Navarra
- Euskal Memoria Fundazioa / Fundación Euskal Memoria
- Sabino Arana Fundazioa / Fundación Sabino Arana
- Aranzadi Zientzia Elkartea / Sociedad de Ciencias Aranzadi
- Memoria Historikoaren Dokumentazio Gunea / Centro Documental Memoria Histórica
- Artxibo Historiko Nazionala / Archivo Histórico Nacional
- Administrazioaren Artxibo Orokor Militarra / Archivo General Militar de la Administración
- Guadalajarako Artxibo Orokor Militarra / Archivo General Militar de Guadalajara
- Iparmendebaldeko Eskualde Militarreko Bitarteko Artxiboa / Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste
- Avilako Artxibo Orokor Militarra / Archivo General Militar de Avila
- Defentsako Artxibo Orokor eta Historikoa / Archivo General e Histórico de Defensa
- Askapen Nazionaleko Gerraren Artxiboa / Archivo de la Guerra de Liberación Nacional

## HEMEROTEKA / HEMEROTECA

- Bizkaiako Liburutegi Forala. / Biblioteca Foral de Bizkaia
- Donostiako Liburutegi Digitala. / Biblioteca Digital de Donostia
- Espainiako Liburutegi Nazionala. Hemeroteka Digitala. / Biblioteca Nacional de España. Hemeroteca Digital.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hemeroteka Digitala. / Diputación Foral de Guipuzkoa. Hemeroteka Digital.
- Koldo Mitxelena Kulturunea

## AHOZKO ITURRIAK / FUENTES ORALES

**Ahotsak.eus**
- Aizpurua Egaña, Sebastian (DEB-026)
- Irusta Mugarza, Jose Luis (DEB-001)

**Aranzadi Zientzia Elkartea:**
- Aguirregabiria Aizpurua, Josefa Juana
- Aizpurua Askasibar, Bizenta
- Alcibar Sorazu, Asuncion
- Aldalur Urkiri, Apolinar
- Altzibar Osa, Patxi
- Altzibar Sorazu, Juan
- Amuchastegui Echave, Iñaki
- Aranberri Ostolaza, Manuela Teresa
- Arozena Egaña Josefa
- Arrizabalaga Alberdi, Prudencio
- Arrizabalaga Oñederra, Miren Itziar
- Arrona Salegui, Josefa Agustina
- Azkoitia Deba, Itziar
- Azkoitia Deba, Miren
- Berasaluce Markiegi, Xabier
- Berezibar Aranburu, Carmele
- Egaña Alberdi Mari Carmen
- Elosua Agirre, Conchi
- Elosua Gorostola, Itziar
- Endeiza Zubeldia, Maria Teresa
- Galdona Chapartegui, Jesus
- Garate Garate, Angel
- Irastorza Lizarzaburu, Karmele
- Iriondo Lizarzaburu, Asuncion
- Iriondo Mendizabal, Miren
- Iriondo Mendizabal, Miren Garbiñe
- Iriondo Salinas, Maite

- Izaguirre Salegi, Manuel Martin
- Izaguirre Salegi, Maria Isabel
- Osa Maguregui, Josefa Ignacia"Josefina"
- Riesgo Oñederra, Carmen
- Unanue Egaña, Kontxi
- Urain Urbieta, Casiana
- Zulaika Idiaquez, Eugenio

## BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

Agirreazkuenaga, J., Urquijo, M. (Zuz.), 2015. Senderos de Memoria. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Aguirregabiria, J.M., 2014. La batalla de Villarreal de Álava: Ofensiva sobre Vitoria-Miranda de Ebro, noviembre y diciembre de 1936. Ediciones Beta III Milenio, Bilbo.

Aizpuru, M. (koord), 2007. El otoño de 1936 en Guipúzcoa: Los fusilamientos de Hernani. Alberdania, Irun.

Amilibia, M.A., 2006. El diario de la nostalgia. Txalaparta, Tafalla.

Anonimoa., 2012. Polentzi Markiegi. Markiegiren fusilamenduaren 75. urtemuga. Berriketan aldizkaria 2012ko urria.

Badiola Ariztimuño, A., 2015. La represión franquista en el País Vasco: Cárceles, campos de concentración y batallones de trabajadores en el comienzo de la posguerra. UNED.

Barruso, P., 1994. El movimiento obrero en Gipuzkoa durante la II República. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Bermejo, B., Checa, S., 2006. Libro Memorial, españoles deportados a los campos nazis (1940-1945). Ministerio de Cultura, Madrid.

Buces Cabello, J., 2016. Azpetia 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkartea, Azpeitia.

Buces Cabello, J., 2017. Eusko Gudarostea. Aranzadi Zientzia Elkartea, Azpeitia.

Buces Cabello, J., 2017. Gautegiz Arteaga 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Buces Cabello, J., Querejeta Casares, E., 2016. Gipuzkoako aldundiko langileak 1936. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.

Castro, L., 2006. Capital de la cruzada. Crítica, Barcelona.

Chueca, J., 2007. Gurs: el campo vasco. Txalaparta, Tafalla.

Chueca Intxusta, J., et al., 2010. Lau Haizetara: Gerra Zibilaren ondorengo erbesteaz. Udako Euskal Unibertsitatea.

De La Cuesta Arzamendi, J.L., Etxeberria Gabilondo, F. (zuz.), 2009. Situación penitenciaria de las mujeres presas en la cárcel de Saturraran durante la Guerra Civil Española y la Primera Posguerra. Emakunde, Donostia.

Debako Udala (ed.), 1977. Deva, ayer 260 fotografías. Debako Udala.

Echeandia J., 1945. La persecución roja en el País Vasco. [s.l.: s.n.].

Egaña, I., 2004. 1936, Guerra civil en Euskal Herria. Aralar liburuak, Andoain.

Egaña, I., 2009. Los Crímenes de Franco. Txalaparta, Tafalla.

Errazkin Agirrezabala, M., 2013. Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945. Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Espainiako iparraldeko industriaren, merkataritzaren, nekazaritzaren, lanbideen, artearen eta turismoaren urtekaria, eskualdekoa. Deskribapena, informazioa eta hautaketak. 1. argitalpena, Anuarios regionales de España, Madril, 1932. / Anuario Regional. Descriptivo, informativo y seleccionado de la industria, comercio, agricultura, profesiones, arte y turismo del Norte de España. Comprende las provincias de Galicia, Asturias, Santander y Vascongadas. 1ª edición. Anuarios regionales de España, Madrid, 1932.

Eusko Jaurlaritza, Segurtasun Saila: http://www.euskadi.eus/informazioa/hauteskundeetako-emaitzen-artxiboa-bigarren-errepublikako-emaitzak/web01-a2haukon/eu/.

Ferreiro Currás, A., 2013. Consejos de Guerra contra el clero vasco (1936-1944): La Iglesia Vasca vencida. Intxorta 1937 KE, Oñati.

Garcia Elosua, E., 2017. Florencio Markiegi hijo predilecto de Deba desde el 15 de mayo de 1988, Deba aldizkaria 98, 33-42.

Garcia Elosua, E., 2018. Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (I), Deba aldizkaria 99, 20-27.

Garcia Elosua, E., 2018. Algunos sucesos en Deba durante la Guerra Civil (II), Deba aldizkaria, 100, 54-64.

Gipuzkoa 1936, Gipuzkoako Foru Aldundia. http://www.gipuzkoa1936.com/.

Gutiérrez Arosa, J., 2007. La Guerra Civil en Eibar y Elgeta. Eibarko Udala, Eibar.

Hernández de Miguel, C., 2019. Los Campos de Concentración de Franco. Penguin Random House Group Editorial, Barcelona.

Jiménez de Aberasturi Corta, L.M., 2003. Crónica de la Guerra en el Norte 1936-1937. Txertoa, Donostia.

Jiménez Sanchez, J., [2015]. Listado de Vascos inhumados en el cementerio de El Sucu, Ceares Gijon (Asturias). Aranzadi Zientzia Elkartea. Informe inédito.

Laka, X., Ariznabarreta, O., Gurrutxaga, J.M., 2006. Duela 70 urte, irailaren 23an... Gerratea. Debak eta Itziarrek ere badute zer kontaturik. Berriketan aldizkaria, 2006ko iraila.

Lopez Alonso, T., Gallo Roncero, S., 2013. San Marcos, el campo de concentración desconocido. Aerle, Leon.

Pardo San Gil, J., 2008. Euzkadiko gudontzidia 1936-39. Untzi Museoa, Donostia.

Rodrigo, J., 2005. Cautivos: campos de concentración en la España franquista, 1936-1947. Crítica, Barcelona.

Rodriguez Oñatibia, A., 2019. Errenteria 1936-1945. Errenteriako Udala, Errenteria.

Sierra, F., Alforja, I., 2006. Fuerte de San Cristobal 1938: La gran fuga de las cárceles franquistas. Pamiela, Iruñea.

Suárez, X.M., 2010. La tragedia del Mar Cantábrico y otros apresamientos navales en la Guerra Civil, Drassana 88,72-81.

Urgoitia Badiola, J.A. (zuz.), 2001-2003. Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular (5 lbk.). Sendoa, Oiartzun.

Vargas Alonso, F.M., 1996. Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular de Euskadi (1936-1937). Bilduma 10, 45-84.

Vargas Alonso, F.M., 2001. El Partido Nacionalista Vasco en Guerra: Euzko Gudarostea (1936-1937). Vasconia 31, 305-343. Disponible en: http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas31/31305343.pdf.

Vargas Alonso, F.M., 2002. Los Batallones de los Nacionalismos Minoritarios en Euskadi: AN, EMB, STV (1936-1937). Vasconia 32, 517-547.

Vargas Alonso, F.M., 2015. Milicianos. Las bases sociales del Frente Popular en Euskadi y la defensa de la República. Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Zulaica, J., 1988. Violencia vasca única metáfora y sacramento. Nerea, Madrid.

## ARGAZKI FUNTSAK / HEMEROTECA

- Aranzadi Zientzia Elkartea / Sociedad de Ciencias Aranzadi
- Euskal Memoria Fundazioa
- Gure Gipuzkoa: Gipuzkoako Foru Aldundia
- Kutxa Fototeka: Gipuzkoa Donostia Kutxa

## LIBURUAN ZEHAR ERABILITAKO LABURDURAK / ABREVIATURAS UTILIZADAS EN EL LIBRO

- AIRMN: Ferroleko Agiritegi Militarra / Archivo Intermedio de la Región Militar Noroeste.
- AGA: Administrazioaren Agiritegi Orokorra / Archivo General de Administración.
- AGMA: Avilako Agiritegi Militar Nagusia / Archivo General Militar de Avila.
- AGMG: Guadalajarako Artxibo Militar Nagusia / Archivo General Militar de Guadalajara.
- BAHP / AHPV: Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala / Archivo Histórico Provincial de Bizkaia.
- BOE: Estatuko Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial del Estado.
- BOG: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala / Boletín Oficial de Gipuzkoa.
- DUA / AMD: Debako Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Deba.
- CDMH: Memoria Historikoaren Zentro Dokumentala / Centro Documental de la Memoria Histórica.
- EAH / AHE: Euskadiko Artxibo Historikoa / Archivo Histórico de Euskadi.
- GAPH / AHPG: Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala / Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa.
- TRRPN: Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualdeko Auzitegia / Tribunal Regional de Responsabilidades Políticas de Navarra.



DEBAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE DEBA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
*Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia*
*Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
*Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza*

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
*Dirección de Víctimas y Derechos Humanos*

aranzadi
zientzia elkartea

SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES